

VERSAILLES-KO GORTEAN II

**Liburu bigarrena
(1712-1715)**

Solas-aitzin

Bakea azkenean ukanen den orduan, ustegabekoa, dukeak dionaz Probindenziak emana, zorigaitzak berriz joiten du erret-familia, politikaren alhorra irauliz: Monseigneur doi-doia hila eta, Burgoñako dukesa eta dukearen aldi, Fénelon-en ikaslea, gure dukea eta bertze hainbertze haren ganik gobernu zuzenaren eta Estatuaren bermoldatzearen beha zaudelarik, gero hauen seme zaharrenaren: pozoina ote? Erreienziaz gogatzeko ordua, eta San-Simunek, Orléans-ko dukearen adixkide minak, badu zer egin kargu eta konseiluetako uste dituen hoberenen hautatzen. Eta, 77 urtetaratzean, Luis XIV-garrenak erreinu luzegia bururatzen du: eritasuna eta heriotzea gorteko ikusgarri eginak, duke zelatariaren egunkari xehean. Aitzinean, Maintenonsak eta Maine-ko duke baxtart hautetsiak egin-arazia daukote delako testamendu aipatua, iloba Erreient beharra, Orléans-ko dukea, bothere ‘ta larderia gehienaz buluzten duena baxtartaren abantailetan. Parlamentuko bilzarre beteak, duke ‘ta pareak barne, hausten du, Erreienta bere zuzenbide osoan ezartzen: *Orhoitzapen*-etako ordu handietarik bat. “Mende” berri bat hastera doa ...

Avant-propos

Au moment où la paix enfin va être obtenue, inespérée, providentielle selon le duc, le malheur frappe à nouveau la famille royale, bouleversant le champ politique. Monseigneur à peine mort, c’est le tour de la duchesse et du duc de Bourgogne, l’élève de Fénelon, dont notre duc et tant d’autres attendaient un gouvernement juste et la réforme de l’Etat, puis de leur fils aîné: le poison, peut-être? Il est temps de penser à la Régence, et Saint-Simon, ami intime du Régent, a fort à faire à choisir ceux qu’il croit les meilleurs pour les charges et les conseils. Et, à la veille de ses 77 ans, Louis XIV achève son règne trop long: la maladie et la mort mises en scène, dont le duc aux aguets nous donne le journal détaillé. Auparavant, la Maintenon et le duc du Maine le bâtard favori lui ont inspiré le fameux testament, qui dépouille son neveu et futur Régent, le duc d’Orléans, de la plupart de son pouvoir et de son autorité au profit du bâtard. Le parlement en assemblée plénière, ducs et pairs présents, le casse, remet le Régent dans tous ses droits: l’un des grands moments des *Mémoires*. Un “siècle” nouveau va commencer ...

J.-B. O.

I

Erretetxeko heriotzeak eta Erregeren testamendua

1712

Delfinak pozoinez mehatxatuak

Urtarrileran 18-ko astelehenean, Errege Marly-ra joan zen. Bidaia hori bereziki marratzen dut. Gortea han jarria baizik etzen Boudin-ek, Andere Delfinaren lehen medikuak eta ainitz jostatzen zuenak, Monseigneur-ena ere izana zenak et bertze nunbait aipatua dutanak, abisatu zuelarik bere burua zain zezan, bazituela abisu segurrak pozoindatu nahi zutela eta Jaun Delfina ere, huni berdin mintzatzen zizakola; etzen hortan gelditu, saloin betean erasan zuen, itxura ohildu batekin, eta jende guzia izitu zuen. Abisua ona zela segur eman zuen beti, berak nundik heldu zizakon jakin gabe bizkitartean, eta ezpai hortan berme egon zen, ezen abisua nundik heldu zizakon ezpazakien, nolaz zezakeen estima eta ona zela segurta? Lehenbiziko ufa bat izan zen, zituen adixkidek hautsi zutena; baina solas publikoa igorria izana zen eta errepikatua. Biziki bitxia izan zena, Boudin-i eman abisu horren ondotik hogeita-laur orenen inguruan, Jaun Delfinak berdin bat ukan zuela Espainiako erregeren ganik da, argitzerik gabe emaiten zukona eta nehoren izenik gabe, baina ontsa jakina zenak bezala. Huntan etzen Jaun Delfina baizik argiki aipatzen eta Andere Delfina argitu gabe. Bederen horrela zen Jaun Delfina mintzatu, eta nehor gehiagokorik erran duenez eztut jakin. Airean zauden gauza horiek gutiesten balire bezala egin zen, ethorkia etzizeelakoan ezagutzen; baina barnealdea etzen hortaz joa gabe egon, eta seriostasun ixil eta lastimazko bat hedatu zen gortean, ohiko egintzen eta josteten artetik.

Catinat marexalaz

Hain usu aipatu dut hemen Catinat marexala, haren bertutea, zuhurtzia, lañotasuna, abantail nahigabea, haren sendimenduen goientasun hain arraroa, kapitaingoan zituen alderdi handiak, nun ezpaitzata gehiago haren heriotzea baizik erraiteko gelditzen adin biziki aitzinatu batean, ezkondua izan gabe, eta aberastasunik batere bildu gabe, bere Saint-Gatien-go etxe tipian, Saint-Denis-ko ondoan, hara erretiratua baitzen, urte andana zenbaitez geroz handik athera gabe, eta ezpaitzuen han abantzu nehor onhartu nahi. Gogoratu zuen, bere xoiltasunaz, jan-edan urriaz, munduaren gaitzesteaz, eta ibileraren molde

berdinaz, gizon handi haien orhoitzapena, irabaztetako besta merexituenen ondotik, gostuan itzultzen baitziren bere goldenabarretara, beti bere herriaren maitari, eta hain ontsa zerbitzatua zuten Erromaren eskergaitzaz guti sendikor. Catinat baliatu zen bere filosofiaz debozione handi batekin. Izpiritua bazuen, zentzu handi bat, gogoetatze ondu bat, zen gutia etzuen behin ere ahatzi. Soinekoak, zaldi-karroseria, mubleak, etxea, oro daitezkeen xoilak zituen. Handia zen, beltzarana, itxura gogoetatua et aski baratza, aski aphala, begiak ederrak eta azki izpiritudunak. Deitoratzen zituen etengabe elgarri jarraitzen ikusten zituen huts ageriak, lehiakidetasun ororen agortzea, aberaskeria, jakingabea, lerroen nahastea, poliziaren lekuan inkesteria; ikusten zituen hondamenaren seinale guziak, eta bazion etzela nahasmenaren mukurru biziki lanjeros bat baizik erresuman ordenua azkenean ekhar zezakeenik.

Andere Delfinaren eritasuna eta heriotzea

Errege, errana dutan bezala, Marly-ra joana zen urtarrileko 18-ko astelehenean. Andere Delfina goizik hara ethorri zen aurpegian hantura handi batekin, eta heltzean ohean sartu. Zazpi orenetan jeiki zen, Erregek nahi ukan baitzuen saloina atxik zezan. Han jostatu zen gambarako jantzietan, burua dena minginotatua, Errege ikusi zuen Maintenon-go Anderearen egoitzan auhal-aitzin, eta hortik ohera joan zen, han auhaldu baitzen. Biharamun 19-an etzen jeiki saloinean jostatzeko eta Erregeren ikusteko baizik. 20-an, hantura ttipitu zen, hobeki izan zen; hortara aski aihor zen hortzak andeatuak ukanez. Ondoko egunak beti bezala ereman zituen.

(...)

1. Azken egunak

Otsailaren 5-eko ortziralean, Noailles-ko dukeak eman zaukon Andere Delfinari untzi ttipi biziki eder bat Espainiako tabako hoberenaz betea, hartarik hartu baitzuen eta biziki ona aurkitu. Goizaren azkenerat izan zen; nehor hara joaiten etzen bere gabinetean sartzean, untzia mahiaren gainean ezarri zuen eta han utzi. Arrastirira sukarrak hartu zuen ikara batzuekin. Ohean sartu zen eta etzen jeiki ahal izan, Erregeren gabinetera joateko ere, auhaldu eta. Ebiakoitzean 6-an Andere Delfina, gau guzia sukarretan egonik, etzen bere oren ohituan jeiki gabe egon eta eguna berdina iragan gabe, baina arratsean sukarrak berriz hartu zuen. Iraun zaukon hein batez gau guzian, eta igande 7-an oraino gutiago; baina arratsaldeko sei orenak hirian, oinaze batek hartu

zuen bapatez polsu gainaldean, sei soseko bat bezenbat hedatzen etzena, baina hain bortitza non ikustera heldu zizakon Errege sar etzadin othoiztu baitzuen. Halako oinaze errabia horrek iraun zuen gelditu gabe astelehen 8-rano, eta ihardoki tabako kheari eta ahoan xehatuari, opium ainitzi eta besotik bi odol ekhentzeri. Sukarra gehiago agertu zen oinazeak aphur bat eztituak izan zirenean; erran zuen erditzean baino gehiago oinaze ukana zuela.

Hain izaite bortitzak gambara zurrumurrutan ezarri zuen Noailles-ko dukeak emana zaukon untziaz. Ohean sartzean ukana zuen egunean eta sukarrak hartu zuenean, ortzirale 5-a baitzen, bere anderekin aipatu zuen, untzia eta tabakoa azkarki laudatuz, eta gero Lévi-ko Andereari erran bila joan zadin han mahi gainean aurkituko zuen gabinetera. Lévi-ko Andereak joan zen, eta etzuen aurkitu; eta labur emaitako, ikerraldi mota oro eginik, gabinetean mahi horren gainean Andere Delfinak utziz geroz etzen ehoiz berriz ikusi. Ezeztatze hori azkarki ohi ez bezalakoa iduritua izana zen ohartu zizakon orduko, baina jarraikiak izan ziren bilatze debaldetakoek, hain ixtripu bitxi eta lasterrekin ondotik, aieru ilunenak eman zituzten. Etziren joan untzia emana zuenerano, edo mugatuak izan ziren hain orotako zuzenean nun ezpaitziren hartarano heldu. Zurrumurrua gelditu zen ere inguru guti hedatu batean. Ainitzen beha zauden beti prinzesa adonatu baten ganik, inguru ttipi hori egiten zuten mail ezberdinetakoen fortuna haren biziari lotua baitzen ere. Tabakotik hartzen zuen Erregek jakin gabe, beldur gabe, Maintenon-go Andereak baitzakien; baina hori jakin balu egiazko egiteko bat izanen zen harekin, eta horrek zuen izitzen untziaren galtze bitxia agertuz.

Astelehenetik otsaileko astearte 9-rako gaura egun osoan erdi-lo handi bat izan zen, bitartean Errege ainitzetan ohera hurbildu baitzen, sukarra azkar, atzarraldiak labur eta burua hartua, eta orbain batzu larruan mingorria izanen zelako esperanza eman-arazi zutenak, ainitz jende ezagun hartaz hartuak baitziren ere ordu hartan berean Versailles-en eta Parisen. Asteartetik astezken 10-erako gaua hanbat gaizkiago iragan zen nun mingorriaren ustea ordukotz ezeztatua baitzen. Errege jin zen goizean Andere Delfinaren gambarara, huni goitikakoa eman izana zizakolarik. Ondorioa nahi ahal zaitekeen bezalakoa izan zen, baina arintzerik batere ekharri gabe. Jaun Delfina, ohe sahetsetik ezpaitzen higitzen, baratzetara jaustera bortxatu zen aire hartzeko, horren behar handi baitzuen; baina khexuak berehala gambarara itzul-

arazi zuen. Arratsera gaitza handitu zen, eta hameka orenetan sukarra ainitzez azkartu. Gaua biziki gaixtoa izan zen. Ortzegunean, otsailaren 11-an, Errege Andere Delfinaren egoitzara sartu zen goizeko bederatzieta, Maintenon-go Anderea etzelarik abantzu batere handik atheratzen, Errege haren egoitzan zen orduetan ezpada. Printzesa hain gaizki zen nun deliberatu baitzen sakramenduen ukaitearen aipatzea. Zenbat behekitua bazen ere, ustegabetua gertatu zen; hartan zen heinaz galdeak egin zituen, ihardespenak ahal bezain guti beldugarriak egin zizazkon, eta emeki emeki ez igurikatzeko arrazoinak eman. Aholkuaren zintzotasunaz eskertu zituen, eta hortara jarriko zela erran.

Ephe guti barne gerta zaitekeenaz beldur izan ziren. A. La Rue, jesuista, bere kofesaria eta iduriz beti maitatua zuena hurbildu zizakon kofesatzea gibela etzezan sustatzera. Behatu zaukon, ontsa entzuten zuela ihardetsi eta hortan gelditu zen. La Rue-k eskaini zaukon ordu berean egitea eta etzuen ihardespenik batere ukan. Gizon izpirituko bezala zer zen senditu zuen, eta gizon on bezala ordu berean itzuli zen (...) Orduan entzun-arazi zaukon ontsa gozo izanen zizakola Bailly Jaunari kofesatzea, Versailles-ko parropiako aphez misionetako bat. Gizon estimatu bat zen, gortean zen zuzenena kofesatzen zuena, eta, orduko hitzetan, jansenista izaiteko aierutik garbi etzena, nahiz gauza biziki bekana bixardun horietan. Châtelet-ko eta Nogaret-ko Andereak, jauregiko andere zirenak, kofesatzen zituen, Andere Delfinak horier batzuetan aipatzen entzuna baitzeen. Bailly Parisera joana gertatu zen. Printzesak penatua iduritu zuen eta haren igurikatzeko gutizian; baina, A. La Rue-k erranik on zela ephe baliagarri baten ez galtzea, elizakoak ukan eta gero, medikuez ongi baliatua izanen zena, A. Noël izeneko errekolet bat galdegin zuen, A. La Rue ordu berean bila joan baitzizakon, eta ekharri.

(...) Kofesioa luzea izan zen. Oliadurak eman zizazkon berehala, eta ordu berean elizakoak, Errege ongi-ethorri egitera joan baitzizakon mailadi handiaren behean. Oren bat berantago Andere Delfinak galdegin zuen heriora zoazinen othoitzak egin ziten. Erran zaukoten etzela hein hartan, eta elhe gozagarriez lokartzera entsega zadin sustatu. Angeleterrako erregina jin zen bazkal-ondoan goizik; eremana izan zen galeriatik Andere Delfina zen gambaratik berexten zuen saloinera. Errege eta Maintenon-go Anderea saloin hartan ziren, hara sar-arazi baitziren medikuak konsultaren egiteko haien aitzinean: zazpi ziren gortekoak edo Paristik ekharriak. Guziek hitz batez oinetik odol

ekhentzeko eritzia eman zuten sukarra azkartu baino lehen; eta, nahi zuten ondorioa emaiten ezpazuen, goitikakoaren emaita gaua bururatu baino lehen. Odol ekhentzea egina izan zen arratseko zazpietan. Sukar azkartzea egin zen, aitzinekoa baino ahulagoa iduritu zizeen. Gaua biziki gaixtoa izan zen. Errege jin zen goiz-goizik Andere Delfinaren gambarara. Bederatziak hirian hartu zuen goitikakoak ondorio guti eman zuen. Eguna iragan zen batzu bertzeak baino seinale gaixtoagotan, ezagutza arteka eta bekan. Arratsera burua nahasi zen, ainitz jende gambaran sartzera uzten zela, nahiz han zen Errege, azken hatsa Andereak eman baino guti aitzin athera baitzen, karrosara igan mailadi handiaren oinean Maintenon-go Anderearekin eta Caylus-koarekin, eta Marly-ra joan. Bat eta bertzea bihotz-min saminenean ziren, eta etzuten Jaun Delfinaren egoitzan sartzeko indarririk ukan (...)

2. Prinzesa maitagarri eta jostakin bat

Nehoiz etzen prinzesa hain gazte bat hain ontsa ikasia ethorri, eta etzuen batek jakin ukanak zituen ikaskuntzen hobeki baliatzen. Zuen aita antzedunak, gure gortea ezagutzen baitzuen, marrazkitua zaukon, eta han zorionera heltzeko molde bakarra erakatsia. Jitezko izpiritu ainitzak eta errexak lagundu zuen; eta alderdi on maitagarri ainitzek bihotzak eratxiki zauzkoten, zuen izaerak senarrarekin, Erregerekin, Maintenon-go Anderearekin erakarri zauzkolarik handi-nahiaren gizamenak. Hortara lan egiten ikasia zuen ethorri zen lehenbiziko orduetan beretan; etzen bizi izan zeno hoin lan baliagarrian jarrikitzetik gelditu, horren ekoizpen guziak beti bildu baitzituen. Eztia, herabea, baina trebea, ona norbaiti den bihotz-min ttipienaren egiteaz beldur izaiterano, eta, zen arin eta bizi guzia izana gatik, biziki gai hats luzeneko ikuspegi eta jarripenerako; aspertzerano hertsatua izaitheak, horren phizu guzia sendi baitzuen, etzaukon iduriz ezer gostatzen. Atsegingarri izaithe bere baitan zuen, bere baitarik zarion; hala zen bere gorteko ere.

Erregulariki itsusia, matelak eroriak, bekokia aitzinatuegia, jeus etzion sudur bat, ezpain lodi ausikari batzu, ile eta bekain beltzaran batzu biziki ontsa landatuak, begiak errankorrenak eta munduko ederrenak, hortz guti eta denak ustelak bera lehena baitzen hetaz mintzatzeko eta trufatzeko, lar-kolorea eta larrua ederrenak, ugatz guti baina miragarria, lephoa luze gaizki etzizoakon golo aphur batekin, buru-antze pollita, garaziaduna, maistateduna eta soa berdin, irriño bat sarkorrena, soin-ara luxe, biribil eta xehea; errexak, beteginki egina, urratsara jainkosa batena hedoietan; azken heinerano laket-garria zen.

Garaziak bere baitarik sortzen ziren haren urratsetan, ibilera guzietan eta hitz arruntenetan. Itxura beti xoilu eta jitezkoa, usu lañoa, baina izpirituz gazitua, haren baitan zen errextasunarekin, hurbiltzen zizakon orori emaiterano.

Jende ezteusetako eta artekoener berdin gustatu nahi zuen, hori bilatzen zuela iduri ukan gabe. Beti osoki eta bakarrik haiekin zen jendetara emana zelako uste ukaitera ekharria zinen. Haren alaitasun gazteak, biziak, erneak, oro phizten zuen, eta ninfa baten arintasunak bazeraman orotara leku multzo bat aldi berean betetzen dituen zirimola bat bezala, emaiten dauela higia eta bizia. Ikusgarri guziak aphaintzen zituen, besta, atsegin eta jantzaldien arima zen, eta han loriatzen zuen bere jantzaren garaziez, zuzenaz eta beteginaz. Maite zuen jokoa, joko ttipian jostatzen zen ere, orok jostatzen baitzuen; nahiago zuen alta gotorra, han garbi zen, zuzen, munduko jokolari ederrena, eta ephe batez egiten zuen bakoitzaren jokoa; berdin alegera eta jostatua, arratsaldetan, irakurgai serio egiten, hetaz solastatzen, eta bere andere serioekin lanean: hola deitzen ziren haren jauregiko andere adinekoenak. Jeus etzizakon aski izan, osagarriano, gauza ttipienetarano jeus etzuen ahatzi, eta gelditu gabe, Maintenon-go Anderearen beretzeko, eta haren bidez Erregeren. Haien aldera zuen malgutasuna berdinek gabea zen eta nehoiz etzen ephe batez aldatu. Haien ezagutzeak bazemon lañotasun guziaz laguntzen zuen, ikasteak eta egiteak ukan-arazia zaukotena, behar ziren alaitasunaren eta neurriaren heinean izaiteko. Atsegina, gozoak, berriz ere diot, osagarria bera, guzia haier utzia izan zizeen. Bide hortaz hartu zuen haiekilako etxekotasun bat, Erregeren haur bat, ez eta baxtartak ere, hurbildu ahal etzizakona.

Jenden aitzinean, seriosa, neurtua, Erregerekin errespetuan, eta behar bezalakotasun herabean Maintenon-go Anderearekin, ehoiz etzaukola *izaba* baizik erraiten, lerroaren eta adixkidantzaren polliki nahasteko. Barnean, elhekaria, jauzika, haien inguruan hegaldaka, noiz baten edo bertzearen jargiako besoaren puntan, noiz haien belhaunetan jostatuz, lephora jauzten zizeen, besarkatzen, musu egiten, pherekatzen, ximurdikatzen, kokots azpia thiratzen, akitzen, haien mahiak miatzen, paperrak, eskutitzak, hauk idekitzen, batzuetan hek nahi gabe irakurtzen, irri egiteko omorean ikusten zituen ber, eta batzuetan haien gainetik mintzatuz. Orotara onhartua, berri gotorrenak ekhartzen zituzten eskutitzen hartzera, Erregeren egoitzan sartuz oren oroz, konseiluetako ephe batzuetan ere, minixtroer berer baliagarria eta zorigaitzekoa, baina

beta ongi egitera ekharria, zerbitzura, desenkusatzera, onera, norbaiten kontra ezpazen bortizki bultzatua, Pontchartrain-en kontra izan zen bezala, batzuetan Erregeri izendatzen zaukola *zure oker itsusia*, edo arrazoin nagusi zenbaiten gatik, Chamillart-en kontra izan zen bezala. Hain libroa, nun arrats batez Errege eta Maintenon-go Anderea entzuten zituela Angeleterrako gorteaz sendimendurekin mintzo erregina Anaren ganik bakearen aiduru egon zenean: “Izaba, erraiten hasi baitzen, onhartu behar da Angeleterraren erreginek erregek baino hobeki gobernatzen dutela, eta badakizua zer gatik, ene izaba?” eta beti lasterka eta jauzika, “erregen azpian emaztek gobernatzen dutelakotz, eta erreginen azpian gizonek.” Miragarri dena da biek irri egin zutela eta arrazoin zuela aurkitu (...)

Sei egun berantago, Jaun Delfinaren heriotzea

1. Gaitza lasterrez

Marly-n zen gorte guzia, orduan biziki guti, saloin handian zen. Printze, prinzesa, sartze handiak ttipian zauden, Erregeren eta Maintenon-go Anderearen egoitzen artean; hau bere gambaran, Erregeren atzartzea jakinik, haren egoitzan sartu baitzen bakarrik saloin ttipi hortan gaindi, han zen guzia guti berantago sartu zen ere. Jaun Delfinak, gabinetetarik sartu baitzen, jende hori guzia Erregeren gambaran aurkitu zuen, hunek, ikusi orduko, deitu baitzuen samurki besarkatzeko, luzaz eta berrhetuz. Lehenbiziko ordu hain hunkigarri horiek etziren nigar eta hipaz moztu hitz batzuekin baizik iragan.

Errege, aphur bat berantago, Delfinari behatuz, izitua izan zen gu gambaran izanak ginen gauza berez. Erregerenean zen guzia hala izan zen, medikuak bertzeak baino gehiago. Erregek manatu zeen pulsua miha zezoten, gaixtoa aurkitu baitzuten, gero erran zutenaz; etzela garbi erranez gelditu ziren ordu hartan, eta ohean sartzera joan zadin on zatekeela. Erregek besarkatu zuen berriz ere, bere burua zain zezan gomendatuz biziki samurki, eta etzatera joan zadin manatu zaukon. Goizean aski berant zen; Erregek gau gaixto bat iragana zuen, eta buruan azkarki min; bazkarian jin ziren gortelari gotor gutiak ikusi zituen. Arratsaldean Delfinaren ikustera joan zen hunen sukarra handitua baitzen eta pulsua oraino gaizkiago, Maintenon-go Anderearen egoitzara iragan, auhaldu bere egoitzan bakarrik, eta guti egon bere gabinetean, hara sartzera ohituak zirenekin. Delfinak etzituen ikusi bere meninak baizik, eta ephe batzuez, medikuak, guti Jaun anaia, aski bere

kofesaria, aphur bat Chevreuse-ko Jauna, eta eguna othoitzean ereman zuen, eta irakurgai saildu egin-arazten. Marly-ko zerrenda egin zen, eta onhartuak abisatuak izan ziren Monseigneur-en heriotzean egin zen bezala, bat bertzearen ondotik ethorri baitziren.

Biharamunean igandean Errege bezperan egina zuen bezala bizi izan zen. Delfinaz khexua handitu zen. Berak etzaukon gorde Boudin-i, Du Chesne-ren eta Cheverny-ko Jaunaren aitzinean, atherako zela etzuela uste, eta sendi zuenaren araura, Boudin-i jakin arazia zena egina izana zela etzela dudana. Aldi bat baino gehiagotan berdin mintzatu zen, eta beti munduaren, handirik duen guziaren alderako atxikimendu gabe, eta gutieste batekin, Jainkoaren nahitaratze eta amodio berdinek gabe batzuekin. Ezin erran daiteke guzien lastima. Astelehen 15-ean Erregeri odola ekhendu zizakon eta Delfina etzen bezperan baino hobeki izan. Erregek eta Maintenon-go Andereak ikusten zuten berex egunean aldi bat baino gehiago. Bertzerik, Jaun anaia baizik ephe batzuez, meninak abantzu batere, Chevreuse-ko Jauna aphur bat, beti irakurgaietan eta othoitzetan. Astearte 16-an gaizkiago izan zen, su suntsitzale batek iresten zuela sendi zuen sukarrak kampa ihardetsi gabe; baina pulsua, barna eta biziki ohigabekoa, biziki mehatxagarri zen. Astearte hori gaitzagoa izan zen oraino, baina enganagarri; aurpegian zituen orbainak soin guzira hedatu ziren. Mingorriaren hatzak bezala hartu ziren. Uste gozagarri hortan egon ziren; baina medikuek eta gorteko ohartuenek etzuten ahatzi ahala hatz horiek berak agerturik izanak zirela Andere Delfinaren soinean, gambaratik kampo hau hil ondoan baizik jakin etzena.

Asteazken hamazazpian, gaitza ainitzez handitu zen. Berriak banazkien ordu oroz Cheverny-ren ganik, eta Boudluc ephe batzuez gambaratik atheratzen ahalzenez mintzatzera heldu zizatan. Erregeren hauteko botikario bat zen, bere aitaren ondotik beti gurea izana zena eta oraino hala zena atxikimendu handi batekin, eta mediku hoberenek bezenbat bederen bazakiena, phorogatu dugun bezala, eta horrekin izpiritu eta ohore ainhitz, lañotasun eta zuhurtzia. Deus etzaukun San-Simun-go Andereari eta bier gordetzen. Andere Delfinaz uste zuena argiki baino hobeki errana zaukun; berdin garbiki mintzatua zizatan bigarren eguneko bereko Jaun Delfinaz. Enuen beraz itxaropenik, baina gerta dadi alta esperanza ororen kontra esperatzen dela.

Astezkenean oinazeak azkartu ziren su iresle oraino bortitzagoko batenak bezala; arratsean, biziki berant, Delfinak igorri zuen Erregeri

biharamunean goiz-goizik komuniatzeko baimenaren galdegitera, zeremoniarik eta lekukorik gabe, gambaran erraiten zizakon mezan; baina nehork etzuen jakin arrats hartan, eta etzen biharamun goizean baizik jakin. Astezkeneko arrats hortan berean jaon nintzan aski berant Chevreuse-ko duke 'ta dukesaren egoitzara, lehenbiziko etxolan egoiten baitziren, eta gu bigarrenean, biak Marly-ko herriaren aldera. Lastima ezin handiagoan nintzan; doi-doia nuen Errege egunean behin ikusten. Enuen egunean aldi andana batez berri jakitera joaiteaz bertzerik egiten, eta bakarrik Chevreuse-ko Jaun-Anderen egoitzara, ni bezain hunkiak ziren jenderik baizik ez ikusteko, eta haiekin libro nintzanen (...)

Ortzegun goizean, otsailaren 18-an, jakin nuen goiz-goizik Delfinak, gauerdia ezin egonean igurikaturik, berehala gero meza entzuna zuela, komuniatua, gero bi oren iraganak Jainkoarekin batasun handi batean, gero burua nahasia zizakola; eta San-Simun-go Andereak erran zautan oraino elizakoak hartuak zituela; eta hila zela zortziak eta erditan. Orhoitzapen hauk eztira ene sendimenduen ezagun-arazteko eginak. Irakurtzean, eztira sobera baizik sendituko, ene ondotik noizpait behin ere argiratzen baldin badira, eta zertan izan ahal nintzan eta San-Simun-go Anderea ere. Aski izanen zata doi-doia ginela lehenbiziko egunetan agertu bakoitza ephe labur batez erraitea, oro utzi nahi ukan nuela eta gortetik eta mundutik baztertu, eta ene baitan San-Simun-go Anderearen zuhurtzia, eginara eta ahal guzia izan zirela hortara neke handiz utzi enindutenak.

2. Delfina nor zen: ikastearen ahalak

Printze hori, koronaren ondoko beharra eta gero ustezko izana, izigarria sortu zen, eta lehenbiziko gaztaroan ikaratu zuen; gogor eta haserre azken abretasunetarano, eta gauza bizigabetara ere; eroki oldartsu, ihardokitze ttipiena ezin jasan, orenetan eta gauzetan ere, haserre gorritan sartu gabe gorputz guzia hauts etzakion beldur-arazterano; heinik gabe hisikorra; atsegin mota orotara amorratua, eta emaztetara, eta, aldi berean bekan dena, bertze ixuri berdin azkar batekin. Etzituen gutiago maite arnoa, janari ona, ihizia eroki, musika halako lilluratze batekin, eta oraino jokoa, garhaitua izaitea ezpaitzezakeen jasan, eta hortan lanjerra ezin handiagoa baitzen harekin; azkenean, jaidura guzietara emana eta atsegin orok eremana; usu ohildua, jitez abrekeriara ekharria; trufatzean bortitza eta irrigarritasunen emaiten lehertzen zuen zuzentasun batekin. Zeruetaiko gainetik etzituen nor baziren ere gizonak ikusten haiekin iduripenik ere etzuen errauski batzu

bezala baizik. Doi-doia zizazkon Jaun anaiak bere eta gizakiaren artekoak iduritzen, nahiz beti hiruak elgarrekin berdintasun osoan hazi nahi bezala egin izana zen. Izpiritua, sakortasuna orotarik dirdiran zauden haren baitan. Haserre erotuetan beretan haren ihardespenean estonatzeko zuten. Arrazoinkatzea beti zuzenera eta barnatasunera ari zizakon, sumintzen zenean ere. Jakintza zailenez jostatzen zen. Haren izpirituaren hedamena eta bizia mirazkoak ziren, eta etzuten aldian gauza bakar bati emaitera uzten ahale ekoizten. Ikastea marrazki egiten utzi behar izanak, hortako baitzituaren gustua eta antzea, eta hori gabe ikastea debaldekoa izanen baitzizakon, kalte ainitz ekoizten dauko behar bada haren soinarari.

Handi baino izaitekotz ttipiagotzen zen, begitartea luze eta beltzaran, gaina betegina munduko begi ederrenekin, soa bizi, hunkigarri, ohargarri, miragarri, aski usu ezti, eta itxura gozagarri bat, gora, xorrotz, izpirituaren sor-arazterano izpiritudun. Aurpegi behekoa aski zorrotz, eta sudurra luze, goiti, baina ez ederra, etzuan hain ontsa; ileak gaztain kolore hain kuxkulduak eta hain usu nun sobera harro baitziren; ezpainak eta ahoa gozagarri mintzo etzelarik, baina nahiz etzituaren hortzak itsusiak, gaineko lerroa aitzinegi jiten zen, eta hartzen zuen abantzu azpikoa, hori, mintzatzean eta irri egitean, ezpaitzen batere gozagarri. Bazituaren Erregeren ondotik ehoiz ehoi ikusi ditutan zango ederrenak eta oin ederrenak, baina luzeegi, ixterrak bezala, soin arauarendako. Emazten eskuetarik zuzen atera zen. Goizik oharatu ziren soin-ara itzultzen hasten zizakola. Erabili ziren berehala eta luzaz lepokoa eta burdinazko gurutzia, bere egoitzan zeno bazaduzkanak, jendearen aitzinean ere, eta etzen zuzentzeko gai ziren josteta eta ariketarik bat ahatzi. Natura azkarrena gelditu zen. Konkorrak bilakatu zen, baina hain bereziki soingain batetik, nun azkenean maingutu baitzen, ez ixterrak eta zangoak osoki berdina etzitu elakotz, baina, soingain hori loditu zen arau, ezpaitzen, bi hanketarik bi oinetara, neurri bera izan, eta zuzen izaiteko orde alde batera makurtu zen. Etzuen urrats egiten ez gutiago errexki, ez gutiago luzaz, ez gutiago gogotik, eta etzuen oinez ibiltzea gutiago maitatu, eta zaldiz igoitea, nahiz biziki gaizki. Ustegabetu behar duena da, begiak ukanik ere, hanbat izpiritu gora, bertute ohi gabekoenera eta debozione azkarrenera heldurik, printze horrek etzuela behin ere bere burua soin-araz zen bezala ikusi, edo hortara etzela behin ere jarri. Ahultasun bat zen, ohargabe eta ausartzien kontra zaintzen zuena, eta nekea emaiten haren jantzietan eta ilearen antolatzean jiteko

huts hori ahal zuten bezenbat estaltzen zaukoten bere jendetakoeri, agerian zenari ohartzen zirela hari sendi-araztetik ontsa begiratzuz. Hortik ondorioztatu behar da biziki neke zakola gizonari behere huntan betegin-betegina izaitea.

Hainbertze izpiritu, eta izpiritu mota hortakoa, holako bizitasunari, sendikortasunari, sendimendu bortitzer eta guziak hain suharrer lotua, etzen ikasgai errexu. Beauvilliers-ko dukea, sendi baitzuten aldi berean nekeak eta ondorioak, ahal zena baino hobea izan zen arthaz, pairamenaz, erremedioen aldatzeaz. Azpi-gobernariak guti lagundua, esku-pean hatzeman zuen guziari hel egin zuen, Fénelon, Fleury, azpi-erakaslea, *Elizaren ixtorio* eder bat eman duena, mahungako aitoren- seme batzu, Moreau gambarako lehen mutila, bere lerroa baino biziki goragokoa nor zen ahatzi gabe, barneko mutil bekan batzu, Chevreuse-ko dukea bakarra kamputik, guziak lanean ezarriak eta guziak gogo berean, haien egintzak, ixtorio batean hedaturik, liburu on bat bailegike neurri berean ohargarria eta erakasgarria. Baina Jainkoak, bihotzen jabea baita, eta haren jainkozko gogoak nahi duen lekuan ufatzen baitu, printze hortarik egin zuen bere eskunaren emaitza bat, eta hemezortzi eta hogeitaz artean, egin gogo zuena bururatu. Leze hortarik athera zen printze gozagarri, ezti, bihotz on, neurtu, pairakor, penitenziara ekharri bat, eta, haren izaerak onhar zezakeen bezenbat eta batzuetan haratago, umila eta bere buruarendako idorra. Guziaz bere eginbidetara emana eta sendituz neurrigabeak zirela, etzuen gehiago gogo ukan semearen eta menekoaren eginbiden lotzea berak jasan beharko zituenekin baizik. Bihotz-min guzia egunen laburrak emaitzen zaukon. Indar eta konsolamendu osoak othoitzean ezarri zituen, eta gerizagarriak debozionezko irakurgaietan. Jakitate hutsetako zuen gogoak, hetan sartzeko zuen errextasunak, ebatsi zaukon lehenik bere izaerako gauzen jakiteko, bai erregetzera ekharria zen lerroari zoakoneko, bai artean bere gortearen atxikitze behar zela laster aithortu zuen aroaldi bat.

(...)

3. Printzea eta dukea, nobleziaz, Estatuaz eta gobernuaz

...

Liburu batek elezazke aski ontsa erakuts printzearen eta ene buruz-buruko solasaldi horiek. Zer onaren amodioa! bere-buruaren zer ahazte lañoa! zer bilaketak! zer ondorioak! zer gauzaren garbia, erraitera mentura banadi, zer Jainkotasunaren leinurua arima xuri, xoil, azkar

hortan, atxikia baitzuen, behere huntan haizu den bezenbat, haren iduria! Bazakusazkon distiran ikaste aldi berean landu eta antzedun baten hatzak, neurri berean jakintsuna, zuhurra, girixtinoa, eta ikasle argikor baten gogamenak, manatzeko sortua zena. Hor, jendearen aitzinean hartua zadukaten arrangurak ezeztatzen ziren. Jakin nahi zuen egitekoa norekin zuen eta ukanen zuen; jokoan jartzen zen lehenik, buruz-buru izaiteaz baliatzeko argian eta estakururik gabe. Baina zer hedamena zuen buruz-burukoak, eta hartan ziren gozoak nola ziren higituak hartara printzea, antzez, jakin-nahira eremana izanaz, eta jakitatearen egarriz zabaltzen zen gogoeten ezberdinean! Batetik bertzera bazeraman bere gizona hainbertze gai, hainbertze gauza, jende eta egintzetara, nun haren askiestekoa eskuan ukanen etzuen bere buruaz biziki gaizkitua atherako baitzen handik, eta hura ezpaitzuen nahitara utziko. Aitzinetik antolatzea berdin ustegabetzekoa eta ezina zen. Aitzinetik antolatu gabeko aldi horietan zuen printzeak bertze nunbaitik jeus har eztezaketan egia batzuen biltzea bilatzen, eta, horrelako jakintza ezberdinetan, mota hortan egina zuen hautuan zer jar zezakeen phorogatzea.

(...)

Haren xedek sobera luza lezazkete *Orhoitzapen* hauk. Haien argitzea liburu berezi bat lizate, baina urrikiz hiltzera ekhar lezakeen liburua. Mila xehetasunetan sartu gabe moldeaz, jendez, ezin nagoke alta larriki hemen zerbait eman gabe. Nobleziaren ezteutea hastiagarri zizakon, eta haren bere baitan berdintzea ezin jasana. Kargu bereziak baizik gainean uzten etzituen azken berrikeria hau, eta noblea aitorensemearekin nahasten, eta hauk jaun handiekin, azken zuzengaitza zela iduri zizakon, eta mailkatzeko huts hori erresuma osoki militar baten hondamena eta erortzea laster ekharriko zituena. Orhoit zen etzela lanjer handienetarik salbatua izan ahala, Valois-ko Filipe, Karlos V-garren, VII-garren, Luis XII-garren, François Lehenaren, hunen semabitxien, Henri IV-garrenaren azpian, noblezia horri esker baizik, nor zen baitzakien eta baitzagon bere ezberdintasunen mugetan, baitzituen Estatuaren laguntzera joaiteko nahia eta ahala, mandaka eta herrialdeka, eragozpenik eta nahasmenik gabe, bat ezpaitzen bere mailetik atheratua, eta bera baino handiagoari obeditzeko nekerik batere ezpaitzuen. Ikusten zuen, alderantziz, laguntza hori kontrako gauzez agortua; ez bat bertze orori berdin nahi izaitera jina eztenik, ondorioz jeus ez arauturik, manamendurik ez eta obeditzerik.

(...)

Printze hori etzaitekeen jar Estatuaren osoan ala zatika gobernatzera heltzea ezina izaiteari, ezpazen norbait “galdetako nagusi” izana, eta probinzia guziak jujegoa hortako gazteriaren eskuetan ezarriak izan ziten molde orotan gobernatzeko, bakoitzak berea osoki eta beteki bere nahitara, eta probinzia horietako gobernariak ehoiz ukana zuten baino larderia libroago eta osoago batean, berdintzerik batere gabe, nahi izanak baitziren alabaina hain ontsa aurdiki nun ezpaitzezteeten izena eta kargu saria baizik geldituak; eta etzizakon gutiago nardagarri iduritzen probinzia zenbaiten buruzagia izan zadin probinzia bereko parlamentuaren buruzagigoari lotua eta estekatua, karguko gobernari eta ordari jeneralik ez han izanez, molde baitezpada jarraikian, tropen gainean hek zuten bothere berarekin. Eztut errepikatuko gogoan zer zuen Estatuko segetariaren bothereaz eta goititzeaz, bertze minixtroenaz, eta hauen gobernuaren moldeaz. Zerga ohiko eta berezien biltzeko erabiliak ziren jenden zenbaki neurribagea, eta horien hartzeko moldea; justizia mota orotako ofizio eta ofizialen gaitzeko andana; auziena, zimardikena, gastuena; auzien luzatzearen zuzengabea, hetan egiten diren hondamenak eta bortizkeriak, ezin jasanak zizazkon eta sortzen zaukoten horien zuzentzeko ahalean izaiteko ezin egona.

Herrialde estatudunen eta etzutenen artean egiten zuen gomparatzeak emana zaukon erresumaren zatitzeko gogo, egina izanen zaitekeen bezenbat zatitan, neurri berekoak aberastasunean, bakoitzaren bere bilzarreaz adminiztra-araztea, guzien ainitzez bekantzea harramantzaren eta nahasmenaren ekhentzeko, eta probinzia horietako estatu guzietarik hartu zati biziki laburtu batzuez ere noiztenka erresumako estatu edo bilzarre jeneral batzuen moldatzea. Eniz menturatzen hitz handi batekin, printze zintzo baten hitzarekin bururatzer: “errege bat bere menekoendako egina dela, eta ez menekoak harendako”, publikoki erraitera beldurtzen etzen bezala, eta Marly-ko saloinerano, xoilki aberriaren aita baten hitza, baina hitz bat haren erreinuan ezpada, Jainkoak hori ezpaitu onhartu, sakre bat lizatekeena. Bilzarre edo estatu jeneraletara itzultzeko, etzeen edozein motako bothererik ezagutzen. Sobera ikasia zen ez jakiteko bilzarre hori, zein handia ere egiten baitu itxuratzen duenak, eztela jaukitzale, erasia egile, eta erregeri laket zizakonean, eskaintzalezko bilkura bat baizik. Baina printze hark, erresuma bilduaren erdian izaitea laket izanen zizakona, uste zuen abantail mugagabeak ukanen zituela gaitzak eta erremedioak jakinez, lehenak berek jasanak zituzten deputatu batzuen

bidez, eta bigarrenak ukan behar zituztenekin ikertuz. Baina estatu horietan etzituen hiru mail baizik ezagutu nahi, eta bermuki hirugarrenean utziz hoin berriki hortik athera nahi izan duela iduritu dena.

(...)

Lastima egiazkoa izan zen eta orotakoa. Atzerrietara eta hetako gortetara sartu zen. Jendaldek haien arintzea baizik gogoan etzuenaz nigarrez zaudelarik, eta Frantzia guziak haren zorionean eta joritasunean ezartzeko baizik erregetu nahi etzuenaz, Europako monarkek agerian deitoratu zuten jadanik bere behazuna bezala zakusatena, eta zituen bertutek haien ararteko bilakatuko zutena, eta erresumen artekari baketsu eta agurtua. Aitasaindua hain hunkia izan zen nun erabaki baitzuen bere baitarik, eta edozein motako aholkurik gabe, bere gorteko eredu eta eginmolde guzien gainetik iragaitea, eta guziez laudatua izan zen. Biltzarre bat egin zuen, han Elizak eta girixtino guziek galtzen zutena deitoratu: haien urriki zuzenak eta Europa guziarenak egiten zituen printzearen laudorio oso bat egin zuen. Erran zuen azkenean, haren ohi gabeko bertute eta dolu publikoaren fagoretan, ohidura guzien gainetik joanez, berak eginen zituela bere kaperan ehorzki publiko eta ospedunak.

(...)

*

(Itzultzearen arte-bitza:

Burgoñako duke Delfinaren heriotze ainitzendako lastimagarriak ukan zuen ere bere ondorioa, edo oiharzuna, euskarazko literaturan. Zazpi bertsu gelditzen dira osoak, zazpiko aldizkatu-besarkatuan eta itsasaldeko lapurtarrez, printzearen erlisionea eta deboziona gehienik aipatzen dituztenak. Bat gehiago hastapenean emana da, lehenbiziko bi neurtitzak galdurik agian:

(...)

Gora z̃are begaldata

Uso garbi aratz̃a;

Mundua duz̃u gaitzetsi,

Ikustea berantetsi

Aingeruen egoitz̃a!

Ikus P. Urkizu: *Bertso z̃abar eta berri z̃enbaiten bilduma* (1798), Durango 1987, orr. 139-140.)

4. Delfin ttipia aitamen ondotik

(Ephailaren 2-an), egun hortan berean bi haurrak, Frantziako semeak, zenbait egun horietan eri, biziki gaizki izan ziren, Jaun eta Andere Delfinen baitan agertuak ziren mingorriaren hatzekin. Jaiotzean ureztatuak izanak ziren. Erregek manatu zaukon Ventadour-ko dukesari bataioko zeremoniak ordainduak izan zakizkieten, nahi zuenari atxik-araz zitzan, eta bat eta bertzea Luis izenda. Esku-pean gertatu zizakon hautukoena hartu zuen. Berak atxiki zuen Delfin ttipia La Mothe-ko kondearekin; eta Prie-ko markesak La Ferté-ko dukesarekin Anjou-ko duke Jauna. Biharamunean asteartean, ephailaren 8-a, gorteko medikuek Parisko bortzi hel egin zuten. Erregek etzuen dirutzetako konseilu egitea utzi, bazkal-ondoan tiro egitera joatea, eta arratsean Voysin-ekin lan egitea Maintenon-go Anderearen egoitzan. Odol ekhentzek eta erabili ziren bertze erremedioek etzuten Delfin ttipia salbatu ahal ukan. Egund hortan berean hil zen, eguerdi aitzinttoan. Bortz urte eta zenbait ilabete zituen, eta ontsa egina zen, bere adineko azkarra eta handia. Uste handiak emaiten zituen orotan erakusten zituen izpirituaz eta gogo zuzenaz; lotsatzen zuen ere gemen hisitu batez eta goitasun ezin handiagoko batez.

Anjou-ko duke Jauna oraino ditian zen. Ventadour-ko dukesak, gambarako emaztek lagundurik, hartu zuen, etzuten utzi ez odol ekhentzera ez edozein erremedio hartzera. Verue-ko kondesa, Turin-en pozoindatua, eta hiltzera ari, Saboiako dukeak zuen kontrapozoin batek salbatua zuen. Itzultzean hartarik ekharria zuen. Ventadour-ko dukesak galdegitera igorri zaukon, eta Anjou-ko duke Jaunari bakarrik eman, ezpaitzen odoltua izana, eta erremedio hori ezpaitoake odol ekhentzearekin. Ontsa gaizki izan zen, baina athera zen eta Errege da gaur-egun. Jakinik ukana du eta beti egiazko oharpen bat erakutsi dauko Verue-ko Andereari, eta huni behatu daukon guziari. Hirur Delfin hil ziren beraz urte bat baino guttiagotan, hetan haur bakar bat, eta, hogeitaur egunez, aita, ama, eta seme zaharrena.

Orléans-ko duke Jauna Delfinen pozoindatzeaz zuzengabe salatua

Eztut gauza horien guzien eta egintza horien guzien erakustea eta zeharkatzea baizik egiten begien aitzinean aldi batez ezartzeko, guziak kondatuak baitira, han edo hemen, bere aroan, *Orhoitzapen* hautan. Hemen bildurik, ageri da Orléans-ko duke Jaunak bederen

hainbertze eta gehiago eta hain segur oro irabazteko zuela Jaun Delfinaren eta Anderearen bizian eta erreinuan, Maine-ko dukeak ororen beldur izaiteko eta oro galtzeko zuela hortan, eta ezberdintasun hau begietara jauzteko agerian da. Alde zituen bertzalde jesuistak harendako zuten atxikimendua idekian aithor baitzuten, bermuki erakutsia baitzaukoten A. Tellier-ek eginak zauzkon zerbitzu biziez Berry-ko dukesa Anderearen ezkontzan, eta hortako ordainduak baitziren emaiten zeen gerizapenaz, eta meneko zituen benefizio ainitzen paperraz, oro, apezpikugoak salbu, hark izendatzeko baitziren.

Gompara bedi orai Orléans-ko duke Jaunaren abantaila, lerroa eta izaera, berea eta berek zituenena, ezin baitzitakeen erortzera ekharria zer nahi gerta ere, eta hura eta haren semea kargurik ez gobenurik gabe izanez; gompara bedi Maine-ko dukearen abantailarekin, eta bila bedi gero pozoinatzalea. Baina ezta guzia. Orhoit dadila etzela Monseigneur-i esker Orléans-ko duke Jaunari ezpazaukon burua motz-arazi, eta hortarik zein hurbil izana zen; orhoit nola egin zaukon geroztik Monseigneur-ek; eta orhoit dadila aldi berean gabinet-gibel hartako zokoan nigar eta hipez han ustegabetarik hatzeman bainuen Monseigneur hil zen gauan, ene harritzeaz, hortaz emaitera entsegatu naukon ahalgeaz, eta han ihardetsi zautanaz. Zer ezberdina, Jainko handia! nagusi izaitera hain hurbildua zizakon etsai baten heriotzeko bihotz-minaren, eta Maine-ko Jaunak bere gabineteko zokoan etxeko minener eman zeen komediaren artean; Erregeren egoitzatik atheratzen zela hau abantzu agonian utzirik, nekezari arrunt baten erremedioetara utzia, Maine-ko Jaunak hunen sinoak eginez eta Fagonen ahalgean, hain naturalki eta atsegingarri nun irri karkailak entzun baitziren galeriarano, eta iragaiten zirener eskandala eman baitzeen. Gertakari aipatua da eta ontsa itxuratzalea, xeheki bere lekuan emanen dena, bizi aski baldin badut *Orhoitzapen* hauen Erregeren heriotzerano eremaiteko.

Baina zorigaitzeko azal batek ontsa lagundu zuen Maine-ko dukea, indarrekin erabiltzen jakin baitzuen, eta bereziki berea zuen antze batekin. Orléans-ko duke Jaunak, bortxaz ezkondua, ezkontza hori desohoragarria zela jakinik Madame-en haserre bortitzetarik, jendearen oihutik, Monsieur-ren ahuleziatik beretik, egin zuen aldi berean munduan sartzea deitzen dena. Ikaskuntza ordu arteo hanbat ere hertsigarria izana bazizakon, hanbat gehiago zuen ere hartaz odaindua izaita bilatu. Lizunkeriara erori zen, jostaldiendako heinik gabekoenak hautetsi zituen; zuen handitasunak eta gaztaroak oro haizu ikus-arazi

zauzkon; iduritu zizakon ezkontzaz galdua zuena hortik ordainduko zuela munduaren begietan, ezkontidea gaitzetsiz, eta hezkaitzenekin eta hek bezela bizitzean gustatuz. Hortik erlisione gabearen gutizia, eta agerian erakusteko hutsaleria bitxia; hortik ezin gehiagoko aspertzea lizunkeria ageriena etzen bertze gauza orotan; atseginak, ohikoak eta hein batekoak, gezak; auhertasun osoa gortean hara ezpaitzezakeen ekhar bere zorigaitzeko lagundia, eta usu han behar baitzuen alta egon; arartekorik batere bertze lagun batzuen erakartzeko, eta bere ezkontidearekin eta huni hurbiltzen zizakon guziarekin elgarren alderako herstura batean, bakartasuna hautets-arazten baitzaukon; eta bakartasun horren jasan ahal ukaiteko, harrabotsari sobera jarria zen.

Hortik jakintzen bilatzera egotzirik, ufatzen hasi zen, ez errearen egitera heltzeko, beti hortaz trufatu baitzen, baina ximiako ariketa bitxietaz jostatzeko. Entsegutegi bat egin arazi-zuen hobekienik tresnatua, aipamen handiko jakintsun bat hartu, Humbert izenekoa, eta zuzentasunean eta bertutean etzuen bere ofizioko ahalean baino gutiago. Ikusi zuen ariketa batzuen egiten eta jarrikitzen, harekin lan egin zuen; baina beti biziki agerian, eta arrazoinkatzen zen ofizio hortan ziren gorteko eta hiriko guziekin, eta hautarik bazeramatzan artetan Humbert-en eta beraren lanean ari ikustera. Gustatua izana zen lehenago debruaren ager-araztera etsegatzen, nahiz aithortzen zuen etzela hortara heldu ahal izana; baina Argenton-go Andereaz amaturik, eta harekin bizi, bertze bitxikeria batzu aurkitu zituen mota horri hurbilegiak eta gaizkiago ikusiak ahal ziratezkeenak. Baso ur batzu miatu ziren haren aitzinean oraiatz eta geroaz. Gauza aski bereziak erranak ditut hortaz, Italiara joan baino lehen erran zauzkitanak, hemen aski izanen baitzata jostagailu lanjeros horietaz orhoit-araztea, gaizkin gogo arinenetik zenbat urrun baldin baziren ere. Behin ere hartarik ontsa jarri etzen Espainian gertatu zizakona; harrabots itsusiak bere alabarekin horietaz nahi ukan baitzuten printzesa horren eta Berry-ko duke Jaunaren ezkontza agerian emaitera zoana hautsi; gertakari handi horrek sortu zuen errabiak gero eman zeen aipamena, bata eta bertzeak hortaz ukan zuten axolaren eta hartu zen heinaren eskasa; azkenik bere lehenbiziko emaztearen heriotzeaz Monsieur-ez ukan zen uste izigarria, eta Orléans-ko duke Jauna Monsieur-en semea zela; horiek oro moldatu zuten multzo lazkarri bat, horrekin jakin baitzuten Erregeren lilluratzen, eta jendearen itsutzen.

Horiek, errana dutan bezala, hain laster zuten gainditu, nun, otsailaren 17-tik beretik, Orléans-ko duke Jauna izan zelarik Madame-

rekin Andere Delfinari ur benedikatu emaiten, jende aldeak erran baitzituen gora-gora haren kontra mota orotako zozokeriak iragan zuen bide guzian, berak eta Madame-ek biziki ontsa entzun zituztenak, erakustera menturatu gabe, baina ezin asma daitezkeen bihotz-minean, eragozpenean eta suminduran. Gaizkiagoz beldurtzekoa ere izan zen jendalde berotu eta sineskor baten ganik, otsailaren 21-ean, joan zelarik bera Jaun Delfinari ur benedikatu emaitera. Jasan zituen beraz iragaitean bere burua atxik-etzezakeen jende baten laido izigarrienak, elhe gaitzekoenak goratik botatzen baitzauzkon, hitz itsusienekin erhiaz erakusten, nehork ezpaitzuen geldi-arazten, eta uste baitzuen amor emaiten zukola ez gainera jauziz eta ez xehakatuz. Ahokuan gauza bera izan zen. Bideak joak zauden doluminezko baino gehiago suminduraz eta laidozko oihuez. Etziren egon Parisen aitzin-aritha zenbait hartu gabe erhotasun publikoaren debekatzeko ordu batzuez horren herakien beldur izan baitziren. Ordaindu zen jestu, oihu, eta abrenik egin zaitezkeen guziaz, Orléans-ko duke Jaunaren gainera ixuri zena. Erret-Palazioko ondora heltzean, ahokua haren aitzinetik iragan baitzen, garrasien, oihuen, laidoen berrhetzea hain bortitza izan zen, nun ororen beldur izan behartu baitziren ephe zenbaitez.

Ducasse baionesa Urre Iletzeko zaldun

Berri ainitzez hobe bat Ducasse-en La Coruña-ra heltzea izan zen Ameriketara bilatzera joana zen galeon biziki aberaski beteak zirenekin. Aspaldidanik horien beha zauden ezin egonean itzultzean etsaien untzierien beldurrean bezenbat. Atherabide handia izan zen Espainiarendako horren behar gorrian baitzen, ukaldi handi bat ahuldua zen sal-erospenarendako, nahasmena huntan jartzera baitzoan ere, eta dolu ezin handiagoa aspaldidanik hanbat neke eta gastuekin horien aiduru zauden Angeles eta Holandesendako. Oraiko La Rochefoucauld-eko dukeak, laugarren haur sortua, orduan Durtal izena baitzuen eta itsas-armadan baitzen, zerbitzua Ducasse-en untzietan egiten zuen, eta hunek igorri zuen hoin berri handiaren Erregeri ekhartzera. Espainiako errege hain gozatua izan zen nun Ducasse Urre Iletzeko zaldun egin baitzuen, mundu guziaren gaitzeko eskandalean. Zer zerbitzu ere egina baitzuen, etzen hori ordaintzeko joan zizakon saria. Ducasse ezaguna zen Baionan xingar saltzen ari zen urdeki saltzale ttipi baten semea bezala. Bihoztuna zen eta ontsa egina; Baionako untzietan jarri zen, Amerikara iragan, eta han itsas-lapur bilakatu. Han ontasunak bildu

zituen eta aipamen bat itsas-lasterkari horien buru ezarri zuena. Bere lekuan ikusi da zein baliagarriki zerbitzatu zuen Karthagenako gudualdian, eta ukan zituen liskarbideak hura egin zuen Pointis-ekin. Ducasse Erregeren itsas-armadan sartu zen ezpaitzuen han bere burua gutiago ezagun-arazi. Ordari jeneral bilakatu zen, eta Frantziako marexal bilakatuko zen zuen adinak bizitzera eta zerbitzatzera utzi balu, baina hain zen urrundik abiatua nun heldu zenean zahartua baitzen. Ezagun dutan herritar hoberenatarik eta gizon hoberen eta esku-zabalenatarik zen, aphalkeriarik gabe nor zen gutienik ezjakina zena, eta jende guziak estimuan zadukana lerroak eta zerbitzuek gortearen eta munduaren heinera eremana ukan zutenean.

Vendôme-ko dukea arrain sobera jatez hiltzen da Espainian

Vendôme irabazte handitan zagon Espainian, ez korona horren etsaien gainean, baina Españolen eta gure zorigaitzen. Zuen adinean eta guk deitoratzen ginituenenean, bere burua gainerateko bizi guziko herritik urrundua zadukan. Hauen heriotzeak berriz ezarri zuen handik gure gortean gozatzera jiteko esperanza atsegingarrienetan, eta hemen bere buruarekin berriz ontsa konda-araziko zuen norbait bilakatuko zelakoan. Han “Handitasun”-az izendatzea hoin liberatze ustegakoa bezain lasterraren ondorio bat izana zizakon; Don Juan izeneko printze zirenekin berdintzea bat bertzearen ondotik jin ukaldi bat izan zen Frantziako nigarrez xoratzea bururatu zaukona, hunara jiteko xedea baitzuen, jarleku berri horrek goititurik, odoleko printzearen beteki egitera hortik Espainia etsipenean ezarria zuelakotz. Auherkeriak, bizitzeko molde libroak, lizunkeriek luzatu zaukoten mugako egonaldia, hor Madrilen baino errexkiago baitzen bere gutizia guzien asetzeko, han, nahiz bere burua etzuen biziki hertsatzen, ezpaitzagokeen itxuratzeko eta gortean agertzeko behar mota zenbait baztertu gabe. Hara ethorri zen Orziniko printzesaren bothere osoak emaiten zauzkon nasaikeria abantail-nahien ukaiteko; baina, oharr-arazi dutan bezala, zuen xedea “Handitasun” ohikoan eta itxurazkoan gelditzen zen, printzesak eman-arazia zaukon eta bi Don-Juan-ek ukana zuten lerroaren ondorio segurrean baino lehen. Hau lehiatu zen beraz hura han izanez armadak behar zuen guziaren igorr-araztera, eta berehala mugara haren joan-araztera. Bera, hetara heldu nahi ukaitera menturatua etzen ohorez gainditua, hortan bapatean aphalduak izanak ziren handien eta jaunen

hisi ezin handiagoak uzten zuen bakartasunaz trabatua, eta bere armaden lekura zuen auherrak eta atsegin ahalgegarriek deitua, gogotik eta laster handiz itzuli zen. Jeusik etzen egiteko. Austriarrak, Angelesen joaiteaz ahulduak eta ustegabetuak, oldartzetik ontsa urrun ziren.; eta Vendôme-ek, bere zori berriko atseginetan igerika, etzuen asti osoan hetaz gozatzeaz bertzerik gogoan, gerlako egintzetan hasteko guzia antolatua etzelako estakuruan.

Libertate gehiagotan izaiteko, aitzindari jeneraletarik berexi zen eta bizpahirur etxekoenetakoezin eta bere mutilekin, orotan kompainia maitatuena egiten baitzaukoten, joan Vignarez-en egoitera, herrixka bat abantzu utzia eta orotarik urrun, itsas-bazterrean, nahi bezenbat asetzeko arrain jatera. Hitza atxiki zuen eta han gogo-bihotzen bozkariotan guzietarik alhatu zen ilabete batez hurbil. Ez-ontsan gertatu zen, errex uste izan zen etzuela baruraz bertzerik behar; baina gaitza handitu zen hain lasterrezt eta hain bitxiki nun, aski luzaz jeus etzela iduriturik, inguruan zituenak, jende guti, ezpaitzuten pozoinaz dudatu eta laguntza galdez alde orotara igorri baitzuten; baina gaitzak etzituen igurikatu ukan nahi; bapatean berrhetu zen seinale bitxi batzuekin. Aitzinera eman zaukoten testamendu bat etzuen izenpetu ahal ukan, ez eta Erregeri eskutitz bat hortan eskatzen baitzaukon anaiaren gortera itzultzea. Inguruan zuen guziak ikes egin zaukon et utzi zuen, hanbaterano nun mutil aphalenetarik hiruzpalauren eskuetan gelditu baitzen, bertzek oro ebasten zutelarik, berea egiten eta ihes joaiten. Horrela iragan zituen biziko hiruzpalaurre azken egunak aphezik gabe, aipatzeko solasik ere gabe, barber bakar batez bertze laguntzarik gabe. Ondoan geldituak zizazkon hiruzpalaurre mutilak, ikusiz azken mugan zela, inguruan zituen gauza gutiak hartu zauzkoten, eta, hoberik ez ukanez, estalia eta azpitik matalatza ekhendu. Oihu egin zauen urrikalgarriki etzezaten bederen lastuntziaren gaineen hasik hiltzera utz, eta hori ukan zuenez eztakit. Horrela hil zen, ekhainaren 10-eko ortziralean, gizonetan zen ospedunena, eta hainbertze hartaz mintzatzer a bortxatua izan eta gehiagokorik ez erraiteko, azken egunetarano zoritsuena. Berrogei-ta-hemezortzi urte zituen, fagore hoin neurri gabeak eta hoinitsuak alderdi bateko gizandi baizik egin hal eztuelarik jeneral biziki gaitza izana den kapitain batetik, eta zituen bizioek mota orotan gizaldearen ahalgea egin duten gizonetik.

Montesquiou Denain-go guduaren egiazko irabazle

Eugène printzeak Landrecies setiatu zuen. Erregek, Angelesen laguntzaz gabeturik ere hartzen ikusten zauzkon abantailez zimikatua, hortaz baliatu nahi zuen, eta biziki gaizki iduritzen zizakon Villars-ek azken mugako gazteluen setiatzera eta hartzera uzten baitzuen horren debekatzeko gudurik eman gabe. Villars-ek bazituen alta hortako manu errepikatuak. Mezuak igortzen zituen gaskoineriak metatuz, batzu ager-arazten, baina beti halda-maldaka eta gibelerat eginez, eta Eugène printzearen lepokotik hartzeko aldi bat baino gehiago ukan eta huts egin zituen, zenbait hain ageriak, eta ere iduriz hain abantailgarriak, nun armada guzia publikoki erasian ari baitzen. Landrecies-ren setioaren utzarazteko biden bila zabilan, zionaz, eta Errege egun oroz Flandre-ko eskutitzen aiduru azken ezin-egonean. Montesquiou-k ikusi zuen gudu baten emaiteko artea abantailekin. Erregez biziki ezaguna zen luzaz zaintzalen erreximenduko aitzindari lehena izanik, oinezkoetako ikerlari eta gero buruzagi, eta ainitz gehiago barneko mutil handienekin zituen lotura minen gatik. Erregeri mezu bat igorri zaukon segetetuki egin gogo zuenaren egitarauarekin, Villars-ek etzuela onhartuko segur zela oharr-araziz, eta orduaz baliatzea beharrezkoa zela erakutsiz. Ihardespena berehala ukan zuen. Ukan zuen egin gogo zuenean jarraikitzeke eta bururatzeko manua, Villars-ek ez nahirik ere, baina haren aldera trebeki egitekoa. Eugène printzeak Villars-ko marexalaren aldera hartua zuen gaitzespen ezin handiagoak huts handi bat egin-arazi zaukon, Marchiennes-tik urruntzea izan zena, eta ere Denain-dik han zituelarik bihitegi nagusiak, Escaut-era Denain-go ondoan sartzen den Escaillon errekararen gibelean gozokiago egoiteko, hiria pezoindua baitzuen, eta hemezortzi batallun eta zaldizkoeria zenbaitekin utzia. Hori jakinik, Montesquiou-k Villars hara abia zadin hertsatu zuen.

Bidean, Montesquiou-k aitzinerat egin zuen buruko multzo, laur ordari jeneral eta laur kampoko marexalekin, eta Broglio, geroztik Frantziako marexala, igorri zuen manatzen zuen erresalbuarekin, etsaien armadako ziren bortz ehun orgaxka ogiz jabetzera, biziki ongi eta Denain-i jaukitu baino lehen egin zuena. Montesquiou armada buru horrekin hegalez bezala ethorri zen Denain-en aitzinera, antolamendua lasterrez egin zuen, eta berehala jaukitzea pezoinetarik hasi. Villars bazoan eztiki armadako gotorrenarekin, jadanik zati bat Montesquiou-rekin aitzinean ikusiz haren manurik gabe khexu, eta ontsa gehiago khexatu zena entzun zuelarik hasten ari zen gudua. Manua manuaren gainean igorri zaukon geldi zadin, ez jauki, haren beha egon, guzia den

gutienik lehiatu gabe, gudurik ezpaitzuen batere nahi. Gudukideak gibelerat igorri zauzkon mezulariak, jakin-arazi arnoa erautsia zela eta edan behar, eta bere jaukitzeak hain ontsa ereman zituen nun pezoinak hartu baitzituen, Denain-en sartu baitzen, han artilleria guziaz eta bihitegiez jabetu, ainitz jende hil, ihes egitera entsegatzen zen andana handia itho-arazi, hauen artean gertatu baitzen han manatzen zuen Dohna, eta han ontsa egoiteko aran jarri Eugène printzeari jaukitzeko gutizia jiten bazizakon ere, bere armadarekin heldu baitzen erreka bertzetik, egintzaren lekuko han izanik iheslariak bildu baitzituen, eta gelditu baitzen, etzuelakotz uste ondorioarekin eremana izana zen Denain jauki zezakeela.

(...)

Villars-ek, hura gabe egina zen gudu batez burxoratua, hortan gelditu nahi ukan zuen; baina Montesquiou, Erregez segur, hartaz trufatu zen, eta guduaren arrats berean, uztailearen 24-ko igandea baitzen, igorri zuen Broglie hamabi batallunekin Marchiennes-en gainera, han baitziren etsaien bihitegietako gaineratekoa eta zati handiena, eta bera gibeletik jarraiki zizakon bertze hemezortzi batallun eta zaldizkoeria zenbaitekin, Villars kontra joaitera bermuki menturatu gabe, gertatu berria zenaren ondotik. Bidean Saint-Amand hartu zuen, zortzi ehun gizon baitziren han, eta Hannon-go abadia, baitziren han berrehun. (Bertze) Villars, zaintzalen erreximenduko buruzagi lehen ordea eta armadako buruzagi orde jenerala, Fontainebleau-ra etorri zen bandera ainitzekin, hartarik jakin baitzen Overkerke-en seme bat Denain-en hila izana zela, Holandesez azkarki estimatua zen buruzagi jeneral bat zena. Agorrilaren leheneko astelehenean, Artagnan Fontainebleau-ra etorri zen arratsaldeko oren batean, Montesquiou marexal bere osabaren orde, Marchiennes hartu zuelako berriarekin eta han zen guzia gerlako presoner. Gazteluan baziren sei batallun, Douai-ko soldado-alde bertzetik ehun gizon ekharriak, eta Waldec-en zaldizko erreximendu osoa, Eugène printzearen armadarekin batzera zoana, eta handik jalgi ahal etzana hetsia izan baino lehen, hiruretan hogeik kanoi; eta, bihitegietan ziren gerlako harma eta jateko hornimenduen gainera, ehun eta berrogei-tahamar untzizka hetaz beteak ibaian, hetarik seiek baitzituzten bakoitzak berrehun mila izari bolbora; guzia setio hortan abantzu nehor galdu gabe. Tessé-ko marexalaren seme bat azkarki zauritua izana zen Denain-en Xampañako erreximenduaren buruan, eta Meuse-ko markesa berearenean.

Montesquiou-k ukan zuen armadan eta gortean bi zorionezko egintza horien ohore osoa, ezeztatu baitzuten, hala erraiteko, hoin gaizki dohatuak ginadukan zoria, Probindenziaren mirakulua iduritu baitziren arrazoinekin, eta gure zorigaitz guzier bururapena eman baitzeeten. Montesquiou-k ukan zuen neurrian eta lañoki egoiteko zuhurtzia, Villars-i “matamoro”-aren egitera uztekoa guziak trufatu baitzizazkon, hunek Maintenon-go Anderearen ganik zuen gerizapen ageriaren errespetatzekoa, eta ospez askiestekoa, huntan ezpaitzen nehor enganatu. Zorionez gainditzea izan zen Fontainebleau-n Errege hartaz hanbat gozatu zena nun bere bizian lehen aldikotz gortelariak eskertu baitzituen.

Mazarin dukearen debozione bitxia

Mazarin dukea bere lurretan hil zen, hogeita-hamar urte baitzuen hara baztertua zela. Bazituen lauretan hogeita urtez goiti, eta etzen nehorendako galtzea izan, hain ditu gogo makurrak, hein batera eremanik, gauza hoberenak andeatzen. Haren arokoer entzun deet etzaitekeela izpiritu gehiago eta gozagarriagorik ukan; kompainia hoberenekoa zela eta azkarki ikasia; handi egina, orotan gostua, kuraia; Erregeren etxekotasun minean ehoiz ezpaitateke haren maitatzetik eta erakustera emaitetik gelditu, zer egin badu ere ahatzia izaiteko; solasean garaziadun, mintza errex eta ikustateduna; ohi baino gehiago aberatsa bereaz; La Meilleraye-ko marexalaren semea zen, hau gizon mereximendu handieneko, fagore jarraikieneko, eta bere aroan estimatuenetako bat izanik, hunen ondotik ukan baitzituen Britainiako, Nantes-ko, Port-Louis-ko, Saint-Malo-ko gobernua, eta orduan osoa zen artilleriako nagusi handiko kargua. Aitak ahal ukan zuen bezenbat ihardoki zaukon Mazarin kardinalaren borondateari, bere adixkide mina, semea hautatu baitzaukon ezagutzen zuen gai aberatsena bezala bere ondoko egiteko izena eta andere iloba emanez. Marexalak zion, bertutea baitzuen, ontasun horiek izitzen zutela, eta haien neurrigabeak familia lehertuko eta hil-araziko zaukotela; azkenean amor eman behar izan zen.

Mazarin Jaunak bere semearekin ukan zuen auzi batean hunen emaztea hil eta, phorogatu zen (parlamentuko) gambara handi betean hogeita-zortzi miliun ukanak zituela. Gainera ukan zituen Alzaziako, Brisach-ko, BÉfort-ko gobernua, Haguenau-ko bailegoa hau bera hogeita-hamar mila libera arrandakoa zena. Erregek ezarri zuen bere konseilu

guzietan, gambarako lehenbiziko aitoiren-semen sartzeak eman zauzkon, eta orotan hautetsi zuen. Vincennes-ko gobernua ahazten dut.

Ordari jeneral zen 1654-ko, eta joko ederrean Frantziako marexal eta armadako jeneral bilakatzeko. Debozioneak, talendu onen agertzeko beti hain baliagarri eta hain gai dena, pozoindatu zauzkon jitez eta fortunaz zaduzkanak oro. Emaztea munduan zehar laster-arazi zuen azken eskandalan; munduan irriegangarri bilakatu zen, Erregeri ezin jasana bere ohaidekin zeraman bizian bazituela erraiten zuen ikuspenez. Bere lurretara baztertu zen, eta han frailen eta meneten menean jarri, haren ahuleziez baliatzen zirela eta miliunetarik erausten zaukotela. Gizairudi ederrenak ebaki zituen, margazki ederrenak maskaratu, mutileria xotxetan jokatu, hala nola nun kozineraz intendanta egin baitzuen eta thorratzaleaz segetaria. Xorteak, zionaz, Jainkoaren borondatea erakusten zuen. Sua lotu zen Mazarin-go jauregian bera han zelarik. Bakoitzak laster egin zuen iraungitzera, eta hura hek haizatuz Jainkoaren nahi sailduari jaukituz gaizki ari zirelaketz.

Bozten zen auziak egiten zauzkotenean, galduz berea etzuenaren jabe izaitetik gelditzen baitzen; eta irabazten bazuen, galdegina zizakona atxikitzen zuen, konzienzia segurrik. Bere lurren lanetako buruzagiak nardatzen zituen hetara sartzen zen xehetasunez, eta egin-arazi nahi zezteen erokeriez. Orotan neska eta emazter behien deiztea debekatu zeen, horrek emaiten ahal zezteen gogoeta gaixtoen hetarik urruntzeko. Haren erokeria guziekin burutzerik elizateke. Bere alaber nahi ukan zezteen aitzineko hortzak ekhen-arazi ederrak zirelaketz, beldurrez eta hortan sobera goza ziten. Etzen lur batetik bertzera joaitetik gelditzen; eta Mazarin Anderearen gorputza ibili zuen zenbait urtez, Angeleterratik ekhar-arazirik, bazoan leku guzietan. Horrela miliunetarik gehien agortzera heldu zen, eta etzituen begiratu Alzaziako eta bertze bizpahirur gobernu berezi baizik. Gizon bat aski handia eta aski lodia zen, begitarte onekoa, izpiritua erakusten zuena, aitaren etxean ikusi nuen aldi batez iduritu zizatanaz, ordenako zaldun izan zelarik 1694-an. Lurretara erretiratuz geroz, etzituen zenbait eguneko hiruzpalaur agertze baizik egin Parisera eta gortera hor Erregek beti adixkidantzazko eta hauteste ageriko itxura batekin hartzen baitzuen.

*

Bakearen jartzeko, Espainiako tronuari uko egiten da Parisko parlamenduko bilzarre betean

1. Versailles-tik Kapera Saindura

Bilkurak hasi behar zuen Mesmes buruzagi lehenaren goresmen batekin Berry-ko duke Jaunari, hunek ihardetsi behar baitzaukon. Goganbehar azkarretan izan zen. San-Simun-go Anderea, hari aipatu baitzaukon, heldu zen meneko norbaiten ganik buruzagi lehenaren hitzaldiaren ukaitera, eta Berry-ko duke Jaunari eman zaukon ihardespena hartara molda zezan. Lan hori azkarregia iduritu zizakon: San Simun-go Andereari aithortu zaukon, etzakiela nola egin. Ene gain emaita eskaini zaukon, eta atherabide horrek loriatu zuen. Egin nuen beraz orri bat eta erdiko ihardespen bat eskutitz paper ohikoan eta idazkera berdin. Berry-ko duke Jaunak biziki ontsa aurkitu zuen, baina ikasteko luzegi; laburtu nuen; oraino laburrago nahi ukan zuen, hanbaterano nun orri hirur-laurdeneko bat baino gehiago ezpaitzuen. Horra beraz gogoz ikasten; heldu zen, eta erran zaukon bere gabinetean San-Simun-go Andereari buruz buru bilkuraren bezperan, hunek ahal bezain ontsa sustatu baitzuen.

Ephailaren 15-ko astezkenean, joan nintzan goizeko sei orenetan Berry-ko duke Jaunaren egoitzara parlamentuko jantzitan, eta guti berantago Orléans-ko duke Jauna ethorri zen ere jantzi berdinetan jende multzo handi batekin ondotik. Seiak et'erdiak inguruan bi printze horiek igan ziren Berry-ko duke Jaunaren karrosan; Saint-Aignan-go dukea eta ni jarri ginen aitzinean. Hura ere parlamentuko jantzitan zen, eta Berry-ko duke Jaunaren gambarako lehen aitoren- seme; athean, haren aldetik, haren zainlarien kapitaina makilarekin; bertzean, Orléans-ko duke Jaunaren gambarako lehen aitoren- semea. Bi printzen karrosa andana bat haien jendez beteak jarraiki ziren, eta Berry-ko duke Jaunaren zainlari ainitz bere aitzindariekin haren karrosaren inguruan. Bidean biziki ixil egon zen. Haren aitzinean nintzan, iduritu zizatan aurkituko eta erranen zuenaz biziki hartua. Orléans-ko duke Jauna, aldiz, biziki airos izan zen, eta kondatu zituen bere gaztaroko ixtorioak eta Parisen egiten zituen gauazko ibilaldiak oinez karrikak ikasiak zauzkotenak, Berry-ko duke Jauna ezpaitzen hetan batere sartu. Aski arinki heldu ginen Konferenziako atherano, erran nahi da, orai aurdikia baita, Teilerietako baratzeko ur-hegi eta zabalzako burura.

Hor aurkitu ziren Berry-ko duke Jaunaren zainlarietako trompeta eta timbalak harrabots handi egin baitzuten gainerateko bide guzian, urratsean baizik egin etzena palaziorano, han joan baitziren zuzen Kapera-Sainduko mailaldera, eta sartzean Champigny-ko aphezak, urrhezainak, ongi-ethorria egin baitzauen Frantziako semer egitea ohi duten bezala. Bi khor-alki aldareari hurbilenen bermagailua oin-oihal batez estalia zen laurki batzuekin, bi printzeak han jarri baitziren, eta ekhendu nuen laurgarrenean ezarria zen laurkia. Saint-Aignan-go Jauna berean jarri zen borzkarrenean. Etzen bertze laurkirik izan, eta gu baizik nehor gaineko khor-alkietara igan, alde batean ez bertzean. Bi printzen aitzindari nagusiak beheko khor-alkietan jarri ziren aldarera bi aldetarik, printzeak zirenen azpiko khor-alkiak hutsak utziz. Kapera-Saindua jendez aski betea zen, hetan jende handi batzu baitziren printzen ondora ethorriak, baina ez bere karrosetan Versailles-tik, ezpaitzen hetan izan haien jenderik baizik.

Meza ixila bururaturik aldare nagusian, kaperatik athera zen, haren athean aurkitu baitziren bi buruzagi burukodun eta gambara handiko bi konseilari parlamentuaren izenean Berry-ko duke Jaunari ongi-ethorri egitera igorriak. Goresmen laburra eginik eta itzulirik, abiatu ginen, bi buruzagiak Berry-ko duke Jaunaren bi aldetan, hunen gibelean ber zainlarien kapitaina makilarekin. Aitzinean zuen Orléans-ko duke Jauna bi konseilarien artean; berehala printze horren aitzinean nindoan, eta Saint-Aignan-go duke Jauna bakarrik ere berehala ene aitzinean. Bi printzen aitzindari nagusiak eta ainitz jende handi bazoazin nahas-mahas aitzinean et gibelean, eta Berry-ko duke Jaunaren zainlariak, musketa soin-gainean bere aitzindariekin, bazoazin bi sahetsetan eta lekuaren egiten neke handia bazuten.

Jendearen elemenia, Kapera-Saindutik gambara handirano, halakoa zen nun ezpaitzen orratz bat lurrera eroriko, eta jendeak iganak alde orotan ahal ukan zuten guzietara.

2. Gambara handiko bilzarrea

Bilzarrea osoan zen Berry-ko duke Jauna heldu zenean, erran nahi da (han zirela) odoleko printzeak eta legeztatuak, bertze pare guziak, parlamentu guzia. Tournelle-ko gambara, inkestena eta galdekariena lekuratuak ziren gambara handiarekin, ohorezko konseilariak, ohoredunak eta laur galdekarietako nagusi; bilzarre hori guzia behean zen, eta gorago bilzarrearen gibelean alki liriodunetan jartzea zuten guziak eta ohiko laur-kantoinean ezin sar zaitezkeen guziak,

ezpaitzen han abantzu lekuri izan parendako baizik. Oro behean ziren, eginen zena athe hetsiz bezala ekharria baitzen, baina gambara handia betea zen nahas-mahas jende ainitzez zutik. Gibeletako azken alkietan jarr-arazi zen gorteko eta hautuko jende ahal izan zen guzia. Bi printzek, buruzagi burukodunak gibeletik, zola iragan zuten bere lekuen hartzeko; Saint-Aignan-go dukeak eta nik hartu ginituen gureak, bilzarrean berehala haien aitzinean sarturik; bi konseilariak, bilzarrean sartzean gibelean geldituak baitziren, beretara joan ziren ahal bezala. Bilzarre osoa jeikia zen eta buru has jarria bi printzeak hara hurbildu zireneko, gu sartu baino lehen, eta etzen jarri burua estaliz printzeak jarri zirenean eta burua estali zutenean baizik. Shrewsbury-ko dukea (Angeleterrako embaxadorea), embaxadoren sartzaleaz eta bere inguruko Angeles batzuez lagundua, gainean zen galeria hetsian, khebidearen aldetik, harendako antolatua baitzuten, Angeleterraren izenean egintza horren lekuko baitezpadako bezala.

(...)

Bilzarrean ziren horrela Frantziako seme bat, Frantziako semabitxi bat, bi odoleko printze, bi baxtart, bortz elizako pare eta hemezortzi pare laiko: han etzirenak ziren bi odoleko printze haur, bi elizako pare kardinal, hamar pare hetan zenbait eri, bederatzi pare kargutan ez sartuak, gehienak gaztegi, eta sei, kargua seme edo anaia bati utzirik, gehiago parlamentuan sartzerik etzutenak. Horrek egiten zuen elizako paregoko zazpi, eta zazpi arxapezpiku edo apezpiku-pare, duke-paregoko laikoak hogeita-hamazazpi, eta kargua utzia zutenekin berrogeita-bi duke 'ta pare, baxtartak barne hartu gabe. Baziren beraz hogeita-sei arrazoin zenbaitez han etzirenak, eta Berry-ko duke Jauna barne, baginen bilzarrean hogeita-bederatzi. Balio ukanen zuen bada kanzelaria atxikitza eta horri izan balitz: zeremoniak etzitzen maite; etzen behin ere parlamentura ethorria kanzelari izanez geroztik; iragan behar zena guti erregeletan iduritzen zizakon. Erregek, errexitratze ohiko batez gehiagokoa zen guzia doi-doia onhartua baitzuen, etzaukon batere hara joatea eskatua, eta bera urrunago zen oraino horren eska-araztetik, eta han izaiteko gutizia ukaitetik.

Berry-ko duke Jauna bere lekuan, aski neke izan zen ixilaren egin-araztea. Elgar entzun ahal zeneko, buruzagi lehenak egin zaukon ongi-ethorritzko hitza Berry-ko duke Jaunari. Bururatua izan zenean, ihardestea printze horri izan zizakon. Xapela erdi ekhendu zuen, berehala berriz ezarri, buruzagi lehenari behatu, eta erran: "Jauna ..."

Ephe batez gelditu eta, errepikatu zuen : “Jauna ...” Kompainiari behatu zuen, gero berriz ere erran: “Jauna ...” Orléans-ko duke Jaunaren aldera itzuli zen, biak sutan gorrituak, gero buruzagi lehenarenera, eta azkenean hortan gelditu “Jauna” baizik bertzerik jeus ahotik athera ahal ukan gabe. Laugarren buruzagi burukodunari bekoz beko nintzan, eta osoki ikusten nuen printze horren ahalgea: izerdi nintzan, baina erremediorik etzen. Berriz ere itzuli zen burua beheiti zagon Orléans-ko dukearen gana. Bi biak galduak ziren. Azkenean, buruzagiak, atherabiderik etzela ikusiz, ikusgarri gaixto hori bururatu zuen burukoa ekhenduz Berry-ko duke Jaunaren aitzinean, eta azkarki aphas gurtuz ihardespena egina balitz bezala, eta berehala erran zeen erregeren jender mintza ziten. Goga daiteke eragozpena nolakoa izan zen gortetik hor zen guziaren baitan, eta jujeria guziaren ustegabea. Erregeren jendek erakutsi zuten beraz zer zen egitekoa, eta elhe ederreko zati handi bat hortaz egin: behar zirela parlamentuko errexistroetarik ekhendu Espainiako erregeri eta haren leinuari Frantziako koronarako zuzenbidea atxikitzen zezteeten eskutitz ageriak, nahiz etziren hor eta ez erresumatarrak, Espainiara joan zenean, eta hark beraren eta bere adarrarendako egiten zituen Frantziako koronarako uzteak irakurri, eta Berry-ko duke Jaunaren eta Orléans-ko duke Jaunarenak Espainiako koronarako, haien eta haien ondoko guziendako, eta hirur uzte horiek errexistratu. Buruzagi lehenak argitu zituen Erregeren xedeak. Joly de Fleury mintzatu zen eta arte-galdea egin zuen; imperkadore jeneralaren bururapenak irakurriak izan ziren; burukoaz baietsi zen: hori guzia biziki luze.

Errexixtratzeko erabakia erranik, buruzagiak xutitu ziren jujeria guziarekin; gur handi bat egin zaukoten Berry-ko duke Jaunari, hau buruhastu baitzen xutitu gabe; buruzagiak joan ziren edandegira, eta jujeria guzia jarraiki zizeen. Orléans-ko duke Jauna etzen batere xutitu ere, ez guruko, ez athera zirenean. Jarraibide hortan, bi odoleko printzeak eta bi baxtartak, beti xutitzen direnak buruzagi burukodunendako, hauk haiendako egiten baitira, etziren batere xutitu; eta pareak, behin ere xutitzen eztirenak ez buruzagi burukodunendako ez buruzagi lehenarendako, hauk ezpaitira haiendako egiten, berdin jarririk gelditu ziren. Lekuan egon ziren beraz arropak bere alki guziak husten ari zituelarik, gero bakoitza printzetara hurbildu zen eta batzu bertzetara, eta jende hautuko eta gortekoek bere lekuak utzi zituzten, eta zolara joan ziren, han printze eta oro xutik baitzauden, nahas-mahas, batzu bertzekin elheketa. Oren laurden baten buruan, Orléans-ko duke

Jaunak deit-arazi ninduen jende horren guziaren erdian, eta galdegin zautan etzenez lekuratu behar buruzagiak eta jujeria itzuli baino lehen. Erran naukon egin zaitekeela, baina aski goiz abisatua izaita aski zela, ephe labur bat lehenago lekurtzeko, edo berdin oro haiekin batean lekurtzea.

(...)

Buruzagien urguluak etzuen utzi gogo Frantziako semen gainera erortzeko zuen hoin gertaldi ederrra. Bere aphainketa hirur oren laurden gotorrez baino gehiago luzatu zuten, eta erasiak gora-gora phiztu zituzten, gure lekuetarik entzuten ginituenak. Ethorri ziren azkenean, eta ohartu nintzan gorri azkar bat igaiten zela buruzagi lehenaren aurpegira, eta jarraiki zizazkon bizpahirur buruzagienera, ikusi zituztenean Berry-ko duke Jauna eta Orléans-ko duke Jauna haien ethortzean ez tantitzen, bi odoleko printzeak eta bi baxtartak ez gehiago higitzen, eta etzutelarik orotarik ukan, haier itzuliz, eta haien alkietan hara behatuz agurtu zituztenean, aitzinatua nuen gurtze arina baizik.

(...)

3. Irri egiteko gertaldiak

Gauza seriosenak, batzuetan ere trixtenak, aski usu gertaldi gozagarrienez nahasiak dira, horien ezberdinak jende larrienen irria ustegabeen sortzen baitu. Enaiteke beraz egon zeremonia hortan ontsa hurbildik haien lekuko izan nintzan biak erran gabe, eta lehenean gertatuko zizatanaz ontsa khexu. Duketan nuen lerroak ezarri ninduen behereko jar-lekuetan Richelieu-ko eta La Force-ko duken artean. Bazen aski dembora bilzarrean zirela Berry-ko duke Jaunaren aiduru. Hau heldu eta gutitan, senditu nuen Richelieu zaharra higika, gero berehala galdegin baitzautan hea luze izanen zenez. Erran naukon hala uste nuela, irakurtzetaz eta erregeren jenden hitzaldien zerrendaz. Horra hura marmar-mar eta hori biziki gaizki zizakola. Etzen geldirik luzaz egon berriz ere galdetara eta higitzera gabe, eni erranez azkenean komoditatera joaiteko guraz hiltzen ari zela, eta behar zuela beraz athera. Erakutsi naukon han zen guziaz burutik oinetara ikusia zen bilzarre batetik atheratzearen ikustate gabea, etzuelarik bere aitzinean bilzarreko zola hutsa baizik. Etzen hortaz askietsi, eta berehala ukan nuen jaukitze berri bat. Gizona ezagutzen nuen ikusia nuenaz, duen arraroaren gatik hemen ezarria baitut. Banakien abantzu arrats oroz purga-belarra hartzen zuela, usu goizetan aiuta, horrekin jalgitzen baitzen, eta baitzabilan hiruzpalaurrenez, eta noren etxean baitzen ere han emaiten. Haren galtzendako

beldurak hartu ninduen, eta ondorioz ene sudurrarendako. Hasi nintzan beraz behatuz nola ekhen nezakeen hoin auzo lanjerosa, eta ikusi nuen dolorekin gauza ezina zela, jendearean metatze ezin handiagoaz. Labur egiteko, atheratzeko ufaldiak, ezin atxiki ahal ukaiteko mehatxuak jarraiki ziren bilzarre osoan, eta hanbatez berrhetu bururatzera, nun aldi bat baino gehiagotan uste ukan bainuen galdua nintzala. Bururatu zenean, othoiztu nuen Robert apheza, gambara handiko konseilari-mutila, gure gibelean xuxen jarria gertatu zena, eta elgarrizketa hori guzia entzuna zuena, Richelieu-ko Jaunaren athera-araztera entsega zadin. Neke handienekin egin zuten, Robert aphezak eta laguntzera deitu zituen athezainek hartu zuten artharen bortxaz. Etzen itzuli gaineko jar-lekuetako bilzarreko.

Hortan jostatu ninduenak etzuen mehatxatzekorik jeus ukan. Metz-ko Jauna gertatu zen bizkarrez ene belhaunetara gaineko jar-lekuer luzean zabalera zen bigarren alki hartan, murruari lotua den eta ni hartan nintzan ohiko alkiaren azpiko alkian. Bilzarrea hasi eta ephe gutitan, horra Metz-ko Jauna ezin egonean, erraiten ari zenaren debaldeaz hau eta hori ziola, hea jende horiek palazioan gure etzan-araztea deliberatua zutenez galdeka, higika, eta azkenean pix-egiteko behar gorrian zela. Gozagarría zen, gauza seriosenetan agertzen zizakon irriko jite batekin. Aitzinera behereko alkietan haren azpi aldean zauden konseilarien beharrietara pix-egin zezan eskaini naukon. Burua inarrosiz ari zen, gora-gora mintzo, abokat jeneralari hortzen artetik helez, eta lekuan inguruka hala nola nun Tresmes-ko eta Charost-eko dukeak, hauen artean baitzen, ari baitzizazkon noiz nahi geldi zadin erranez, haur bati eginen zuten bezala, eta gu irriz urratuak. Nahi zuen zinez athera, gauza ezina zela ikusten zuen, uko egiten ehoiz etzutela holako bestan berriz hatzemanen; batzuetan bazion garbiki nor ere bazen ogendun haren gainera arinduko zela; jostatu ginituen bada bilzarre guzian. Enuen behin ere ikusi gizon bat hura bezain goxatua bururatu zenean.

4. Erret-Palazioko aphairua

Biziki berant zen guzia bururatua izan zenean. Bilzarrea jeiki zen; printzeak jautsi ziren erregeren alderdiko mailalde ttipitik. Berry-ko duke Jauna Kapera-Sainduan hartua zuten bi buruzagiak eta bi konseilariak zolako atherabidean gertatu ziren, jitean egina zuten bezala joan ziren, eta Kapera-Sainduko mail berera ereman zuten. Printzeak goi-alkietarik mailalde ttipi hortarik jausten ari ziren bitartean, zutik zauden pare 'ta buruzagiek elgar agurtu zuten, eta ordu berean bakoitza joan zen jarria

zen alxia luzatuz, zaharrenak lehenik; buruzagiak athera ziren edandegiko galeriatik, pareak khebidekotik, sartua zen bezala, eta pareak betan jalgi ziren, birazka, athezain bat aitzinean ohi bezala. Saint-Aignan-go Jaunak eta nik utzi ginituen gambara handitik atheratzean, Berry-ko duke Jaunaren eta Orléans-ko duke Jaunaren karrosetara joaiteko, eta hauekin igaiteko. Zuzen joan ziren Erret-Palaziora, urratsean, palaziora jinak ziren ospe berean. Bidenabar solastatzea murriz izan zen; Berry-ko duke Jaunak iduri zuen damutua, eragozpenean, baina ere hisitua. Erret-Palaziora heltzean, biek ohiko jantziak hartu zituzten berriz, eta Saint-Aignan-go Jaunak eta nik gureak.

Orléans-ko duke Jaunak bi bilkuren artean ainitz pare eta hautuko jende gomitatua zuen Erret-Palazioan Berry-ko duke Jaunarekin bazkaltzera. Manatua zautan ere bi bilkuren artean esku-pean aurkituko nituen eta berean beharbada eginen etzituen pare batzuen eta izendatu zauztan hautuko jende batzuen othoiztea, eta bere aitzindari nagusier ainitz egin zezaten haren izenean, errexago zizeena, bilzarretik landa haien artean zirelakotz. Ephe guti batez itzulikatu zen Orléans-ko duke Jaunak hain ederki antolatua eta zabaldua zuen Erret-Palazioko bizitegi handi hartean, gomitak palaziotik ethorriak izan ziren arteo. Mahi izigarri handi bat zerbitzatu zen, berdin miragarria eta hautukoa izan zena, janari gizenik batere gabe. Berry-ko duke Jauna jarri zen erdian jargia batean, hartu zuen Orléans-ko duke Jaunak eskaini zaukon oihala, eta ukan bakarrik edateko baso-azpiko bat eta mahikoen azpian oihal bat, baina ez mahikoen untzirik. Orléans-ko duke Jauna jarri zizakon berehala eskunean, guziek bezalako jar-leku batean. Reims-ko eta Laon-go Jaunak haien ondoan jarri ziren eskun eta ezker, bertze dukeak jarraikian. Foix-ko Jauna haien aitzinean eman zen erdian. Haien aitzindari nagusiak mahian ziren eta hautuko jende ainitz. Orléans-ko duke Jaunarenak barreatu ziren ohoren emaitako; Orléans-ko duke Jaunak egin zituen ere berak garazia eta libertate ainitzekin, baina gaitasunez eta neurrian. Egon ginen luzaz, aphairua handia eta ona izan baitzen, eta bakoitza goseak hila baitzen.

(...)

5. Versailles-ra itzultzean Berry-ko dukeak ahalge 'ta haserre

Tallard-ko dukesa, erran den bezala, bezperan ezkongai egina izana zen, gauan ezkondua eta egun hartan hartzen zituen ikuslierrak Ventadour-ko dukesaren ohe gainean. Igorri zuen beraz bi printzen igurika, eta othoiztu zituen onhar zezaten haren alababitxiaren egoitzara

jitea etxera sartu gabe, ikustera joatea onhartzen bazuten, ikusaldiak bururatuak baitziren, eta ezpaitzagon gehiago haien beha baizik ohe horren gainetik atherazeko. Joan ziren xuxen-xuxena.

Ongi-ethorria egin zeen, bertzen artean, Montauban-go printzesak; hau, bere ohiko lausenguekin, eta gertatua zenetik hitz bat jakin gabe, hasi zen oihuz, Berry-ko duke Jauna ikusi zueneko, loriatua zela parlamentuan mintzatua zen garaziaz eta elhe ederraren gaitasunaz, eta hori aphaindu zuen ukan zezazkeen laudorio guziez. Berry-ko duke Jauna hisiz gorritu zen, hitz bat erran gabe, eta beti oheari buruz joanki; hura berrhetuz, printzearen lañoaz miresmenean, gorri-arazten zuela eta ihardestera ez uzten, ezpaitzen gelditu hek ezkonduaren ondora helduak izan arteo. Berry-ko duke Jauna etzen egon ephe zenbaitez baizik eta xutik, eta joan zen. Eremana izan zen hartua izana zen bezala, eta beti atso hori eginak zituen mirez gibeletik, eta parlamentuaren eta Paris guziaren ganik ukanak zituen goresmenez. Azkenean haren ganik liberaturik athera eremaitearen bururatzaz, Berry-ko dukesa Anderearen etxera joan zen, han ainitz jende aurkitzen zuela, hitzik etzuen nehoi erran, doi-doia Berry-ko dukesa Andereari, San-Simun-go Anderea berekin hartu zuen, hunekin bere egoitzara joan zen, eta gabinetean hetsi.

Han jargia batera egotzi zuen bere burua, desohoratua zela erran goraki, eta horra oihu handitan eta nigar heraki beroetan. San-Simun-go Andereari erran zaukon, hipen artetik, nola gelditua zen parlamentuan motzik hitz bat athera ahal gabe; horrek holako jendearen aitzinean egiten zaukon laidoan zapatuz, orotan jakinen baitzen, eta zozo baten eta ergel batendako har-araziko baitzuen; eta gero erori zen Montauban-go Anderearen ganik ukanak zituen goresmenetara, hunek, zion, trufatua baitzuen eta laidoztatua, bazakielarik segurki zer gertatua zizakon; eta hortik izen mota guziez izendatzen zuen azken haserrean. San-Simun-go Andereak etzuen haren eztitzeko ezer ahatzi eta gertatua zizakonaz eta Montauban-go Andererenaz, parlamentuan gertatua etzezakeela jakin erranez, nehork ezpaitzakien oraino Versailles-en, eta lausengukeriak erran-arazia zaukola asmatzen baizik etzuen guzia. Jeusek etzuen egin: beti deitoratzeak, eta gero ixila nigarren artetik. Eta gero bapatez Beauvilliers-ko dukeari eta Erregeri lotuz, eta ukana zuen ikaskuntza salatuz: “Eztute, egin zuen, ene zozotzea eta izan nindaitekeen guziaren ithotzea baizik buruan ukan. Gaztena nintzan, anaiari ihardokitzen naukon, ondorioez beldur izan dira, ezteustu naute; jostatzea eta ihizia

baizik jeus eztautate ikasi, eta heldu dira nitaz zozo eta asto baten egitera, jeusetako ahalik gabea, eta behin ere jeusetako gai izanen eztena, eta ba jendearen gutieskai eta irriegitekoa.” San-Simun-go Anderea urrikiz hila zagon, eta deus etzuen ahatzi haren berriz bere baitara jin-arazteko. Buruz-buruko bitxi horrek bi oren hurbil iraun zuen ordu izan baitzen Erregeren auharira joaiteko. Biharamunean berriz hasi zen bortiztasun gutiagorekin. Emeki emeki San-Simun-go Andereak konsolatu zuen nahiz ez osoki. Berry-ko dukesa Anderea etzizaukon deusen erraitera menturatzen, Orléans-ko duke Jauna ainitzez gutiago; baina nehor ezta geroztik hortaz mintzatzera menturatu, ez bakarrik hari, baina haren aitzinean ere, parlamentuko bilzarre hortaz, ez eta Parisko bidaia hortako deusez. Egun berean, parlamentutik landa, Shrewsbury-ko dukeak mezuak igorri zituen Angeleterrara eta Utrecht-era biziki laster lehiatu baitzuten, Emperadorea salbu, erresuma guzien arteko bakearen izenpetzea.

A. Daniel jesuistaren Frantziako ixtorio berria

Jesuistek, hain trebeak monarken ahulezien ezagutzen, eta hain antzekoak berak geriza ahal zezazkeen eta bere xedetara ekhar zezaketen guziaren hatzemaiten, erakutsi zuten hortan zenbatetarano nagusi ziren. Agertzen ikusi zen *Frantziako ixtorio* berri bat, eta segur biziki berri bat, hirur liburu *in folio* azkarki lodietan, egiletzat A. Danielen izena zuena, Parisen egoiten zena haien ikastetxean, paperra eta moldizkitzea hautu hoberenekoak zituena, eta estiloa miragarria. Behin ere ez frantzes hain argirik, garbirik, malgurik, iragaiteak zorizkoak, hitz batez, irakurle bat lot eta lillura dezakeena oro: aitzin-hitza miragarria, hitzemanak handizki, idatzaldi labur jakitatezkoak, ospea, larderia bat ezin gehiago bereganatzen zuena. Ixtorioko, ainitz elhaberri lehenbiziko erret-arrazan, ainitz ere bigarrenean, eta lano ainitz herenaren lehen aroetan. Antze guzia, itzalen eta argi-ilunen arautzea, nola margazki ederrenean, agertu ziren idurizko xoiltasun baten maskaren itxuran, eta, gune malkarrenetan, zurkaiztua dela badakien ausartzia bati izpirituak eman dezokeen laguntza guzia. Hitz batez, liburu guzia agertu zen zerbaiten sinets-arazteko egina, aitzin-gogoak zuhurtziaz baztertzen dituen eta egia baizik bilatzen eztuen itxura lañoaren azpian: lehen arrazako errege gehienak, bigarreneko ainitz, batzu ere herenekoak, jarraikian baxtartak izanak direla, arras usu adulterakoak eta bietan adulterakoak, huts horrek etzituela tronutik baztertu, eta etzela behin ere hartarik baztertu behar

zuen edo bazter zezakeen bezala harturik izana. Hemen gordinki erraiten dut arintasun xorrotxenak estaltzen duena, ageri-agerian erraiten duelarik bizkitartean lanaren jostura guzian, xede nagusitik ahal bezenbat baztertzen duen axolagabe batekin, eta ixtorioko aurkitze horien ustegabe gozagarria baizik ez uzten, horien egia, mende andana baten ilunbetan galdua, bilatuz, bilduz, gomparatuz, ithurri gordeenetara iganez, jakintsun batek egiten dituen beila jarraiki guzien ondorioa delarik, eta gerokoak ordu arteo ezjakinean gelditua zena argitzen duten argiez haren zordun gelditzen baitira.

Lilluratzea ezin gehiagokoa izan zen, eta liburuaren arrakasta hanbatekoa, nun orok hartara laster egin baitzuten eta emaztek ere. Egin-arazia zuen abantail berekoa zen ere hedatzea. Ikusi da Lille-ko gerlaldiaz, eta ikusiko da ondoan, abantail horri zaudenak eta horrek zeramatzanak zein mirazkoak ziren azpikeria ilunetan eta modaren erokeriaz, miragileak bezala, baliatzen. Liburu horren laudorioak agertu ziren Maintenon-go Anderearen egoitzatik: Erregek aipatu zuen, eta gorteko zenbaiti irakurtzen zutenez galdegin zeen; ernenek goizik senditu zuten zenbat zen gerizatua; Erregek eta Maintenon-go Andereak behin ere aipatua ukan duten ixtorioko liburu bakarra zen segur-segurki. Laster agertu zen ere Versailles-en gorteko jenden mahi guzien gainean; eta gizon eta emazte, etziren bertze jeusez mintzatu, laudorio miragarriekin, zenbait aldiz atsegingarri zirenak, edo azkarki jakingabeak, edo, irakurtzeko ahalik ere gabe, hori egiten zutenena eta gustatzen zizeena egiten zuten jende batzuen ahoan.

Baina ustegabeko arrakasta horrek ukan zuen akats bat: ohartu zen ixtorio zabal hori guzia, aro ilunak hain hurbildik miatzen zituela iduri zuena, etzizakola bertzetan armadako gaiari baizik lotzen, kampaldi, ibiltze, gerlako egintza orori, berrogei ala berrogei-ta-hamar zaldizko, edo hainbertze oinezkoen multzo batek bertze bat batzen zuen xehekeriarano, eta, ixtorio luze batean hedatuz, gertaldi den arinena ahazten etzuen. Baina antolabidez, gorteko alderdi eta azpikeriez, jenden marrazkitzez, fortunez, erortez, gertaldiak egiten dituztenez, hitz bat ez liburu guzian, ezpada idorki, laburzki eta bereziki gazetek bezala, eta usu oraino gaingirokiago. Lege, zeremonia publiko, aro orotako bestez denaz, ixil bera, gehien gehienik lakonikotasun bera; eta Erromako gaietan, gero Ligakoetan, atsegin da horma horietan lerraka lasterrez ikustea bere jesuisten lerrakietan.

Azkenean zerbait zakitenek gaitzetsi zuten, eta hainbertze esku-
zarten ondorioa ixtorio biziki gaixto bat izan zen, bertzelakoa izana
etzaitekeena athera zen eskuetarik, lagundiaren politikaren bidez, baina
biziki trebeki eta baira handiz heldu zena egin-arazia zuen helburu
bakarrera. Liburua erori zen beraz; izan ziren idatzaldiak haren kontra
izkiriatu zituzten jakintsunak; baina gune bera eta nagusia, sorr-arazia eta
eta sortzean korona-arazia zuen gunea, etzen lumaz abantzu hunkia izan
Frantzian, hain zen lanjerra senditu.

A. Danielk athera zituen Erregeren ganik bi mila libera lan-sari,
izigarri dena erregelako batendako, jesuista izanik ere, Frantziako
ixtoriogilearen izenarekin. Berak bazazkien gezurrez, eta behar baba
bertze batzuek baino hobeki, betean gozatu zen; eta bere fagore 'ta
sariarekin haren Ixtorioaren kontra izkiriatu guziaz trufatu, hitz bat ere
ihardetsi gabe, berak ontsa baitzakien hortaz zer goga.

*

1714

Espainiako erreginaren heriotzea

Espainiako erregina aspaldidanik gurinttoez bortizki hartua
begitartean eta lepoan, azken heineratua zen. Medikuetarik laguntzarik
batere ez ukanez, nahi ukan zuen Helvétius, eta Errege othoiztu zuen
eskutitz berezi batez igor zezon. Helvétius-ek, biziki ez-ontsan, eta
printzesaren izaera jakinez bertzalde, etzuen joan nahi ukan, baina
Erregek baitezpada manatu zaukon. Berehala abiatu zen postako kadera
batean, bertze bat ondotik berea hauts bazakidion ere, eta bertze hortan
zen Orry-ren semea. Azti ona izan behar zen orduan hemen begiztatzale
jeneral ikusiko ginuela erraiteko, larderia osoan, biziki luzaz, eta
Estatuko minixtro, hura gabe Frantzia Espainia haren aita gabe bezain
zorionean egonen baitzen, hunek ukan baitzuen aro hortan berean
egoitza eder bat palazioan, eta hunen fagoreak eta adminiztratzeak
Españolak gero eta gehiago gaizkitzen baitzituzten.

Helvétius Madriler a heldu zen otsailaren 11-an. Han erregina
ikusia ukan zueneko, erran zuen salba zezakeenik etzela mirakulu bat
baizik. Kofesari jesuista bat bazuen. Andere Delfin bere ahizpak bezala
egin zuen: oliadureta mintzatu zelarik eta herioaz onez onean
gogoetatzeaz, eskerrak eman zauzkon eta dominikano bat hartu zuen.

Espainiako errege etzen gelditu 9-an baizik erreginaren ohean etzatetik. Astezken 14-an hil zen kuraia, ezagutza eta debozione ainitzekin.

Errege berehala palaziotik jalgi zen, eta joan Madrilgo hiriaren bertze buruan jartzera, etxe ederrenetarik batean, han Medina-Celi-ko dukea bizi zena, Buen-Retiro-tik aski hurbil, Espainiako printzeak hara eremanak izan baitziren gero berehala. Hautu hori Retiro-ren orde bitxi iduritu zen; ezta oraino hortaz mintzatzeko ordua.

Lastima ororena izan zen Espainian, han erregina hori orotan adoratua baitzen. Etzen familiarik edozein ordenetan dolutan izan etzenik, eta Espainian nehor ezta geroztik konsolatu denik. Aipatuko dut ene embaxadaren orduan. Espainiako errege ezin gehiago hunkia izan zen. Ihizira joaitera eta tiro egitera bortxatu zuten aire hartzeko. Ibilaldi horietarik batean gertatu zen erreginaren gorputza Escorial-era zeramatelarik, eta ahokiari hurbil. So egin zaukon, begiez jarraiki zizakon, eta ihizian aitzina joan. Printze horiek bertze gizakiak bezala eginak direa?

(Frantziako) Erregek urriki handia ukan zuen Espainiako erreginaz. Dolua hartu zuen brioletez sei asterendako. Berry-ko duke Jaunak oihalak ezarri zituen. San-Simun-go Andereak etzituen ezarri nahi ukan. Bazion arrazoinekin, ez izanez Ventadour-ko eta Brancas-ko dukesak ziren bezala senarraren ganik berexia, karroseriak eneak zirela eta enuela oihaleztatzen. Hori zenbait egunez eztabadatua izan zen, baina Berry-ko duke 'ta dukesa Jaun-Anderek ohorez hartu zuten, eta hain hertsiki San-Simun-go Anderea othoiztu, nun amor eman behar izan baitzizakon ikustateari, hanbatetan nun etxean erdizkatuak izan baikin, karrosak eta jantzura erdi beltza eta erdi ohikoa.

Berry-ko duke Jauna ere pozoindatua medikuek diotenaz

1. Azken egunak

Jorrailaren 30-eko astelehenean, Erregek sendagailua hartu zuen, eta bazkal-ondoan Pontchartrain-ekin lan egin; arratsaldeko seiak hirian Berry-ko duke Jaunaren gambaran sartu zen gau guzian sukarra ukana baitzuen. Hortaz jeus erran gabe jeikia zen, eta orein ihizira joaiteko xedetan; baina, Erregeren egoitzaatik atheratzean goizeko bederatzi orenak hirian, ikhara handi batek hartu zuen berriz ohera joaitera bortxatu baitzuen. Gero sukarra bortitza izan zen. Odola ekhendua izan zizakon, Errege haren gambaran, eta odola biziki gaixtoa aurkitua izan; Erregeren etzatean, medikuek erran zaukoten eritasuna halakoa zela nun

nahiko baitzuten pozoinezkoa izan zadin. Ainitz goitikatua zuen eta okhatua zuena beltza zen. Fagon-ek zion segurtasunez odola zela; bertze medikuek xokoletera joiten zuten, igandean hortarik hartua baitzuen. Egun hortako bereko jakin nuen zer goga. Boulduc, Erregeren botikarioak, San-Simun-go Andereari eta eni biziki atxikia baitzen, beharrira salatu zautan etzela atherako, eta aldamen ttipi batzuekin ororen buruan Jaun et Andere Delfinen hura bera zela. Baieztatu zautan biharamunean, eta etzen hortarik higitu ez eritasun laburrak iraun zueno ez eta gero; heren egunean erran zautan etzela printzea ikusten zuten medikuetarik bat hortaz dudan zenik, eta mintzo zizatan hari berari gorde zaukonik. Geroan mediku horiek hortaz segur gelditu ziren, eta argitasunak aski lañoki eman zituzten.

Ostaroaren lehenean, asteartean, oinetik odol ekhentzea goizeko zazpi orenetan biziki gau txarraren ondotik; bietan goiti egitekoa ondorio handi bat eman zuena, gero leizar-ura, baina berriz bi gaizkitze. Errege joan zizakon mezaren ondotik, dirutzetako konseilua atxiki zuen, etzuen tiro egitera joan nahi ukan deliberatua zuen bezala, eta bere baratzetan ibili zen. Medikuek, ohi ez bezala, etzuten behin ere segurtatu nahi ukan. Gaua bortitza izan. Astezken otsailaren 2-an Errege joan zen mezaren ondotik Berry-ko duke Jaunaren egoitzara oinetik odola ekhendurik izana zena oraino. Erregek atxiki zuen ohi bezala Estatuko konseilua, Maintenon-go Anderearen egoitzan bazkaldu zen, eta gero gorputzeko zainlarien ikustaldi egitera joan. Coettenfao, Berry-ko dukesa Anderearen ohorezko zalduna, izana zen goizean haren izenean Erregeren othoizten Chirac Orléans-ko duke Jaunaren mediku aipatuak Berry-ko duke Jauna ikus zezan. Erregek eza eman zaukon medikuak elgarren artean bat zirelakotz, eta Chirac-ek, bertze aburu bat ukanen baitzuen behar bada, traba baizik ezpaitzezazkeen. Bazkal-ondoan, Pompadour-ko eta La Vieuville-ko Andereak ethorri ziren dukesaren izenean Erregeren othoiztera jin zadin onhar zezan, haren khexuaz ainitz elherekin, eta oinez ethorriko zela izaitekotz. Etzuela jiteko Berry-ko duke Jaunak haren ikusteko baino gura handiagorik da egia, nehoiz ezpaitzuen haren izena ahozkatu, ez eta hartaz zeharka mintzatu ere. Erregek ihardetsi zeen andere horier, hisitu baitziren, athea etzaukola hetsiko, baina zen izaeran hori biziki zuhurtzia gabekoa izanen zela. Gero erran zeen Orléans-ko duke Jaunari eta Andereari Versailles-ra joan ziten jitera ez uzteko. Ikustalдитik itzultzean Errege sartu zen Berry-ko duke Jaunaren egoitzan. Oraino odola ekhendua zaukoten besotik,

eta egun guzian goitikatzeak ukanak hetan ainitz odolekin, eta geldiarazteko hartua zuen hirur alditarano Rabel-en uretik. Goitikatze horrek gibel-arazi zuen komunionea; A. La Rue-koa ondoan zuen goizetik, biziki pairakor eta etsitua aurkitu baitzuen.

3-ko ortzegunean, gau oraino gaixtoago baten ondotik, medikuek erran zuten urdailean bazuela zain bat moztua etzutela dudan emaiten. Erraiten hasia zen bezperatik, astezkena, ixtripu hori gertatua zela Baviera-ko elektorea hara jina zen aitzineko ortzeguneko ihizian egina zuen indar batetik, lerratze handi bat egina zaukon haren zaldia atxikiz, eta gaineratu zen soinez emana zuela zelaren buruan, eta geroztik odola ahotik emana zuela egun guziez. Goitikak gelditu ziren goizeko bederatzieta, baina hobetzerik batere gabe. Erregek, orein ihizira joan behar baitzuen, ihizia desmanatu zuen. Arratsaldeko sei orenetan, Berry-ko duke Jauna hanbat ari zen ithotzen nun ezpaitzen ohean egon ahal izan; zortziak hirian, hain arindua aurkitu zen nun erran baitzaukon Madame-i uste zuela etzela hilen; baina gero berehala gaitza hain azkarki handitu zen, nun A. La Rue-koak erran baitzaukon etzela gehiago Jainkoaz gogatzeko ordu baizik, eta elizakoen ukaiteko. Printze gaixoak berak nahi zuela iduritu zuen. Arratseko hamarren aphur bat ondotik, Errege joan zen kaperara han ostia konsakratu bat baitzadukaten eritasunaren lehen egunez geroztik; Berry-ko duke Jaunak hartu zuen, eta oliadura, Erregeren aitzinean, debozione eta errespetu ainitzekin. Errege oren bat hurbil gambaran egon zen, berera jin zen auhaltzera, printzesak etzituen auhal-ondoan ikusi, eta etzan zen. Orléans-ko duke Jauna Versailles-ra joan zen gauerdia ondotik bi orenetan, Berry-ko dukesa Andereak berriz ere Marly-ra jin nahi zuelakotz. Aphur bat hil aitzinean, Berry-ko duke Jaunak erran zaukon A. La Rue-koari, hunek hala kondatu baitzuen bederen, aipatu berria den lerratzeke ixtripua, baina, gaineratu zenaz, burua nahasten hasia zen; mintzoa galdua ukan zuenean, hartu zuen A. La Rue-k zadukan gurutzea, hari musu eman eta bihotzaren gainean ezarri. Azken hatsa eman zuen ostailaren 4-ko ortziralean, goizeko laur orenetan, hogeita-zortzigarren urtean, Versailles-en jaioa baitzen 1686-ko agorrilaren azken egunean.

2. Berry-ko dukearen marrazkia

Berry-ko duke Jauna gizon gehienen goratasun ohikoa zen, aski lodia, eta orotarik, ile hori eder bat, aurpegia frexko, aski eder, eta osagarri hoberena erakusten zuena. Gizarteko eta atseginendako egina zen, guziak maite baitzituen; gizonik hoberena, eztena, urrikaltsuena,

hurbil errexena, osperik eta hutsaleriarik gabe, baina ez handitasunik, ez eta bere buruaren senditzerik. Izpiritua artekoa zuen, ikuspenik eta asmamenik gabe, baina zentzua biziki ona, eta zuzena, entzuteko, eta endelgatzeko, eta alderdi itxurazko andana baten artean onaren hautatzeko gai zena. Maite zituen egia, zuzenbidea, arrazoina, erlisionearen kontra zoan guziak ezin gehiago penatzen zuen, debozione berezirik gabe alta; etzen bermutasunik gabe, eta hertsatua izaitea hastio zuen. Horrek zuen Frantziako heren seme batendako etzadin aski malgu izan beldurr-arazi, lehen gaztaroan ezpaitzezakeen entzun ezperdintasunik izan zaitekeela anaia zaharrenaren eta haren artean, eta haren haur aharrek usu beldurra emana baitzuten.

Hirur anaietan ederrena zen eta goxoena, beraz maitatuena, pherekatuena, munduaz jaukituena; eta jitea idekia baitzuen, libroa, alaia, etziren gazte zenean Madame-ri eta La Rochefoucauld-eko Jaunari egiten zezteen ihadesteak baizik aipu. Erakasle eta maisuez trufatzen zen, usu zigorrez; ehoiz etzuen irakurtzen eta izkiriartzen baizik jakin, eta jeus ez ikasi ikasteko beharretik liberatua izanaz geroz. Gauza horiek eremana zuten erakaspenen dorpetzera; baina horrek izpiritua lanpustu zaukon, kuraia aurdiki, eta ahalge hain soberakinera ereman zuen nun gauza gehienetako eginezina bilakatu baitzuten, bere lerroko egin-beharretarano, harekin jarria etzen jendeari zer erran ez jakiterano, eta ihardestera ez hitz on baten erraitera ez menturatzerano gaizki erran beldurrez, azkenean jeusetako etzen zozo eta asto bat zela sinetsia ukaiterano. Sendi zuen, sumindua zen. Hortaz orhoit daiteke parlamentuan, eta Montauban-go Anderearekin gertatuaz. San-Simun-go Andereak, harendako baitzuen ideki oso bat, etzezakeen hortan segurta, eta egia da beretako zuen mesfidanza ezin handiagoak mugabeko kaltea emaiten zukola . Erakaskuntzaren ogen emaiten zuen, horren arrazoina biziki ontsa emanez, baina sendimendu onik etzaukon utzia hartan barne izanak zirenen aldera.

Monseigneur-en seme hautetsia zen gostuz, libertateko eta atseginetako zuen jitearenaz, jendearen hautesmenaz, eta bertze nunbait argitua den alderdi hartaz, Burgoñako duke Jaunaren urruntzean eta lehertzean hanbat abantail zuena eta horri hain arthoski emana zena. Printze horrek, lehen gaztarotik jalgiak izanez geroztik, ezpaitzuen ehoiz sendi-arazia bere gehientasuna, eta beti bizi izana baitzen harekin adixkidetasun eta etxekotasun minenean, eta ukanak mota orotako ikustateak, Berry-ko duke Jauna ere, guzia ona eta biribila baitzen, etzen

ehoiz hautetsia izaiteaz haren aldera baliatu. Burgoñako dukesa Andereak etzuen gutiago maite, etzen ere bere anaia ukan balu baino gutiago atsegin ttipi guzien hari egiteaz hartua, eta haren aldetik eskerrak samurtasuna bera ziren eta elgarren ganako errespetu zintzoenak eta agerienak. Bihotz-minez hartua izan zen baten eta bertzearen heriotzean, bereziki Burgoñako duke Jaun orduan Delfinarenean, eta bihotz-min egiatienaz, ehoiz ezpaitu gizon batek hark baino gutiago alegia egiten jakin. Erregez, hainbertze beldur zen nun ezpaitzizakon hurbiltzera menturatzen, eta hain balditua Erregek begi larri batez behatzen zaukon orduko, edo jokoaz ala ihiziaz bertze zerbaitez mintzatzen, nun doi-doia baitzuen entzuten, eta gogoa agortzen baitzizakon. Goga daiteke horrelako beldurra eztoala biziki adixkidantza handi batekin.

3. Berry-ko dukesarekin

Berry-ko dukesa Anderearekin hasia zen abantzu biziki gazte eta berririk ezkontzen diren guziak egiten diren bezala. Hartaz ezin gehiago amaratua bilakatua zen, horrek, zuen jitezko eztitasunari eta ikustateri loturik, ukan baitzuen ere ohiko ondorioa, anderearen osoki gaixtatzea izan zena. Etzen ohartu gabe luzaz egon; baina maitasuna nagusitu zizakon. Aurkitu zuen emazte bat goratia, burgoia, haserrekorra, ezin ematua, gaitzesten zuena, eta hori sendi-arazten, baitzuen hark baino ezin gehiago izpiritu, eta bertzalde gorenetik falsua baitzen eta osoki deliberatua. Bat eta bertzea izaiteaz bere burua goratzen zuen ere, eta erlisioneaz trufatzeaz, Berry-ko duke Jaunaz irri eginez eta gaitzetsiz hark baitzuen, eta gauza horiek oro ezin jasanak bilakatu zizazkon. Burgoñako duke Jaunarekin eta Anderearekin gaizkitzeko egin zuen guziak, ezpaitzen bi anaien artean hortara heldu ahal izan, sumintzea bururatu zaukon. Galankeriak hain laster egin zituen, hain neurri gabeak, nun printzeak ezpaitzuen bere buruari gorde ahal ukan. Egun oroz eta burutzerik gabe Orléans-ko duke Jaunarekin zituen solasaldiek, hetan oro ahitzen baitzen printzea heren zenean, bere baitarik athera-arazten zuten. Izan ziren bien artean aharra bortitzak eta berrhetuak. Azkenak, Rambouillet-en gertatu zena, nahigabe gaixto baten ondorioz, ekharri zaukon Berry-ko dukesa Andereari ostiko bat uzkian, eta gainerateko biziko komentu batean hesteko mehatxua; eta, eritu zenean, Erregeren ondoan haur bat bezala xapelaren inguratzeratua zen, bere bihotz-minen aithortzeko, eta Berry-ko dukesa Anderetik libera zezan eskatzeko. Gauza horiek aski dira larriki, xehetasunak bai trixteak bai itsusiak lizatezke; ororen artean bat askiko da.

Nahi ukan zuen indar guziez bere burua La Haye-ri eremana-
arazi, Berry-ko duke Jaunaren ezkutariari, bere gambarazain egina zuena.
Eskutitz beroenak eta eroenak hatzemanak izanak dira xede hortaz, eta
horrelako xede batetik, Errege, aita, senarra bizi zituelarik, juja daiteke
hori asmatua zuen eta egitera lehiatzetik gelditzen etzen buruaz.
Bertzeak ikusiko dira oraino geroan. Berry-ko duke Jaunaren heriotzeaz
erortzea liberatua izaita baino gutiago senditu zuen beraz. Haur
beharretan zen, mutiko baten beha zagon, eta bere libertateaz betean
gozatzeko xede onean zen, Erregeren eta Maintenon-go Anderearen
aldetik hainbertze gauza nardagarri ekharria zaukonetik liberaturik,
ezpaitziren gehiago haren bizi moldean neurri berdinean sartuko.

Pontchartrain kanzelariak bere kargua uzten du

Biharamunean uztailaren 2-an, Errege mezaren ondotik bere
egoitzara sartua izan zenean, ikusi zen kanzelaria kaderan ethortzen
Erregeren egoitzaren eta Maintenon-go Anderearenaren arteko saloin
ttipiko athera. Konseilurik ezpaitzen, bakoitzak laster egin zuen saloin
handira. Ikusi zen Erregeren egoitzan sartzen zigiluen untziarekin, eta
etzen gehiago erretiratuko zela dudan eman. Laudorio eta lastima
orotakoak izan ziren. Gauza banakien beraren ganik. Sartzen eta
atheratzen ikusi nuen bihotza ontsa tinki, hark ontsa zabalean zuela iduri
zuenean. Erregek adixkidantzaz eta estimu, konfienxia eta urrikia
erakusten zuten hitzez gainditu zuen; eta hark jeus ere galdegina ukan
gabe, eman zauzkon hogeita-sei mila libera lan-sari, eta kanzelariaren
lerroaren et ohoren atxikitzea. Entzunaldia bururatzera zoala, Erregeri
eskatu zaukon artha har zezan bi segetariez, bi jende biziki zuzen
baitziren alabainan, eta han berean Erregek eman zeen bakoitzari bi mila
libera lan-sari.

Erregeren egoitzan zen bitartean, berriak laster egin zuen, eta
Marly-n zen gizonalde guzia bil-arazi multzo egin baitzuten haren iragan-
bidean. Erregeren egoitzatik athera zen sartua zen bezala, etzuelarik
ohian zenetik deusetan ezberdina iduri, agurtuz eskun eta ezker, baina
nehori mintzatu gabe ez nehor hari. Bere kaderan jarri zen utzia zuen
lekuan, bere etxolara joan, han berehala igan baitzen aiduru zagokon
bere karrosara, eta Parisera joan. Han egon zen ilabete bat baino gehiago
bere etxean lehenbiziko egunetan baztertu ahal ukan etzuenaren
menean, eta gero ahal ukan zuen bezenbat hetsirik. Du Charmel-en
heriotzeak osoki hutsik utzia zuen etxea, eta berarendako antolatzen ari

zuen, etzen oraino bururatua. Han bizi ahal izan zeneko, hara baztertu zen. Bertze nunbait ukanen dut haren bakartasunaren aipatzeko aldia, eta han ereman zuen bizi berdin saildu eta askietsiaren.

Adinaz, doluaz harat, eta kanzelariaren galtzeak bizitik heriora arte baten ezartzeaz betidanik deliberatua zueneko emaiten zaukon libertateaz harat, horren egitera lehiatua senditu zen bere lekuan egunetik egunera jasaiteko zailagoak aitzinetik ikusten zituen gertakariez. Ikusten zituen A. Tellier-en xedeak, konstituzione (*Unigenitus*) delakoaren aitzinatzeak, Eliza galiarraren libertaten aurdikitzea, ikastetxena, zigor jarraikia gogortzen ari, eta muga sailduenak etzutela gehiago geldi-arazten. Aitzinetik ikusi zuen jesuisten eta haien esku-makilen tirania, bere alderdia Erregeren larderiarena mundu huntan eta haren salbamenduarena bertzean bilakatua baitzuten, apurka-apurka bortitzkeria mota orotakoetara erakarria izanen zela. Etzuen zigiluaren bidez horien minixtro izan nahi, ez eta lekuko mutua ere. Mintzatzea eta zigiluaren ez emaita, ezer egin gabe bere buruaren galtzea zen, eta hori izan zizakon baztertzearen ez luzatzeko arrazoin lehiarazlenetarik bat. Bertze bat, gutiago lehiatu etzuen, baxtartasunari hartzen ikusten zaukon hegaldatze lasterra izan zen, hunek, horren hertsatzeko adinez gai ziren Frantziako semez eta odoleko printzez liberaturik, ezpaitzeen gehiago bere ausartziari eta irabazteri mugarik emanen. Hau ere haren karguari ihes egin etzaitekeen artikulu bat zen, eta hortara emaita hastio zuen bere erasiek galduko zutelarik ondoriorik batere ukaiteko ustetik gabe. Gero laster jin denak sendi-arazi du haren ikuspegiaren zuhurtzia guzia. Begiztatzale jeneral izana zen hamar urtez, eta guti ondotik Estatuko minixtro, gero Seignelay hil-eta 1690-ean Estatuko segetari, 1699-ko buruilaren 9-an kanzelari eta ziguli zaintzale; eta erretiratu zenean bazituen hiruretan-hogei-ta-hameka urte, behin ere den gutieneko ez ontsarik ukan gabe, eta burua berrogeietan bezala.

Erregeren gabinetetik jalgia izana zen biziki guti ondotik, Pelletier de Souzy hara sartu zen hiri-harresietako lan ohikoarendako. Gutiraun zuen; eta bururatua ukan zuenean, Erregek, kanzelari baten hautatzeko astia ukana baitzuen leku hori uzten zuenak baimenaren ukaiteko hanbat othoiztua zuenaz geroztik, igorri zuen Voysin-en bila, zigiluen untzia eman zaukon, eta kanzelari jakin-arazi. Etzen Estatuko segetaririk aldi berean kanzelari izan zela ehoiz gertatu, baina hunen gosea ona zen, eta bat eta bertzea izan zen.

(...)

Voysin-ek bi kargu horiek ukan zituen errana den bezala, eta Erregek ukan zuen horren erakusteko haurkeria. Konseiluan, eta etzelarik ere goiz guzietz, Voyzin kanzelariz jantzia zen. Bazkal-ondoan, damasezko bizkarreko laburrean zen, eta Erregerekin horrela lan egiten zuen. Arratsaldean, uda baitzen, bizkarrekoa uzten zuen, eta Erregeren ibilaldian damasezko upulurdan agertzen zen. Hori ezin gehiago irri-egingarri iduritu zen eta osoki berri. Lauzun-go Jauna, bere egitekoetara gogotik baitzoan Marly-tik Parisera, kompainian gertatu zen, eta galdegin zauzkoten Marly-ko berriak. “Jeus ezta, ihardetsi zuen hain usu hartzen zuen doinu aphen eta laño hartan, ezta berririk batere, Errege da bere pampinaren janzten ari.” Irri karkailak hartu zituen han zirenak erran nahi zuena ongi entzun baitzuten, eta berak ere irriño maltzur bat, eta athera joan zen.

Erregeren baxtartak koronarako gai aithortuak

Marly-n neure egoitzara sartzean uztailaren 29-ko igandearen goiz azkenean, aurkitu nuen Maisons-en lakaio bat hitz batekin huntan othoizten baininduen, egiteko guziak utziz, ordu berean Parisera haren etxera jin nadin han ene beha baitzagon bakarrik, eta ikusiko bainuen den gibelatze ttipiena jasan etzezakeen gauza zela, izkirioz ere ezin emana zena, eta ezin handiagoa. Bazen ephe luze bat lakaio hori hor zela, eta ene jendeak ene bila alde orotara igor-araziak zituela. San-Simun-go Anderea Versailles-en zen Berry-ko dukesa Anderearekin, hau jiten baitzen arratsetan Erregerekin auhaltzera oraino Marly-n etzan gabe, eta Lauzun-go Jaunaren eta Anderearen etxean auhaltu behar nuen. Han ez izaiteak ezarriko zituen Lauzun-go Jaunaren jakin-nahia eta maltzurra alhan: enintzan beraz huts egitera menturatu. Karrosa manatu nuen; auhaltua izan nintzaneko itzali nintzan. Nehork eninduen kaderan igaiten ikusi; biziki lehiaz heldu nintzan etxera Parisen, handik joan ordu berean Maisons-en etxera asma errexa den lehiarekin.

Noailles-ko dukearekin bakarrik aurkitu nuen. Lehen begi ukaldian ikusi nituen bi gizon galduak, hiltzeko itxuran erran zautatenak, baina aitzin solas labur baina bizi baten ondotik, Erregek aithortzen zituela bi baxtartak, eta betiereko haien leinu arra, egiazko odoleko printze, haien izaeraren, lerro eta ohore osoen hartzeko zuzenbidearekin, eta ondoriotasunez koronara heltzeko gai bertze odoleko printze guzien hutsez. Berri hortan, ezpainindagon batere beha, eta segetua ordu arteo osoan zaindurik izana baitzen den agertze arinena gabe, besoak

erori zizaztan. Burua behekitu nuen eta ixil handi batean egon nintzan, neure gogoetetan murgildua. Berehala oihu batzuez hautsiak izan ziren, hetan atzarri bainintzan. Bi gizon horiek hasi ziren gambaran lasterrez, oinez zanpaka, mubleak bultzatuz eta joz, errabia ziotela nork hobeki, eta etxea bere harrabotsaz jo-araziz. Aithor dut hoinbertzetaranoko harramantza bitxi iduritu zizatala bi gizon horien ganik, bat hain zuhurra eta neurrikoa, eta lerro horrek jeusetan hunkitzen etzuen, bertzea beti hain ezia, hain malzurra, bera buruaz hain jabea. Enakien zer bapateko eroa heldu zizeen hain gogo leherdura ilunaren ondotik, eta enintzan haien haserrea enearen phizteko egina zelako aierurik gabe izan. Xede hori baldin bazuten, bertzalderako ondorio osoa ukan zuen. Neure kaderan gelditu nintzan, eta galdegin neen hotz-hotza nor zuten aiher. Ene eztiak haien eroa samindu zuen. Bizian eztut hoin ustegabekorik jeus ikusi.

Galdegin nauen hea erotuak zirenez, eta erauntsiño horren lekuan, etzenez arrazoinkatzeko ordu hobe, eta zerbait egiteko bazenez ikustekoa. Goratik erran zuten ezer etzela egitekorik ez bakarrik erebakia, baina egina, aithormenean ezarria, eta parlamenturat igorria zen gauza batean, horrela suminduak zirela; Orléans-ko duke Jauna, Erregerekin zen heinean, etzela *keha* erraitera menturatuko; odoleko printzeak ikharan egoiteko adinean ziren haurrak bezala; dukeak kontra egiteko biderik batere gabe, eta parlamentua ixilerat eta esklabotasunerat hertsatua; eta hortan bietarik zeinek zuen oihu eta xardi-mardika gehiago eginen, jeus ezpaitzuten utzi, ez gauza, ez hitz, ez jende.

Haserre nintzan ba ni ere, baina egia da feria horrek irri egin-arazi zautala eta hotzean atxik-araz ninduela. Haiekin batean onhartu nuen erremediorik enuela ikusten, eta egin behar zenik batere; baina geroan zer ere garta zaitekeenaren aiduru, nahiago nituela oraino odoleko printze koronarako gai, bere arteko lerroan baino. Eta egia da hori nuela gogoan neure baitaratua izan nintzan orduko.

Azkenean erauntsia jabaldu zen emeki emeki. Arrazoinkatu ginen eta ikasi zautaten (parlamentuko) buruzagi lehena eta imperkadore jenerala, egun hartan biziki goizik Marly-ra ethorriak baitziren kanzelariaren etxera eta hunek Errege bere gabinetean ikusia, eta handik Parisera berehala itzuliak, ekharria zutela orotara aithormena osoki bururatua. Hala ere behar zen Maisons-ek bertze nunbaitik lehenago jakina zuela, igorri zautan lakaioa Marly-ra heldu zen orenean, jaun horiek ezpaitziren oraino Pariserat itzuliak izaiten ahal abiatu zelarik.

Gure solasak debaldekoak baitziren, agurra egin nuen eta Marly-ra lehen bai lehen itzuli nintzan, ene han ez izaiteak mintza-araz etzezan.

Horrek guziak ereman ninduen alta Erregeren auhariko ordurano. Joan nintzan zuzen saloinera, biziki hits aurkitu nuen. Nor nori soka, abantzu hurbiltzera menturatu gabe, gehien gehienik kheinu gorde zenbait edo elgar doi-doia hunkiz hitz bat beharrira utzia. Ikusi nuen Errege mahian jartzen, ohian baino gehiago muturrean iduritu zizatan, eta azkarki so eginez eskun eta ezker. Etzen oren bat baizik berriak hots egina zuela, eta jendea oraino hormatua zagon, eta bakoitza azkar begiran. Atherabiderik gabeko gauzan bakoitzak berea egin behar du, eta errexkiago eta zintzokiago egiten da gauzak eztuelarik berehalako ondorioa hala nola baxtarten arteko lerroa, hortan ezpaitzuten behin ere ukan ene ganik komplimendurik ez eta itxurarik ere. Deliberoa hartua nuen beraz.

Errege mahian izan zeneko, biziki geldiki so egina baitzautan iragaitean, joan nintzan Maine-ko Jaunaren egoitzara; aphur bat ez ordu izanik ere, atheak aitzinean erori zizaztan, eta ikusi nuen ene ikusteko gozoaz ustegabetua zen gizon bat, eta aitzinera abantzu airean jin zizatana, zen maingua izana gatik. Erran naukon aldi huntan ene goresmenaren egitera heldu nindakola, eta goresmen zintzoa; ezkinuela deusen galdatzerik odoleko printzen gainetik; nahi ginuena eta zor zizakuna, gure eta odoleko printzen artean nehor etzadin izan zela; hura eta haren etxekoak hala ziren ordutik, jeus ezkinuela erraiteko bozkariatzea baizik arteko lerro ezin jasana nuela aithortu naukon hori gehiago onhartu behar ezkinuenaz geroz. Maine-ko Jaunaren bozkarioa komplimendutan agertu zen. Egin zautan guzia, erran zautan guzia, irabazte osora eremaitean izpirituak sorr-araz dezakeen jendetasunarekin eta ere ikustatearekin, ezin daiteke eman.

Erretate osoa tirania bilakatzen denean

Erregeak izan ditzen lerroen emaitako, handitzeko, ttipitzeko, aldatzeko, bere nahitara andeatzeko nagusiak, azkenean jabetu diren bezala bere menekoen ontasunen hartzeko zuzenbideaz eta haien libertatearen luma marra batez bere nahitara haustekoaz, usuago bere minixtro eta hauen fagoratuenera, hori da menekoen nahasmen neurri gabekoak garrika ideki daukon zorigaitza, eta Luis XIV-garrenaren erreinuak eremaiten jakin duena azken bururano, hunen larderiaren aitzinean legearen, zuzenbidearen, eskubide bereziaren izena bera

gaizkintza bilakatua baitzen. Orotako aurdikitze horrek, oro esklabo egiten duena, eta, deusek ez gelditua izaite luze baten bidez, trabarik batere gabe nahi den guzia egin ahal dezakeena, eta auhen saminenen eta orotakoenen ganik, eta Estatu lehertuko ordena guzien oinaze odoltsuenaren ganik nahiko adorazione guziak ukaiten dituen, laster jartzen du ahal den guziaren nahi ukaitera. Printze batek, bothere mukurru ezin gehiagoko hortara heldua eta hortan zahartua denak, ahazten du korona aro bateko emana den gauza bat dela, berea eztena, eta hartaz nahi duena egin eztezakeena; eskutik eskura bere aiten ganik ukana duela ordaingoaz bezala, eta ez ondoriotasun libroan (bazterrerat uzten ditut bortiztasunak eta bothere soberano osoki tiraniko bilakatu denak ezeztatzen dituzten izaerak); ordaingoa hori eztezakeela beraz hunki; leinu legezkoa agortzera gertatzen denean, haren arr guziak hartara berdin deituak baitira bera hartaz jantzi duen zuzenbide beraz, eztagola hari ez hetarik edozeini behin ere hutsa ikusiko ez tuten ondoriotasunaren betetzea; berek bere leinuko arr guziekin, hetarik bizi izanen deno, ukana duten zuzenbidea erresumara itzultzen dela; hirur erret-arrazek ez tutea erabaki xoil batez ondokoetara utzi, eta baten eta bertzearen borondate osoaz; bothere hori haien baitan baldin balitz, on iduritzen zeenaren fagoretan erabil lezaketela; ordutik, haien ondotik elgarrekin ordaingoa berera deituak diren bere leinuko arrer ekhentzea, bertze batzuer bere nahitara emaiteko, eztela emaiteko botherearen ebastetik biziki urrun, ezen, bothere hori egiazki bere baitan balute, deusek ezpailezazke debeka hedadura osoan horren erabiltzetik, eta lerroez, ohorez eta ontasunez bere meneko guziekin etengabe derabilaten bidegabe berean haiekin ordaingora deituak direnen aldera; ordukotz errege bakoitza on iduritzen zaukonari koronaren uzteko nagusi lizatekeela; eta Charles VI-garrenaren egintzak eta bakarra eztenak, nahiz ospedunena eta osoki egin den bakarra bederen haren gaineratekoko erreinuan, baderakutsala errege batzuen ikustea betiereko ordaingora deituak diren guzier, eta bere haurrer ere, koronaren ebasten, atzerritar baten fagoretan (...)

Zer gogora beraz itsas-haraindiko emazte batez, publikoa, poeta ixter-motz haren alhargunsa, eta adultera bikun haren seme zaharren eta bertze gizonen heinera ekharriaz, errege handi hortaz ikusi den heinean gaizki baliatzen direnez, eta ezin direnak ontasun, ohore, handitasun multzo hain izigarriaz askiesten, eta ezpadira oraino, onestasan

publikoari, lege guzieri eta erlisioneari jaukituz, koronari berari ere jaukitzen?

Errege 'ta Maine-ko dukea testamenduko orduan

Orai Erregeren testamendura jiteko ordu da, hain artha bereziekin agertuko dena, bazadukan guziaren segetu osoaz horren segurtasun ezin bortxatuaz bezenbat. Errege zahartzen ari zen, eta bizi agerian aldamenik batere ez agertu izanik ere, bazen dembora zenbait hurbilagotik ikusten zuena luzaz bizi etzadin beldurtzen hasia zela. Ezta hemen osagarri ordu arteo hain azkar eta berdinean hedatzeko lekua; aski da orai azpiz mehatxatzen zuela erraitea. Fortunaren atsekabe saminenez lehertua, horren menperatzen hain luzaz ohitua izanik, biziki gehiago egina izan zen etxeko zorigaitzez. Haur guziak aitzinean joanak zizazkon, gogamen ilunenetara emana uzten zutela. Bera ordu oroz herio mota beraren aiduru zagon. Herstura horri etxeko minena zuenean, eta jarraikienik ikusten zuenean arintzerik aurkitzeko orde, etzuen bihotzmin berririk baizik egiten. Maréchal bakarra salbu, lehen barbera, etengabe aieru horietaz sendatzeko lan egin zuena, bertze barneko mutil nagusiek, baxtartari eta hunen lehengo gobernarisari salduak, etzuten haien handitzea baizik bilatzen, eta egiaz etzuketean hortan lan handirik. Nehor etzen pozoinaz dudan, nehor etzatekeen zinez hala izan; eta Maréchal-ek, hori hek bezenbat sinesten zuena, etzuen bertze abururik Erregeren aitzinean erakusten hunen hoin goganbehartze debaldekotik, eta gaitzik baizik egin etzezokeenetik liberatzera entseatzeko baizik. Maine-ko Jaunak sobera abantail bazuen beldur hortan atxikitzean, eta Maintenon-go Andereak ere bere herraren eta hoberenik maite zuenaren zerbitzatzeko, horren itsustasun izigarri guzia, zuten antzeaz, erret-etxeko eta adinera heldu printze bakarraren gainera erortzen baitzen, bere buruer leku egiteko hunen aurdikitza hasiak baitziren, hanbatetarano nun, Errege gogoeta horietan etengabe atxikia izanez, eta egun oroz begien aitzinean, eta bere mahian, eta oren batzuez bere gabinetean, gaizkin horien egile bezala emaiten zaukoten printzea ikusten zuela, goga daiteke nola barneko sendimenduak gelditu gabe berrhetzen zizazkon.

Bere hurrekin, eta bide beretik, galdua zuen printzesa ezin ordaindu bat, gorteko arima eta aphaindura izaiteaz gainera, jostagailu guzia zuena, bozkario guzia, maite zuen guzia, laket zizakon guzia jenden aitzinean etzen abantzu ordu orotan. Ehoiz munduan zenez

geroz etzen harekin baizik etxekotua; bertze nunbait ikusi da norano eremana zen hori. Jeusek etzezakeen bete hoin huts handia, galdua ukaitearen samintasuna handitzen zen jostagailurik gehiago ez hatzemaiteaz. Zorigaitzezko izanara horrek bila-arazi zauzkon ahal ukan zuen lekuan, bere burua Maintenon-go Andereari eta Maine-ko Jaunari gero eta gehiago utziz. Hauen debozione itxurazko hutsik gabeak, hetsian egoite jarraikiak hautaz segurrean ezartzen zuten. Luzaz aitzinetik sinets-arazia zaukoten trebeki Maine-ko Jauna, nahiz egitekoetan ainitz izpiritu eta ahalmenekin, bere karguetako azken xehetasunak emanaz gogo hortan atxikitzen baitzuen, eta xehetasunak Erregeren ahulezia handietarik bat ziren, sinets-arazia zaukoten, diot, Maine-ko Jauna gutziarik gabe zela, xederik gabe, ukaiteko ere ahalik gabe, aita familiako on bat bezala bakarrik bere haurrez axolatua, handitasunaz hunkia bakarrik Erregeren handitasunaren araura hau atxikimenduz gain-gainetik maite baitzuen, guzia xoilu, zintzoa, zuzena, biribila, eta, egun osoa bere karguetan lan eginik eginbidez eta hari gustatzeko, bakartasunean atsedean hartzen zuena ihizin, eta bere barne ttipian zuen izpirituko alaiatz eta jitezko gozagarriaz baliatzen, gehienez gorteaz eta munduan gertatzen zenaz deusik ere jakin gabe.

Horiek guziak biziki laketa zizazkon Erregeri, eta osoki errexean ezartzen zuten bertzalde hautetsia zuen seme batekin, hain jarraikian eta hain hurbildik ikusten zuena, eta hunek bere ixtorio eta atheraldiez azkarki jostatzen, horietan ezagutu dutan munduko gizon edozein bezain hoberena baitzen, itzuli xoragarri eta hain errexarekin nun uste baitzinen hainbertze erran zinezakeela, aldi berean gaitz egiten trebea, irrigarritasunaren bortizki erakusten, eta hori guzia neurrian, orduaren, aldiaren, ondorano ezagutzen zuen Erregeren omorearen araura, eta gauzek hartzen zuten arau, aitzinatuz edo geldituz hanbat antze, errextasun eta garaziarekin, nun iduriko baitzen ezer etzuela gogoan, eta horrekin, eta nahi zuenean beti, ihakin egile hoberena. Eta hau haren jiteari hurbiltzen bazako, bertze nunbait aipatua dena, sendituko da laztarekin zer suge zilintzaria Erregeren barne minenean.

Errege hartan zela erakutsi berria den izaeran, bat eta bertzea ziren heinean haren gogoan eta bihotzean jarriak, eta biak osoki bat, gehiago luzea etzatekeela ontsa sendi zuten ephe prezios batez baliatzeaz ari izan zen. Helburua ezpazuten korona bera, dudana emaita errexe eztena baxtartak hortako gai egiten dituen erabakiaz erran denaren ondotik, nahi zituzten bederen aipatu diren handitasunak oro, eta aldi

berean segur izan, izan zaitekeen bezenbat, Erregeren heriotzean izanara aski beldurgarrian jartzen dituen bothereaz, ez bakarrik iraunkorki zirenean osoan egoiteko heinean, baina oraino Erreientaren hetaz kondu atxikitza bortxatzekoan.

Errege egin-arazia daukoten testamenduaz khexu

Jin behar da orai aitzinekoari hain hurbildik jarraiki zizakon gertakari ilunera, bururapena elgarrekin ukan baitzuten.

Jadanik ikusi da, Erregeri erraitea gertatu zizakonaz Maine-ko Jaunari, koronaren ondoriotasuneko gai izaiteaz hunen fagoretan egina zuenaz, hain ohartuak izan ziren aire eta doinuak, izigarrikeria hori zenbat bere nahibagean bortxaz ekhendua izana zizakon. Orai ikusiko da berriz monarka horrek, gizon orotan gehienik bere buruaren jabea, etzuela bere burua gutiago agertu hortan ere, eta bere testamenduari behatzen zaukonaz. Berri horrek harrabots egin baino zenbait egun aitzinean, oraino bere baxtartendako ekhendu berriak zauzkoten odoleko printzen zuzenbide osoen eta lerroaren izigarriaz betea, eta koronaren ondoriotasuneko gaitasunaz, bier behatu zeen bere gabinetean, mutuleriazko barne ttipi horren, D'Antin-en eta D'O-ren aitzinean, eta itxura samin eta hisiati batekin, hasi zizeen bapatean erraiten, Maine-ko Jaunari mintzatuz begia biphilik: “Nahi ukan duzue, baina jakizue zenbat ere handi egiten bazituztet, eta ni bizi nizano bazirezte, jeus etzireztela ene ondotik, eta zueri dela zuendako egin dutanaren balia-araztea, ahal baduzue.” Han zen guzia ikharatu zen hoin bapateko, hoin guti igurikatua zen orzantzaz, eta Erregek zuen jitetik eta ohi zuenetik hoin urrunduz, Maine-ko Jaunaren handi-nahia hoin lañoki erakusten zuena, eta Erregeren ahulari egina zaukon bortiztasuna, iduri baitzuen bere burua hortaz hain agerian erasiatzen zuela, eta baxtartari bere handi-nahia eta tirania.

Orduan zen erridaua baztertu barneko horren guziaren aitzinean, ordurano hain ustegabetua, hain estonatu, eta hain griñatua Maine-ko Jaunaren aitzinatze hain ageri eta jarraikiez barne hortan, eztu aspaldi argituak izan direnak. Bi egun berantago, gertatu zenak erridaua osoki goititu zuen. Maine-ko Jaunaren lastima ezin handiagoa iduritu zen atheraldi hoin bapatekoan, eta edozein solasek jin-arazia etzuenean. Errege hortara gogo betean joana zen. Han zen guzia, begiak lurrean itzatuak geldituak, hatsaren atxikitzeratua zen. Ixila osoa izan zen ephe aski on batez; etzen gelditu Errege bere arropategira iragan zenean

baizik, eta hura ez han izanez bakoitzak hatsa berriz hartu zuen. Bihotza egin-arazia zaukotenaz ontsa dorpe zuen; baina, bi haurrez erditzen den emazte bat bezala, etzuen oraino mustro bakar bat baizik mundura emana, eta bazadukan oraino hartarik hustua izan behar zen bigarren bat, hunen herstura guzia sendi baitzuen, lehenbizikoak emanak zauzkon oinazetarik batere arindua izan gabe.

Testamendua parlamenduaren eskuetan ezarria

Versailles-en ginen. Agorrilaren 27-ko igandean, Mesmes, buruzagi lehena, eta Joly de Fleury imperkadore jenerala, Erregek deituak zituenak, sartu ziren haren gabinetean jeikitzea bururatu zenean; aitzinean kanzelaria bere egoitzan ikusia zuten, han erabakia zen ezarriko zen lekuaren zaintzeko behar zena. Asma daiteke Maine-ko Jauna nahi zuenaz ontsa segurtatua izan zeneko, ontsa eztabadatua zuela buruzagi lehenarekin, bere esku-mutila zuenarekin. Erregerekin bakarrik izan zirelarik, giltza-pean zen tiradera batetik athera zeen paketa handi eta lodi bat zazpi aldiz zigilatua (eztaikit Maine-ko Jaunak nahi ukan zuenez Apokalipsiako liburu mixteriozko zazpi zigilodun hark bezala egin, paketa horren jainkoztatzeko). Emaitean erran zeen: “Jaunak, ene testamendua da; ni baizik ezta nehor dadukana badakienik. Emaiten dautzuet parlamentuan atxikitzeko, ezpaitaukot ene estimuaren eta konfienxiaren lekukotasun handiagorik emaiten ahal, hunen atxikitzaile eginez baizik. Ene aitzineko erregeri gertatuak eta errege ene aitari eginak enaute uzten hau zer bilakatuko datekeen jakin gabe; baina nahi ukan dute, oinazkatu naute, bakerik eztautate utzi, zer ere arran ahal ukan baitut. Oi bada! atsedena erosi dut. Horra, eremazue, ahal duena bilakatuko da; bake ukanen dut bederen eta aipatzen eztut gehiago entzunen.” Azken hitz hortan, buru ukaldi biziki idor batekin bururatu zuena, bizkarra itzuli zeen, bertze gabinet batera iragan zen eta utzi zituen biak abantzu gizairudi bilakatuak. Elgarri so gin zuten, entzun berria zutenaz hormatuak, eta oraino hobeki Erregeren begietan eta itxura guzian ikusia zutenaz, eta bere baitaratuak izan ziren orduko athera ziren eta Parisera joan. Etzen bazkal-ondoan baizik jakin Erregek testamendu bat egina zuela, eta emana zeela. Berria agertu zen arau, lastimak gortea guzia bete zuen, lausengariak, barnez gainerateko gortea et gero Paris izan zen bezain lastiman, laudorietan eta goresmenetan lehertu baitziren.

Biharamunean astelehen 28-an, Angeleterrako erregina Chaillot-etik ethorri zen, abantzu beti han baitzen, Maintenon-go Anderearen egoitzara. Errege ikustera joan zizakon. Ikusi zueneko: “Anderea, erran zukon gizon khexuz beteak bezala, testamendua egin dut, egiteko oinazkatu naute;” gero begiak Maintenon-go Anderearen gainetik emanaz: “atsedena erosi dut; ahalgabea eta debaldekoa dela badakit. Nahi dugun guzia ahal dugu bagireno; gure ondotik, jende xolek baino ahal gutiago dugu; aski da aitak egin zuena zer bilakatu den ikustea, eta hura hil eta berehala, eta bertze hainbertze erregerena. Ontsa badakit, hala ere nahi ukan dute, eztautate utzi ez bake, ez asti, ez atsedetik egin izana gabe; oi bada!, anderea, horra egin, ahal duena bilakatuko da, baina bederen enaute hortaz gehiago oinazkatuko.”

(...)

Buruzagi lehen eta imperkadore jenerala Parisera itzuliak izan zireneko, igorri zuten langile bila, palazioko dorre batera ereman zituztenak, gambara handiko edandegi eta buruzagi lehenaren gabineteko gibelean dena, eta grefiertegiari demana. Zilo handi bat egin-arazi zuten dorre hortako murruan, azkarki lodia baita, eta testamentua han ezarri, ziloa hets-arazi burdinazko athe batekin, burdin-sare batekin bigarren atheko, eta murrua egin oraino gainetik. Atheak eta sareak ukan zituzten hirur zerrapo ezberdin, baina athean eta sarean berdinak, eta giltza bat hiruretarik bakoitzarendako, bakoitzak bi zerrapo idekitzen zituen beraz. Buruzagi lehenak atxiki zuen bat, imperkadore jeneralak bertze bat, eta parlamentuko grefier-buruak herena. Grefier-buruari emateko estakurua hartu zuten leku hori parlamentuko grefieraren gambarari baitatzikakon, bigarren buruzagi xapeldunaren eta parlamentuko dekanoren arteko jelosiari huts egiteko, eta hautuak eman zezakeen berexkuntzari. Parlamentua aldi berean bildua izan zen, buruzagi lehenak emaiten zukola kompainiaren lausengatzeko gaiena zen kondua, eta ohorez xixtatzeke han uzten zenaren konfienxiaz eta eduk zezakeen erabaki guzien atxikitzeaz.

Aldi berean Erregeren jendek aitzineratu zuten buruzagi lehenak eta imperkadore jeneralak Versailles-en Erregek testamentua eman zeen goiz berean kanzelariaren eskuetarik ukana zuten erabaki bat, eta erabaki hori errexixtra-arazi zuten. Labur-laburra zen. Bazion buruzagi lehenari eta imperkadore jeneralari eman paketak haren testamendua zadukala, hunekin artha hartua zuela Erregeren adin-gabeen zaintzeaz eta gerizatzeaz eta erreienziako konseiluaren hautatzeaz, ezpaitziten,

arrazoin zuzenen gatik, horren xehetasunak agertu nahi ukanak; nahi zuela paketa hori parlamentuko grefiertegian atxikia izan zadin bera bizi izanen zeno; Jainkoak mundu huntarik hartzea nahiko zuen orduan, parlamentuko gambara guziak bil ziten erret-etxeko printze guziekin eta han aurki zaitezkeen pare guziekin, haien aitzinean, testamentuaren idekitzearen egiteko, eta hau irakurri ondoan, zaduzkan erabakiak agertuak izan ziten eta jarraikiak nehoi kontra egitea haizu utzia izan gabe, eta delako testamenduaren *duplicata*-k erresumako parlamente guzietara igorriak, eta bertze, Erreienziako konseiluaren manuz, han errexixtratuak izaiteko.

Chevreuse eta Beauvilliers: bi duke koinatak

Ukana nuen Beauvilliers-ko dukearen eta Pontchartrain-go kanzelariaren beteki akomeatzeko bozkario osoaren senditzeko gozatasun guzia, bere lekuan ikusi dena, eta lehenak bigarrenaren erretretaz ukan zuen atsekabe egiazkoa; ukan nuen ere dukearen heriotzeaz kanzelariaren zinez dolumindua ikusteko konsolamendua. Akomeatze horren aitzinetik beretik, kanzelariak, nahiz Chevreuse-ko dukearen adixkide zen, erraiten zautan batzuetan atsegingarriki bi koinatez “miragarri zela, bere biziko ohidura guziaz elgarri atxikiak ziren bezala, bihotz bat, arima bat, gogo bat, sendimendu bat baizik ez izaiterano, nola Beauvilliers-ko Jaunak bazuen aingeru bat behar zenean gelditzen zuena, eta nehoiz ez huts egiten Chevreuse-ko Jaunak zuen kaltegarri eta batzuetan ezin jasanetik haren itzultzea, kaltegarria bere bizi moldean, egitekoak eta osagarria hondatzen zauzkona, ezin jasana bere arrazoinamenduetan; aingeru bat osoki kontrakoa egin-arazten zaukona, eta gainerateko guzian haien batasuna jeusetan uhertzen etzuen, eta hortik beretik ez andeatzen.” Alabainan, deus ez baten egitekoetako nahasmena eta bertzearen izaera ona bezain gauza kontrakoagorik; baten jate zuhurraren murrizta, bertzearen janari nasaia; bat Cornaro-ren liburuaren et filosofiaren sinesle, bertzea Fagon-enaren; Beauvilliers-ko Jaunaren orenen minuta bateranoko zuzena, bere demboraz zuhurrena zen gizona, eta karrosazainari desenkusutzen zizakona karrosa galdegina zuen ordu berean zuzen ezpazen jiten, eta Chevreuse-ko Jaunaren axolagabea beti bere buruaren igurika atxik-araziz, hortako gertaldi atsegingarriak ikusi baitira bere lekuan, eta orenez zuen ezjakina, nahiz hunek ere bere aroari behatzen; azkenean baten xorrotxa ororen zuzen egiten eta bururatzen, bertzea ari zelarik

etengabe eta iduri nehoiz etzuela bururatzen. Hortakotz Beauvilliers-ko Jauna, orotan ontsa egin nahi zuena, hortaz askiesten zen; Chevreuse-ko Jaunari aldiz, hoberena bilatzen zuenari, usu bat eta bertzeak huts egiten zaukoten.

Beauvilliers-ko Jaunak gauzak ziren bezala ikusten zituen; lilluramenduen etsaia zen, guzia zorrozki haztatzen zuen, alderdiak zuzentasunekin erkidatzen, oinarri segurretan jarri hautuan bazagon higitu gabe. Chevreuse-ko Jaunak, izpiritu gehiagorekin, eta berdintzerik gabe mota orotako jakitate gehiagorekin, oro xuri ikusten zuen eta itxaropenez beterik, gutienik eskaintzen zuenerano, etzuen bertzearen zuzentasun bera, ez eta zentzua hain segurra. Zuen argi sobera ez aski bilduak eguargi enganakorrez lilluratzen zuen eta asmatzeko eta arrazoinkatzeko zuen errextasun ezin sinetsiak hainbertze bide idekitzen zauzkon nun galtzera aiher baitzen, bera ohartu gabe eta munduko gogo hoberenean. Etzen ehoiz eragozkai horietarik Beauvilliers-ko Jaunaren baitan, konseilu batean hobe zena, eta Chevreuse-ko Jauna akademia guzietan. Hunek bazuen ere elhe-ara jitezkoago nasai bat, berekin bazeramana, eta lanjerosa ere hartan bere baitarik sortzen ziren garaziez, gatina erhaztunen bortxaz hutsera eremaiteaz, lehenbiziko erranaldiak betean utziak zizazkolarik oharpen aski atzarrien eskasez, eta horrela eremana izaiteaz, azkenean, oso-oso ikusten zen hutsera sartzen baitzen, eta ere aitzinetik hortara egozten senditzearen mogimenduaz. Azkenean, bat baizik ez izaiterano hain atxikiak ziren bi gizonen ezberdintasun hunen bururatzeko, Chevreuse-ko dukea etzaitekeen ez jeik ez etzan; Beauvilliers-ko Jauna, orotan arautua, biziki goizik jeikitzen zen, eta goizik etzaten, erran nahi da mahitik jalgitzen zela fruituaren orduan, eta auharia bururatu baino lehen etzana zela.

San-Simungo dukearen izanara berria gortean

1. Dukea eta Desmarets

Aithor dut neke zautala hain minki maite nituen, eta ene bizi guzian hala ukanen ditutenetarik atheratzea. Ordu da berriz has dezadan gortean nuen izanararen itxura berri bat, aitzinean nuenetik ontsa ezberdina (...)

Erregeren mota orotako barne hartan, enuen Maréchal baizik, aldi bat baino gehiagotan beretik eman baitzuen enetako Erregeren aitzinean jaukitzen zizaztanen kontra, eta hortako berme onak bazituztenen. Minixtroetan enuen gehiago nehor ukan: Desmarets,

arrazoinik batere gabe, urrundua zizatan, ete hortaz ohartu nintzan orduko urrundu nintzan ere. Chevreuse-ko eta Beauvilliers-ko Jaunak ohartu ziren; ikustera joan nindakion hertsatu ninduten eta hoin egiteko nekez lehertua zen gizon bat desenkusa nezan; eta ikusiz azkenean hori etzautatela onhar-arazten, bortxatu ninduten haiekin auhaltzera joaitera, abantzu nehoiz gertatzen etzizeen gauza. Guzia enetako horman izan zen Desmarests-en aldetik, bi dukeak hortaz hain gaitzituak izan baitziren nun gehiagokorik galdeginen etzautatela erran baitzautaten. Fontainebleau-n zen, Chevreuse-ko dukea hil baino zuzen urte bat lehenago. Ondoan, Desmarests-i behar zizakolarik ene lurretan diruzainen ausiki zenbaitez mintzatu, beti San-Simun-go Anderea joan zadin othoizten nuen. Laster etzen ni baino askietsiagoa izan. Gauza batzu metatzen uzten zituen hari guziez betan mintzatzeko; azkenean etzen hara joaitera deliberatu ahal izan. Lan-sari batzuen ordaintzeak metatuak ziren; beti galdegitera joaita gibelatzen nuen, egun batez San-Simun-go Andereak hanbat hertsatu ninduen arteo nun joan bainintzan bazkal-ondoan, hari mintzatzeko aski ordu baitzen.

Bururatzen baizik etzuen sartu nintzalarik, Versailles-en, haren gabinetean, handia zena. Bere burulegoan jarri berria zen. Agertu nintzaneko jin zizatan itxuraz hunkia, elhea lehen hitzean mostu zautan, jendeak gaizki egiten zaukolakoan ontsa zorigaitzean zela erranez, eta doinua goititzen ari zizeen horrelako bertze zinkurina batzu. Ohartuz horrela uhainaldia ikus ahala gotitzen ari zela, elhearen berriz hartzera entseatu nintzan, ordu berean moztu ninduen; gorritu zen, begiak sutan jarri zizazkon, auhen saminak, baina uherrak eta enegain har nezakeenik ezer gabe, berrhetu ziren mintzo azkarki gora batean, eta bapatez jauzten zela eskuan nindaduzkan paper batzuetara, bi hitzez hari argitzeko xedea hartua bainuen utzi baino lehen: “Dakusagun, erran zuen, hori guzia zer den,” doinu batekin, ene ustegabe ezin handiagoan, gehiago ez igurikatzen erakharri baininduen. Ene gana jina zizatan atheari hurbil-hurbila, ideki nuen, eta gibelera behatu gabe, banabila oraino.

Joan nintzan ene gertaldiaren San-Simun-go Andereari erraitera, eta gurekin bazkalduak ziren gure adixkidetako jende batzuer, berriz han aurkitu nituenak, eta neure buruari hitz-eman enindaukola gehiago basa-ihizi hain eskergabe eta hain mokorrari eskutitzez baizik mintzatuko, eta harekin egiteko ukanen nuen behar-beharrean baizik. Egia dena da, ordutik beretik, hitzeman naukola neure buruari deus ez ahaztea haren

ezartzeko nehor gaizki erabil elezan heinean, eta hortara heldu nintzan, ondoan ikusiko den bezala.

(...)

Hain zen bere karguaz eta ustegabeko fagoreaz xoratua, hain bere omorearen eta irabaziaz baizik nahi etzituzten adixkide berrien lausenguen menean, nun ahatzi baitzituen desgarazia luzearen erakaspenak eta bere adixkide zahar eta abantail nahi gabeak. Beauvilliers-ko eta Chevreuse-ko Jaunak ordukotz zenduak ziren; haiekin ere berdin hoztua zen solastatzetik gelditzerano, eta Croissy-ko Anderearekin azkarki gaizkitua, desgarazian zeno, atherabide bakarra ukana zuena Parisen egon ahal zenaz geroztik, beraz biziki hotzean ere Torcy-rekin. Horrelakoa zen giza-jale hura.

2. Bakartasuna gortean

Torcy-rekin, ikusi da harremanik batere enuela nehoiz ukana, eta zein zango ezkerrez nintzan Pontchartrain-ekin; Voysin-ekin, kanzelaria eta Estatuko segetaria, ehoiz enuen den gutieneko ezagutzarik ukana, eta Maintenon-go Anderearen eta Maine-ko Jaunaren arima danatua zen bertzalde.

Horrela, ene adixkide minenen ondoko guziak biziki kontrakoak nituen, edo bederen osoki orobatekoak; behar nuen oraino batekin ere hoin merkerik kitto nintzala ez uste ukan, Beauvilliers-ko Jaunaren ondokorano, han edo hemen leku batzuetan ikusi den bezala; azkenik ere elgarrekin aski gaizki geldituak ginen Frantziako marexalen nahikaria ederren ondotik, Estrées-ko dukearen eta Harcourt-ko kondearen egitekoaren orduan, azkarki alde izan baitzizeen, eta hetan gupidarik gabe ari izan bainintzan hartaz.

Aski entzuten da Villars-ko marexalaz nahi dutala mintzatu; Lyon-ho arxapezpikugoa ukan berria zuen semearendako, eta gobernu eremu osoan manamendua, haren arxapezpiku osaba-bitxiak bezala, zituen bizi-moldeak eta jakin-gabea ukanik ere, batzu eta bertzea osoki ezagunak. Dirutzetako konseiluaren buruzagi lekua doi-doia hutsa izan zeneko, Erregek mezu igorri zaukon Lyon-era, han baitzagon, emaiten zaukola. Elgarrekin ginen araz bertzalde, Maintenon-go Andereari saldua zen gizon bat zen oraino, eta ondorioz bederen orduan, Maine-ko dukeari. Tallard, Tessé, bertze gortelari gotor batzu, beti ikurrina ezberdinen azpian ibiliak ginen, eta nahiz Harcourt-ek usu hurbildua ninduen, Beauvilliers-ko dukearekin nintzanak debekatua zautan behin ere hari esku emaita jendetasun xoil eta baitezpadakoaz haratago.

Hitz batez enuen gehiago nehorekilako lokarririk; Charost, zuen karguan izana gatik, jeus etzen, eta Noailles-ek bere itxura guziekin, eta desgarazia estali baten minbizi gordearekin, bazuen geroko ene behar gehiago, nik oraiko haren baino. Beraz bermagunerik batere gabe minixtroak eta Erregeren barnea kontra nituen, eta gortean zikai ainitz ene gainera behehituak hartuak ziren beldurraz eta jelosiaz, eta Orléans-ko duke Jaunaren erreientzaz urrun etzen gero baten gogamenaz.

Hunen eta ene arteko atxikimendua gure bizi guzikoa zen; jendea etzen jakin gabe Argenton-go Anderearen ganik haren berextea, Orléans-ko dukesa Anderearekin berriz akomeatzea, geroztik hartan bizi ziren batasuna, Berry-ko dukesa Anderearen ezkontza, ene lanak zirela. Erregeren desgarazia hain ageriak, hain barnatuak, Espainian gertatuaren lanjerrek, pozoinen harramantza hanbat errepikatuek, haren ganik ororen ihes egiteak eta beti bazirauenak, abisuek, itzul-arazteko artha hartuz jakin-araziak zizaztan mehatxu segetuzkoek, eninduten haren ganik berexi ahal ukana, ez eta agerian ikusten zuen gorteko gizon bakarra izaitetik, eta publikoki harekin Marly-ko baratzetan agertzen zen bakarra, eta Erregeren begien aitzinerano. Eginara horren berdintasuna etzatekeen esperanzen gain eman ahal izana, Monseigneur-en eta hunen seme printzen aroan ber-bera izana zenaz geroz, orduan enindagokelarik desgarazien beha baizik. Gupida guti hori ausartzia berezi bat bezala ikusia zen printze hori Erregerekin eta Maintenon-go Anderearekin zen eta nehor ezagun gabe etzen heinean, eta Erregeren testamendua bere ilunbean bilakatzen ari zelarik urrats guziak Maine-ko dukearen gana zeramatzanaren lekuko ageria.

3. Bertutearen etsaiak

Hunek etzuen ene gana eginak zituen urrats guzien debaldea ahatzia, ez eta ukanak zituen lerroez nuen hastio ezin handiagoa. Orléans-ko duke Jaunarekin banagienak indarrekin ezeztatzen zuen printze horren gain emana zen aipamen hastiagarria Maine-ko dukearendako hain balioduna, jakina baitzuen hortaz hain trebeki abantail hartzen, eta ethorkizuneko hanbat antzerekin eta itzul-inguruekin arthatzen baitzuen, Maintenon-go Anderea beti harekin erdizka.

Begiratua nuen egian, zuzenean eta ohorean aipamen bat osoa, bekaiztiak, lerroko aharrek, ekaitz guziek behin ere hasia etzutena; San-Simun-go Anderea bere bizi guzian mota orotako aipamenez hein handienez zen; nehor etzen etzakienik, nahiz larriki, mugagabe galdua

ginuela oraiko eta geroko Delfin Jaun-Anderekin, eta gure doluminaren samina. Behin ere enintzan neure burua hertsatzen zuen norbaitendako harturik izana, ageri zen beraz Orléans-ko duke Jaunarekin hautsia ukanen nuela, gupidarik gabe, eta geroaz axolarik batere gabe, den gutieneko aieru bat ukan banu; hau ere orotaz aithortua zen, eta printze hori ikusten nuen sobera egun oroz, sobera minki, deusen aierurik azkenean ez ukaiteko, hortako arrazoinik bazatekeen ber. Horra zerk ninduen alde orotako abisu eta mehatxueterik baztertua printze horrekin eginaraz aldatzera neure buruaren bortxa-araztetik, hortako debalde egina zutena errabian gainera erortzen baitzizatan Maintenon-go Anderearen eta Maine-ko Jaunaren aldetik, hauek, bertze nunbait hunkia izanik ere hemen begien aitzinean emaiten dutan gauzaren gainera, Orléans-ko duke jaunari ikusten zuen eta harekin arrazoinez eta aholkuz mintza zaitekeen gizon bakarraren ekhentzeko xedea ere baitzuten.

Bi jende hain miragarriki nagusi horien eskupekoek etzeeten mota hortan huts egiten. Horier batzen zizeen bertzalde bekaizti eta jelosen multzo gero eta handiago bat, ontsa segur zadukatenak, Orléans-ko duke Jauna erreient izanen zeneko, haren ondoan konfienxiaz eta estimuz lehenbiziko itxura ukanen nuela, hortaz aitzinetik etsipenean baitziren. Hori bera zen ere Maine-ko Jaunaren eta Maintenon-go Anderearen beldurretarik bat.

Erregeren ondoan galtzeko emana zizatan izpirituzko aipamenak, hautatu ninduenean, 1706-an, Erromako embaxadako, eta hain ongi helburu onera heldu zena asmatu zuten jende zuzenen nahitara, orduan ikusia den bezala, Maine-ko Jaunaren, Maintenon-go Anderearen, Erregeren beraren buruan gelditua zen; jendearen larrienak, hortara emana zuenak, bera ikustera joan baino lehen sinetsirik ukana zuen, horrela baitira jartzen eta baitute irauten egun oroz moldatzen diren mila hutsezko aburuek. Ainitz gertaldier, lerrozko eta bertze motako egitekoer ihardokia nauen bai odoleko printzekin bai gorteko handien eta indardunenekin, ekaitz batzuer ere, gauza oro hemen bere lekuetan gehienez ikusi direnak. Batez enintzan lotsaturik izana, orotarik beti ontsa atheratua nintzan. Horiek oro, elgarri bekaizkeriak eta jelosiak josirik, izitzen zuten eta sendimendu bortitz horien menean ezartzen ninduten.

Nahiz iduri zuen Errege ximeltzen hasia zela, ezer etzen oraino agerian mehatxu emaiten zuenik, eta banakusan neure burua itsas-bide luze baten eremaiten arkaitz eta leze horien artean; ikusten nituen guziak

agertzen, edo aitzinean idekitzen; sendi nuen zer heineko phizua nintzan Maine-ko Jaunari eta Maintenon-go Andereari, begietan zuten printzearen etxekotasun min bakarrean, hura eta ni den gutieneko gerizapenik gabe; zenbat lanjerosa iduritzen nintzeen Errege hil eta haren ondoan; azkenik, zenbat gutiziatu, bekaizti, etsai, gogoeta horiez berez behako ezberdinetan oinazkatuak. Gehiago enuen aholku emaile nagusi eta berezirik, eta nehor indar zuenik ene laguntzeko eta gerizatzeke. Jainkoak nahi ukan zuen enintzala nahasi; egin molde zuhur batera deliberatu nintzan, baina ene ibileretan ezer aldatu gabe, nehoren bila ibili gabe, oroz gainetik Orléans-ko duke Jaunarekin ohitua nintzan bezala osoki bizitzera barnean eta agerian, eta ahultzen eta zerbaiti lotzearen bila ene ikusteko atseginaren nehoi ez emaitera. Erakuste labur hau beharrezkoa zen gero jinen denarendako, nahiz ezten oraino Orléans-ko duke Jaunaren eta Anderearen eta ene artean gertatzen zenaz mintzatzeko ordua.

Barzelona setiatua eta hartua

Mortemart-ko dukea buruilaren 30-eko ortzegunean ethorri zen Versailles-ra, Berwick-ko dukeak igorria, hunek has-arazi baitzaukon buruilaren 11-an argi hastean Barzelonari orotako jaukizarrea, setiatuk etzaudelarik batere horren beha. Harresietako urrakoak gaizki zaindu zituzten, eta gureak hirur bastiza eta bi kortinen jabe gelditu ziren. Jondoni Petriko bastizan etziren batere gudukatu laugarrena baitzen aldi berean jaukitua zena. Baina gureak etziren han egon ahal izan manatzen zuen komentu batetik jalgitzen zen su handiaren gatik. Hor izan zen gehienik galdu zutena, eta oro har, egintzak ainitz gosta du alde batetik eta bertzetik. Bi hiriak berexten dituen harresi zaharraren gibelera baztertu ziren, eta hori Berwick-ko marexalari ontsa gozo izan zizakon, hek ukan zezaten amor emaiteko ordua, eta hark hiriaren ebaskatzearen debekatzekoa; Talleyrand eta Houdot brigadierak han hil ziren. Azkenean setiatuak nahitara eman ziren bizia salburik, baina bere ontasunen aipamenik batere gabe; Mont-Jouy aldi berean eman zen ere, eta Cardona zenbait egun berantago, aitzinetik hitz hartua zen bezala.

Orotako jaukizarre hori, Dillon-ek lezoineko ordezkari jeneral bezala manatzen zuela, eta Cilly-k lezoin berriarekin ordaindu behar zuen ordezkari jeneral bezala, grenadarietako hogeita-hamar batallun eta hogeita-hemezortzi kompainiek eman zuten, La Vère-ko markes Chimay-ko printzearen anaiak eta Guerchy ordezkari jeneralek

manaturik; eta Chateaufort-ek sei ehun dragonekin jaukitu zuen aldi berean, Armendarizek lagundurik hirur ehun zaldiekin, geroztik Peruko erretorde izan denak. Guzia aldi berean jaukitua izan zen; jaukizarreko aitzin-lerro guziaren gibelean gerizagune handi bat aurkitu zen han hirur bastizetarik eta bi kortinetarik haizatu setiatuek bermukiago egin baitzuten. Setiatzaleak hedatu ziren eta hartu zituzten: ainitz etxe eta plaza batzuez jabetu ziren, eta han egon setiatuek berroldartze batzu eginik ere. Berwick su handienaren erdian izan zen beti, bere manuak bere gambaran izan balitz bezalako odol hotz batekin emanez. Harresian hauste bat egin-arazi zuen antolamendu berri batzuen egiteko, eta etxez baliatuz aitzina joateko. Sua biziki bortitza izan zen alde orotarik eta arratsaldeko laurak arteo iraun zuen, orduan etsaiek gibelera deitu baitzuten. Haien deputatuak jalgi ziren, harat-hunat andana bat egin zen. Biharamunean 12-an eman ziren nahitara, erran den bezala. Egintzaren bururatzera zaldizkoeria hirira igan zen harresi artetarik.

Jaukizarrean jauz-arazi zituzten mina eta lurpeko mina batzuek aski gaitz egin zuten; eta zenbatu ziren nunbait han hamabortz ehun gizon jaukizarre hortan hil edo zaurituak alde batetik eta bertzetik, ainitz aitzindariekin. Hiriak hiruretan hogeita-bat egunez atxikia zuen lezoina idekian, tropen eta bizilierren gemen eta iraunkortasun ezin handiagoeekin, Emperadoreaz utziak izaiteaz eta garhaituak izanik bere lege berezien betiereko galtzeaz errabian, eta betidanik hetaz hain bekaizti izanak diren bere probinzienenez, hetaz hain bitxiki baitira gehiegi baliatu. Ordenu guzietako fraidek, gehienik kaputxinek, eta San-Frantsesen bertze guziek, jesuistek berek, bere errabia agertu zuten etengabe hauen menean jarri ziren akidura eta lanjerretan, eta berek egiten zutenaz laguntzen zituzten sustatze bizietan.

Berwick-ek hain handizki zuen oro antolatu nun, amor emana ukan zuten biharamuneko, guzia hain bakean iduritu baitzen hiri osoan eta sal-erostegiak ohi bezala idekiak izan baitziren. Burjeser harmak ekhen-arazi zezteen, gobernamentuaren molde zahar guzia aldatu, deputatugoa hautsi, zuzenburu berriak egin, gobernamentu molde berri bat jarri, “junta”-ren izenpean, Espainiako erregeren manuen aiduru, mezutu baitzaukon Lanti-ko printzea, Orzini-ko printzearen iloba. Mikeletak eta gerlaldira bere baitarik joanak amor emaitera ethorri ziren elementen. Katalunia menperatua izan zen. Villaroël, Orléans-ko duke Jaunarekin Espainian gertatuaz aipatu denak manatzen zuen Barzelonan. Untzi batera emana izan zen Basset eta jazarraldiko bertze buruzagi

nagusi batzuekin, guziak militarrek, eta Alicante-ko gaztelura eremanak izan ziren, gainerateko bizi osoan han egoiteko, edo bertze presondegi batzuetara banakatuak izaiteko.

Berwick-ko dukea egon zen ilabete bat Barzelonan hiriko eginbehar militar eta zibil guzien arautzeko, eta gero Madrilera joan. Irabazte hori, haren kuraia, ahalmena, zuhurtzia ospez estali zituen, izan zen Espainiako koronaren Filipe V-garrenaren buruan azkartzeko eta bake publikorako azken egintza, Emperadoreak ezpaitzuen, bakea egina izanik ere, gorde ahal ukan zuen atsekabe ezin handiagoa.

***Unigenitus* konstituzionearen ondorioz, Tellier jesuistak konzilio bat bildu nahi du Senlis-en**

Hainbertze eragozpenek delibera-arazi zuten Erregeri indar baten egin-araztea aitasainduaren ondoan hunen ganik zerbait argitasunen ukaiteko, edo erresumako konzilio bat egin zadin onhar zezan, errana izan denaz goga baitaiteke hori Erromaren izitzekoa dela. Amelot, jesuisten adixkidea, baina gizon ohoreduna eta antolabidetako eta egitekoetako antze handikoa, izendatua izan zen beraz Erromara joaiteko Erregeren minixtro xoilaz bertze kargurik gabe. Mintzatu zizakon bizpahirur aldiz bere gabinetean, eta abiatu zen negileko lehen egunetan.

Errege Fontainebleau-tik Versailles-ra heldurik beraz urriaren 25-ean, Amelot izendatu zuen 29-an. Omiasaindu ortzegunean gertatu zen, eta biharamunean Marly-ra joan zen, negilaren 1-eko ebiakoitz arteo. Bidaiaren hastapen inguruan, A. Tellier, beti gorte egiten ari baitzizatan, eta konstituzionaz mintzatzen ez akitzen, apur bat askietsia hortaz enekin solasaldietan izan beharraz, ainitz mintzatu zizatan erresumako konzilioaz, eta eskaintza bat egin zautan, gizon hain izpiritu ainitzeko eta itzul-inguru eta jukutrietan hanbat ezaguna zen baten aldetik, behin ere argitua ahal eztutana. Konzilio horren eni gustarazteko gaitzeko solas andanaren ondotik, biziki baieztatuko nuena alabainan, osoki libro utzia ahal izana balitz, Senlis-en egitera deliberatua zela erran zautan; Parisen izan zadin ezina zela, aitzineratu zauztan ainitz arrazoinen gatik, eta guziak hura konzilioaren ontsa nagusi eta tirano izaitera bazeramatenak; hiri bat behar zela guziak ostatsatuak izan ziten, eta Pariseri hurbil handik behar ziren argien hartzeko alde batetik, erran nahi baita haren manu-pean, eta jan-edanetako bertzetik; Paristik aski urrun hara usu joaiteko ahalaren ekhentzeko, eta debekatzeko ere

prelatak hara joan ziten; eta gero eni behatuz aire goxo batekin: “Zu zira, gaineratu zuen, Senlis-ko gobernaria; konzilioan Erregeren komisarioa behar duzu izan; zu baino gaiagorik ezta nehor, eta jeus eztoa hobeki. - Ni, aita, egin nuen izialdurak hartua, konzilioan komisario! eztut munduan jeusendako onhartuko, etzazula holakorik gogoan ukan.”

Kofesariaren ustegabea ezin errana izan zen, eta hainbertze izpirituko, berriz ere diot, gizon batendako, ihardetsi zautanaren dorpea ezin errana ere. “Nola, jauna! erran zautan bereganatzea bilatzen zuen doinu ezti batekin, komisionea eztela zure heinekoa uste zinueka duke zirelakotz, emperadorek Orienteko edo bere palazioko konder emaiten zeetelarik bere aroko konzilioetako?” Irriz hasi nintzan, eta ihardetsi naukon enuela uste gure dukeak bazoazila Orienteko dukearen aztal-beharrira, ez Burgoñako dukeak ere. Uste nituela ere emperadore handien palazioko konde horien bothereaz eta larderiaz azkarki beherago; haiekin gomparatzetik biziki urrun nintzala beraz, eta biziki ere konzilioan erregeren komisariogoa etzela ofizio ezin gehiago ohoragarria aurkitzetik; baina hain zela ene gaitasuna baino goragokoa eta hain ene gostuaren kontrakoa, nun othoizten bainuen ukana zuen gogoeta etzadin urrunago joan, eza emanez ez gustatzeaz etsipenean izanen bainintzan, baina halere ezpainuen gutiago eginen.

Aita onaren ustegabea berrhetu zen, ezer ezpaitzautan ihardetsi. Ene oihiaren eta jarraiki zizakonaren gogorraren eztitzera entseatu nintzan, hoin gizon lanjerosaren ez debaldetan haserretzeko, argiki ikusi bainuen, gure solasaldi guzietan hain agerian egina zuen guziaren ondotik, bere burutina eroki gainera igorria zautala nitaz konzilioko burregoaren egiteko, eta Erregeren izenean bere nahi guzien betetzeko; etzizatan gehiago ofizio hortaz mintzatu, baina bertzela beti enekin bere ohiko moldean.

Duhalde jesuista inkizizionearen alde Frantzian

Bilkura horietako aro laburrean zen A. Lallemant, jesuisten su-emaile nagusienetarik bat, ahal zuen bezain usu Saint-Germain-des-Près-ko abazialean egiten zenaren biltzera joaiten. Han bere osabaren etxean bizi zen Estrées-ko marexalarekin zen egun batez, eta solasetan zen gaiaz mintzo zirela biak kardinala bere gabinetean lanean ari zen bitartean, A. Lallemant hasi zen inkizizioneaz espantuka, eta Frantzian jarri behar zela. Marexalak utzi zuen ephe batez mintzatzen, eta gero sua aurpegira igaiten zizakola, aburu hastiagarri hortaz ihardetsi zaukon bizi-

bizia, eta bururatu erranez, ziren etxearen errespetua ezpalitz, leihotik egotz-araziko zuela.

Xede hori, aspaldidanik jesuisten eta haier emanak diren jende gotorrenen xede hautetsia baita, horren bururatzeak haien botherea mendien hunaindian eta haraindian bere mukurruan ezar lezakeena bezala, aspaldidanik eztira hortako biden zabaltzetik gelditu, eta horren aitzinatzeko lan egitetik, Clément IX-garrenaren bakearen ezeztatzeak eta haien lan-nagusia den konstituzioneko egintzak emaiten dezteeten esperanza et bideak ukanez geroz (...)

Haiei A. Contencin, Europara itzulia haien Xinako egitekoetako langile handienetarik bat han izanik, etzen egon ahal izan erran gabe, Port-Louis-en untziratzean, guti barne ikusiko zela inkizizionea Frantzian onhartua eta berriz jarria, edo jesuistak oro haizatuak. Hitz horrek harrabots handi egin zuen eta ontsa azkarki entzun zen Pariserano.

1732-an, A. Duhalde, haien misione guzien ixtorio bihur batzu emanak dituen *Eskutitz erakasgarri eta ohargarriak* izenburu-pean, eta geroztik Xinako ixtorio bat eta karta batzu, biziki ontsa eginak, baina antze gutiago eztutenak, ikustera ethorri zizatan A. Tellier-en segetari bezala ezaguna nuenaz geroztik zenbait aldiz bazetorren bezala. Hartaz askietsirik izana nintzan Trampako komentuari behatzen zaukon egiteko batean Errege bizi zenean, eta hau hil eta ukan-arazi naukon lan-sari on bat betikotz haien Parisko ikastetxean jarri zuena, gozoan eta hautuki. Mintzaera azkarki itzulikatu zuen, eta azkenean erran zautan hamabortz urte lehenago A. Lallemand-ek Estrées-ko marexalari atxikia zaukon solas bera, eta ezti jesuistar batekin sinets-arazi nahi ukan jeus etzela Frantzian inkizizionearen ezartzea baino hobe ez beharrago. Egia da hain bortizki hartu nuela nun ezpaita bere bizian berriz aipatzera menturatu. Horrela ari dira aita on horiek nehoiz akitu gabe mihatzen eta ereiten, helburura, indarrak eskuetan, gobernuaren itsutasunaz, nahi dena gostarik eta mota orotako bidez heltzen diren arteo. Balizateke, oraino, gai hoin bitxian eta hoin bitxiki ohargarrian hedatzekoa; hemen eskuaz hunkia izaitea aski izan behar da xedearen ikusteko, eta helburu higugarri hortara heltzeko lan iraunkor eta jarraikiaren.

“Bonetaz”(*) San-Simun-go eta Maine-ko duken azken solasa

(*) “Boneta” (“le bonnet”) zen duke ‘ta parek parlamentuko buruzagien ganik ukaiten zuten gur berezi baten izena (Itzultzaileen oharra).

Eztut gordeko sumindua izan nintzala Maine-ko Jaunaren antzearen eta botherearen jostagailuak ginela ikusiz, eta buruzagi lehenaren gaixtaginkeriarenak. Ebiakotz arrats bat zen D’Antin-ek Versailles-en itzuli zaukularik Erregeren azken ihardespena. Etzautan sinets-arazi ahal Maine-ko Jauna behar zela bere malgukerien - hitz hau, uste dut, ezta azkerregia -ondorio on oso baino gehiagokoaz bakean gozatzeraz utzi. Bere hitza emana zautan, Printzesa Anderearena, odoleko printzena, buruzagi lehenarena, parlamentuarena, bertze duker bezala; bere nahikariaz eta fede onaz aithormen berak eginak zauztan; hastapenetan hertsatua ninduen Orléans-ko duke Jaunaren baimenaz segurta nindadin. Edozein lanjerrek etzautan menpekotasun aski ahal bat onhar-arazi hari zer sendi nuen ez jakin-arazteko. Nehor enuen enekin erakarri nahi ukan, baina urrunago ereman zezan enuen jasan ahal. Galeriaren heinean den hegala berrian bizi nintzan, hura hegala berean beherago, kaperako atea handiaren ondo-ondoan. Biharamun igandean igurika-arazi nuen kaperatik atheratzean. Besta-egun eta igandetan ehoiz etzuen meza nagusia huts-egiten, bezperak eta sakramendu saildua; eta hala ere etzuen haren debozioneak nehor enganutzen. Usu bazoan konpletara, othoitzean, pheredikura beti bazenean; eta sakramendu saildura ortzegunetan.

Jakin ukan nueneko, haren egoitzara jautsi nintzan. Aurkitu nuen bere gabinetean bakarrik, ongi-ethorria egin baitzautan itxura idekian, munduko molde jendetasunezko eta errexenean. Orduan, aire biziki serio batekin, erran naukon zer nuen ikasia. Maine-ko Jaunak erasiak egin zituen Printzesa Andereaz, haren gainera erori zen, desenkusatu, lastimatu. Moztu nuen bakarrik eta larriki buruzagi lehenaren izendatzeko. Maine-ko Jaunak nahi ukan zuen apur bat desenkusatu, eta laster gaineratu etzela batere egitekoaz etsitu behar ez eta bururatua zela ikusi; berari zoakonaz etzela hortara lan egitetik geldituko; ez eta bururatzean heldua etzeno nehoiz askietsia izanen. Entzun nuen batere khexatu gabe, eta gero buruzagi lehenak Erregeri duken kontra erran gezurreria guziak aipatu naukon, Erregek ordu berean D’Antin-i itzuliai zauzkonak, guri erraiteko baimenarekin, haren ganik bainaduzkan; eta hortik neurrik enuen hartu buruzagi lehenaz mintzatzeko, baina haserretu gabe, gaitzeste osoenaren eta haren gaixtakeriaren hastiatzeko itxura xoil batekin. Etzen zerbait ikasiko

naukolako ustez, baina enintzala deusen ez jakinean erakusteko; eta berehala bi begien artean geldi-geldia so eginez: “Zuk, Jauna, jarraiki nuen, zuk gituzu guk nahi gabe egiteko hortan sarr-arazi; zuk daukuzu Erregez, buruzagi lehenaz, eta haren bidez parlamentuaz hitz eman; zuk Printzesa Andereaz; zuk duzu orai Andere hori hor sarr-arazten, zuk buruzagi lehenari hoin jende desohoratuarena egin-arazi; azkenik, zuk, Jauna, daukuzu hitza jan, eta gutaz parlamentuaren jostagailua egin eta jendearen irri-egitekoa.” Maine-ko Jauna, beti hain jori eta arin, balditua gelditu zen eta herioa bezain hits. Ahopiatuz desenkusatu nahi ukan zuen, eta dukendako eta bereziki enetako zuen estimua erakutsi. Entzun nuen begiak harenetarik ephe batez aldaratu gabe. Azkenean, begiak gero eta gehiago gainera emanez, moztu nuen eta doinu gora eta handitu batez, baina beti berdina eta haserre gabea, erran naukon: “Jauna, orotako ahala baduzu, ontsa erakusten daukuzu eta Frantzia guziari; goza zaite zure bothereaz eta ukana duzun guziaz”, baina burua goitituz eta arimaren zolarano behatzen naukola: “Aroak gerta dadite batzuetan sobera eginaz berantegi urrikitzen baita, eta erresumako jaun handienek lerroetan eta karguetan odol hotzez hatzemanik eta enganaturik, ehoiz ezpaitute ahatziko;” eta bapatez jeikitzen niz, eta joaiteko itzultzen nako ihardesteko astirik utzi gabe. Maine-ko dukea, ustegabez itxura galdua eta behar bada hisiz, jarraiki zizatan, desenkusa eta komplimenduak oraino ahopiatuz. Banindoan beti, itzuli gabe, atherano. Hor, itzuli nintzan, eta aire sumindu batekin erran naukon: “Oi! Jauna, iragana denaren ondotik ni lagundu, laidoaren gainera ihakina da.” Athea berehala iragan nuen, eta joan nintzan gibelera behatu gabe.

*

II

1715: “mende” baten bururapena

Fénelon-en heriotzeaz

1. Azken marrazkia

Urtarrilaren hastapen hortan berean, Fénelon, gaur-egun ezpatazko Estatuko konseilaria, ordezkari jenerala, Quesnoy-ko gobernari eta ordenako zalduna Holandan embaxadore izanik, etxera sartu zizatan Versailles-en bazkariaren bururatzen ari nintzalarik. Azkarki penatua erran zautan eskutitz batetik ikasi berria zuela Cambray-ko arxapezpikua, bere osababitxia, biziki-biziki gaizki zela; eta othoiztera heldu zizatala Orléans-ko duke Jaunaren ganik ukan nezan Chirac hunen medikuaren hara igortzea, ordu berean, eta eman nezon ene postakadera. Mahitik berehala jalgi nintzan. Ene kaderaren bila igorri nuen, eta joan nintzan Orléans-ko duke Jaunaren egoitzara, hunek igorri baitzuen Chirac-en bila, eta huni abia zadin manatu eta Cambray-n behar izanen zen bezenbat egon. Fénelon-en etxera ethortzearen eta Chirac-en abiatzeran artean etzen oren bat izan, eta berahala Cambray-ra joan zen. Arxapezpikua ezin atheratzekotan eta erremediorik batere ez entseatzeko heinean aurkitu zuen. Han egon zen hala ere hogei-ta-laur oren, horien buruan arxapezpikua hil baitzen. Horrela, ni, Orléans-ko duke Jaunaren ondoan hanbat beldur emaiten naukona geroko aroetako, ni nintzan izan azken zerbitzua egin naukona. Gizon hori hain ezaguna eta omeneko izana da nun, hemen leku andana batean ikusia denaren ondotik, baliogabea bailizateke berriz luzaz hartan hedatzea, nahiz ezina den bizkitartean apur bat bederen ez gelditzea.

Hemen ikusi da haren aitoren- seme on eta zaharreko ethorkia, embaxadez, kargu batzuez, Izpiritu-Sainduko lepokoaz Henri III-garrenaren aroan, eta jendakiez aphaindua; haren behartasuna, hastapen ilunak, jansenistetara, jesuistetara, Oratorioko aitetara, San-Sulpizioko semenariora entseatu zituen urrats guziak, huni lotu baitzen azkenean ez nekerik gabe, eta hunek ereman baitzuen Chevreuse-ko eta Beauvillier-ko duken gana; horien estimuan laster egin zuen aitzinatzea, estimu horrek ukan-arazi zaukon Franziako haurren erakasleko kargua eta nola jakin zuen hortaz baliatzen, haren aburuen eta fortunaren hondameneko ithurriak eta aitzinatzeak; egin zituen liburuak, hauer ihardetsi zauetenak; erabili zituen eta ezin salbatu zuten trebetasunak, haren alderdikarien, adixkiden, gerizatzen zutenen desgarazia, zen gutik egin zuen ezipazituen

Chevreuse-ko eta Beauvillier-ko dukeak hondatzerat ereman, eta Noailles Parisko arxapezpikuaren eta gero kardinalaren egintza ezin berdindua, behingo bere duke anaiarekin eta gonetarekin nahasi zuena; azkenenan Erromara ereman zuen bere egitekoaren itzul-inguruak, han Erregek bere izenean auziratu baitzuen bere alderdi etsaia bezala; haren kondenatzea Erregeren obedienziako diren eliza-probinzien bilzarre guziek kanonikoki onhartu zutena; haren menperatzearen lasterra, garbia, argia eta bere probinziako bilzarrean erabili zuen molde miragarria Saint-Omer-ko apezpiku Valbelle-ekin, hau hartan desohoratu baitzen; azkenik osoan eta betikotz Burgoñako duke Enejaunaren, Chevreuse-ko eta Beauvillier-ko duken, eta bere adixkide guzien bihotzaren eta estimuaren bere buruari begiratzeko ukan zuen zoriona, batena ere ahultzera jin gabe, erortzea gogorra eta barna izan arren, Maintenon-go Anderearen zigor jarraikia beti bizia, Erregeren aldetik lezea idekia, eta hamazapi urteko urruntzea; guziak haren aldera berdin bizkor, berdin behakor, hari zoakonaz berdin bere gauza baitezpadakoa eginez, haren bidamenaren azpian berdin emanak, lehenbiziko lekuan haren ezartzeko orotaz baliatzera desgaraizako hastapenetan bezain suharrak, eta guziak Erregeren aldera errespetuko neurri handienez, baina gorde gabe, eta guziak baino gutiago Chevreuse-ko eta Beauvilliers-ko Jaunak, hauen etxeak oro eta Burgoñako duke Jauna bera ere.

Prelat hori gizon handi mehe bat zen, ontsa egina, hitsa, sudur handi batekin, sua eta izpiritua uhaitz bat bezala zarioten begi batzuekin, eta begitarte bat halakoa nun haren egite zuenik batere ezpaitut ikusi, eta behin baizik ez ikusirik ere ahatz etzaitekeena. Oro batzen zuen, eta kontra eginak han guduka ari ziren. Bazuen larritik eta galantetik, serioetik eta alegeratik; sendi zituen aldi berean dotorea, apezpikua eta jaun handia; gaineratzen zena xorroxotasuna zen, izpiritua, garaziak, onestasuna, eta gehienik noblezia. Indar egin behar zen hari behatzetik gelditzeko. Haren irudi guziak errankor dira, hatzeman ahal ukan gabe bizkitartean egiazkoan ohartzen zizakon harmoniaren zuzena, eta begitarte horrek biltzen zuen berezitasun bakoitzaren arina. Haren egin moldek arau berean ihardesten zuten, bertzer hartarik emaiten zeen errextasun batekin, eta lagundia hoberenaren eta mundu handiaren ezagutzatik baizik ukaiten ez tiren aire eta gustu on harekin, orotara berainik ixuria zena haren solasaldi guzietan; horrekin elhe eder jitezko, ezti, aphaindu bat; jendetasun sarkin bat, baina noblea eta arautua;

mintzaera errexa, garbia, goxoa; molde argi eta garbi bat gai dorpe eta gogorrenetan entzun-arazteko; horrekin mintzo zitzeenek baino izpiritu gehiago nehoiz ez ukan nahi etzuen gizon bat, bakoitzaren heinean jartzen zena behin ere sendi-arazi gabe, errexean ezartzen zuena eta loriatzen zuela iduri, hala nola nun ezpaitzaitekeen utz, ez hartarik begira, ez eta berriz haren aurkitzea bila. Antze hoin arraro, eta azken mailerano zuen horrek zauzkon adixkideak oro bere bizi guzian hain osoki atxiki, eroririk ere, eta, hek barreatuak izanik ere, hartaz mintzatzeko elgarretaratzen, urrikitzeko, hura nahi ukaiteko, gero eta gehiago hari atxikiak izaiteko, Judioak Jerusalemi bezala, eta haren itzultzeaz hasperenka, eta beti haren aiduru, zorigaitzeko jendalde hori oraino Mesiasen aiduru eta hasperenetan den bezala. Profetaren larderia hortarik zen ere, bere aldekoen gainean hartua zuena, ihardokitzerik batere, bere eztitasunean, nahi etzuen nagusigoan jarria; eta behin anguraturik eta bertzeren beharrik gabe, ontsa lanjeros izanen izanen zen, ez bakarrik hari ihardokitzea, baina harekin malgu eta miresmenean ez beti izaitea.

(...)

2. Azken orduak eta egintzak

Ikusi da nitaz deusek etzezakeela segurrean jar, eta Chevreuse-ko eta Beauvillier-ko dukek aithortzen zautaten. Beldur hori haien galtzeaz handitu zenez eztakit, eta uste ukan zuenez, ene atxikitzeo hek ez hor izanez, enintzala harendako berdin izanen, enuelarik harremanik batere ukanik harekin, haren urruntze aitzinean gaztegi, eta geroztik hortako gertaldirik batere gabe. Dena den, zuen osagarri ahulak etzuen hainbertze griña eta atsekaberi ihardoki ahal ukan. Beauvillier-ko dukearen heriotzeak eman zaukon azken ukaldia. Ephe zenbait iraun zuen kuraiazko indarrez, baina ahalak ezinduak zituen. Urak, Tentale-ri bezala, ezpainen hegitik sobera luzaz baztertuak zizazkon egarriaren sukarraren iraungitzeko haien hunkitzera zoala uste zuen aldi guziez.

Apezpiku ikustetako bidaia labur bat egin zuen, karrosa leku lanjeros batean ixuri, etzen nehor zauritu, baina ikusi zuen lanjer guzia, eta bere soin ahulean ixtripu horren inarrosaldi guzia hartu zuen. Cambray-ra gaizkitua heldu zen, sukarra jin, eta gaitzaldiak hain bat bertzearen ondotik nun erremediorik ezpaitzen izan; baina burua beti libro eta sano. Cambrai-n hil zen urte hortako urtarrilaren 7-an, barnekoen urriki handien erdian, eta bere gutizien mukurruaren athean. Errege beherapenean zela bazakien, haren ondotik berari zoakona

bazakien ere. Barnetik aholku galdez ari zizazkon jadanik, kauptotik gorte egiten zaukoten, ekhi jeikitzearen gutiziak jadanik zilatuak baitzuen. Bere artalde ttipiaren gar ezin akituak eremana zen, konstituzionearen alderdi handiaren zati hautukoa bilakatua baitzen Cambray-ko arxapezpikuaren lehengo etsaien herrari esker, hauk ez izanik ere, bere aita Molinaz geroztik neke handiz onhartua izana zenetik, irabazi betean, nagusi oso eta bakar jartzeko xedea zen jesuisten dotrinaren gutiago etsaiak. Zenbat arrazoin azkar biziaz urrikitan izaiteko; eta zein samin den herioa hoin gertaldi bete eta alde orotarik hoin nahi bezalakoetan! Ezer etzen bizkitartean agertu. Ala aipamenaren maitasun, osoki hautetsia zuen gauza izan baitzizakon beti, ala ezin hatzeman dezakeena azkenean gaitzesten duen arimako handitasun, ala hain jarraikian enganakor izana zizakon munduaz eta hunen itxura iragankorraz eta eskuetarik ihes egitera zoakonz nardatze, ala debozione erabiltze luzeaz berpiztu, eta gogoeta ilun baina botheredun horiez berpiztu beharbada, uzten zuen guziaz sorgor iduritu zuen, eta aurkituko zuenaz bakarrik hartua, gogo berdin batekin, bake batekin, goganbeharra baztertzen etzuen, eta penitenziari, estekagabeari, izpirituko gauzer eta bere diozesaren artha bakarrari bazatzikana, azkenean umiltasunaren eta beldurraren gainetik baizik etzoan konfientzia batekin.

Izanara hortan eskutitz bat igorri zaukon Erregeri, bere diozesaren elizako gauzetaz, bere buruaz hitz bat etziona, eta hil-ohean den apezpiku handi bati lioakonik eta hunkigarririk baizik deus etzuen. Harena, hiruretan hogeita-bortz urtetara heldu gabe, elizakoak ukanik, bere jenden eta aphezeriaren erdian, erakaspén handi bat bezala hartu ahal izan zen bizi gelditzen zirendako, eta deitua zenarendako esperanza handiak uzten zituen bezala. Herri-Aphal guzietan lastima ezin handiagoa izan zen. Etsaien armadetarano guzia hezia zuen, haren ontasunen begiratzeko artha hartua baitzuten gurek bezenbat eta gehiago ere. Haien jeneralek eta Bruxelles-ko gorteak onestasunez eta ikustatezko urrats handienez beteko zutela gogoan hartua zuten, eta protestantek katolikoek bezenbat bederen. Urrikalmenduak egiazkoak izan ziren beraz eta orotakoak Herri-Aphaletako eremu osoan. Adixkideak, oroz gainetik artalde ttipia, dolumin saminaren osinera erori ziren. Oro har, izpiritu eder bat zen eta gizon handi bat. Gizakia harendako ahalgetzen da Guyon Andereaz, hunen miresmenean, egiazkoan edo alegiazkoan, bizi izan baita beti, bizimoldean behin ere den gutieneko aierurik eman ukana gabe, eta hunen martira izanik hil da,

nehoiz ezpaita huntarik berexia ahal izan. Egin zituen profezia guzien hutseria ezaguna izanik ere, Guyon Anderea izan zen beti artalde ttipi hortan oro hara zoan erdigunea, eta hari jarraikiz Fénelon bizi izan zen eta bertzeak bidatu zituen goi-errana.

Jende hortan doi bat hedatu baldin baniz, haren talenduen, biziaren, gora-beheren berezitasunean, munduan egin dituen itxurak eta harrabotsek ereman naute, gogoan harturik ere enaukola gutiago zor Beauvillier-ko duke zenari beti hain minki maitatu zuen adixkide ‘ta erakasle batendako, eta hartaz hain xoratua izaitea etzela mira erakusteko, hark bere lañotasunarekin ezpaitzaukon ehoiz debozione huts-hutsena baizik ikusi, eta ezpaitzizakon handi-nahiaz ere jelostu. Oro hanbat arautua zen Cambray-ko Jaunaren baitan, nun sos baten zorrik gabe hil baitzen eta dirurik batere gabe.

Fleury apezpikua Delfinaren erakasle

Prelat batek, zorion handiagokoa munduan, baina bere burua baizik zorionean ukan nahi eztuena, ezarri zuen aro huntan Europa estonatu duen erreinu baten lehen oinarria, eta aldi berean Frantziarendako zorigaitz handiena eta azkarrena bilakatu dena. Fleury aipatuegiar mintzo niz, baitu bi urte baino gehiago Jainkoari itzuliak dauzkola bere bizi luzegiaren eta adminiztrazione bothere osoko eta ondorio gaixtokoaren konduak, ezpaita oraino hautaz mintzatzeko ordu. Ikusi dira haren ilunak baino gehiagoko hastapenak, arrazoin nahasi baino gehiagokoez egin aitzinatzeak, zenbat indarrekin eta zein berant bilakatu zen Fréjus-ko arxapezpiku, eta Erregeren aitzin-errana Noailles-ko kardinalari, hunek apezpikutegi hori nahi gabeen ekhendu baitzaukon harendako. Ahitzen ari zen han gortetik eta mundu handitik urrun, ezpaitzen jitera bekan baizik menturatzen. Ikusi da ere nola hortaz ordaintzera entseatzen zen Probenzan eta Languedoc-ean; ukan zuen ibilera bitxia, apezpiku frantzes batendako, Saboiako Jauna Fréjus-era ethorri zenean Toulon-go gudualdiko; Erregeren haserre zuzena, eta Torcy-k erabili zituen jokoa eta ausartzia sumindura horren ondorio handien haren ganik baztertzeke; baina handi-nahia ezta edozein eragozpenez gibel-arazia izaiten. Villeroy-ko marexalaren gortelari izana zen bere bizi guzian. Dangeau-ko Anderea eta Lévi-ko Anderea ikusten zituen Maintenon-go Anderearen barne minean eta Erregeren barneleku orotan. Dangeau eta hunen emazteari beti atxikia izana zizeen, gorteko kompania ona usu han baitzen, eta Villeroy-ko marexalaren

adixkide minak baitziren. Lévi-ko Anderearen ondoan lehen urratsak egin zituen, eta bere egin-moldez, malguaz, mintzaeraz beretu zuen. Villeroy-ko marexala fagore handiengan ikusiz Erregeren ondoan, Maintenon-go Andereak berriz haratua, eta etengabe lagundua, etzuen dudan eman Erregeren xede onetan zela, guziz konseiluan Beauvilliers-ko dukearen karguetan jarraikitzen ikusi zuelarik. Beti gorte egina zaukon Maine-ko dukeari; eta horietarik guzietarik ondorioztatu zuen, bi andere horien laguntzarekin, bere burua erakasle izenda-arazten ahalko zuela. Bi-biak osoki alde zituen; Dangeau-ko Andereak bazuen ahal ainitz Villeroy-ko marexalaren baitan. Hau eta Maine-ko dukea neurri minenetan ziren, Maintenon-go Anderea bien lokarri. Jesuistek sobera ezagutzen zuten hartan fidatzeko; eta horrek zuen fortunara ekharri.

Maintenon-go Andereak hastio zituen, eta ikusi dira bertze nunbait horren arrazoinak. Villeroy-ko marexalak etzituen barnez hark baino gehiago maite. Maine-ko Jaunak sobera bazakien haien eskuko erakasle baten nahi ukaiteko, hek argitua eta lagundua. Bi Andereak bidea ideki zuten Maintenon-go Anderearen ondoan, ongi hartuak izan ziren. Dangeau-ko Anderea mintzatu zizakon Villeroy-ko marexalari, hau errex jarri baitzen bere bizi guzian batzuetan etxean egon-arazterano gerizaturia zuen gizon baten alde. Maine-ko dukeari aipatu zaukon, hunek, Fleury-ren kontra ezer ez ukanez, eta Maintenon-go Anderearen gostua ikusiz, eskuak errex eman baitzituen haren laguntzeko. Neurri horiek hartu eta, Fleury-k senditu zuen ez erraiteko estakuru guziak ebaki behar zirela erresumaren buztanean zen apezpikugoa utziz. Itxaropen horietan, haren uztea galdegin zuen osagarriaren estakuru. A. Tellier-ek, zen antzeduna eta aitzinera ikuslea izanik ere, etzuen artea usnatu. Urratsa orobatekoa iduritu zizakon, apezpikutegi bat zen bere eskuko jendez betetzekoa, etzuen merkerik ordaintzea baizik gogoan ukan, Fleury-ri abadía arin bat baizik ez emanez. Tournus-koa hustu zen gero berehala; eskainia izan zizakon, eta Fleury-k bertzerik galdegin gabe hartu zuen. Anartean, Fréjus utz-arazten zaukon gauza handiari hurbildik behatzeko ahalaz lehiaturia, egin zuen bere diozesanoen agurtzeko manamendu bat, itzulua zen moldea ezpalinbazen biziki onhartua izan, debruari baliagarri izan zizakona.

Fleury-k, jakitateak, bizimoldek ez eta erlisioneak etzaukotelarik behin ere egina biziaren balioa, beti baztertuak zituen dotrinazko gaiak. Jesuistez guti maitaturia baina kompainia hoberenari atxikia, etzen batere egona inkizizionea eta jansenisten gainerako tirania gaizkitu gabe, eta

bere diozesa beti bakean utzia zuen. Erakasle izaiteko gogoak ibileraz alda-arazi zuen; arkaitzak mailkatu nahi ukan zituen, eta hoin gai beran eta hain segurki berexlean aitzinera joan, hanbatetan nun Fréjus-en bere apezpikugoko azken sei ilabeteak ezpaitziren erabiliak izan dotrinaren, liburuen, kofesarien bila baizik, eta diozesako serora gutien nardatzen. Harrabotsa nahi baitzuen, egin zuen gaizki baino gehiago; baina harrabots hori, bere xedetan hain ontsa sartzen zena, eta zituen adixkidek gorterano balia-arazten jakin zutena, Herri-Aphalatarano entzun zen eta A. Quesnel aipatua erretiratua zen lekuran. Konstituzionearen ikertzeko egina zen zazpigarren oharraldia bururatu berria zuen, 1716-an baizik moldizkitua izan eztena, eta aitzin-solasean ari zen, Fleury-k hartu berria zuen zigorlearen itxura berriaz haserreturik, diozesanoer igorri agurren manamendua ukan zuenean. Fleury-ren gar berriaren gaztigatzeko gutiziari etzaukon ihardoki ahal ukan idazki horren irrigarritasunaren bidez, jakin baitzuen bere aitzin-solasean artekatzen trufa arin saminenarekin, gaitzeslenarekin, eta manamendu eder hori phorroskatu zuena. *Inde ira*. Fleury, bere aire ezti, alai, lañoarekin, ezagutu dutan gizon burgoiena zen barnez eta jabal-ezinena. Etzaukon A. Quesnel-i barkatu; eta hori da Frantzian hura arteo entzuna etzen haserre ero hori eman duen arrazoin bakarra, jansenisten eta konstituzionearen etsaien kontra bortizkeria eta tiraniazko azken soberakerietara etengabe ekharri izan dena, eta hura hil eta horier iraun-arazteko erabaki ifernukoetara, Elizaren eta Estatuaren kaltetan.

Espainiako erregina berriak Orzini-ko prinzesa haizatzen du

(Orzini-ko prinzesaren) galtzea deliberatua izan zen beraz Erregeren eta Maintenon-go Anderearen artean, baina hain segeturki nun, ez aitzinean ez gero, nehor ezpaitut ezagutu nortaz baliatu ziren zilatu duenik, ez eta hortartzeko zer egin zuten. Zuzen onekoa da ilunean denaren aithortzea, eta jakina eztenaren orde alegiazkoen eta asmamenen ez ematea. Gertakaria xeheki erran behar da, eta gero bat bederaren gogoeta laburrak balio duketenendako baizik ez eman.

Espainiako erregina bazoan Madrilera mugetara haren hartzera Espainiako erregeren karroseriaz, etxeaz eta zainlariez joana zenarekin. Alberoni Parma-tik jarraitzen zizakon, eta Saint-Aignan-go dukea Frantzian batua zuen lekutik. Orzini-ko prinzesak hartua zuen haren ondoan gambarari lehenaren kargua, erregina zenarenean zuen bezala,

eta etxekoeria guzia hautatua zaukon, bere eskukoez betea baitzuen, gizon eta emazte. Etzuen errege urruntzera utzi nahi ukana; horrela Guadalaxara jarraiki zizakon, Infantadoko dukearena zen hiri ttipi bat, hana egina baitaue kordelierrera Escorial-ekoa baino biziki ttipiagoko hiltobitegi bat, molde berean, eta, aberatsez eta aphainez, ederrean zor guti daukona. Bertze nunbait aipatzeko ordu ukanen dut. Guadalaxara Madrildik Burgoserako, beraz Frantziako bidean da, Madrildik Parisetik Fontainebleau-ra bezalako nunbait han bide apur bat gehiagotan. Infantando-ko dukek han duten palazioa ederra da, zabala, ontsa mubleztatua, eta batzuetan han bizi dira. Harano zuen Espainiako erregeek aitzinatu nahi ukan, eta palazio hortako kaperan zuen ezkontzaren egitea deliberatu, nahiz, ikusi den bezala, Parman prokuradorez egina izana zen. Bidaia bi aldetarik arautu zen errege erreginarene herenegunean baizik ethorria izan etzadin.

Bidaia ttipi hori Orzini-ko prinzesak haren ondoan ezarriak zituenekin egin zuen, beti harekin izaiteko eta nehoren ez harengana hurbiltzera uzteko. Bere karrosan bazarraikan ordu berean heltzeko; eta heltzean berean, errege harekin bakarrik hetsirik egoiten zen eta etzuen gehiago nehor ikusten etzaterano. Zaldien eta urtaroaren gibelatzek Eguberrirano eremana zuten. Negilaren 22-an zen Espainiako errege heldu Guadalaxara. Biharamun 23-an, Egiberriko hereneguna, Orzini-ko prinzesa abiatu zen jarraile alde biziki arin batekin zazpi lekoatan urrunago Quadraqué izeneko hirixka ttipi batera joaiteko, erreginak han etzan behar baitzuen gau hartan berean. Orziniko Andereak bazuen ekhartzen zaukon ezin usteko handitasunaz esker on guziaren gozatzerako joaiteko gogoia, arrastiriaren harekin iragaitekoa, eta biharamunean Guadalaxara karrosan laguntzekoa. Quadraqué-n erregina ethorria aurkitu zuen; oina lurreratu zuen antolatua zukoten egoitza batean erreginarenen aitzin-aitzinean eta hurbil-hurbila. Gorteko jantzi handitan jina zen eta aphaindurik. Etzuen antolamendu apur bat baizik egin eta erreginarene etxera joan zen. Ongi-ethorriaren hotzak eta idorrak azkarki ustegabetu zuen lehenik; erreginarene eragozpenaren gain eman zuen, eta horma horren berotzera entseatu zen. Bitartean jendea emeki joan zen errespetuz eta bien uzteko bakarrik.

Orduan solasaldia hasi zen. Erreginak etzuen aitzina joaitera utzi, eta berehala erasietan eman zen errespetuz huts egiten zukola haren aitzinean agertzen zen jantziaz, eta bere eginmoldez. Orzini-ko Anderea, jantzia ohi bezalakoa baitzuen, eta bere eginara errespetudunez eta

erreginaren eztitzeko gai zituen erranez, ontsa urrun baitzen haren ganik atheraldi hori merexi zuela uste ukaitetik, bitxiki ustegabetua izan zen eta nahi ukan zuen desenkusatu; baina horra ordu berean erregina elhe laidagarrietan, oihuz, deiadarka, bera zaintzaletako aitzindarien galdatzen, eta Orzini-ko Andereari haren aitzinetik athera zadin irainka manatzen. Mintzatu nahi ukan zuen eta bere burua ukaiten zituen erasietarik zaindu; erregina, haserrea eta mehatxuak berrhetuz, oihuz hasiz erosa hori haren aitzinetik eta etxetik eroan zezaten, eta soingainetarik kampa ereman-arazi zuen. Ordu berean deitzen du Amenazaga, gorputzeko zaintzalen ordezkaria, haren ondoan zen gizonaldea manatzen zuena, eta aldi berean, korrosaldeak manatzen zauzkon ezkutaria; lehenari Orziniko Anderea preso har zezan manatzen, eta ez utz karrosa batean ezarria ukana arteo bi zaintzaletako aitzindari segurrekin eta hamabortz bat zaintzale karrosaren inguruan; bigarrenari, berehala ekharr-araz zezan sei zaldiko karrosa bat eta hiruzpalaur oinezko mutilekin, abia-araz zezan ordu berean Orzini-ko prinzesa Burgos eta Baionara buruz, eta bidean ez geldi. Amenzagak nahi ukan zaukon erreginari oharr-arazi etzela Espainiako errege baizik hartu nahi zuen botherea bazukeenik; galdekin zaukon burgoiki hea etzuenez Espainiako erregeren manua hari orotan obeditzeko, garbiki eta jeus erran gabe. Bazuela egia zen, eta bazakienik nehor etzen.

Orzini-ko Anderea ordu berean hartua izan zen beraz eta karrosa batean ezarria bere emazte gelariekin, jantziz ez ileantzez aldatzeko astirik ukan gabe, hotzaren kontra artharik batere gabe, ez berak ez gelariak, karrosan janari mota bat ere gabe, ez athorarik, ez eta edozer bidean aldatzeko edo etzateko. Horrela eremana izan zen beraz zaintzalen bi aitzindariekin, berehala prest gertatu baitziren eta karrosa ere, hura jantzi handitan eta erreginaren etxetik jalgia zen bezala aphaindua. Harramantza labur-labur hortan erreginaren baitara igorri nahi ukan zuen, hau berriz haserretu baitzen oraino obeditua etzuelakotz, eta ordu berean abia-arazi zuen. Arratseko zazpi orenak hurbilduak ziren, Eguberriko herenegunean, lurra dena hormaz eta elurrez estalia, eta hotza ezin handiago, samina eta bizi-bizia, Espainian beti den bezala. Erreginak jakin zueneko Orzini-ko prinzesa Quadraqué-tik joana zela, Espainiako erregeri izkiriatu zaukon Guadalaxaran hartu zuen zaitzaletako aitzindari baten bidez. Gaua hain zen iluna nun ezpaitzen elurrari esker baizik ikusten.

Orzini-ko Anderea karrosa hortan nola zen erakustea ezta errex. Ustegabearen eta burxoratzearen soberakina gaineratu zen lehenik, eta bertze edozein sendimendu agortu zuen; baina laster bihotz-minak, hisiak, errabiak eta etsipenak lekua hartu zuten. Bere aldian jarraiki ziren gogoeta ilun eta barnatuak hoin urrats bortitzaz eta ez-entzunaz, hain guti oinarritua eaginean, arrazoinetan, estakuru arinenetan beretan, azkenik larderian, eta Guadalaxaran eginen zuen itxuraz; eta hortik Espainiako erregeren ustegabearen esperanzak, haren haserrean, adixkidetasunean eta anderearen baitan zuen konfienxian, inguratua zuen zerbitzari multzo berari hain atxikian, hanbat axolatuak izanen baitziren erregeren haren fagoretan sustatzeaz. Neguko gau luze osoa horrela iragan zen, hotz izigarri batean, hartarik gerizatzeko deus ez, eta halakoa nun korrosazainak esku bat galdu baitzuen. Goiza ethorri zen; zaldien alhatzeko gelditu behar izan; baina gizonendako jeusik ezta Espainiako ostatueta, erakusten baitautzute bakarrik behar den gauza bakoitza nun den salgai. Haragia ohian bizi da; arnoa lodi, geza eta bortitz; ogia harresiari lotzekoa da; urak usu ezer ezta balio; oherik, ezta bat baizik mandazainendako, hala nola nun guzia nor berarekin ekharri behar baita; eta Orzini-ko Andreak ez harekin zirenek edozein gauzarik etzuten. Arraultzeak, hatzeman ahal zen lekuan, izan zizezteen janari bakarra, eta oraino kuxkuan, fresko ala ez, bide osoan.

Zaldien alhatze hortarano, ixila osoa izan zen eta etengabea. Hor hautsi zen. Gau luze hortan guzian, Orzini-ko prinzesak ukana zuen erranen zuenaz gogoetatzeko astia, eta aurpegiaren moldatzekoa. Ukan zuen ustegabe ezin handiagoaz mintzatu zen, eta erreginaren eta haren artean gertatua zen guti hartaz. Bere aldetik zaintzaletako bi aitzindariak, Espainia guzia bezala erregeren baino gehiago haren errespetatzera jarriak, ahal zutena ihardetsi zaukoten oraino atheraiak etziren ustegabezko osainaren barnetik. Laster behar izan zen berriz uztartu eta abiatu. Laster ere Orzini-ko printzesak hatzeman zuen Espainako erregeren ganik uste zuen laguntzak jiteko ontsa berantzen zuela. Ez atsedetik, ez janaririk, ez jantziz aldatzekorik Donibane-Lohizunerano. Urruntzen ari zen, aroa bazoan, berririk etzuen arau, ezperanzarik etzuela moldatu behar senditu zuen. Goga daite zer errabia jarraiki zen emazte hain handi-nahiaren baitan, publikoki erreinatzen hain jarrian, bothere osoaren hegitik hoin laster eta hoin desohoragarriki aurdikian, berak bere handitasunaren jarraimen eta iraupenaren bermagailu azkarrena izaitekotan hautatua zuen eskuaz. Erreginak etzuen Orzini-ko

Andereak igorriak zauzkon bi azken eskutitzez ihardetsia; axolagabe ageri hori aitzin-seinale gaixtoa izan beharra lizakon, baina nork zuen hoin egintza bitxia eta ez-entzuna asmatuko?

Bere ilobek, Lanti eta Chalais, haren gana joaiteko baimena ukan baitzuten, azkena aurdiki zuten. Bere heina atxiki zuen. Etzizakon athera ez nigarrik, ez urrikirik, ez erasiarik, ez ahulezia arinenik; ez auhen bat, hotz bortitzegiaz ere, mota orotako beharren eskasaz, holako bidaia baten akidura ezin handiagoez. Zaintzen zuten bi aitzindariak etziren mirestetik galditzen. Soineko oinazen eta zaintze horren bururapena ukan zuen azkenean Donibane-Lohizunen, hara heldu baitzen urtarrilaren 14-an, ohe bat azkenean aurkitu, eta prestuz jantziz aldatzeko behar zuena, eta etzatekoa, eta jatekoa. Hor libertatea berriz ukan zuen. Zaintzaleak, haien buruzagiak eta ekharria zuen karrosa itzuli ziren; bere gelariarekin eta ilobekin gelditu zen. Asti ukan zuen Versailles-tik ukan zezakeenaz gogoetatzeko. Haren soberaniazko erokeria hain luzaz jarraikiaren gatik, eta Espainiako erregeren ezkontza Errege barne izan gabe egina gatik, nahi ukan zituen atherabideak oraino aurkitu hain luzaz hezia zuen gorte batean. Donibane-Lohizundik zuen igorri eskutitz andana bat, Erregerendako, Maintenon-go Anderearendako, zituen adixkidendako. Laburzki eman zuen hetan jasan berria zuen ortzi ukaldiaren berri, eta gortera xehekiago kondu emaitera jiteko baimena eskatzen zuen. Igorri zuenaren ihardespenean lehenbiziko leku libertate eta atsedenezko hortan igurikatu zuen, bere baitarik biziki gozagarria baita. Baina lehen igorpen hori abiaturik, Lanti jarraik-arazi zizakon lehia gutiagoz izkiriatu eskutitz eta mezuekin, Errege bere gabinetean Versailles-en ikusi baitzuen urtarrilaren azken egunean, eta ezpaitzen ephe labur batzu baizik harekin egon. Haren ganik jakin zen, lehenbiziko mezua bidalia ukan zuen orduko Orzini-ko Andereak igorria ukana zuela Baionara Espainiako erregina alargunari komplimendu egitera, eta hunek etzituela onharti nahi ukan. Zenbat iraingarri gaixto tronuaren galtzean! Itzul gaiten orai Guadalaxara.

Erreginak harat igorri zuen zaitzalen aitzindariak Espainiako erregerendako eskutitz batekin, Orzini-ko prinzesa Quadraqué-tik athera orduko, Errege aurkitu zuen etzatera abiatzekotan. Hunkia iduritu zuen, erreginari ihardespen labur bat egin zaukon, eta manurik batere etzuen eman. Aitzindaria berehala itzuli zen. Bitxi dena da segetua hain ontsa atxikia izan zela nun ezpaitzen biharamunean goizeko hamarrak hirian baizik jakin. Goga daiteke nolako hunkimenak hartu zuen gorte guzia,

eta Guadalaxaran gertatu zen ororen harat-hunat guziak. Nehor etzen alta erregeri mintzatzera menturatu, eta erreginari ihardetsi zuenak zadukanaz igurikatze handitan ziren. Goiza bururatzera zoala jeusen aipatzen entzun gabe, Orzini-ko Andereaz Espainiarendako egina zela sinesten hasi zen. Chalais eta Lanti menturatu ziren erregeri haren gana joaitearen eskatzera, eta zen utzian haren laguntzera; etzeen bakarrik baimena eman, baina onestate xolezko eskutitz bat hartan mezutu baitzaukon iragana zenaz ontsa gaizkitua zela, baina etzuela bere larderiaz erreginaren nahiari ihardoki ahal ukan, bere lan-sariak begirutzen zauzkola eta ordain-arazteko artha hartuko zuela. Hitza atxiki zuen, eta zuzen-zuena hunki ditu bizi izan deno.

Persiako embaxadore alegiazkoa Versailles-en

Persiako embaxadore bat Charentone-era ethorria zen, lurreratu zenetik ordaindua: Erregek besta handi bat eman zuen bere buruari, eta Pontchartrain-ek hortaz gorte azkarra egin zaukon. Embaxada hori egina zuela salatua izan zen, egiazkorik ezer ezpaitzen hartan zinez agertu, eta embaxadorearen ibilera guziek gezurtatu baitzuten, eta jarraileen ezteusak eta ekarri zituen eskaintzen ttipiak ere. Persiako erregeren mezu ez bothererik batere, ez eta haren minixtro batenik ere. Halako probinziako intendant bat zen, gobernadoreak sal-erosketazko egiteko berezi zenbait haren gain emanak zauzkona, Pontchartrain-ek embaxadorez jantzi zuena, eta Errege abantzu bakarrik hartaz enganatua gelditu zena. Parisen sartzea egin zuen otsailaren 7-ko ortzegunean, zaldiz, Matignon-go marexalaren eta Breteuil-go baroinaren artean, embaxadoren sartzalea, hunekin usu ukan baitzituen merkataria aphas baten arruntkeriak; eta zeremonialdiaz hanbat kalapita ero Matignon-go marexalarekin, nun, embaxadore ez ohikoen hotelean ezarria ukan zueneko, han utzi baitzuen gambarara lagundu gabe, erregela den bezala, eta joan Erregeri deitoratzera, orotan baieztatu baitzuen, eta embaxadorea biziki gaizki ikasia aurkitu. Jarrailegoa urrikalgarri ukan zuen. Torcy ikustera joan zizakon berehala. Huni desenkusatu zizakon orduko ilargiaren estakuru, etsai zizakola baitzion, eginak zituen ozarreria guziez; eta arrazoin beretik ukan zuen lehen entzunaldiaren gibelatzea, sartu eta etzian ezartzen duen erregelaren kontra.

Ordu hartan berean, Dippy hil zen, orienteko hizkuntzetako Erregeren mihia. Erretor bat ekharr-arazi behar izan zen Amboise-ko ondotik, Persian urte andana bat eremana zuena, mihi horren

ordaintzeko. Biziki ontsa egin zuen, eta gaizki saristatua izan zen. Ustegabeak aurki-arazi zautan, eta mintza-arazi. Gizon on bat zen, zuhurra, zentzuduna, Persiako bizi-moldeak eta gobernua azkarki ezagutzen zituen, hizkuntza ere, eta, embaxadore hortaz ikusi eta jakin zuen guzitik, haren ondoan egon baitzen beti Parisen izan zeno, beti uste ukan baitzuen embaxada alegiazkoa zela, eta embaxadorea deus gutiko merkatari bat, bere ofizioaren atxikitzen biziki eragozpenean, hortako behar zen guziak huts egiten baitzaukon. Errege, beti egiazkoa bezala eman baitzizakon, eta bere gorteko abantzu bakarra izan baitzen gogo onez sinetsi zuena, ezin gehiago lausengatua senditu zen hara deusik igorri gabe ekharria izan zizakon Persiako embaxada batez. Usu aipatu zuen atsegin handiz, eta gortea aphaindura handienetan izan zadin nahi ukan zuen entzunaldiko egunean, otsailaren 19-an izan baitzen, eta nasaitasun handienarekin jarraikia.

Tronu miresgarri bat ezarri zen, mail andana batez goititua, galeriaren buruan, gibelaz erreginaren egoitzara deman saloinari, eta mail batzu alkiekin galeriaren bi aldetan, hau handizki aphaindua bizitegi handi guzia bezala. Tronura hurbileneko mailak gorteko anderendako ziren, bertzeak gizonen eta behatzalendako; baina etzen gizon ala emazte azkarki aphaindurik baizik sartzera uzten. Erregek prestatu zaukon perla eta diamantezko aphaindura bat Maine-ko dukeari, eta harri margodunezko bat Tolosako kondeari. Orléans-ko duke Jaunak bazuen balusa urdinezko jantzi bat, mozaika moldean brodatua, guzia perlaz eta diamantez dirdiran, aphainduraren eta gustu onaren saria ereman baitzuen. Erretetxea, odoleko printze ‘ta printzesak bildu ziren Erregeren gabinetean.

Korraleak, hegaztegiak, ethorbidea jendez ihaurri ziren, Errege leihoetarik beha biziki jostatu baitzuten, eta hortan atsegin handi hartu baitzuen embaxadorea igurikatuz, hamekak hirian ethorri zena Erregeren karrosetan, Matignon-go marexalarekin eta Breteuil-go baroin embaxadoren sartzalearekin. Ethorbidean zaldietara igan ziren; eta embaxadorea aitzinean, oinaren lurreratzera jin korrale handian, zaintzalen koronelaren egoitzan, gabinetetik landa. Jarraile andana hori orotan biziki ezteusa iduritu zen, eta delako embaxadorea azkarki eragozpenean eta biziki gaizki jantzia, eskaintzak deus baino gutiago. Orduan Errege, gabineta betetzen zaukotenak ondotik, galerian sartu zen, eta bere burua mailetako anderer ikus-arazi zeen; azkenak odoleko printzesendako ziren. Oihal urre ‘ta beltzezko jantzia zuen, ordenarekin

gainetik, ohian azpian ekhartzen zuten zaldun biziki gutik bezala; jantzia koronako diamant ederrenez aphaindua zuen, hamabi miliun eta bortz ehun mila liberena bazen; haztaren azpian makurtzen zen, eta azkarki hautsia iduritu zuen, mehatua eta begitartez biziki gaizki. Tronuan jarri zen, odoleko printzeak eta baxtartak ondoan xutik, burua ezpaitzuten estali. Mail ttipi bat eta leku bat antolatuak ziren tronuaaren gibelean Madame eta bere doluko lehen urtean zen Berry-ko dukesa Anderearendako, eta hauen andere handienen. Hor ziren “incognito” eta biziki guti ikusiak, baina guzia ikusten zuten eta entzuten. Erreginaaren egoitzatik sartu ziren eta athera, Delfina Anderea hilez geroz idekia izana etzena. Ventadour-ko dukesa Erregeren eskunean zen xutik, egungo Errege bazadukala gerriko zintatik. Bavierako elektorea bigarren mailean zen ekharriak zituen anderekin; eta Lusace-ko kondea, erran nahi da Saxe-ko elektorea, Conti-ko printzesa Printze Jaunaren alabarenean. Coypel, margolaria, eta Boze, idazkien Akademiako segetaria, tronuaaren behean ziren, bat margazkiaren egiteko, bertzea aipamenaren. Pontchartrain-ek etsuen deus ahatzia Erregeren lausengatzeko, embaxada horrek lehengo ospea berriz ekartzen zaukola sinets-arazteko, hitz batez ozarki enganatzeko gustatzekotan.

Monarka hori baizik nehor etzen jadanik enganatua zenik. Embaxadorea embaxadoren mailalde handitik ethorri zen, bizitegi handia iragan zuen, eta galerian sartu tronuaak gibelaz emaiten zuen saloinaren bertze aldekotik. Ikusgarriaren ospe handiak azkena nahasi zuen. Entzunaldian bizpahirur aldiz bere itzultzaleaz khexatu zen, eta frantzesa apur bat entzuten zuelako aierua eman-arazi zuen. Entzunalditik landa, Erregeren aitzindariak eman zaukoten bazkaria, ohitua den bezala. Gero joan zen oraiko Erregeren agurtzera ospez aphaindurik izana zen erreginaaren egoitzan, hortik Pontchartrain eta Torcy-ren agurtzera, han karrosan igan baitzen Parisera itzultzeko. Emaitzak orotara, Erregerendako Persiako erregerendako bezain guti gai zirenak, laur ehun perla biziki arteko ziren, berrehun harri-uridin biziki itsusiak eta bi urrezko untxi arraroa den balsamu batez beteak, harpe batean hetsia den aitz batetik jalgitzen dena, eta gero aroarekin apur bat gogortzen. Zauriendako mirazkoa diote. Erregek manatu zuen jeus etzadin barrea ez galerian ez egoitza handian. Joateko entzunaldia lehenbiziko entzunaldia delako embaxadoreari emana zaukon leku berean emanen zuela deliberatua zuen eta ospe berdinean.

Dukearen eta Orzini-ko Anderearen azken solasaldia

Orzini-ko prinzesa Parisera heldu zen azkenean, eta jautsi eta bizitzera jin Noirmoutiers-ko duke bere anaiaren etxera, jakobetarren etxe ttipi bat, hartan San Domingo karrikan bizi baitzen, enearekin athez athe. Bidaia hori Frantzian egina zuen azkenetik ontsa ezberdina iduritu zizakokeen, orduan gorteko erregina bezala izana baitzen. Jende guti, bere aitzineko adixkide eta lehengo alderdikoez harat, jin zizakon ikustera; horrek ikusle aski eman baitzuen lehenbiziko egunetan, gero ikustaldiak bekandu ziren, eta bakartasuna izan zizakon nagusi Versailles-ko bidaiaren ondorioa ikusia izan zeneko, egun andana bat igurika-arazi baitzizakon. Orléans-ko duke Jaunak, Espainiako erregearekin berriz ontsa jarriarik, senditu zuen bere abantail azker bat zizakola, mendekio ahul bat baino gehiago ere, harrabots zenbaitekin erakustea etzuela Espainako egitekoa Orzini-ko prinzesaren herrari eta jukutriari baizik zor, buruaren hildegirat ereman-araztetik hain hurbil izana baitzizakon (...) Horrela etzuen Orléans-ko duke Jaunak gupidetsi behar zuela uste ukan. Hortara bultzatu zuen Orléans-ko dukesa Andereak, eta oraino gehiago Madame-ek, hanbatetan nun Errege othoiztu baitzuen debeka zezon Orzini-ko prinzesari Berry-ko dukesa Anderea, Madame eta Orléans-ko duke 'ta dukesa Jaun-Andereak gerta zaitezkeen edozein lekutan, Versailles-en ere, izaitea, hauk gauza bera galdegiten zeetela aldi berean bereziki atxikiak zizezteen jender. Ukaldi horrek harrabots handia egin zuen, agerian erakutsi Maintenon-go Andereak uzten zuela, Erregek gutiesten, eta Orzini-ko prinzesarendako eragozpen handi bat izan zen.

Enuen aurkitu ahal ukana egin-ara hortan Orléans-ko dukea ogenean zela (...) Baina aitzineratu naukon beti Orzini-ko Anderearen adixkide berezia izanik, haren aldera egina zuena bazter utziz, eta harendako nuen atxikimendua ez arautuz anderearendako nuen adixkidantxarekin, betidanik emanak zauztan horren ezaugarriak enezazkeela ahatz, eta bereziki aitzineko bidaia hain irabazte handizko hartan, bere aroan agertu dutan bezala, eta gogor izanen zizatala haren ez ikustea. Hautsi-mautsi egin ginuen beraz, eta Orléans-ko duke eta dukesa Jaun-Anderek eman zautaten bi aldiz ikusteko baimena: bat orduan, bertzea abiatuko zenean, enintzala heren aldi batez joanen hitz emanek, eta San-Simungo Andereak etzuela ikusiko, haien eta Berry-ko dukesa Anderearen arrazoinez, gogo gaixtoz iretsi ginuena, baina hortik iragan behar zen. Irabazia nuenaz bederen baliatu nahi bainuen, nituen

trabak erran-arazi nauzkon Orzini-ko Andereari, eta, bederen ahal nuen guti-gutian astira ikusi nahi bainuen, lehenbiziko egunak eta gorteko lehen bidaia iragaitera utziko nauzkola entzunaldi bat galdegin baino lehen. Ene mezua biziki ontsa hartua izan zen, baziren urteak eta urteak Orléans-ko duke Jaunarekin zertan nintzan bazakiela, etzen traba horiez ustegabetua izan, eta aitzitik ukana nuenaz esker on eman zautan. Beraz hura Versailles-en izan eta egun zenbaiten buruan, etxera joan nindakion eguerdi ondoko bi orenetan. Berehala athea hetsi zuen salburik gabe, eta harekin egon nintzan buruz-buru arratseko hamarrak ondorano.

Goga daiteke zenbat gauza diren hoin solasaldi luze batean aipatzen. Betiko adixkidetasuna eta idekia aurkitu nauzkon, zuhurtzia ainitz Orléans-ko duke Jaunaz eta haren etxekoez, zintzotasun gainerateko guzian. Bere hondamena kondatu zautan behin ere Errege hartan sartu gabe, ez eta Espainiako errege, huntaz bere burua beti laudatu baitzuen; baina erregina zegoen zuena ideki gabe, aitzinetik erran zutan geroztik ikusi dena. Jeus etzautan gorde bere ustegabeaz, gaizki eginez, deliberatuki erran laido gotorretarano, abiatzeaz, bidaiaz, izanaraz, jasana zuen guziaz. Mintzatu zizatan ere biziki lañoki Versailles-ko bidaiaz, Parisen zuen atsekabeko izanaraz, erregina zenaz, Espainiako erregez, han gobernuaren barnean ala ez itxura ona egin zuten jende guziez, azkenik erretreta zuten bateko zituen xede dudazko eta ezberdinez, lekua oraino gogoan eztabadatzen baitzuen. Zortzi oren solasaldi horiek hanbat gauza ohargarri eskaintzen zituen jende batekin zortzi ephe labur iduriti zizaztan. Auhaltzeko orduak, berant izanik ere, berexi ginituen, elgarrer mila aithormen zinezkoekin, eta haren eta San-Simungo Anderearen arteko ez ikus ahal izaitez urriki berekin. Abiatzeaz aski goiz abisatuko ninduela hitz eman zautan oraino elgarrekin egun bat iragan ahal ginezan.

Versailles-ko bidaia guti gozagarriki iragan zizakon. Epailaren 27-ko astezkenean joan zen, beti han egoiten zen Lude-ko dukesarekin bazkaltzera. Han egon zen Erregek Maintenon-go Anderearen egoitzara joan behar zuen ordua baino oren erdi bat aitzinerano hurbil, harekin bakarrik igurikatzen joan baitzen orduan; guti gehiago egon zen haiekin hirugarren, eta gero hirira baztertu, Adam Anderearen etxera, atzerrietako egitekoen komis lehen baten emaztea, hark eman baitzaukon auharia eta etzatea, eta han biziki guti ikusia izan baitzen. Biharamunean Ventadour-ko dukesaren etxean bazkaldu zen, eta Parisera itzuli.

Boulainvillier Frantziako monarkiaren ixtorio egilea eta izar azterlea

Noailles-ko dukea azkarki elhaide zen Boulainvillier-ekin, eta harekin ezagutza egin-arazia zautan. Ethorkiko gizon bat zen Croï-ko etxetik zela ziona, ontasunez ez azkar, zerbitzu guti egina zuena, izpiritua bazuena eta letra ainitz. Ixtorioak bazazkien ezin hobeki, gehienik Frantziakoa, hortan lan ainitz egina baitzuen, bereziki lehengo jeinuaz eta lehengo gobernu frantzesaz, eta haren egiturako molde bereziez oraikorano. Ikertuak zituen ere erresumako leinu-ethorkiak, eta nehork etzaukon jakitatea ukatzen, eta biziki jende gutik orhoitmen oso, zuzen eta zorrotz batek bi gai horietan azkarki laguntzen zaukon lehentasuna. Gizon xoil, ezti, jitez xume bat ere zen, nahiz nor zen bazakien, baina batere bere buruaz hoilatu gabe, bazakiena gogo onez argitzen zuena deusen erakustea bilatu gabe, eta lañotasuna mota orotan arraroa zuena. Baina azken heinerano jakin nahia zen, eta gogoa hain libroa zuen ere, nun ezer ezpaitzen jakin nahi hori geldi-araz zezakeenik. Izar aztertzeari eman izana zen beraz, eta hortan biziki ontsa heldua zelako aipamena zuen. Biziki guti mintzo zen gai hortaz; adixkide bereziak ziren bakarrik hori aipa zezoketenak eta ihardetsi nahi zauenak. Noailles-ko dukea jakintza mota horietaz amikatua zen, eta iresten zituen, askiets ahal zezaketelako omena zuten jendeak aurki zezazkeen ber.

Boulainvillier, familia eta egitekoak azkarki nahasmenean baitzituen, biziki usu bere Saint-Cère-ko lurrian zagon, itsas-aldera, Caux-ko herrian, Forges-tik biziki urrun eztena. Hara ethorri zen bere ezagutzako jende batzuen ikustera, eta, uste dut, bere karkulek haien jakin nahian emaiten zuten berrien ireztera. Saint-Simun-go Anderearen ikusten izan zen eta hunek hanbat kitzikatu zuen Erregeren berrien ikasteko, nun ezpaitzuen nekerik ukan erraiten zirenak baino segurragoak bazituela uste zuela entzuteko. Gogoan zer zuen erran zaukon; hark etzuen deus erran nahi ukan zenbait demboraz, eta azkenean amor eman zuen. Galdegin zaukon beraz zer uste zuen Erregeren osagarriaz ikus arau ttipituz baitzoan, baina heriotzeak ezpaitzuen oraino hurbil zela iduri, eta berak ezpaitzuen bere egunen egitarauan deus aldaturik, ez eta bere bizi molde ohituan den gauza gutienik. Orduan agorrilaren 15 edo 16-an ginen. Boulainvillers-ek etzaukon gorde etzuela uste Erregek oraino luzaz iraunen zuela, eta bere burua berriz hertsatzera utzirik, erran zaukon uste zuela San-Luis-ko

egunean hilen zela, baina etzituela oraino karkulak aski zorrozki egiaztatu ahal ukanak hortaz segur izaiteko; hala ere bazakiela egun hartan Errege biziki gaizki izanen zela, eta iragaiten bazuen, ondoko buruilaren 3-an hilen zela segurki. Bi egun berantago, Errege ahultzen ikusiz, mezutu naukon San-Simun-go Andereari itzul zadin. Berehala abiatu zen, eta ethortzean orai ekharri dutana erran zautan. Aitzinetik errana zuen, Espainiako erregeren heriotzea baino biziki lehenago, Monseigneur-ek ez eta haren hirur semetarik batek etzuela Frantzian erreinatuko. Ikusi zuen urte andana bat aitzinetik bere seme bakarraren heriotzea eta berea ere, gertakariak egiaztatu zuena, baina dorpeki huts egin zuen bertze ainitzetan, hala nola oraiko Erregerenean, uste ukan baitzuen laster hilen zela, eta bat baino gehiagotan erran, Noailles-ko kardinal eta marxalsa, Agaramundeko duke eta Le Blanc Jaunarenean Parisko jazarraldi batean hil beharrak baitziren, Orléans-ko duka Jauna bi urte presondegiren ondotik eta handik athera gabe. Egiazkorik ala hutsezkorik eztut gehiago aipatuko: aski da hainbertze gogo bereganatzen duen delako jakitate hori hutsezkoa dela erakusteko, eta Boulainvillier-ek berak, zenbat hortaz hartua bazen ere, baitzuen edozein ekhaietan jarria etzela aithortzeko gogo ona.

Orléans-ko dukeaz eta haren etxeaz Erreienziara heltzeko bezperan

1. Dukearen marrazkia

Orléans-ko duke Jauna gorputz araz bierartekoa zen gehienik, bete-betea, lodi izan gabe, itxura eta ibilera errexak eta biziki nobleak, bergitarte zabal, gozagarri, kolorez azkar, ilea beltza eta perruka berdina. Nahiz jantzan biziki gaizki ari izana zen, eta zaldizko akademian hala-hola heldua, bazuen begitartean, jestuetan, ara guzietan garazia mugagabe bat, eta hain jitezkoa nun egintza ttipienak aphaintzen baitzauzkon, eta arruntenak ere. Errextasun ainitzekin jeusek etzuenean hertsatzen, ezia zen, abegiduna, idekia, hurbil errexa eta orduan loriagarria, mintzoaren doinua gozagarria zuena eta mota orotan osoki berea zuen elheko dohain bat, deusek ustegabetzen etzuen errextasun eta zuzen batekin, baina jendea beti ustegabetzen zuena. Elhea jitez ederra zuen mintzaldi xoilan eta egunorotakoenetarano, horren zuzentasuna berdina izanez jakitate hutsenetan argi bilakatzen zituela, gobernuko gauzetan, politikako, dirutzetako, gerlako, gorteko, ohiko solasaldietakoetan, eta edergintza eta mekanikako gai orotan. Etzituen

gutiago baliagarriki erabiltzen ixtorioak eta orhoitzapenak, eta azkarki bazazkien etxeak. Aro guzietako jende nagusiak eta haien biziak gogoan zituen, eta gorte zaharretako azpikeriak bere arokoak bezala. Entzutean, irakurtze zabal bat uste ukanen zizakon. Deus gutiagokorik. Arinki behatzen zuen, baina orhoitmena hain berezia zuen nun ezpaitzuen ez gauzarik, ez izenik, ez arorik ahazten, zuzen emaiten zituela; eta hartzea hain azkarra zuen horrela gaingiroki irakurriz, nun guzia biziki zorrozki irakurria ukan balu bezala baitzen. Hoberena zen behar zen orduan berean mintzatzean, bai zuzenean bai ernean, ala hitz jokoz ala atheraldiz. Ainitzetan erasiatu nau, eta bertze batzuek hark baino gehiago, enuelakotz hobetzen, baina usu eman daukot ere biziki jende gutik baizik merexi eztuen laudorioa, eta harena baino gehiago nehorena etzena: izpirituz mugagabea et mota andana batekoaren ukaiteaz gainera, harenaren ohartasuna hainbertze zuzentasuneri lotua zela da, nun ezpaitzuen egiteko batean huts eginen bakoitzan bere gogoaren lehenbiziko hartzeari jarraiki balitz. Batzuetan ene laudorio hori erasiatze hartzen zuen, eta etzen beti hutsean, baina etzen gutiago egia. Horrekin burgoitasunik batere, gogo eta ezagutzazko handieriarik batere, ororekin heinetik heinera arrazoinkatuz, eta beti antzedunenak ustegabetan ezarriz. Jenden artean jeus ez hertsatzalerik ez larriegirik, eta nahiz nor zen ontsa sendi zuen, eta haren aitzinean ezin ahatzia izaiteranoko moldean ere, jende guzia gozoan ezartzen zuen, eta bera bertzen heinean bezala.

Bere lerroa azkarki bazatzikan eta mota orotan odoleko printzekin, eta nehork etzuen hark baino ara errespetuzkoagorik ez eta nobleagorik Erregerekin eta Frantziako semekin. Monsieur-ek ondorioz bere errege aita eta atabixien kuraia betean ukana zuen, eta oso-osoa semeari emana zaukon. Nahiz etzuen gaitzerraiterako ixuririk batere, ainitz gutiago gaixtoa izaita deitzen deneko, lanjerosa zen bertzen kuraiaz mintzatzean. Behin ere etzuen hortaz mintzatzea bilatzen, berari zoakonaz laño eta ixil ere hortan, eta bera gehienik barne izana zen gai hortako gauzak beti erraiten zituen, bertzer laudorio oro emanez zuzenki eta bere burua nehoiz aipatu gabe; baina nekez zagon aski “lepokotik zuzenak” iduritzen etzizazkonak, erraiten zeen bezala, zimikatu gabe, eta gaitzeste eta higun jitezko bat sendi zizazkon hala zirela uste zuenen aldera. Hortako zuen ere Henri IV-garrenaren egite bazuela uste ukaiteko ahulezia, ibileretan, ihardespenetan horren erakustekoa, bere gorputzarako eta begitarteko molderano bazuela bere buruari sinets-

araztekoa, eta bertze edozein laudorio eta lausengu motaz hortaz bezenbat ez hunkia izaitekoa. Behin ere hortara jautsi ahal enizan lausengua da. Sobera sendi nuen egite hori etzuela printze handi horren biziotan bertutetan baino gutiago bilatzen, eta etzizazkola batzu bertzeak baino gutiago miresgarri. Henri IV-garrena bezala, jitez bihotz onekoa zen, urrikaltsua, eta hain abreki gaizkin beltzenaz eta ankerrenaz salatu den gizon hori baino, bat eztut ezagutu bertzen erahiltzeko gaizkinaren jitez etsaiagorik, ez eta nehorri pena emaitetik berezikiago urrundurik ere, hartarano nun erran baitaiteke haren ezia, urrikia, errexa hutsera itzuliak izanak zirela, eta eninzateke beldur etsaier barkatzeko bertute goiena biziora itzuli zuela erraiteko, nasaiki emaita arrazoinik ez hauturik gabe soraiotasunetik hurbilegi baitzuen, eta ekarri dauzkolakotz eragozkai nardagarriak eta gaitzak, hauen jarraipenak agerbideak eta lekukotasunak erakutsiko baititu.

(...)

Libertatea azkarki maite zuen, eta bertzendako beretako bezenbat. Gai hortan egun batez espantu egiten zautan Angeleterraz, han ezpaita herritik haizatzerik ez zigiluzko eskutizik, eta han erregek ezpaitezake bere palazioko sartzea baizik debeka ez nehor presondegian atxik, eta hortan erran zautan atsegin handia hartuz, ezen gure printze guziak orduan bizi ziren, Portsmouth-ko dukesaz bertzalde, Charles II-garrenak maitale ttipi batzu ukanak zituela: priore handia, gazte eta maitagarria aro hartan, xoxokeria zenbaiten gatik bere burua haizaziririk, herriz igortzearen iragaitera joana zela Angeleterrara, han erregek biziki ongi-ethorri ona egina baitzaukon. Eskertzeko, erregeri hunek hain minki maite zituen maitale ttipi horietarik bat ebatsi zaukola, eta hunek utz zezan galda-arazi, dirua eskaini, eta Frantziarekin baketuko zuela hitzeman. Priore handiak ihardoki zuen. Charles-ek palazioa debeka-arazi zaukon. Hortaz irri egin zuen et egun oroz bazoan komediara bere maitalearekin, eta han erregeri bekoz beko jartzen (...) Orléans-ko duke Jaunak hori miresten zuen, eta priore handia izango nahi zuenez eztakit. Erran naukon miresten nuela nihaurek nola Frantziako errege baten semabitxiak atsegin ukan zezan hoin egintza ozarrean, eni, menpekoari, eta hark bezala tronuarekin ezer ikusteko enuenari, eskandala baino gehiago baziduritana eta ezin gehiago gatzigagarria. Hartan egon zen, eta ixtorio horri beti atsegin handiz erraiten zuen. Erreinatzeko handi-nahirik ez eta gobernatzekorik etzuen bada batere. Urrats osoki gogoetatu gabeko bat hortara egin bazuen

Espainian, buruan ezarria zaukotelakotz da. Etzuen ere zinez gobernatzea gogoan ukan, ikusiko den bezala, ala galdua eta desohoratua izaitera, ala sortzezko eskubiden erabiltzera bortxatu zenean; eta, erreinatzeaz, nehoiz etzuela nahi ukan erraiteko enindaie beldur, eta, aldiak bortxatu balu, hein berdinean okaztatua eta eragozpenean izanen zela. Galdeginen zata: zer nahi zuen beraz? gerlak iraunen zueno armaderi manatzea, eta gainerateko astietan libertitza hertsatzerik gabe bere eta bertzerendako.

(...)

Zer gizona ere bertze ororen gainekoa, eta ezaguna den mota orotan! eta zer gizona Frantziaren zorioneko hain berezikienik moldatua, gobernatu behar ukan zuenean! Gainera dezagun baitezpadako gaitasun bat, hau da hogeita-hamasei urte hurbil bazituela Delfinen heriotzean eta hogeita-hemezortzi hurbil Berry-ko duke Jaunarenean, jende berezi bezala eremanak zituenak, lardaira heldu ahal izaiteko gogoeta orotarik osoki urrun; ekaitz eta erauntsiez joa zen gortelaria, eta norbait ziren guzien ezagutzeko aran bizi izana zena, eta hala etziren gehienek ere; hitz batez jendearekin bizi ohikoa eremana ukaiteko abantaila, eta ezagutza guziak bildu ukaitekoa, ezpaitira, hori gabe, bertze nunbait ordaintzen. Horra ederra, ederrena agian eta bekanena. Zorigaitzez bada orai erakutsi behar den ordaintzekoa, bertze nunbait ikusi denaren, hobeki egiteko, errepikatze arin zenbaiten beldur izan gabe.

(...)

2. Orléans-ko dukearen ikaskuntzak eta Dubois apheza

Monsieur, azkarki loriosa baitzen eta oraino etxeko gobernaria duke 'ta para ukanik gaiztua (...), jende tituludunak nahi ukan zituen bere Jaun semearen gobernaritzat. Etzen gauza errexa, baina hatzeman ziren. Navailles-ko Jauna izan zen onhartu zuen lehena. (...) Jarraiki zizakon Estrées-ko marexala (...) Arcy-ko markesa azken gobernaria izan zen. Embaxadak eginak zituen aipamenekin, eta berdin zerbitzatua zuen. Ethorkiko gizon bat zen, eta hori azkarki sendi zuena, ordenako zaldun 1688-an. Anaia gehiena hala izana zizakon 1661-ean. D'Arcy ezpatako Estatuko konseilari zen ere. Bertze nunbait ikusi da kargu hortan nola ibili zen, gerlan gehienik. Haren heriotzea Maubeuge-en, 1694-ko ekhainean, haren ikasleari gerta ahal zakidion zorigaitz handiena izan zen, hunen gainean hartua baitzuen ez bakarrik larderia osoa, baina konfienxia guzia, eta haren ara guziak eta ibilerak laket baitzizazkon eta

estimu handia emaiten baitzaukoten, mota hortan begirunerik gabe eztoan gauza.

Printzea, bidari zuhur hori gehiago ez ukanez, beti urriki ukan duela ikusi baita, Estrées-ko marexala bezala, eta bere bizi guzian hautarik gelditua zaukon guziaz erakutsi baitu, betean erori zen Dubois aphezaren eskuetara eta gogoa hartu zaukoten gazte bizi-tuenetara. Monsieur-ren gortean eta etxean ikusi zituenek, eta mutiko gazte gogamen gabeko, uztarriaz akitu, osoki berri, biziaren ezagutza gabeko batzuek haren esklako diren ara ederrarendako dadukatenek, eta usu berek nahi gabe, laster ezabatu zuten Saint-Laurent-ek eta Arcy-ko markesak erakatsia zaukoten on hura. Bere burua utzi zuen zirtzilkeriara eta lagundia gaixtora eremaiten, lagundia ona, mota hortan ere, Erregeren beldur baitzen, eta huntarik baztertzen. Bortxaz ezkondua eta berantegi senditu zuen ezberdintasun guziarekin, utzi zen Parisen, gobernatzekotan, ukan nahi zuten jende ilun batzuen irri-solasen entzutera; bere aldian egin zituen ere, eta (...) etzeen gehiago bere solaser eta zirtzilkerier mugarik eman, ala errexeriaz, ala gortean aspertzez, bere emazte Anderearekin biziz egiten zen bezala (...), azkenik Erregez trufatzeko xede hondagarrian, haren ganik ihes egiteko, bere aldian haren xixtatze, eta horrela gobernamenturik ez armadarik manatzeko ez ukaiteaz menderatzeko. Andere komediari eta hauen ingurukoekin bizi zen beraz, ilunbe ahalgegarri batean, eta gortean ahal zuen bezain osoki guti. Bitxi dena da Monsieur-ek egitera uzten zuela Erregerendako zuen hisi hortaz beraz, eta Madame, semearen ezkontza Erregeri eta bere erren Andereari ezin barkatuz, seme Jaun horrek zeraman bizia ez onharturik ere, etzizakon hortaz abantzu batere mintzatzen, golkoan erren Anderearen atsekabez loriatua, eta Erregek hortaz zuen bihotz-minaz.

(...)

Dubois apheza gizon ttipi mehar, luze, moko mehe bat zen, perruka hori batekin, fuñaren itxurakoa, begitartea izpirituduna, hitz arruntez azeria erran daitekeen bat zena bete-betean, eta bertze molde abantzu egin eztaitekeena. Bizio guziak joka air ziren zeinek irabaz haren baitan. Harrabots bat bazegiten elgarrekin eta gudu bat etengabea. Bere jainkoak zekeneria, zirtzileria, handi-nahia zituen; maltzurkeria, lausengua, menperatzeak atherabideak; erlisione gabe osoa sosegua; eta eskugarbitasuna eta zuzentasuna hetaz aphaintzen den ametseriak zirelako aburua, nehoren baitan egirik eztutenak, haren sinesmen

bakarra, horren ondorioz atherabide guziak on baitzizazkon. Azpikeria aphalenetan hauta zen, hetaz bizi zen, gabe etzaitekeen egon, baina beti bere urrats guziek hartara zeramaten helburu batekin, hartara heldurik baizik bururatzen etzen pairamenarekin, edo hel etzaitekeela erakutsiz eta errepikatuz baizik, ezpazuen, horrela lurpean eta ilunbean zoala, bertze zilo bat idekiz hobeki argiratzea ikusten. Bizia horrela zeraman azpi-hobietan. Gezur ozarrena jite bilakatua zizakon itxura laño, zuzen, zintzo, usu ahalgetu batekin. Garazia eta errextasunekin mintzatuko zen, mintzatzean bertzeak zilatu nahiz, behar zen baino gehiago aitzinatzeako beldurrak ezpalu moteldura batera jarria, gaizten baitzuen, eta, gauza gotorretara heldua izan zenean bikundurik, ezin jasana bilakatu zena, eta batzuetan ezin entzuna. Itzulikatze horiek eta bere oharpen guzien gatik agertzen zizakon jitezko gutia gabe, solasa gozagarria ukanen zuen. Izpiritua bazuen, letrez, ixtorioz eta irakurtzez aski, munduaren ezagutza ainitz, gustatzeko eta sartzeko gutizia azkarki, baina hori guzia falsukeriako khe batez andeatua, berak nahi gabe larxilo guzietarik jalgitzen zizakona eta alaitasunerano ere, hortik trixtatzen baitzuen. Gaixtoa bertzela hala nahiz eta jitez, eta, arrazoinkatzez saltzale eta eskergaitz, belzkeria handienen moldatzeko nagusi lehen, egintzan hatzemaña zenean izitzeko ozar; orotaz gutizian, orotaz bekaizti, eta buluzkin guzien nahitan. Gero jakin zen, bere buruaren ez hertsatzera menturatu zeneko, zenbatetarano zen abantail nahia, zirtzila, aldakorra, egiteko orotan ez jakina, blasfemaria eta eroa, beti gartsua, haserrea, eta zenbatetarano zituen bere nagusia eta Estatua agerian gaitzetsi, mundua salbuespenik gabe eta egitekoak, guzi-guzien ezartzeko bere azpian, aipamenaren, botherearen, larderia betearen, handitasunaren, zekeneriaren, izialduren, mendekioen. Horrelakoa izan zen Monsieur-ek bere semearen bizi-moldeak antolatzen utzi zazkon gizon zuhurra.

(...)

3. Orléans-ko dukea, erlisioneak, Rabelais eta musika

Orléans-ko dukea Jaunak zuen izpirituko jakin-nahiak, bermetasun eta kuraiako gogo hutsezko bati loturik, goizik debruaren ikustearen bilatzen atxikia zuen, eta ahalez haren mintza-arazten. Ezer etzuen ahazten, irakurgai eroenatarano, Jainkorik etzela gogoan hartzeko, eta debruan sinesten zuen haren ikusteko eta hari mintzatzeko esperanza ukaiterano. Ezberdintasun hori ezin entzuna da, eta bizkitartean biziki hedatua. Hortara lan egin zuen mota orotako jende ez-ezagun batzuekin, eta ainitz Mirepoix-rekin, 1699-an hil zena,

musketari beltzen ordezkari jenerala, Mirepoix orai ordezkari jeneral eta ordenako zaldun denaren aita. Gauak Vanvres eta Vaugirard-ko harrobietan eremaiten zituzten debruari hel egiten. Orléans-ko duke Jaunak aithortu dauta etzela behin ere deusen ikustera ez entzutera heldu ahal izana, eta erokeria hori azkenean utzi zuen. Lehenik etzen Argenton-go Andereari gustatzeko baizik, eta gero jakin-nahiaren iratzartze batez, eman zela baso ur batean oraiari eta geroari beharaztera, hark erranetik hortaz gauza bitxi batzu erranak baititut; eta etzen gezurtia. Falsu eta gezurti, nahiz biziki auzoak, eztira gauza bera; eta gezur erraitea gertatzen zizakonean, etzen ehoiz, hitzeman zerbaitek edo egiteko zenbaitek hertsaturik, bere nahigabeen hortaratzen zenean atheka gaitz zenbaitetik atheratzeko baizik.

Nahiz usu solastatu giren erlisioneaz, hortan, neure burua esperanza zenbaitez lausengatu ahal ukan dutano, alde orotara itzuliz ari bainintzan hura aspertu gabe gai larri hortan, ehoiz eztut zilatu ahal ukan zein gogamen moldatua ahal zuen, eta uste ukan dut azkenean etengabe airean zabilala behin ere bat moldatu ahal ukan gabe. Zuen gutizia minena, bizimoldetan haren idurikoena bezala, Jainkorik izan etzadin zen; baina argi sobera bazuen jainkogabea izaiteko, ero mota berezi bat baitira uste den baino biziki bekanagoak. Argi horrek nardatzen zuen; iraungitzea bilatzen zuen eta etzen hortara heldu. Arima hilkor bat atherabide izanen zizakon; etzen hobeki heldu horren sinesteko egin zituen indar luzatueta. Den Jainko batek eta arima hil-ezin batek atheka gaixto batera egozten zuten, eta ezin zaitekeen bat eta bertzearen egiaz itsu egon. “Deismoa” atherbe iduritu zizakon, baina deismo horrek hanbat gudu bazegien haren baitan, nun ezpainuen lan handirik ukan bide onera ekhartzen Argenton-go Anderearekin hauts-arazia ukan naukon ondoan. Errana denetik ikusi da zer gogo onez haren aldetik. Gogo argiekin bat zuen galdukeriaren hausteko arte hortan. Baina haren gana itzultzeko zorigaitzak berriz egotzi zuen utzia zuenera. Gehiago etzuen sendimendu bortitzen harrabotsa baizik entzun burxoratzeko erlisione gabeko solas berdinez laguntzen zuena, eta horren erakutsi nahi eroaz. Erlisioean zer etzen eztezaket beraz jakin, zer zen erran ahal gabe. Enaiteke egon alta gai handi hortan zuen neke ezin handiagoa aipatu gabe, eta uste ukan gabe bere baitarik hiriko aphez guzien eta kaputxin guzien eskuetara eroriko zela, hauen hanbat gaitzestea garhaikin zadukalarik, hortako astia emanen zaukon eritasun

lanjeros batera erori balitz. Mota hortan zuen ahulezia handiena erlisione gabekoa izan nahia zuen eta hortan ausartenen gainditzea.

Orhoit niz Eguberriko gau batez Versailles-en, Erregerekin joan baitzen matutinetara eta gauerdiko hirur mezetara, gortea ustegabetu zuela ekharria zuen liburu batean irakurtzen hartu zuen artha jarraikiaz, othoitzeko liburu zenbait zela iduritu baitzuen. Orléans-ko dukesa Anderearen gelari lehenak, etxean aspaldikoa, biziki hari atxikia eta gogo librokoa, sehi zahar guziak diren bezala, irakurgai hortaz bozkariotan, goresmen eman nahi ukan zaukon biharamunean Orléans-ko dukesa Anderearen etxean, han jendea bazelarik. Orléans-ko duke Jaunak atsegin hartu zuen ephe batez haren jostatzen, eta gero erran: “Ontsa xoxoa zira, Imbert anderea; badakizua bada zer nuen irakurtzen? Rabelais zen, enhoa beldurrez ekharria nuena.” Goga daiteke ihardespen horren ondorioa. Gauza etzen sobera egia baizik, eta espantukeria hutsa. Lekuak eta gauzak berdinerak ekharri gabe, kaperako musika Opéra-koa baino biziki hobea zen, Europako musika guziak baino ere; eta matutinek, laudamenek eta Eguberri gauko hirur meza ixilek luzaz irauten baitzuten, musika hori ohi baino ere ederragoa zen. Deus etzen kaperako aphaindura baino eta argiztatua zen moldeak baino handizki eginagorik. Guzian betea zen; galeriako alki andanak gorteko anderez beteak gauko jantziotan, baina harma-pean. Deus etzen beraz ikusgarriaren ederra baino ustegabetzekoagorik, eta beharriak lorietan ziren. Orléans-ko duke Jaunak musika ezin gehiago maite ukana zuen; bazakien egiterano, eta jostatu da ere bera halako opera ttipi baten egiten, neurtitzak La Fare-ek egin baitzauzkon, Erregeren aitzinean kantatua izan zena; kaperako musika horrek bazuen beraz haren hartzekoa munduko molde gozagarrienean, ikusgarri hoin ospedunaren laguntza bertzalde, Rabelais-ren gana jo gabe; baina erlisione gabea eta lagun ona egin behar zen.

4. Orléans-ko dukesa Anderea

Orléans-ko dukesa Anderea bertze jende mota bat zen. Handia zen eta orotan maiestateduna; larrua, ugatza, besoak miragarriak, begiak ere; ahoa aski ontsa hortz eder batzuekin, apur bat luzeak; matelak zabalegi eta beheiti, andeatzen zutenak baina ederra ekhendu gabe. Gehienik gaizten zuena larrutuak eta gorriak bezala zituen bekainen lekua zen, biziki ile gutirekin; betespal ederrak eta ileak gaztena kolore ontsa landatuak. Konkorra eta gaizki eginak izan gabe, alderdi bat bertzea baino lodiago zuen, urratsa bazterka, eta gorputzarako behar horrek

bertze bat ekhartzen zuen jendartean gaizkorrago zena, eta bera trabatzen zuena. Etzuen Orléans-ko duke Jaunak baino izpiritu gutiago, eta hark baino gehiago gogamenean jarraikitze handi bat; horrekin jitezko elhe eder bat, erraiten zuzentasuna, hitzen hautuan bere baitarik zarion eta beti ustegabetzen zuen berezitasun bat, Montespan-go Anderearen eta haren ahizpen itzuli berezi harekin, eta harekin etxeko ziren edo haziak zituenen gana baizik iragana etzena. Orléans-ko dukesa Andereak nahi zuen guzia bazerran eta nahi zuen bezala, arintasun eta gozagarri ainitzekin; bazerran etzerranerano ere, eta guzia entzun-arazten hartan ezarri nahi zuen neurri eta xorroxtasunarekin; baina bazuen elhekatze gizen hain urri bat, hain trabatua, osoki jarriak etziren beharriendako hain nekea, nun akats horrek, berari hala iduritzen etzizakona bizkitartean, bazerrana ezin gehiago andeatzen baitzuen.

Neurria eta ikustate eta beharbezalakotasun mota oro bere erdigunean ziren haren etxean, eta goratasun hautukoena bere tronuan. Erranen dutanaz estonatuko da, alta deus ezta zuzenean egiatiago denik: Orléans-ko dukearekin ezkonduz hau azkarki ohoratua zuela uste zuen bere golkoan. Hortaz biziki usu hitz batzu uzten zituen bere ezin ohartuan errankor zirenak. Izpiritu sobera bazuen hori ezin onhartua izanen zela senditzeko, urgulu sobera ere gordetzeko; horrekin ezkonduz ukana zuen lerroaz gogorrena bere anaiekin berekin, eta Frantziako alababitxi kadera zilatuaren gainerano. Orléans-ko duke Jaunak, hortaz usu irriz ari baitzen, “Luzifer Andereak” zion hartaz mintzo zenean, eta berak aithortzen izen hori etzizakola gozagaitez. Etzituen hortako gutiago sendi Orléans-ko duke Jaunari Monsieur-en hiltzean harekin ezkontzeak ekharriak zauzkon abantail guziak; eta horrekin Orléans-ko duke Jaunak zuen bizi moldeko atsekabe guziak, nahiz itxura behar bezalakoa gelditua zen, etzetortzen jelosiatik, baina hartaz jainkosa bat bezala ez adoratua eta zerbitzatua izaitetik, hari buruz bere aldetik urrats bakar bat etzuelarik egin nahi ukanen, ez hari laket izanen zizakon eta atxik-araziko zuen edozer, ez eta urrun ahal zezakeen edozeretan bere burua hertsatuko, urruntzen zuela garbiki ikusten bazuen ere. Behin ere haren ganik edonoiz (senarraren) alderako ongi-ethoririk, ez ikustatekorik, etxekotasunekorik, senarrarekin ontsa bizi den emaztearen libertate hartarik, eta beti haren aitzin-urratsak hotzki hartuz, eta halako handitasunezko nagusitasun batekin. Orléans-ko duke Jauna haren ganik gehienik urrundua zuten gauzetarik bat da, Orléans-ko duke Jaunak bere aldetik hortan ezarri zuen guziak, haien egiazko akomeatzearen ondotik,

beharrek alde batetik eta xedek bertzetik ekharri zuten politikak baino gutiago egin ahal zuela. Haren gorteaz, ezen horrela behar zen mintzatu haren etxeaz, gutiago nahi zuena gorte bat zen ezinez eta “kulto” bat; eta uste dut baderraketala egiarekin bere bizi guzian ezkituela Villeroy-ko dukesa eta ni baizik aurkitu nehoiz eman eztaukogunik, eta ohiki zuzen iduritzen zizakun guzia beti erran eta egin daukogunik. Villeroy-ko dukesa gora zen, egiatia, libroa, segurra, eta, ikusi den bezala, Burgoñako dukesa Anderearen eta haren arteko lokarria, eta ni haren eta haren senar Jaunaren artekoa (...)

Orléans-ko dukesa Anderearen herabea ezin handiagoa zen aldi berean. Erregek so apur bat larde bakar batez aldixarr-araziko zuen, eta Maintenon-go Andereak ere behar bada; bederen ikaran zen hunen aitzinean, eta gauza ezteusenez, eta jendearen aitzinean, etzeen ehoiz ahopiatuz baizik ihardetsi eta izialdura begitartean. Ihardetsi, diot, ezen hitzaren hartzea gehienik Erregeren aitzinean, hori ezin zezakeen. Bizia, bertzela, biziki ahituki zeraman osagarri azkarrenean; bakarrik eta irakurtzen bazkarirano, egunaren gaineratekoan orratz-lan, eta jendea arratsaldeko bortzetarik goiti etzuelarik han jostagailurik batere hatzemaiten ez eta libertaterik, behin ere ezpaitu jakin norbaiten bere errexean ezartzen.

(...)

5. Berry-ko dukesa Anderea

Senditu ahal da *Orhoitzapen* hautako leku bat baino gehiagotan Berry-ko dukesa Anderea nor zen, baina laster ikusiko da jende hain berezi baten egiten, berari doakonaz, eta bere aita Jaunari, erresumako Erreient bilakaturik, nun ezpainiz batere errepikatze arin zenbaiten egiteko beldur izanen behar den bezenbat haren ezagun-arazteko. Printzesa hori handia zen, ederra, ontsa egina, garazia aski gutirekin bizkitartean, eta begietan zen hartaz beldurr-arazten zuen zerbaitekin. Elhearen dohaina etzuen aitamek baino gutiago, bere baitarik zarion errextasun batekin, hetan bezala, nahi zuen guziaren eta nahi zuen bezala erraiteko beti ustegabetzen zuten garbi, xorrotx, zuzentasun, hitzen hautu eta itzuli bereziarekin. Alde batetik ezteusetan herabe, betze batetik izi-arazterano ozar, erotasunerano gora, azken ahalgetzekorano ahal ere, erran daiteke, zekeneria salbu, bizio guzien molde zela, hanbat lanjerosagoa nun batek ezpaitzuen antze eta izpiritu gehiago. Eniz gauzen entzun-arazteko aitzineratu behar ditutan marrazkien phizutzen ohitua, eta errex ohartuko da anderez zein begiratu nizan, eta

larri izendatu behar denarekin lotura baitezpadakorik eztuten galankeria guziez. Hala izanen niz hemen nor nahiz baino gehiago neure baitarako amodioz, emaztetasunaren errespetuz eta jendearen ohorez baizik ezpaltz ere. Berry-ko dukesa Anderearen ezkontzan ukan dutan egiteko hain handiak, eta printzesa horren heriotzerano San-Simungo Andereak ukan eta atxiki duen karguak, nahiz hark eta nik nahi gabean, ixilik egoiteko arrazoin azkarregiak lizatezket, ixil horrek ezpalu aro huntako ixtoria badagien guziaren jarraipena ilunbetara egozten, eta horren egia gordetzen. Egiari daukot beraz meneratzen neure baitako amodioari gostako zukona, eta egia berarekin ere baderraket, ezkontzaren ondotik luzatu gabe hedatu zen guziaren zati baten aieura bakarrik ukan banu printzesa horri buruz, behin ere etzela Berry-ko dukesa izanen.

Orhoitu behar da hemen Saint-Cloud-ko auhari hartaz ezkontzatik berehala, eta arinki baina entzungarriki hain hurbil jarraiki zizakon Marly-ko bidaiatz hunki denaz (...); azkenik falsukeria osoaz egiten zuen hanbateko espantuz ikusi denaz, eta bazakiela miragarriki enganatzen, hortan ezin hobe baitez gertaldirik batere gabe ere.

Ahal ukan zuen guzia egin zuen Berry-ko duke Jaunari erlisione ororen ekhentzeko, baitzuen barnez egiazkoa eta zuzentasun handi bat. Nardatzen zuen meheaz eta baruraz, hark ezpaitzituen batere maite, baina zuzen egiten. Trufatzen zuen batzuek hauts-arazi ukaiterano, nahiz bekan, maitasunaren, gozagarri izaiteraren eta atheraldi saminen eragozpenen bortxaz, eta hori ezpaitzen gudurik gabe gertatzen eta jendeak ikusi gabe zenbat nekez eta zenbat arranguratuz hortaratzen zen, hori bera hura lastimatzen zuten nausen berrhetzeko aldia zen. Haren jiteko zuzentasunak etzuen gutiago jasaitekorik haren beraren etxean bidegabe agerienen nahitez ukaiteko zituen haserre erotuez, ezen anderearen etxeaz, ezpaitzen jeusen erraitera menturatuko. Bertze gauza ohargarriago batzuek pairamena etengabe ahitzen zukoten, eta bat baino gehiagotan zapartatze itsusienaren mugara eremaiten. Aphairu librorik etzuen abantzu batere egiten, eta usu ziren, aldixartzerano mozkontu gabekoak, eta hartua zuenaren nun nahi goitikatzerano, eta bekan ontsa gelditzen baldin bazen, ordainaren hartzeko zen. Berry-ko duke Jaunaren, Orléans-ko duke Jaun-Anderen han izaitak, ez eta haiekin etxekotasunik batere etzuen anderen, etzuten den gutienik gibel-arazten. Gaitz iduritzen zizakon ere Berry-ko duke Jaunak hark bezenbat egin etzezan. Aita Jaunari usu mintzatzen zizakon mota orotako gauzez izitzen zuen goratasun batekin. Erregeren beldurak bazatxikan ama

Anderearekin hoin agerian artzetik, baina hunekin zituen arek ordaintzen zuten, halatan nun hiruretarik bat ezpaitzizakon nahigabe gutienaren emaitera menturatzen, ainitz gutiago aburu gutienaren, eta zenbait aldiz arrazoin azkar eta lehiatu batek hortara bortxatzen baldin bazituen, erasialdi bitxiak ziren, eta aitamak amor emaitera eta barkamendura jiten ziren, khariarik erosten zituztenak.

(...)

6. “Madame”, prinzesa palatinarra

Madame bertze aro bateko prinzesa bat zen, ohoreari atxikia, bertuteari, lerroari, handitasunari, ikustatetan barkatzen etzuen. Izipiritu eskasik etzuen batere, eta bazakusana biziki ongi bazakusan. Adixkide on eta jarraikia, segurra, egiazkoa, zuzena, gaitzitzeko eta ahalgetzeko errex, berriz ekhartzeko biziki zaila; hitz arruntekoa, atheraldi publiko egiten lanjerosa, azkarki Alemantsa bere bizi molde guzietan, eta zintzoa, akomeatze oro eta ikustate ororen ezagutzarik gabe bere eta bertzendako, jate urrikoa, ohila eta bere burualdiak bazituena. Maite zituen zakurrak eta zaldiak, minki ihizia eta ikusgarriak, etzen behin ere jantzi handitan eta gizon perrukan baizik, eta zaldizko jantzian, eta hiruretan hogeitaz goiti bazuen, osagarrian ala eri, eta biziki bekan zen hala, etzuela gambarako arropa bat ezagutu. Minki maite zuen bere seme Jauna, erran daiteke eroki Lorrenako dukea et hunen haurrak, horrek Alemaniarekin zer ikus bazuelakotz, eta bereziki bere herria eta jendakiako guziak, ehoiz ikusiak etzituenak. Monsieur-en heriotzean ikusi da bizia haier izkiriartzen zeramala eta hori zenbat gostatzer zizakon. Azkenean olhatua zen, ez erren Anderearen sortzearekin, baina harekin berarekin, biziki ontsa arthatzen baitzuen Argenton-go Anderearen igortzea baino lehen ere.

Onesten zuen, urriki zuen, maite zuen abantzu Orléans-ko dukesa Anderea. Azkarki gaizkitzen zuen Orléans-ko duke Jaunak eremana zuen bizi nahasia; gain-gainetik sumindua zen Berry-ko dukesa Andereak zeramanaz, eta hortaz azken saminduran eta konfienxia osoan mintzatzen zizakon San-Simun-go Andereari, hunek gortean izan zen lehen orduetan beretan esker ona ukana baitzuen haren estimuan eta adixkidantzan, eta berdin iraun baitzuten. Etzuen beraz Berry-ko dukesa Anderearen alderako sendimendurik Maine-ko dukearean, baxtarten eta hauen handitasunaren herra osoa baizik, eta gaitzitua zen seme Jaunak hortan bizitasunik batere etzuelakotz. Gaitasun horiekin bazituen bere ahulak, ttipikeriak, errespetuz huts egiten zizakonez beti begiran. Orhoit

niz bizitegi ttipi batean jarria zelarik, Erret-Palazioan, Erreienziako negu batez, han guti zagolarik, Paris hastio baitzuen eta beti Saint-Cloud-en baitzagon, Orléans-ko duke Jaunak galdegin zautala egun batez bazuela atsegin bat eta ikustate bat galdegin behar zautana. Hori zen joan nindadin batzuetan Madame-en egoitzara, zinkurinak eginak baitzauzkon ehoiz enuelakoan ikusten eta gaitzesten nuela: ihardetsi nituenak asma daitezke. Azken gauzak, goga daitekeen bezala, itxurarik batere etzuen, eta etzen Madame-en aldera nehork ukan zezakeen sendimendua; bertzea egia zen, enaukon gorte egiten Versailles-en gertaldietan baizik, eta banuen orduan, haren baitara joaitekorik etzenean, bertze egiteko ainitz. Hortik harat joan nindakon ikuzordura bi astetarik edo hiruetarik behin, Parisen zenean, eta banuen beti ongi-ethorri biziki ona.

Orléans-ko duke Jauna munduko aita hoberena zen, seme hoberena eta, Argenton-go Anderearekin hautsiz geroz, senar hoberena. Madame azkarki maite zuen eta eginbide handi eta jarraikiak egiten zauzkon. Haren beldur zen ere, eta ahal zuenaz etzakien gauza handirik. Horrela harekin zuen errextasuna eta konfienxia artekoak ziren; eta nahiz segetuetaz segur izaitekoa bazen harekin, bereren hari salatzetik osoki urrun zen; etxeko gauzez larriki kondu emaiten gelditzen zen, hala nola haurren ezkontzaz, eta publikoa izanen zenaren nagusi izan zenean, aitzinean baino ahal bezain guti. Eragin biziki guti ukan zuen beraz semearen eginara hetsian eta agerian, jeusen galdatzera guti sartu zen, nahiz etzuen garazietan ezik ukaiten, eta gobernuko gauza edozeinetan deus-deusekoa izan zen. Horrek emanen dauta haren baitan ahal gehiena zuten jende gutien ez izendatzeko errextasuna. Gaineratuko dut bakarrik Madame Erregerekin eta Orléans-ko dukesa Anderearekin Berry-ko dukesa Anderearen ibileraren etsai izan zela beti, huni atheraldi bitxiak egiten zauzkola batzuetan, Errege hortaz konfienxiarekin mintzatzen zizakola, (anderea) haren bidamenaren azpian ezarri zuela ordu batez, hortaz berehala akitu zela Errege egina zen bezala, eta etzizakola hobea iduritzen Orléans-ko duke Jaunak Berry-ko dukesa Anderearekin zuen atxikimendu eta egonara berezi jarraikia, hunen ibileraren aldatzeko hain debaldekoa.

Erreienziako gobernua eta karguak norekin eta nola molda

1. Villeroy-ko marexala

Beti bilduko eta agerian ezarriko zinituela uste zuen gizon bat zen.

Haren solasaldiko jarraipen gutiaz eta jauzi ohituez baliatzen nintzan: Erregerendako beldur eta errespetu azkarki, haren ondotik jinen zeneko deusetaz gogoratzea osoki debaldetan zela, gauza bere baitarik ikustate gutikoa eta guti haizu dena, eta aitzinetik ezin ikus ez asma daitezkeen hainbertze gertaldien menekoa; aro horietako egin beharren xedatzea, Espainian gaztelu egitea zela. Horiek ziren ene ihardespentak, Erregeren laudorio ainitzekin, eta orotako gogoeten eta galtzen inguruaren alde guzietara itzulikatzea, ezpainuen neure burua horietarik atheratzera uzten. Ehoiz enindoakon etxera, ehoiz enuen jaukitzen, etzuen ehoiz hortaz ohartzen zela iduritu. Irri egiten ginuen, Orléans-ko duke Jaunak eta biek, holako jende batez. Bortxazko harreman horrek iraun zuen Estrées-ko duke eta Harcourt-ko kondearekilako aharrarano, orduan azkarki ideki bainintzan haren aldetik gertatu zen guziaren kontra, Frantziako marexalen ausartziaz duken ezartzeko haien auzitegiaren menean, hortan ezpainuen huts egin. Horrek agerian gaizkitu ginituen. Hortik harat enintzan ixildu ez haren solasez ez egin zituenez. Zenbait dembora berantago Lyon-era joan zen, eta handik itzuli garhaile Beauvillier-ko Jaunaren karguen ondoko izanez konseiluan, eta nehoiz baino distirantago. Urrezko aretxe horrek etzuen eneganik isensurik ukan ez eta goresmenik batere; eta hortan gelditu ginen Erregeren heriotze ondorano.

Villeroy-ko marexala hanbat izana da, aitzinean eta gero, nun haren ezagun-araztea beharrezkoa baita. Gizon handi ontsa egin bat zen, begitarte biziki gozagarri batekin, biziki azkarra, osagarrikoa, bortxatu gabe bere gorputzaz nahi zuena egiten zuena. Hamabortz edo hamazazpi oren zaldiz jeus etzizazkon, beilak ez gehiago. Bere bizi guzian mundu handiengan hazia eta bizi; Erregeren gobernariaren semea, harekin hazia etxekotasunean bien gaztaro lehenetik, ofizioz galanta, gorteko eta hiriko gertakari galantez osoki jakinduru, horiekin baitzakien Erregeren ondorano josta-arazten, eta jakin baitzuen haren ahuleziez baliatzen, eta azalez gorteko irauten ni munduan abiatu gabe jasan zituen ordu gaitzetan. Orotan handi egina zen, bere ibilera guzietan biziki noble, jokolari handi eta eder jokoaz axolatu gabe, arrazoinik gabe batere ez gaixtoa, jaun handi baten eta gortiaz orhatu gizon baten mintzaera eta arak; jitez ospe-nahi soberakina, apha ere soberakina horren beharra bazuen ber, eta Errege 'ta Maintenon-go Anderearen

aldera ororen egiteko mutil. Haren marrazki bat ikusi da desgaziatik fagorera bapatez iragan zenean.

Bazuen erabilera handiak bademan gorteko eta munduko izpiritu hura, eta azpikeriek eta xedek zorrozten dutena, han ikasten den erdara berezi harekin, azalik baizik eztuena baina zozoak lilluratzen, eta Erregerekilako etxekotasunaren ohidurak, fagorearenak, hautesmenenak, armaden manamenduarenak distirantago bazegiena, zola guzia espantueria ezin handiagoak emaiten zaukola. Gizon bat zen dantzaldi baten buruzagi izaiteko bereziki egina, karro-besta batean juje izaiteko, eta, kantua ukan balu, Opéran errege 'ta gizandien kantatzeko; hagitz egina ere modaren emaiteko eta hortik harat deusetako ere ez. Etzen ohartua ez jendetan ez gauzetan, ez eta atseginetakoetan ere, eta hitzaren gainean mintzo eta ari zen; errespetuan ezartzen zuenaren miresle handi, eta ondorioz osoki enganatua, bere bizi guzian Vaudemont-ek, Orziniko Andereak eta jende ospedunek egin zuten bezala; aholku oneko ahal-ezina, Lorrenako zaldunak eman zaukonaz ikusi den bezala, azaletik harat hortan ezereen entzuteko ere, hanbatetarano nun, konseiluan izan zenean, Errege ahal-ezin hortaz penatua baitzen, buruaren beheititzerano, gorritzerano eta haren zuzentzera jausterano, eta hartaz ari zen gaiaren entzun-araztera entseatzerano. Hori da luzaz geroztik Torcy-ren ganik ikasia dutana, azken heinerano ustegabetua baitzen adin hortako gizon gortean hain trebatu batek egitekoetan zuen zozoaz. Hain trebatua zen alabainan nun andeatua baitzen. Bazegien espantu bizkitartean gizon biziki zuzena izaitiaz; baina zentzurik batere ezpaitzuen, haria biziki errex erakusten zuen, berezitasun gutiko gertaldietan ere, zuen buru-muna gutiak hor salatzen baitzuen; guti neurtua bertzalde bere xedeak, esperanzak eta abantaila, gustatzeko eta lausengatzeko gutizia ere, etzirenean bat zuzentasunarekin.

(...)

2. Noailles-ko dukea

Noailles-ko dukea, huntara jin behar baita azkenean, gizon bat da nor zen erakustea eta ondorioak Berry-ko dukesa Anderearen marrazkia baino ere gehiago gostako zauzkona neure baitako amodioari. Izkiriartzen dutan aroan enuela batere ezagutzen aithor ezpaneza ere, eta ezagutzen nuela uste nuela, eztela behin ere egin nuen baino azkarkiago huts egin, eta eztatekeela izan nintzan baino gehiago enganatua eta gauza orotan, argiki ikus laiteke geroztik mota orotan, gorteko, gobernuko, Estatuko, ete nihauri doatanetako ere gertatu denaren ixtoriotik. Eztut

batere neure zozotasunaren ttipitzea bilatuko ez eta marrazkiaren phizutzea. Egia hutsena eta zuzenena izanen da hemen, orotan bezala, ene bidari eta nagusi bakarra. Barkamendu eskatzen dut bakarrik hartaz han edo hemen ene bila ibili zen lehenbiziko aldietan emana datekeenaren errepikatze zenbaitez, baina guziaren batean ikusteak hori hemen merezi du.

Eba tentatu zuen sugea, haren bidez Adan eror-arazi, gizaldea galdu zuena da, Noailles-ko dukea haren itxura zuzena, egiazkoena, osatuena den izaite lehena, gizon bat lehen lerro hortako izpiritu baten gana, eta zerutik amildu diren aingeru guzien buruzagira hurbil daitekeen bezenbat. Handi-nahi zabalena eta ase-ezinena, urgulu goien-goiena, bere buruaz aburu segurrena, eta bera ezten ororen gaitzesmena, osoena; aberastasunen egarria, jakitate orotaz espantu egitea, orotan sartzeko tirria, oroz gainetik guzien gobernatzekoa; gutizia orotakoena, aldi berean gauza berezi batzuer atxikiena, eta gartsuena, sistariena; ohoinkeria izitzerano ozarra, on den guziaz jabetzeko, baligarriaz, bertzeak duen distiraz; bekaizkeria orotakoa, berezia eta orotara hedatua; ororen menperatzeko nahi sutsuena, bizia ilunbekoa, hetsia, argiaren etsaia, guzia eginbeharretan eta bere helburuetara heltzeko bide bilatzen hartua, guziak on, daitezkeen bezain hastiagarriak, laztagarriak izanak gatik, xedatua duenera hel-araz dezaketen ber; zolagabeko osin bat, hori da Noailles-ko Jaunaren barnea. Itxuran, oraino bizi eta norbait baita, jakina da soina nola den egina: laborari baten oinek, eskuek, soinarak eta urratsaren piztuak hartara heldu den heina hitzemaiten zuten. Begitarte osoki bertzelakoa: itxura guzia izpiritu du, gogoetak nasaian, xorrotx eta falsu, eta ez garaziarik gabe. Elhe ederra jitez, mintzatze errexa, errankor nahi duen bezala; gizon bat beti bere buruaren jabea, egun oso batez mintzatzen badakiena eta gozagarriki ezer ehoiz erran gabe, solasean oro gustatu nahi daukonari emana dena, eta hain naturalki hark bezala gogatzin eta senditzen duena, nun mira baita ustegabeko ara berdin bat hoin idurikoa. Omorerik nehoiz, berdintasun osoa, emazten erdalkia, gomit ona, gosturik batere gabe behar denean, berehala bakoitzaren gostuez jantzia; gizon beraren edo gauza beraren laudatzeko ala erasiatzeko errextasun bera, elhekatzen duen jendearen araura; lausengari handi nasaiegi izaitera uzten eztuen itxura zintzo eta egiati batekin, eta berak nahi gabe zure aburura erakartzen duen sineste alegiazko baten lausengukeria; edo barnez sineste berdin falsu, baina berdin aphaindu batekin, ihardoki behar dautzula uste duenean, edo

behar zituela, berak ez nahian bezala, bera eremana den hartara ereman. Beti aldizka modan, debota, zirtzilerian, neurtua, erlisione gabea hala behar zaukon arau; baina aldatzen eztena hau: laño, gogo berdin, ongi egiteaz baizik ez axolatua, eta herritar Espartan hala ziren moldean. Bekokia zohar, itxura ezti, solasaldia errex eta alai, khexuenean eta arranguratuenean delarik; maitagarri, lausengari, zurekin bat, asmamen infernutarrenekin zure lehertzea gogoan duenean; eta zein arte luzea gerta dadin ere haren zimarkuen eta hauen ondorioen artean, zurekin atxikimenduan, elgarrekin dituzuen egiteko eta gauzez harreman jarraikietan, azkenik adixkidantza egiazkoenean eta konfienxia segurrenean bizitzeak eztauko den herstura arinena emaiten; izpiritua mugagabea eta izpirituan mota orotako atherabideak, baina guziak gaitzeko, bere gutiziendako, itsuskeria lazkarrienen, eta gaixtakeria luzazenik gogatuenendako, eta ongi heltzeko gogamen guziekin arautuen. Horra debrua; huna gizona.

Harrigarri da hanbat izpirituekin, garaziekin, talenduekin, horien erabiltze neurrigabekoenaren hanbat gutziarekin, hortara heltzeko hanbat artharekin, eta bere lerro bereziak eman hanbat ahalekin, karguekin, ofizioekin, familiarekin, ahaide 'ta fortunarekin, adixkide bakar baten egiten eztuela jakin, ez eta hurbilenak zituenen artean ere. Nehoiz etzuen arreba baizik hanbatean erabili, Gixungo dukesa, Maintenon-go Andereak haren gana zuen ixuriaren gatik, eta Gixungo dukea, zuen karguaren gatik haren ondoan indar ukaitekotan, hura, bere aldetik, errespetuz baitzagon Noailles-ko dukearen izipirituaren aitzinean. Ezta gutiago harrigarri nola gizon hoin hetsi horrek, iduriz hoin oharkorrak, guziaren jakiteaz espantu egiten zuenak, liburuetan ezagule izaiteaz, liburutegi handi baten biltzeaz, letretako jendeak eta jakintsunak pherekatzen zituenak hetarik zerbaiten hartzeko, hortaz ohore ukaiteko, bere buruaren lauda-arazteko, nola eztuen gai bakoitzaren azala iragan, eta izpirituan zuen jarraipen gutiak, azpikeriako salbu, eztuen deusen barnatzera utzi, ez harendako aldizka bertze guziak utziak zituen gauzan, gero, hamabortz egunez, jarraikitza.

Arinkeria bera izan zen gobernuko egitekoetan, ondorioz ahal-ezin bera. Ehoiz eztu deusetaz idazki bat egin ahal ukan; ehoiz ezta egin-arazi dituenetarik batez askietsia izan ahal; beti zuzentzen, beti bermoldatzen, haren hitz hautatua zen; ikusi da Fontainebleau-n egin ginaukon ustegabea. Ezta guzia: eztu behin ere egitekoetako eskutitz bat bere baitarik athera ahal ukan. Haren aburuz aldatzek lastimatzen

zituzten erabiltzen zituen jendeak, eta beti bera zen, beti berriz hasteko zen lanaren azpian lehertua. Hori eritasun ezin sendatu bat da haren baitan (...)

3. Canillac-eko markesa eta Maisons parlamentaria

Gizon handi bat zen, ontsa egina, mehe, gaztena-kolore, begitarte aski gozagarrikoa, izpiritu ainitz hitzemaiten zuenekoa eta enganagarria etzena. Izpiritua aphaina zen; irakurtze eta orhoitmen ainitz; mintzatzean elhe ederra, jitezkoa, hautukoa, errexia, itxura ideki eta noblea; ibileran eta solasean garazia, hau beti gatz xehe batez gazitua, usu bixia, eta bereziaz, usu zuzenaz joiten zuten erranaldi ausikari batzuez. Ospea, handieria, bi gauza baitira, bere buruaz zuen aburu ona, bertzen alderako gutizia eta gaitzesmena, hein gorenean ziren haren baitan. Jendetasuna ezin handiagoa zuen, baina berari berdinean itzul-arazteko, eta horren gordetzea hura baino azkarrago zen. Auherra, mota orotan atseginkoia, eta ixuri bitxi batean ere, hartaz artha hartzen zuen osagarri berakoa; berezia, eta gorakeriaz hezkaitza; zekena ere, baina onhartzen zuenean gustu hoberenekoa zena baztertu gabe, moralaz, ohoreaz, zuzentasun gogortuenaz, atsotitz eta errankizunen ixurtzeaz beti makoletara igana; solasaldian beti nagusi, eta usu ikusten zituen kompaninia hautatu, handi eta hoberenetan; orotan ohore emaiteko xedearekin. Ainitz mintzo zen, biziki sobera ere, baina hain gozagarriki nun barkatzen baitzizakon. Loriagarriki kondatzen zuen, eta munduko lehen gizona zen irrigarritasunaren hatzemaiten eta alegia deus ez bezala emaiten. Gaixtoa eta, ikusiko den bezala, munduko gizon zuzentasun gabekoenetarik bat. Berriak aski gogotik eztabadatzen zituen, dena aski gaizkirat gogotik itzultzen, gauza guti onhartzen, bortizki gaitzerraiten eta jaukizale handi. Aski luzaz ukana zuen Rouergue-ko erreximendua, zerbitzu egina axola handirik gabe, gorte egina molde berean, eta gehiago batere bezala aspaldi zerbitzua utzia zuenaz geroz. Hastio zituen Errege, Maintenon-go Anderea, osoki minixtroak, eta gai horiez libertatean loriagarri zen, lehenago horren lekuko izan bainiz harekin biak minean ginen elgarren adixkide baten etxean. 1710-eko hastapenean hautsi zuten bere bizi guziko adixkidantza, geroztik behin ere elgar ez ikusterano, horren arrazoina nehork ehoiz zilatu ahal ukan gabe, ez eta hauste hoin bapatekoa eta osoa egin zen ara.

Ordukotz Canillac biziki gutiago ikusten nuen gu bien adixkidearen etxean Parisera guti nindoalakotz, eta begietarik osoki galdu nuen nahasmen horren ondotik ezpainuen adixkide haren etxean baizik

ikusten, hunekin beti berdin barna gelditu nizalarik orai arteo. Etzuen horrek egin geroztik Canillac biziki bekan aurkituz, ezkinuela biek elgarri ikustate egin, baina ere jostatzen ninduen solasaldi berezi zenbait. Handi-nahia hain guti iraungia zuen gerlatik eta gortetik baztertu eta, nun horietan nork ere fortuna egiten bazuen hura begietan hartzen baitzuen. Jakitate oroz hartua zen, eta gorteko eta Parisko jende gotorrekin harremanetan sartzeaz. La Rochefoucauld-ko hotelean zen ardura, eta betidanik La Feuillade-en adixkide mina, hunek ohiduraz eta lausengukeriaz bere burua uzten baitzuen haren meneratzera; eta abantzu egun oroz Maisons-ko Jaun-Anderen etxean zen, hauekin ari zela geroaz politikan, alde bietarik libertate osoan, eta urte andana bateko elgarren loturan.

Canillac laudorio eta ikustatetan lotzen zen enganatzerano bazeraman azken ahultasunarekin. Garbiki aithortzen zuen Noailles-tarren hastiatzea, zernahi ziola hetaz, bereziki Noailles-ko dukeaz, Maintenon-go Anderearen iloba zelakotz, nahiz aski ontsa zen Gixungo dukearekin. Orléans-ko dukea betidanik ikusia zuen Parisen. Usu hunen jokoaldietan zen, baina urrian haren aldetik, eta abantzu beti odol hotzez. Haren erasien eta atheraldien gatzak jostatzen zuen printze gaitzitu bat, eta ondoan aspertua, eta gero bere buruaz eragozpenean zena. Haren morala mundutarrak, lardeki ahozkatuak, errespetuan ezarria zuen; haren izpirituak eta huntan zen aphaindurak burura eremana zuen Orléans-ko duke Jaunak hartaz hartua zuen aburua, hala nola nun jina baitzizakon estimu bat gehiagoko zerbaitetara zoana ere. Printze horren adixkidetasuna bekaizti izana zen Canillac-ek lehenago Conti-ko printze Jaunarekin ukana zuen atxikimenduaz, hortan, hori gatik ere, berme egona baitzen hunen heriotzerano, eta berdin irauna baitzuen hunen adixkide bereziekin. Heriotzeak bururatuak zituen Orléans-ko duke Jaunaren bekaizkeria eta sista. Gero haren libertatea gustatua zizakon, eta estimua eta ikustatea handituak ziren, eta Pariserako bidaia guziek hazten zuten, han Canillac horiez abisa-arazirik beti ikusten baitzuen. Hau nolakoa zenetik, goga daiteke etzela gordetzen, itxaropen handiak moldatzen zituela printze horren erreienziako, eta bitartean etzuela bere buruaren aitzinatzea huts egiten.

Noailles-ko dukea sobera behakor zen eta sobera jakinduru Canillac hor nola zen ez ikusteko, eta ekartzen zaukon hastioaz segurrean ez izaiteko. Trufa bortitzenak eta hobekienik joak bazioazkon gainetik oihal ziratuan bezala, horien inharrostea abantail zizakon ber.

Canillac-ek etzauzkon huts eginak, hortaz espantu egiten zuen ere, eta ibiltzen zen kompanietan joko eta jostagailu. Ohidura horrek irauten zaukon oraino, baina etzuen Noailles gibel-arazi ahal Canillac-en biltzetik eta bere meneko egitetik. Etzen haren ahula jakin gabe; aphalkeriak eta desohoragarrikeriak jeus etzizazkon gostatzen; bide hortarik guzia uste ukan zuen eta etzuen huts egin. Baina guzia Canillac-en gana hurbiltzea zen, eta hark bere burua biltzera utz zezan. Maisons izan zen hel egin zaukona Contade-en bitartez, hunek haien lokarri eta arautzale izaitea estima-arazi baitzaukon. Maisons etzen debaldetan ari izan. Sinets-arazi zaukon zer indarrekoa izanen zen printze ahul eta herabe baten gainean haien hirurkuna ontsa baturik; ezen Canillac-ek, ongi ezagutzen baitzuen, hori Maisons-i ontsa xehatua zaukon. Dembora zenbait eta zeremonia batzu behar izan ziren Canillac-en urguluaren akomeatzeko hoin aldamen bapatekoarekin; baina Maisons-en aldera zuen adeiak guzia laburtu zuen. Parlamentuko goi-errailearendako zadukan, gortean ere hala bilakatuko zena, hanbat hobeki ibiliko baitzen han nun ezpaitzen haren aholkuez baizik gobernatuko, eta horrela moldatzera zoan giza-hirurkunaren arima eta eremaitzat zadukan bere burua.

Maisons-ek, ontsa eta ainitz mintzo zen xoriburu batentzat baitzadukan, eta ezpaitzuen haren aburuaz batere kondu hartzen, ainitz aldiz hortaz argitu nauen bezala, zango-petik jostatuko zuela uste zuen, eta Noailles-ko dukea gobernatuko, ezpaitzuen hau biziki gehiago estimatzen eta ontsa ezagutzen baitzituen hunen, eztiot gaixtakeriak, baina hutsak; eta hau, bere talenduez betea eta kargu eta jendakien gain-gainera igana, ni irabazirik askietsia, etzen dudan gortea hark bezala ezagutzen etzuten eta gortekoak etziren bi gizon nahi bezala eremanen zituela, behar zuen aldi oroz behaztopa-araziko baitzituen, eta bizkitartean eskuan ukanen Orléans-ko duke Jaunaren ondoan jokoa egin-arazi nahiko zeen mekanikeria guzietako.

(...)

4. San-Simunen xedeak nobleziaren goititzeko eta gobernu berriko

Egiteko beharrena zela uste ukan nuena, eta lehiatuena, Mazarin kardinalak Errege 'ta erresuma hartan hetsi duen barneko gobernuko arauen osoki aurdikitzea izan zen.

(...)

Auhenetan nindagon noblezia oro bere izaeraz ezteusa lezean zela gogoan ukana ahal nuenaz geroztik. Orhoit niz, Beauvillier-ko eta Chevreuse-ko duken konfienxiara heldua izan ere baino aitzinetik, baina ordukotz biziki libroan haiekin, enuela egun batez arrangura hortaz neure burua bortxatu. Erraitera utzi ninduten ephe batez. Azkenean Beauvillier-ko dukea gorritu zen, eta doinu larde batekin galdegin zautan: “Baina, zer nahi duzu bada askietsia izaiteko? - Banoazu, jauna, erraitera, ihardetsi naukon bizi-bizia: nahi nuke etxe on eta zaharretik jaioa, nahi nituzke ere lur eder batzu eta zuzenbide ederretan, biziki aberats izaiteaz axolatu gabe. Banuke herriko lehen lerrora goititua izaiteko handi-nahia, eta nahiko nuke ere gaztelu zenbaiten gobernamentua, hortaz gozatu, eta askietsia ninzateke.” Bi dukek entzun ninduten, elgarri behatu, irriño bat egin, jeus ez ihardetsi, eta ephe bat ondotik solasa aldatu zuten. Berek, ondoko egunetan ikusi nuen bezala, bete-betea nik bezala gogatzin zuten, eta enuen hortaz dudarik ukan ahal haien eta ene artean bakarrik eta nigarrik gabe orhoit enaitekeen printze harekin izan ginuen elgartasunaz.

Zenbat ere aurdikia bainintzan hura galdurik, gogoetak eta nahikundeak etzizaztan aldatu ahal izanak; eta zenbat ezberdintasun sendi banuen ere printze bakar haren eta gobernua ukanen zuenaren artean, eta errege batenetik erreient baten indarrarenean, erraitera utzia nuen guzitik zati bati enuen uko egin ahal. Ene xedea izan zen beraz nobleziaren ezartzea minixterioan zuzen zioakon gaitasun eta larderia guziarekin, arroparen eta lumaren kaltetan, eta gauzen zuhurki eremaita mailez mail eta gertaldien araura, apurka apurka bilauneria horrek gal zitzan auzi kargu hutsetakoak eztiren adminiztratze guziak, eta jaun eta noblezia oro haien ofizio guzietan haien orde ezarriak izan ziten, eta beti naturak bertze esku batzuer egin-araziko zezteenen gainetik, guziaren ezartzeko adminiztramendu orotan nobleziaren meneko, baina soberakerien kontra behar ziren arau guziak harturik. Nobleziaren ahuleziak, pobreziak, gaizki ezkondua izaiteak, batasun gutiak, mende bat baino gehiagoko ezteutasunak, alderdikatzek, atzerrian harremanek, barnean elgartasunek, aldamen hori lanjer gabea egiten zuten, eta etziren ahalak eskas geroan hala izan zadin segurki debekatzeko.

Eragozpena noblezia horren jakingabea izan zen, arinkeria, ohargabea deusetako on ez izaiten ohitua baitzen, bere buruaren erahiltzera uzten ezpada, gerlan zahar arau baizik ez aitzinatzen, eta gainerakoan ezteustasun hilkorrenean mutzitzen, horrek auherkeriari eta

gerlatik harat ikaskuntza orotaz nardatzeari emana baitzuen, berez deusetako ezin balia zezakeelakotz. Helburu hortarako lehen urratsa ezin egina zen noblezia iretsia zuen mustroa aurdiki gabe, erran nahi da begiztatzale jenerala eta Estatuko segetariak, usu elgarrekin gaizki, baina beti haren kontra osoki bat. Xede hortan nituen asmatuak aipatu ditutan konseiluak, eta luzaz berantago, 1709-ko hastapenean, hain azkarki Chevreuse-ko dukea ustegabetu zutenak, lehen aldikotz etxean xede hortaz beraz mintzo zizatarik nik nuen aburuaren ukaiteko, ordu berean aurkitu baitzuen neure eskuaz idatzia asmatua zuen bezala (...). Burgoñako duke Enejaunak xede berean onhartua zuen, eta konseilu horiek zuten zuten Orléans-ko duke Jauna bultzatu, horien jartzea parlamentuan eskaini zaukunean, Burgoñako duke Enejaunaren diru-arkan aurkituak zirela aithortuz: hortan oharr-araziko dut etzela nik aipatu dutan hura eta hanbat arranguratu ninduen.

Konseilu horien moldatzea izan zen beraz Orléans-ko duke Jaunari aipatu nauzkon gauza lehenetarik bat.

(...)

5. Jesuistez eta A. Tellier-ez erreient beharrari aholku

Berehala harr-araz Lallemant, Doucin eta Tournemine jesuistak, eta hauen paperrak; ezar azkena Vincennes-ko dorrean, paperrik, ez tintarik, ez lumarik, ez nehorik mintzatzeko baimenik gabe, bertzela ontsa ostatatua eta hazia bere izaera bereziaren gatik; bertze biak presondegian, leku ezberdinetan, presondegiko bizi moldean; nun diren etzadin jakin, eta utz han hiltzera; (*Unigenitus*) gauza hortako guziko su emaileak dira, eta gaixtagin biziki lanjerosak. Aldi berean probinziala eta Parisko hirur etxetako buruzagiak ekharr-araz, erakuts zeela estimu, adixkidantza, lagundian haien ohoratzeko gutizia, hari ongi eta zerbitzu egitekoa, haren hautestekoa; eztuzula zuk xede hortako baizik hirur nahasle biziki gaizkile horietarik haien liberatzeko beharra uste ukan, ontsa baitakizu eztirela bere etxeko gauzetan hala izanak (osoki egia dena) kampoan gaizkintzan handizki ari izanak diren baino gutiago; mintzo zirenekin xehetasun batera ere sartu gabe, aski ukan dezazun bakea maite duzula erraitea, eta, doinua apur bat goitituz, hori duzula nahi, askitan haieri zaudela, hetaz mintzatu ziren araz, eta gertatu diren aldi guzietan haientzat egin duzunaz, berea hortako egiazki egin dezaten haier galdegiteko, eta eginara horren bidez eman dezauzuten haier atsegin eta ongi ororen egiteko ahala hortako gertatzera jin daitezkeen aldietan, horren gutizia zure baitan haziko baita eta handituko nahi

duzunaren betetzeko baliagarriki eginen dutenaren araura. Hori erranik, haien erasiak, presonerrez ohoitzak, oihukatzeak eta bertzeak hautsi, haier hitzaren mozteko miragarri izanen diren komplimenduez eta aithormenez, eta ordu berean hek utz eta joan; eta zuri jarrikitzera mentura balire, edo zuri mintzatzearen galdegitera, erran-araz jendetasunekin egitekoetan lehertua izaiteak eztautzutela astirik uzten.

Ephe bat berantago A. Tellier ekharr-araz, erran egin dauzkitzun zerbitzuak eztituzula ahazten; gartsuki nahi zinueela egitekoek behar dutena harendako egin nahi zinueen guziarekin bat izan zadin, baina duzun karguak ekhartzen zituela nahitez huts egin eztezazkezun neurri batzuetara; horrela bortxatua zirela Erregek berehala La Flèche-ra eremana izan dadin nahi duela erraitera, han debekatzen baitauko hertsihertsiki izkiria dezan edo ukhan dezan nehoren eskutitzik hortako kargua duenak ikusirik baizik, eta itzuliko edo igorriko dituenak, edo ez, ontsa idurituko zaukon araura; bertzela Erregek emaiten daukola sei mila libera lan-saritako, eta, gehiago nahi badu, erraita aski duela, ordu berean ukanen duelako segurrean; Erregek nahi duela eztezon deusek huts egin egurrez, mublez, bizitegiz, janariz, liburuz, osagarriko balia dezakeenaren guziaz, gozatasuneko, jostatzeko; ukan ditzan bi mutil eta fraide bat Erregek ordainduko dituenak, berak nahi bezala hautatuko eta aldatuko dituen ber, nehoren meneko izanen eztirenak ezpada probinziako intendantaren, hunek manua ukanen baitu deusek huts egin eztezon; libro izan dadin eta jesuisten eta hauen ikastetxearen meneko izan gabe, eta harendako ukan ditzatela ahal diren ikustate, oharpen eta adei guziak, ibil ahal dadila eta bazkal ingurunetan, baina kampoan etzan gabe; eta Errege badagola bertzela nahi ukanen duen guziaren emaitera, eta ere, haren estimuz, garazia batzuen, kalterik ekhar eztezaketelarik.

Hori erranik, igor hitzaldi sobera entzun gabe; eta behar dena egin, ikastetxeko buruzagiak han ez izanez zurekin diren bitartean eta A. Tellier ere horrat heldu delarik, hunek eta hunen segetari bereziak etxean dituzketen paper guzien hartzeko, eta ukan bi gizon segur, baina ikustatekoak, zure egoitzatik atheratzean, A. Tellier eta hunen laguna karrosa batera bilduko dituztenak, eta, hartara hauekin iganez, berehala La Flèche-ra eremanen, han sei mila libera emanen baitauzkote A. Tellier-i, eta probinziako intendantaren eskuetan utziko baitute, hunen han aurkitzeko behar dena egina izanen baita Erregeren manuekin haren eta La Flèche-ko jesuistendako A. Tellier-i doakonaz. Hori Versailles-en egin beharko dena da, joan-jinak, bai buruzagienak bai A. Tellier-enak,

behar den astia utz dezan hek han ez izanez paperren hartzeko, eta aldi berean hirur presonerrez jabetzeko. Uste ukan nuen ausartziarik gabe Orléans-ko duke Jauna segurta nezakeela eginara horrekin jendearen bozkarioaz eta benedizioez, eta, edozein lanjer ekartzetik ontsa urrun, bakea zuela lehiatuko. Oharr-arazi naukon behar zela hortaz guziaz deus erraitetik ontsa begiratu, eta deus ez egin, aitzinean ez ondotik, bat eta bertze alderdietako kardinaleri, ez eta haien jende edozeini: bati horrek indar sobera harr-araz lezokeelakotz, eta bera harekin bat zoala idurituko baitzen; bertzer horrek desenkusa eta beldurraren usaina bazukeelakotz. Batzuek ala bertzek nahi balaukote hori aipatu edo laudorioz edo auhenez, haier ahoa jendeki hets, baina erran labur-laburra, nor ziren sendi-arazteko doinu batekin, bakea duzula nahi, eta ukaitera deliberatua zirela bakeaz bertze alderdirik batere hartu gabe. Aitzina ari baldin badira, gur bat, nardatua zirela haiekin luzazago egoiteko astirik ez ukaiteaz, eta joan.

(...)

San-Simunek eztu erreienzian gobernuko dirutzeta hartu nahi

1. Zergak handitu ala banko-hauste egin?

Gelditzen ziren atzerrietako egitekoen konseilua eta mezuetakoa edo erresuma barnekoa. Orléans-ko duke Jaunari erran naukon bazirela ere haier egon behar etzizeen bi gizon, baina zituzten karguez goiti publikoari buruz, beharrez bat bertzea baino biziki gutiago, baztertzekoak etzirenak: Harcourt eta Huxelles; bi konseilu horien buruan ezarri behar zirela uste nuela, baina haien karguaz bere burua hertsatu behar zuela etzizatala iduritzen. Espainian Orléans-ko duke Jaunak hain luzaz ukana zuen izanarak, eta Harcourt-ek herri hortan zituen lotura hertsiek, eta Maintenon-go eta Orzini-ko Anderekin, deliberatu zuten Huxelles-en aldera atzerrietako egitekoetan, eta Hercourt-enera erresuma barnekoetan. Hori berehala egina izan zen. Baina erabakia hartu baino lehen: “Baina zu, erran zautan Orléans-ko duke Jaunak, mundu guzia eskaintzen dautazu, eta zuhaurez etzira batere mintzo; zertan izan nahi duzu bada?” Ihardetsi naukon etzizatala eni ez neure buruaren aitzinatzea ez are gutiago hautatzea, baina hari berari erabili nahi ninduenek ikustea, hortako gai uste baninduen, eta hala bazen har nezan nahi zuen lekuaren erraitea. Marlyn zen, haren gambaran, eta hortaz beti orhoituko niz.

Eztabadatze ttipi zenbaiten ondotik, hein berekoen artean komplimentuak izenda laitezkeenak, aitzineratu zautan dirutzetako konseiluaren buruzagitza, erran nahi da horien buru izaitea gauza hortan Villeroy-ko marexala bezalako zozo batekin, eta erran hobeki zoana zela bere eta enetako. Ohoreaz eta konfienxiaz eskertu nuen, eta eza errespeturekin eman: Noailles-ko dukearendako nadukan kargua zen. Orléans-ko duke Jauna azkarki ustegabetua izan zen, eta elhe onetan abiatu zizatan horren onharr-arazteko. Ihardetsi naukon gaitasunik batere enuela dirutzetako, jakitate eta mixterio bilakatua zen gauza bat zela eta gaintitzen ninduen; sal-erospen, monera, diru aldatze eta ibiltze, guziak dirutzen erabiltzeko gauza baitezpadakoak, enituela izenetik baizik ezagutzen; aritmetiken hatsarreko erregela lehenak enazkiela; enintzala behin ere sartua ene ontasunaren, ez etxeko gastuen konduetan, ezpainuen neure burua hortako gai senditzen, zenbat gutiago erresuma oso bateko dirutzetako, eta ziren bezalako nahasmenean. Aitzineratu zauztan dirutzetako konseiluko jendetan aurkituko nituen jakitatea eta arintzea, eta bertzalde aholkatu nahiko nituenetan. Gaineratu zuen lausengatzen ahal ninduen guzia; azpimarratu ene zuzentasuna eta abantail nahigabea. Hortaz ihardetsi bainaukon ondorio gutia zuela gauza publikoarendako dirutzetan ebasten ar nindadin, edo ene ahalezinak ebastera utz zitzan; uste nuela zinez hortan ene zuzentasunaz hari eta nihauri segurrean hitzemaitea, baina berdin zintzoki, enuela nitan behar ziren argietarik batere sendi zirtzilkeria larrienez ere ohartzeko, zenbat gehiago ekhai horrek neurririk gabe hain errex hedatzen dituen sarek. Oren bat eta erdi eztabada hortako bururapena ene kontra gaitzizea izan zen, gero ontsa gogoeta nindadin othoiztea, eta biharamunean mintzatuko ginela.

(...)

Dirutzetako gaiak nardatzen ninduen Orléans-ko duke Jaunari eman berriak nauzkon arrazoinen gatik, eta bertze ainitzen oraino, hautan lanarena gutiena baitzen. Baina beharrak hetara ekhartzen dituen bidegabek izitzen ninduten ere; enindaitekeen jar jendearen eta publikoaren mailua izaiteari, zorigaiztuen auhenen entzuteari, eta gaixtoen, maltzurren, bekaiztien, solas gezurti, baina batzuetan, oroz gainetik mota hortan, egiati idurien. Eta guziak baino gehiago deliberatu ninduen, Estatua gerlek eta bertze gastu mirazkoek ekharria zuten izanara bortxatua izan zen, hala nola nun ezpainuen bi alderdi hauen hautatzeaz bertzerik ikusten: zerga mota guzien jarraitzea eta ahal zen

bezenbat handitzea ere neurrigabeko zorren ordaintzera heltzeko, eta ondorioz ororen lehertzea bururatu; edo banko-hauste publiko egitea legezko bidez, aithortuz Errege berria zor guzietz kitto zela eta haren aitaso eta aitzinekoarenak etzituela bere gain hartzen, bidegabe izigarria eta familia andana neurrigabea hondatuko zuena bai zuzen bai mailez mail.

Bidegabe horietako batez eta bertzeaz ukan nuen lazturak eninduen horien ene gain hartzera utzi, eta bitarte bati doakonaz, zor mota guzien agortze bat baizik izan eztaitekeena egiazko zorren ordaintzera heltzeko eta hala eztirenen ezabatzeko, eta phoroguen ikertzea, eta ordaindu diren alderdiena, eta zein heinerano, ene zundak nehoiz hara helduko etziren itsaso ondar gabe bat iduritu zizatan. Eta bertzalde zer sare eta gaixtakerien eremu zabala! Arrazoin oraino segeretukoago bat menturatuko duta? Dirutzetako kargua bizkarrean ukanez, banko hauste oso batera sobera ekharria ninzatekeen, eta zama bat zen neure burua Jainkoaren eta gizonen aitzinean haren azpian ezarri nahi enuena. Bi bidegabe izigarrien artean, ondorioez bezenbat berez, gutienik bortitzena banko haustea baziduritan, ezen, hartzedun eli horren hondamenaren gostuz, zati gehiena bere nahitara hala bilakatua baitzen irabaztearen amuzkiaz, eta ainitzek irabazi handiak eginak baitzituzten, argiratzeko biziki nekeak, phoroguetan nekeagoak oraino; eta gainerateko jende guzia salbu zen bederen, eta beraz, Erregeren jakinean, zergak ttipitzen, eta berehala. Abantail ezin handiagoa zen hirietako ala baserriko jende xoilarendako, zenbaki handiena baita, araurik gabe, eta Estatuaren hazlea. Berdin zen ere abantail ezin handiagokoa salerospen orotako kampoan eta barnean, zerga guzien neurrigabe horrek osoki hautsia eta agortua zuena.

Aitzinera daitezkeen arrazoin horiek baneramaten; baina bertze batez azkarkiago hunkia nintzan ikaratuz baizik ezpaitut hemen argitzen. Edozein esteka ezina da gobernuaren atxikitze azkenik heldua den heinean. Zer ezperdintasun emana baitu ere Europako urre 'ta zilharretan Amerikako aberastasunen hatzemaiteak itsasoak etengabe ekartzen duenaz geroztik, eztu edozein molde ihardesten gure azken erregek zituzten eta Luis XIV-garrenaren erdiak etzirenen sartzen ezberdintasunari. Hauk handiturik ere ezin sinetsirano, gogoan ontsa hartua nuen hain erreinu luze, nasai, ospedunaren bururapeneko izaera hain deitoragarria, hain xoilki agertua dena Torcy-ren La Haye-ko bidaian, eta geroztik Gertruydemberg-koan, ezpaitzen zeruko ukaldi

gutienik igurikatua baino gutiago behar izan Frantziaren salbatzeko Angeleterrako erretxeko nahasmenaren bidez (...) Erran den huntarik ondorioztatzen da gobernu makurtu batendako aski den aberastasunik ez dela, Estatu baten salbamendua ez dela bidatzeko hartzen den zuhurtziari baizik lotua, eta berdin haren joritasuna, zoriona, ospearean iraupena eta bertzen gainera duken lehentasuna.

(...)

2. “Eta zuk, azkenean, zer izan nahi duzu?”

Orléans-ko duke Jaunak eninduen beraz dirutzen hartzera gehiago ekharria aurkitu hortaz gogoetatzeko eman zautan astiaren ondotik. Lehia bera, othoizte berak, arrazoinamendu berak haren aldetik; ihardespen berak, bermetasun bera enetik. Haserretu zen; jeus etzuen irabazi. Haserrea gaitzitze bilakatu zen hain ageria nun jarraiki gutiagoan ikusi bainuen, hark gibelatze hori sendi zuela erakutsi gabe, eta ezkinelarik gehiago hura eta ni gauza ohikoez, publikoez, orobatekoez baizik mintzo, hitz batez, euria eta iguzkia deritzotenaz. Samur hotz horrek haren aldetik, berdinak neuretik, hirur aste bederen iraun zuen. Lehenik akitu zen. Ephe horren buruan, solasaldi ahitu baten erdian, baina hartan ohian baino eragozpen gehiagori ohartu nindakona: “Hots! beraz, hautsi zuen ber-berak, horra egina dena? Dirutzen ez onhartzera deliberatua zaude?” erran zautan eni behatuz.

Errespetuz begiak behehitu nituen, eta mintzo aski aphas batez ihardetsi horren gehiago ez aipatzekotan nindagola. Etzituen zenbait zinkurina atxiki ahal ukan, baina saminik eta gaitzizerik gabe; gero xutituz eta gambaran itzuli egiten hasiz, hitzik erran gabe eta burua beheiti, beti bazegien bezala eragozpenean zelarik, bapatez ene aldera itzuli zen ziola: “Baina nor ezarriko dugu?” Apur bat arintzera utzi nuen, eta gero erran bazuela bat han berean, hoberenetik nahi bazuen, eta ene ustez eza emanen etzuen. Bilatu zuen hatzeman gabe; izendatu nuen Noailles-ko dukea. Izen hortan gaitzitu zen eta erantzun zautan on izanen zela Noailles-ko marexalsaren sakelen betetzeko, Gixungo dukesarenen, biak agerian aithor zenaz esku oroz egiten zituzten tratuez bizi baitziren, eta gorteko familia gartsu eta ainitzenaren aberasteko, leinukide bat deitzen ahal zena. Erastera utzi nuen, eta gero aitzineratu naukon etzezaketala, gizonari zoakonaz, kargu horren ongi eremaiteko behar den baino izpiritu gehiago bazuela uka, eta fortuna osoen guzia ontasunez, karguez, gobernamenduez, ahaidez, gutizia orotarik atherbean izaiteko, eta bere ofizioari behar zen estimu eta larderia

guziaren emaitako, hala nola nun, haren Erret-Goitasunak hartan jaun bat ezarri behar zela onhartzen zuenaz geroz, bat etzela hobeki zoakonik.

(...)

Eztabada horrek ihardespén andana ukan zuen bien arteko solasaldi baten gainera, eta azkenean bururatu Orléans-ko duke Jauna utzirik Noailles-ko dukearen dirutzetako konseiluaren buruzagi egitera deliberatua. Segur nintzan alabainan ontsa egingen zuela, ikertuz bereziki nola ari zen jarraikian Desmarets-en azpian, bere lekuan errana dutan bezala, eta ontsa gozoan nintzan ere Noailles-ko kardinala horrela lagunduz ilobaren kargu horrekin, eta hain ona egiazko estimuaren eta kampoko errespetuaren emaitako.

Hori Orléans-ko duke Jaunaren eta ene artean erabakia izan eta ephe baten buruan: “Eta zuk azkenean, erran zautan, zer izan nahi duzu?” eta hanbat hertsatu ninduen argira nindadin nun egin bainintzan azkenean, eta, gorago erakutsi dutan gogoan, erran naukon barneko egitekoetako konseiluan ezarri nahi baldin baninduen, mezuetakoa edo “depexetakoa” dena, uste nuela han bertze nunbait baino hobeki egitea. “Buruzagi beraz, ihardetsi zuen bizi-bizia. - Hori ez, ihardetsi nuen, baina konseilu hortako lekuetarik bat.” Biak hisitu ginen, hura alde, ni ez. Erakustera eman naukon lan horrek berez eta barneko egiteko guzien erreienziako konseilura erakartzekoak izitzen nindutela, eta leku hori hartuz, Harcourt-endako zenik enuela ikusten. “Leku bat barneko konseiluan, irri egitea da, eta ezin entzuna dena. Buruzagi bezala baitezpada nahi eztuzunaz geroz, ezta leku bat baizik egoki zautzunik eta eni biziki hala zautanik ere: ni han izanen nizan konseiluan izan ziten da, konseilu goiena izanen baita edo Erreienziako konseilua.” Onhartu nuen eta hura eskertu. Ordutik harat leku hori etzen aldatu, eta osoki deliberatu zen barneko konseiluaren buruzagitzako karguaren emaitera Harcourt-ko marexalari.

“Estatu jeneralak” izeneko Bilzarre handiaren ondorio onak

1. Nola behar zaueen mintzatu

Bazuen aspaldi estatua jeneralen bilzarre bat gogoan nuela, eta hoin erabaki larriaren aldekoetan eta kontrakoetan nindabilala. Banerabiltzan ene orhoitean horiek bildu ziren aldi guzietako gertaldiak, ekharriak zituzten nekeak eta abantailak; elgarretaratzen nituen, oraiko

izanara eta bizimolderi hurbiltzen. Gehiago nauen ezberdintasun ikusi, are gehiago nintzan haien biltzera deliberatu. Horrela alderdirik gehiago ez Estatuan, ezen Maine-ko dukearena ezpaitzen alderdixka hastiagarri bat baizik, laguntzat ezjakina, oraiko fagorea eta zimarkua baizik etzituena, eta buruzagi gutieskarri eta herabe horrek etzuen errespetagarririk bere sortzea baizik eta hori berak bere kontra itzultzen zuen, ezkontidearen nahasmen erotuek ezpaitzezazketen izi ilunbeari, haien gerizatzale baliagarriari esker baizik; gehiago ez lehenagoko Orléans eta Burgoñako alderdikari hetarik; nehor ez Lorrenako etxean mereximenduak, irabaziek, antzek, estimuak, ondokoek ez bothereak Ligaz orhoit-araz zezakeenik; gehiago ez higenautik eta egiazko jende gotorrik edozein mota ez lerrotan, hanbat burjesia arrunteko erreinu luze horrek, bere abantailetan gobernatzeko et Erregeren bere ahulezietarik biltzeko trebea, jakina zuen ororen ezteuseratzen, eta gizon oro gizon izaitetik debekatzen, lehia oro suntsituz, gaitasun oro, ikaskuntzaren ondorio oro, eta sendimendu zenbait eta eginbidean jarraipen zenbait bazerakusan gizon oro urrunduz eta galduz.

Egia trixte hori, Orléans-ko duke Jauna eta nihaur geldituak ginituenak Erreienziako konseiluan sartzeko gai ziren jenden hautatzean, hanbat zituen jendeak ezteustuak, segurtasun bilakatzen zen estatu jeneraletako bilzarre baten aldera. Egia da ere izen handi hortaz hartuenak ziren jendek neke handi luketeka horien biltze guzietako edozein ondorio onen erakusten; baina ezta gutiago egia oraiko izaerak etzuela bilduak izanak ziren guziekin iduripenik batere, eta etzela oraino nehoiz gertatua segurtasun gehiagorekin bil zaitezkeen aldi bakar bat, eta uste ukaiten ahal zen ondorio ona zinezkoago eta segurragoa. Hori zautaten sinets-arazi nihaurekin hortaz ukanak nituen eztabadatze luze eta usuek, deliberatu baininduten Orléans-ko duke Jaunari eskaintza horren egitera. Othoiztu nuen etzadin khexu jar sinets-arazia ninduten arrazoinak entzun gabe, eta orai eman ditutanak aitzineratu ondoan, ahal nuen argi hoberenean ezarri nituen hetarik har zizazkeen abantailak. Erran naukon begien aitzinean ezarri berriak naukon lanjerrak ezpaziren, baina gehiago izaiterik eztutenak, estatu jeneralen biltze baten lanjer bakarra etzela gobernuko egitekoetan izanak zirenendako baizik, eta nahi bada, hortako erabili dituztenendako. Lanjer horrek etzuela Haren Erret-Goitasuna hunkitzen, etzuela horietan den alderdi ttipiena ukana publikoki jakina zenaz geroz, eta etzezakeela bat ere har Erregeren minixtroetarik batekin, ez eta hautatu eta kargua eman deeten

nehorekin. Arrazoin horrek, ondokoek kunkitzen ezpazuten, sinets-arazi behar zaukola Erregeren heriotzearan ondotik oren bat etzezan utz Estatuko segetarier manatu gabe (estatu jeneralen) biltzeko behar ziren deiak, guziak hogeita-laur oren barne eginak izan ziten eta igorriak bortxatu, hortan hurbildik atxiki, eta, abiatuak zirenez geroz, deia argira aithortu. Ephe laburrenean mugatua izan behar zuela, deputatuen bailaldeka hautatzeko deputatu horien bilzarreko bezenbat estatu jeneralen moldatzeko, ikus zadin amuzkirik etzela, eta zinez eta orai berean nahi dituzula, eta ezeren hunkitzerik ez behar ukaiteko haiek idekiak izan artean, eta, ondorioz, ezeren zure gain hartzerik. Frantzes, arina, aldamera maite duena, phizua eta sistak erreinu huntan etengabe mukurrurrerano iganak zituen uztarriaren azpian lehertua, hunen bururatzera hasperenatan, xoramenez hartua izanen zela itxaropen eta libertatezko argi mende bat baino gehiagoz bahitu hortaz, eta ontasun hori haren ganik ukanen zuenaren aldera hanbat gehiagotan bozkarioz, esker onez, amodioz, atxikimenduz beteko zuenaz, nun haren onezia hutsaren urratsetik ukanen baitzuen, zuen larderiaren erabiltzeko hatsarre lehenetik, nehork gogoan horren ukaiteko astirik ukan gabe, eta ainitz gutiago hari galdegiteko ausartasunik. Erreienziaren horrelako hastapen batek, bihotz guziak irriskurik batere gabe ekhartzen zauzkonak, etzezazkekola ondorio handiak baizik eman, eta haren etsaiak zaltokitik osoan jauz-araz, sarri hortara jinen nizan gauza.

Dirutzen izaera zen bezala, nehor ez izanez larriki etzakienik, eta hautatu behar ziren erremedioak ere bortitzak, ezpaitzaitezkeen izan Haren Erret-Goitasunari dirutzetako adminiztratzearen hartzera hertsatu ninduenan erakutsiak nauzkon hirurak baizik, gauza baitezpadakoena zizakola egiazki eta garbiki erakustea zertan zen, horri buruz berak den gutienik deus hetan hunki baino lehen, eta haren ganik ukan zezan hortaz aithormen publiko bat izkiriaturik (...) Estatuer erran gaitz hori ezin handiagoa izanez, eta erremedioak ere berdin, Haren Erret-Goitasunak uste duela herriari zor daukola hunek berak hortaz lan egiteko artha har dezan; gaitzaren barnatasun guziaren erakustean egon, aitzinera eman eritasun hortarik atheratzeko ikusi ahal diren hirur erremedioak, eztabadatzea eta hautua utziko zazkola libertate osoan, eta bere gain har dezala (Errieentak) bakarrik ahal diren argitasun guzien emaita, hoin hautu nekean bidatzeko (bilzarreak) nahi ukan dezazkeenak, edo bertze atherabide baten aurkitzeko, eta, hunek deliberatua ukanen duenean berak eta libertate bete 'ta osoan,

(Errientak) bere gain har beza gauza handi hortaz abisu moldean erabakia izanen den guziaren egin-arazte zuzen eta osoa; susta horren emaiteko ephe bat eztezan gal, ezpaitaiteke dilindan egon gobernamentuko mekanika guzia ere aldi berean gelditua izan gabe; burura hitz bat erranez, ez eman behar ezten kondu zenbaiten emaiteko, horren lehen behazunaren egitetik ontsa begiratu behar baita, baina arinki onezia eta konfienxiazko itxura batekin, haier mintza, diot, bi hitzez, konseiluen jartzeaz, aithortuak eta lanean ezarri direnak estatu jeneralen biltzeko manuaren eta lehenbiziko bilzarrearen artean, eta dirutzetako ezarria den konseiluak eztuela egin ez egingen aitzineko gobernamentuak zuen moldeari jarraitzea baizik haier jakin-arazteko estakuru, deus berritu eta deus hunki gabe estatuten abisua erabakia izan arteo, hau utzia baitzako haien zuhurtziari, gero emanen dutela uste denari jarraitzeko.

“Eztut uste, gaineratu nuen, behar dela elhe handitan sartu hitzaldi horrek zure fagoretan emanen duen ondorio miragarriaren zuri sinets-arazteko. Jendalde jakingabea, uste baitu estatu jeneralak bothere handi batez jantziak direla, bozkarioan igerikatuko da eta herriaren zuzenbide aurdikien berreraikitzailea bezala benedikatuko zitu. Jende gutienak, jakina baita estatu jeneralak berez bothererik batere gabe direla, eta eztirela hautatu dituztenen deputatuez baizik eginak haien arranguren, deitoratzen dituztenen, galdegiten dituzten zuzenbidearen eta garazien aitzineratzeko, hitz batez, jaukitzale ‘ta othoizle xoil batzu, zure gozatasuna gobernamentu zuzenenaren eta eztienaren agintzak bezala ikusiko dute; eta begia bertzek baino zorrotzago dutenak ontsa ohartuko dira eztuzula gure errege guziek estatu jeneralen eta jende gotorren bilzarre guzietan egina dutena baizik gehienguan egiten, beti hel egin baiteete gehienik dirutzetako gaian, eta eztuzula haien gainera uzten bortitz eta hastiagarri baizik izan eztaitezkeen erremedioen hautatzea, hautaz, haien erabakiaren ondotik, nehork ezpaitu deitoratzekorik ukanen, edo bederen bere hondamenaz eta zorigaitz publikoez zuri lotzekorik.”

(...)

2. Urrunegi joaitetik eta iraultzatik nola begira

Estatu jeneralen atxikitze bidea, hoin azkarki sustatu ondoan, ontsa errexa iduritu zizatan: goraki aithor, baina konfienxiarekin eta lañoki, haien bihotzak baizik eztirela nahi, (egiten dautzuten) laudoriozko oihukatze horren bidez badematen hitza hain sakratua eta

segurra bezala hartzen dela, nun ezpailizate merezitua iduriko gehiagokorik eman dezaten onhartzen balitz; urratuko lizatekeela ere, eta gehiago ukaitea gaizkinetako hartua izanen. Hitz hori onhartzen zela bakarrik sendimendu on publikoaren ukaiteko atseginaren gatik, eta Frantziaren sosegu oraino urruna gogoan ukanez, gerta daitekeena gertatuko eztelako nahikaria bizi-bizian eta esperanza azkarrean, Erregeren bizi luzeari, eta haren ondokoendako Jainkoaren benedizione handiari esker; hitz hoin lausengari hori baino, eta hortaz lekuko den segurtamen xoil-xoila baino urrunago joaitea, ezin doala gertaldiek behar duten errespetuarekin, erreint batek, orai bederen, ezpaitezake luzaz nehor ikus Erregeren eta bere artean. Konfienxia eta esker on, lañotasun, errespetu, arrazoinetzko hitz horietan geldi, gehiagoz aierurik ez emaitera behatze ezin handiagoarekin; gauza eta onhesmen horietan heda; oroz gaineratik oro lehia-araz, motz laburzki, burura, eta gero oihukatzeaz eta segurtamenaz eta gai hortaz guziaz ontsa ixil-araztea ez ahatz, eta hori ontsa atxik, berez erreinatzea eta luzamenik gabe ezkontzea ezin dituen Errege baten azpian izaitzaren estakuru, gauza bat delakotz, beharrez egina dena iraganik, hastiagarria, eta airuen emaitako baizik on eztena, eta gaixtoer, eta nahasmena maite duenari, Erregek Erreientarendako duen gogo onaren, adimenaren, oneziaren eta konfienxiaren uhertzeko baizik; baina ez hori erran, eta bermuki, gauza osoki bururatu ondoan baizik, gogoetatzeak eta eragozpena eman beldurrez.

Dirutzetako hautatua ukanen duten erremedioaren ondorio mingarrien estatu (jeneralen) gainera uztearen abantail mugagabeaz bertzalde, haiek bildurik eta erakutsi zeen adeiaren bidez erresumaren amodio eta konfienxiaren ukaiteaz, eta hori loturik oihukatu den Espainiako adarraren koronarako ondoriotasunetik ekhentzeari esteka segurrenen, azkarrenen eta iraunkorrenen bidez, zer larderiazko eta botherezko indarra eztu erresumako gorputzaren eta Orléans-ko duke Jaunaren batasun hain ageri eta lehiatu horrek emaiten, Erreienziara sartzean, barneko gauzetan, odoleko printzen, batzorde handien atxikitze, eta zer aipamen baliagarria kampoan (Erregeren) adingabe luze baten ahuleziaz abantail hartzera gutiziatuak lizatekeen erresumendako, eta zer gibel-ukaldia haren barneko etsaiendako, Espainiaren berarendako, hunen laguntzak eta hunekilako estekek ezpailukete gehiago harendako arrazoinik, ez eta haiendako estakururik eta segurtasunik!

Gogoetatze xoil batek baderakusa estatu jeneralak abantzu osoki probinzietako hirur ordenetako jendez eginak direla, gehienik lehen eta herenetakoez; Erregeren zorren zama neurrigabe hori gainera erortzen zeenak abantzu guziak, batzorde eta jende berezi, Pariskoak direla; probinzietako nobleziak, nahiz bere behartasunaren gatik ezkontza gaitzetara eroria, eztuela batere edo abantzu batere (zorrik) egin herritik kampo, eta eztela Erregerekin hartze dutenekin lotua, hauk guziak Parisen jarriak diren dirulariak baitira, eta hiri bereko bilaun aberastuak, hala nola Erregeren segetari, Frantziako diruzain, eta mora orotako diruzain, orotako zerga biltzale, eta bertze, heren estatuko deputatu izaiteko on eztiren jendeak; ondorioz, hirur ordenetako deputatuen gehienak abantail ukanen duela beretako, eta izendatu dituztenendako, banko haustearen hautatzea zerga guzien iraupena eta gerta daitekeen handitzea baino, eta axola guti ukanen duela banko haustea eginen dituen hondamen eta oihuez, mota orotako zergez liberatuak izaitearen ondoan; zerga horiek familietako segetuak agertzen baitituzte, ekonomia eta etxetan hartzen diren neurriak nahasten, bakoitza emaiten mota guzietako dirularien esku amikatuetara, barneko eta kampoko salerospeneko libertate oro hausten, eta hori jendekin batean hondatzen. Libertatezko, zerga neurtuetako ikuspen horrek, eta oraino estatuen hautura, ukanen dituzten ondorioen ezagutzeaz jakinduru baitira, eta airera izaitearen gozoak lur berri bat eta zero berri batzu ikus-araziko dezteete, eta eztituzte bere zorionaren eta hartzedun direnen artean zalantzan utziko. Hiriko etxeko arrandek, horietan deputatu ainitzek berea badutela gerta baitaiteke, salbuespen zerbait ukanen dute behar bada abantail horren gatik; behar bada ere hori zerga andana handiago baten aurdikitzeari gomparatuz, aldamera arina lizateke, edo batere ez, eta banko haustearen aldera, berez hain abantailduna baita gehienarendako, litzateke estatuak trebeki itzuli behar.

Gaineratu nuen Orléans-ko duke Jaunak orai erran den guzitik bil lezakeen abantzu guziaren galtzea lizatekeela, lege bat ezpalitz egiten, edozein arrazoinak geroan hauts elezakeena, estatuek eman duten abisuak badakarren erremedio hautatuari ezin hautsia izaiteko moldean egonen zukola. Horri huts egitea, nor beraren desohoratzea lizateke enganamendu publikoenaren eta ospedunenaren bidez, herriaren amodioaren eta konfienxiaren itzultzea mendekatzeko gutiziara, eta enintzan beldur izan gaineratzeko: iraultza baten irriskuan jartzea,

nehorez urrikutua eta lagundua izan gabe, eta atzerritarrer hortaz baliatzeko, eta Espainiari (Erreintaren) galtzeko joko eder baten ematea.

(...)

3. Bilzarreak nun eta nola egin behar lukeen

Banindagon Meudon Angeleterrako erregina (ohiari) arte batez emana izanen zela bere gorte eta jendekin han egoiteko, eta Saint-Germain libro utzia estatu jeneralendako, han, molde oroz, biziki ontsa izanen baitziren, Paristik ez hurbilegi ez urrunegi, eta Orléans-ko duke Jauna libertatean Erregeren atxikitzeke Parisen, Versailles-en, Marly-n, berak nahi bezala, aldika Saint-Germain-dik gehiago hurbiltzeko edo urruntzeko. Marly-ko saloinean ziren egin beharko Erregek estatuer eman behar zezteen entzunaldiak, leku zabala baita, errexak, laur aldetarik idekian, Erregeren eta Erreientaren bizitegiari datxikona, etxe alderdi bat berex, eta bizkitartean hetsia eta zaindua, eta Saint-Germain-dik lekoka batean.

Beraz estatuen agiantzaz galdekatzea aitzineratua izaitzeko moldatua izanen zen ordu berean, abia oro betan, eta ez har ahal izan zaitekeen leku orotan bilduak izanen ziren karrosetara horrelako igaite batek behar duen astia baizik, beti aski luze baita, hetarik ahal bezenbat gordeka deus erakustera eman gabe estakuru batzuen bidez han gerta-araziak izanen baitziren; har, diot, asti hori aitzinean deputatu zenbaiten igortzeko Erreientaren gana, hari Erregeren aitzinera batean jiteko hartu den deliberaren jakin-arazteko, estatuen ganik manua baitute Haren Erret-Goitasunaren othoizteko Erregeren-gana ereman ditzan entzunaldi baten galdegitera, eta bidean direla erraitera eta ethorriko direla. Erakartzen dituen egitekoaz eztabadatze zenbait izan dadin Erreientaren eta haien artean ezta debaldekoa izanen, gauza hori deputatuek ezpaitute argiki erranen ez eta Erregeren aitzinean ere. Erreientaren trebetasunari doako hor oharpenekin mintzatzea, sobera khexu eta sobera hotz izan gabe, argitasun zorrotzago baten eman-araztetik ontsa begiratu behar baita sorr-araz lezakeen eragozpenari huts egiteko (...) Estatuak kaperara heltzen direnean, hor baita (karrosetarik) jausten, Erregeren gana eremanak izanen dira, bidean saloin ttipian Erreintak batzen dituela, baina zerk ekhartzen dituen argikiago jakin nahian, beti haiekin aitzinera joaitetik gelditu gabe eta Erregeren ondorano helduz, gehiago askietsia izan gabe.

Hitzaldi labur-labur eta errespetuz bete batek erranen du horrela Erregeren oinetara ekhartzen dituenaren larritasun soberakina, eta

bururatuko da haien galde ezin xumeagoaren hari aitzinera emaiteko baimena eskatuz, eta onhar dezan Marly-n egon ditene bere konseiluari galde hori iker dezan manatzea nahi ukanen dueno, segur izanik hain xola, hain beharrezkoa, hain zuzena iduriko zaukola nun ikertzea ezpaita luzea izanen eta haien fagoretan egingen baita. Galde horren hartzeari eta ikerr-arazteari eza ezin eman daiteken gauza da. Errege joanen da bere egoitzara eta Erreienta berera, gauza hortako diren deputatuekin, orduan hortaz argitasun osoak emaiten dituztela. Eztabada haien eta Erreientaren artean, huni ezpaitzauko ihardespena ordu berean eman behar dela idurituko, eta hek amor eman behar dutela ez onhartuko ere, eta goraki erranen baitute saloinetik ez atheratzera deliberatuak direla, horren athean on izanen baita ohiko Suizak baizik nehor ezta din izan, segurrak eztiren jender sartzearen debekatzeko. Deputatuak eztira haien galdeaz ikusi behar duten konseilukoen ez onhartzea huts egin gabe egonen; eta azkenean konseiluari deia igorriko zako eta ordu berean bil-araziko da. Orléans-ko duke Jaunak ustegabetua dela erakutsiko du hitzaldi luzetan sartu gabe, eta oraino gehiago dituen estonamendua eta eragozpena estatuek haien galdeari egingen den ihardespenerano estatuek saloinean egoiteko hartua duten delibero hisituaz, konseiluari ustegabetze eta eragozpen berdinaren emaiteko. (...) Eta burura Erregek galdea Parlamentura igorr-araziko duela erranez han jujatua izaiteko, parer mezutua izanen zeela Erregerekin han izan ditene, gauza baitezpadakoa delakotz. Atheak utz hetsirik, joan konseiluarekin saloin ttipitik Erregeren gabinetera, hari erabaki dena erran, gero berriz haren baitara konseiluarekin, egiteko horren ondorioz hartu diren deputatuer mana saloin ttipian izan ditene, eman hauer konseiluaren erabakia berak, konseilu guziak eta hortako liburua dadukan Estatuko segetariak izenpeturik, eta haien aitzinean mana egina duten galdeari ihardespeneraren abia-araztera joan dadin ordu berean eta haien gana Saint-Germain-era igorria izan dadin. Deputatuek galdeginen dute Erregek nahi ukan dezan estatuen esker osoki xumea onhartu, gaineratuko bitartean ihardespena igorria izaiten ahalko dela, eta erranen eztirela Marly-tik abiatuko behar diren eskutitz eta manu guziak eskuetan ukan gabe. Hortaz ere eztabada, alde batetik bermetasun, amor emaita bertzetik emana denaren gainetik deus ezteraman gauza batez.

Deputatuak saloinera itzuliko dira bere galdearen ondorio onaz kondu emaitera, aldi berean Erreienta, konseilua ondotik, Erregeren

egoitzara joanen da huni jarraikitzeke estatuer emanen zeen eskertzeke entzunaldira. Eskertze hori hunkigarri izanen da egitekoak duen handitasunean, azkar leialtasunean eta atxikimenduan. Errege, Erreinta eta hunen ondotik konseilua joan eta, estatuak joanen dira Erreientaren eta konseiluaren eskertzera bere deputatuen ahoz, igorpenen beha egonen dira, Estatuko segetariaren eskutik ukaitean ontsa ikertuko dituzte, eta Saint-Germain-era itzuliko dira.

(...)

Jarraiki denak ongi erakutsi du zenbat nuen arrazoin ukana xede hori asmatuz, eta horren hain beharretan zena eta hori hain ezti izan behar zizakona, zenbat guti gai zen horren egiteko, nahiz gustatzen zizakola eta sendi zuela iduri zuen.

Egiterik gabeko xede bat amets bat da eta haren hedatzea xehetasun horrekin guziarekin elhaberri bat. Idatzi baino lehen ikusi dut. Baina uste ukan dut eztitutala ametseria hutsak sortzen erakustea zor naukola neure buruari; gauza horren beharra, handitasuna, zuzentasuna arrazoin agerien eta azkarrenen elemeniaren bidez; egin ahal eta behar bada errextasuna orduan izpirituen orotako izaeran, eta ondorio zerrenda arrazoinkatu bat langai orotan nork bere buruari argi eta egingai bilakatu behar daukona, traba eta neken ikertze ondu baten bidez alde batetik, ondorio onera heltzeko bidenen bertzetik. Elhaberria izen ontsa ezegokia lizateke gobernamentu zuhur eta neurtu baten berriz jartzeari emaitzeko; noblezia ezteustu, hondatu, gaitzetsi, oinezkatu baten berriz zutitzeari; Elizaren sosegua renari; uztarriaren arintzeari, den gutienik erret-larderiari jaukitu gabe, uztarri hori aski sendi baita gehiagoko argitzerik behar izan gabe, eta Luis XIV-garrena ereman baitu lezearen azken hegietarano; herriari utz dadin bederen jasan behar dituen oinazen motaren hautua, horietarik ezin liberatua denaz geroz, koronaren begiratzeko handinahien egintza gaixtoetarik, erreinua duen etxeari lehentasun hain hautagarriko distiraren atxikitzeke, eta erresumaren barneko sosegua ren zaintzeko “titanotasunaren” lanjerrean izaitetik, eta hortik huts egin gabe ukanen dituen inarrosaldi irriskutsuetarik, gauza hoin izigarriki berrien izendatzea erakuts dezazketen hitzen bidez egin behar denaz geroz. Horrelakoak ziren xedeak, eta haien egingarritasuna sendi-arazia izanik, ezpaldin badira bete, ordu hoberenean Erreient bat aski bermua eta bere baitan jarraipen aski zuenik aurkitu ez tutelakotz da. Bertze batzu ikusiko dira urte hortan eta ondokoetan zori berdina ukan dutenak. Behar duta hortakotz

asmaturik eta eskainirik dolutu? Beti uste ukan dut aitzineratzen diren gauzen balioa etzuela haien bururatzeak emaiten, biziki gutiago horier jarraikitzeke axolarik hartzen eztuen edo hasi nahi eztituen bertze baten menean direlarik.

Orléans-ko dukeak Estatu jeneralen biltzea baztertzen du

Marly-ko egonaldi horren bururatzera ohartu nintzan Orléans-ko duke Jauna Estatu jeneralen bilzarreaz ari izana zela Noailles-ko dukearekin. Aithortu zautan hetarik ukan nahi zena dirutzeri lotuegia zela, hari gordetzeko, zer kargu ukan behar zuen erran ondoan. Noailles-ko dukeak berdin aithortu zautan eragozpen zenbaitekin, eta guti berantago iduritu zizatan etzela Orléans-ko duke Jauna haien biltzera hain deliberatua. Ikusi nuen osoki guritzen parlamentuari buruz Erreienziako. Artikulu hori beti gogorra iduritua zizakon, eta (Erregeren) testamenduaren han ezarria izaita izan zizakon bere ahuleziaren gordetzeko estakurua. Hau gehiegi ezagutzen nuen hori eta estatu jeneralena ziren bezain bi artikulu nagusietan garhaile izanen nintzalakoan hoilatzeko. Bigarren hau hain baitezpadakoa iduritu zizatan beti, eta hanbat aldetara, nun bertzearen uztera ezpainintzan zalantzan egon. Horrela eginez hanbat gehiago esperanza ukan nuen, nun ene errextasunak liberatzen baitzuen Orléans-ko duke Jauna aharratik eta hartan beretik eman behar zuen gauza batetik, eta nihauren indar guziak biltzen baintuen beti gustatua zizakon eta ordu arteo deliberatua zadukan bertzearen atxikitzeke, hartako ezpaitzuen edozein indar emaiterik bere aldetik, guzia izaitekotz berarendako errex, Frantziarendako atsegingarri, orotan zabaldua. Egintza hortan nintzan beraz jarraiki, baina aitzinatze gutirekin Erregeren heriotzerano, orduan erran baitzautan garbiki etzela gehiago hori gogoan ukan behar.

Ordutik harat aski ikusi nuen gauzen ethorkizunaz gaizki iragartzeko. Senditu nuen Noailles-ko dukearen abantaila, ezpaitzen, estatu jeneralen biltzean, dirutzetan nagusi izanen, eta Erreientari berari entzun-arazia baitzaukon hau bera ere etzela hala izanen. Hori egia zela eztut gordeko, eta estatuen biltzearen ondorioz iduri zizatan gauza onetarik bat ere. Geroztik dirutzetan gertatu denaren ezagutzak erakutsi duke arrazoin ukana nuenez. Estatu jeneralen biltzeko xedearen erortzeak ekharri zuen banko haustearena: ur uhertuan arrain hatzemaiteko bideak sobera ekhentzen zituen. Zorren garbitzek eta zerga eta hitzarmenen jarraikitzeak athea handiegi idekitzen zeen

Orléans-ko duke Jaunak, eta hobeki oraino Noailles-ko dukeak haien dutxulua eskuetan ukanen zuten fortunez, garazier eta desgazarier (...)

Ezta oraino ordu hastapen horrek haien azpian ezarri ninduten gogoeta ilunen aipatzeko, horiek azkartu zituzten bertze gauzen. Gaiak hanbat dira ainiztuko laurzpabortz astez, nun horietarik deusen ez ahazteak aski lan emanen baitu, eta berexateak, argitasun eta ordenu zerbaitekin erakusteko.

*

III. Erreinu batetik bertzera (1715)

Erregeren eritasunaren eta heriotzearen egunkaria (I)

1. Agorrilaren bederatzitik hemezortzira

Agorrilaren 9-ko ortziralean, A. Tellier-ek Errege luzaz solastatu zuen goizean (*Unigenitus*) konstituzionearen errexixtratze xoil eta hutsaz, eta hortaz bezperan deituak zituen (parlamentuko) buruzagi lehena eta imperkadore jenerala ikusi. Errege bazkal-ondoan orein ihizin ibili zen bere kalean ohi bezala berak ereman zuena bere biziko azken aldian, eta biziki joa iduritu zuen itzuli zenean. Arratsean musika handia izan zen Maintenon-go Anderearen egoitzan.

Agorrilaren 10-eko ebiakoitzean, ibili zen, bazkal-aitzin, bere Marly-ko baratzetan; Versailles-ra itzuli zen arratsaldeko seiak hirian, bere eskuzko lan bitxi horren gehiago ez ikustekotan. Arratsean lan egin zuen Maintenon-go Anderearen egoitzan kanzelariarekin, eta jende guziari biziki gaizki zela iduritu zizakon.

Agorrilaren 11-ko igandean, Estatuko konseilua atxiki zuen, bazkal-ondoan ibiltzera joan zen Trianon-era bere bizian gehiago ez atheratzekotan. Imperkadore jenerala deitua zuen eta harekin liskartze azkar bat ukan zuen. Jadanik bat ukana zuen harekin buruzagi lehenaren eta kanzelariaren aitzinean Marly-n aitzineko ortzegunean, konstituzionearen errexixtratze hutz eta xoilaz. Imperkadore jenerala aurkitu zuen, bakarrik, arrazoin beretan azkar eta bermutasun berean. Etzuen bere burua ontsa sendi parlamentura bera joaiteko iragarria zuen bezala. Nahiz etzuen hortako esperanza galdua, etzen suminduagoa baizik izan imperkadore jeneralaren aldera, bere jitetik atheratzerano, eta bizkarra itzuliz kargua ekhenduko zaukolako mehatxueta jiterano. Horrela zen entzunaldi hori bururatu lege-gizon hori hortaz gehiago kordokatua izan gabe.

Biharamunean agorrilaren 12-an, erremedioa ohi bezala hartu zuen eta egun horietan ohi bezala bizi izan zen. Jakin zen zangoan eta ixterrean ziatika batez minez zagola. Nehoiz etzuen ez ziatikarik ez errumatisimarik ukana; behin ere ez marrantarik, eta bazuen aspaldi etzuela hezueriaren senditzerik ukana. Arratsean musika ttipia izan zen Maintenon-go Anderearen egoitzan, eta urrats egin zuen biziko azken aldia izan zen.

Agorrilaren 13-ko asteartean, mezatik itzultzean, hara bere burua ereman-arazi baitzuen, azken indar bat egin zuen entzunaldiaren emaitera joateko, zutik eta laguntzarik gabe, Persiako embaxadore delako hari. Osagarriak etzuen utzi lehen entzunaldian bezala xedatuak zituen handieginetara; tronuko barnean hartzea askietsi izan zizakon, eta etzen ohargarririk ezer izan. Erregeren azken egintza publikoa izan zen, hortan Pontchartrain-ek urgulua hain arruntki enganatzen zaukola bere gortearen egiteko. Komedia horren bururatzeko antolamendu baten izenpetzeaz etzen ahalgetu, ondorioek erakutsi baitzuten embaxada horren falsutasuna. Entzunaldi horrek, luzea izan baitzen, Errege biziki akitu zuen. Etzateko gutiziari ihardoki zaukon bere egoitzara sartuz; dirutzetako konseilua atxiki zuen, bazkaldu zen bere mahiko ttipi ohikoan, bere burua Maintenon-go Anderearen egoitzara ereman-arazi zuen, han musika ttipia izan baitzen, eta, bere gabinetetik jalgitzean, gelditu zen La Rochefoucauld-ko dukesarendako, hunek aitzineratu baitzaukon La Rocheguyon-go dukesa bere errena, aitzineratua izana zizakon azken anderea izan baitzen. Arratsean bere alketxa hartu zuen Erregeren auharian, mahiko handian egin zuen biziko azkena. Bazkaldu eta bere egoitzan bakarrik lan egina zuen kanzelariarekin. Biharamunean emaitza andana igorri zaukon et harrieria zenbait embaxadore eder hari bi egun berantago ereman zena Chaillot-ko burjes baten etxera, eta hortik ez urrun, Havre-de-Grâce-ra, han untzira igan baitzen. Egun hortan berean zen Orziniko printzesa Erregeren izaeraz, errana den bezala, iziturik, Paristik abiatu Lyon-era joateko karrosa handian, biharamun astezkenean, Andredona-Mariako bezperan.

Bazuen urte bat baino gehiago Erregeren osagarria erortzen ari zela. Barneko mutilak ziren lehenik ohartu, eta horren aitzinatze guziak ikusi zituzten, bat ere ahoaren idekitzera menturatu gabe. Baxtartek, edo hobeki erraiteko Maine-ko dukeak ongi ikusten zuen ere, ezen, Maintenon-go Andereak lagundurik, berari zoakon guzia lehia-arazi baitzuen. Fagon, mediku lehena, izan zen barne hortan guzian deusi ohartu etzen bakarra. Maréchal, lehen barberak, aipatu zaukon aldi bat baino gehiagotan, eta beti gogorki gibelera igorria izan zen. Azkenean bere eginbideak eta atxikimenduak bultzaturik, Mendekoste hirian goiz batez Maintenon-go Andereari aiphatzera menturatu zen. Zer ikusten zuen erran zaukon, eta Fagon-ek zenbat gogorki huts egiten zuen. Segurtatu zaukon Erregek, usu pholsua hunkia baitzaukon, bazuela aspaldidanik sukar ttipi nagi bat, barnekoa; jitea hain ona zuela, nun

erremedio batzuekin eta behatuz, guzia oraino atherabidez betea zela, aldiz, gaitza hedatzera uzten baldin bazen, gehiago etzela izanzen. Maintenon-go Andereatu khexatu zen, eta (barberak) bere arthaz irabazi zuen guzia haserrea izan zen. Erran zaukon etzela Fagon-en etsairik baizik Erregeren osagarriaz hor ziona iduritzen zizeenik, hortaz ezpaitzezaketan lehen medikuaren ahalak, jarraikiak, ikasiak hutsik egin. Berezia dena da Maréchal, Fagon harritik sendatua baitzuen lehenago, hunek zuela ezarria lehen barberaren karguan, eta geroztik beti bizi izanak zirela elgarren entzute hoberenean. Maréchal sumindurik, berak errana baitauta, etzen gehiago behar ziren neurrien hartzekotan izan, eta ordutik hasi zen bere nagusiaren heriotzearen deitoratzen. Fagon, alabainan, jakitatean eta egina zuenean Europako lehenbiziko medikua zen, baina bere osagarriak etzuen uzten, aspaldidanik, bere jakinaren atxikitza, eta ahalmenak eta fagoreak hartara eremana zuten larderiako hein goienak andeatua zuen azkenean. Etzuen ez arrazoinik ez ihardespelik nahi, eta jarraitzen zen Erregeren osagarriaren bidatzen adin gutiago aitzinatuan egina zuen bezala, eta hisiaz hil-arazi zuen.

Luzaz asalaturik ukana zuen hezueriak erakarria zuen Fagon arrats oroz Erregeren troxatzera, hala erraiteko, lumazko buhurdi meta baten barnean, gau guziez izert-arazten zutela, goiz guziez thorra-arazten eta alda-arazten zuen gambarari handia eta gambarako aitoren-seme lehenak sartu baino lehen. (Erregek) etzuen urte luzez geroz edaten, bere bizi guzian hartua zuen Xampanako arno hoberenaren orde, Burgoñako arnotik baizik, uraz erdizkaturik, hain zaharra nun ahitua baitzen. Batzuetan bazion, irri eginez, usu bazirela jaun atzeritar batzu ontsa hatzemanak haren ahoko arnotik jastatu nahian. Behien ere etzuen edonoiz hutsik edan ukanik, ez eta edari edozeinik, ez the, ez kafe, ez xokolet. Jeikitzean bakarrik, ogi, arno eta ur apur baten orde, bazen biziki aspaldi hartzen zituela bi gatuluxka ihitz-belar eta igebelhar; usu aphairuen artean eta oheratzean beti baso ur batzu iranjan lore apur batekin pinterdia bazadukatenak, eta beti aro guzietan hormarekin; erremedio egunetan ere hortarik edaten zuen eta beti ere aphairuetan, hauen artean ehoiz ezpaitzuen jeusetarik jan, ezpaziren kanela pastilla batzu fruituan bere sakelan ezartzen zituenak gabinetean zituen ihiztor etzale batzuendako.

Biziko azken urtean gero eta idorrago bilakatu baitzen, Fagon-ek jan-arazten zauzkon aphairu sartzean fruituak horman, erran-nahi da mahaxuxak, meloinak eta phikoak, eta azken hauk onduaren bortxaz

ustelduak, eta desertean bertze fruitu ainitz, beti ustegabetzen zuen azukarrera andana batekin bururatzen zituenak. Urte osoan ensalada alde miragarria jaten zuen auhaltzean. Saldak, goiz eta arrats hautarik bat baino gehiago jaten baitzuen, eta bakoitzatik ainitz bertzeak bertze, gizenak zituen et ezin gehiago indarrekoak, eta jatera emaiten zizakon guzia phizkailuz betea, ohian emaiten den bikunean bederen, eta bertzela biziki azkar. Hori eta azukarrieriak etziren Fagon-en gostuko, hunek, jaten ikusten zuenean, sino biziki gozagarraik egiten zituela, jeusen erraitera menturatu gabe bizkitartean, ezpazen noiztenka Livry-ri eta Benoist-i, ihardesten baitzaukoten haier zela Erregeren jan-araztea, eta hari purgatzea. Etzuen basa-ihiziki ez larreko ez ureko mota edozeinetik jaten, baina bertzela orotarik, ezer baztertu gabe, gizen ala mehe, hau egin baitzuen beti, salbu garizuma egun bakar batzu ezpazen, hogeit bat urtez geroztik. Fruitu eta edarizko janari hori bikundu zuen uda huntan.

Azkenean, fruitu horiek saldaren ondotik urdaila itho zaukoten, egoskailuak lanpustu, gosea hautsi, etzaukolarik oraino bizi guzian huts egina, behin ere jateko gurarik ez beharrik etzuelarik ukana, zein berant ere ustegabeak bazkal-arazia bazuen zenbait aldiz. Baina lehenbiziko kullera saldetan, gosea beti idekitzen zen, berari aldi bat baino gehiagotan entzuna daukotanaz, eta hain nasaiki jaten zuen eta hain azkarki goiz eta arrats, eta hain berdinki ere, nun ezpaitzen haren ikusteari jartzen. Hainbertze ur eta hainbertze fruituek, izpiritutsurik deus ere gabe, odola usteltzera itzuli zaukoten, gemenaren ttipitzearen bortxaz, eta ahultzearen gauetako izertze bortxatu horiez, eta horiek izan ziren heriotzera ekharri zutenak, gorputzaren idekitzean ezagutu zen bezala. Alderdi guziak hain eder eta hain sano aurkitu ziren nun biziko mendea iraganen zuelako ustea izan baitzen. Urdailak oroz gainetik ustegabetu zuen, eta hertzek izariaz eta neurriz ohikoaren bikunean, hortik jin baitzizakon hain jale handia eta berdina izaitea. Etziren erremedioak gogoratu gehiago horien ordu izan etzenean baizik, Fagon-ek ehoiz etzuelakotz eri zela uste ukan, eta Maintenon-go Anderearen itsueria hortan berdina izan baitzen, nahiz ahal ziren oharpen guzien hartzen jakina ukana zuen Saint-Cyr-en eta Maine-ko dukearendako. Horren guziaren gatik, Erregek bera nola zen hek baino lehenago senditu zuen, eta erraiten zeen batzuetan barneko mutiler. Fagon-ek beti segurtatzen zuen deus egin gabe. Errege erraiten zaukonaz askiesten zen hori sinetsi gabe, baina harendako zuen adixkidetasunak gibelatzen zuen, eta oraino gehiago Maintenon-go Andereak.

Agorrilaren 14-ko asteazkenean, bere burua mezara ereman-arazi zuen azken aldikotz, Estatuko konseilua atxiki, jan gizen, eta musika handia ukan Maintenon-go Anderearen egoitzan. Gambaran auhaldu zen mahiko ttipian, han gorteak ikusi baitzuen bazkarian bezala. Gutxi egon zen familiarekin bere gabinetean, eta hamarrak hirian etzan.

Ortzegunean, Andredona-Mariaren besta, meza ohean entzun zuen. Gaua khexu eta artegatua izana zen. Jende guziaren aitzinean ohean bazkaldu zen, bortz orenetan jeiki, eta bere burua Maintenon-go Anderearen egoitzara ereman-arazi zuen, han musika ttipia izan baitzen. Mezaren eta bazkariaren artean mintzatua zen berex kanzelariarekin, Desmarets-ekin eta Pontchartrain-ekin. Bezperan bezala auhaldu zen eta etzan. Beti horrela izan zen, jeiki ahal zen bezenbat.

Agorrilaren 16-ko ortziralean, gaua etzen hobe izana; egarri eta edate ainitz. Etzuen (jendea) hamarrak hirian baizik sarr-arazi. Meza eta bazkaria ohean geroztik beti bezala, entzunaldia bere gabinetean Wolfenbüttel-en mezulari bati; bere burua Maintenon-go Anderearen egoitzara ereman-arazi zuen, han etxeko anderekin jostatu zen, eta gero musika handia izan zen.

Agorrilaren 17-ko ebiakoitzean, gaua aitzinekoa bezala. Dirutzetako konseilua atxiki zuen ohean, jende guzia bazkarian ikusi, berehala gero jeiki, gabinetean entzunaldi eman Sainte-Croix de la Bretonnière-ko ordenuko jeneralari, Maintenon-go Anderearen baitara joan, eta han kanzelariarekin lan egin zuen. Arratsean, Fagon gambaran etzan zizakon lehen aldikotz.

Agorrilaren 18-ko igandea aitzineko egunak bezala iragan zen. Fagon-ek erran nahi ukan zuen sukarririk etzuela ukan. Estatuko konseilua atxiki zuen bazkal-aitzin eta ondotik, gero hiri-harresiez lan egin ohi bezala Pelletier-ekin, gero Maintenon-go Anderearen egoitzara joan, eta han musika. Egun hortan berean Ribeira-ko kondeak, Portugalako embaxadore bereziak, hunen ama, zendua zena, Rohan-go printzearen eta kardinalaren ama baitzen, sartzea egin zuen Parisen ara handi-egin ohi gabeko batean, eta jendeari bota zilharrezko medaila ainitz eta zenbait urrezkoak. Erregeren izanarak, agerian erakusten baitzuen egun gutxi baizik iraun etzezakeela, eta haren berriak bainazkien Maréchal-en bidez Fagon-ek bere buruari eta bertzer sinets-arazi nahi zituenak baino segurragoak, gogora-arazi zautan Chamillart, baitzuen, kargutik atheratzean, Erregek eman lan-sari bat sei mila liberakoa. Horren atxikitzea eta segurtamena galdegin nauzkon Orléans-ko duke

Jaunari, eta ukan nituen berehala hari Paisera jakin-arazteko baimenarekin. Han Erregeren eritasunaz azkarki hunkia zen, eta bertze zerbaitez biziki guti. Etzen egon ene eskutitzaz gozagarriki ustegabetua izan gabe, eta biziki sendikor bere buruarendako ukana etzuen ene arthaz. Esker onezko eskutitz bat igorri zautan Orléans-ko duke Jaunari eman naukona. Ezer eztut egin atsegin gehiago eman dautanik. Gauza segetuan gelditu zen Erregeren heriotzerano; enuen astirik galdu Erreienziara heldu eta berehala aithor-arazteko.

(...)

2. Agorrilaren hemeretztik hogeita-hirura

Agorrilaren 19-ko astelehenean, gau berdin khexua izan zen, Erregek sukarra bazuela Fagon-ek aurkitu nahi ukan gabe. Bourbonne-ko uretik ekharr-arazi nahi ukan zaukon. Erregek lan egin zuen Pontchartrain-ekin, musika ttipia ukan zuen Maintenon-go Anderearen egoitzan, jakin-arazi Fontainebleau-ra etzela joanen, eta erran ondoko astezkenean jandarmeria bere galeriatik ikusiko zuela. Bere kasernetarik ekharr-arazia zuen ikustaldiaren egiteko: egun hartan zen bakarrik ohartu etzuela egin ahalko, eta leihotik Versailles-ko gorte nagusian ikusitekotan egon zen. Agorrilaren 20-ko asteartean, gaua aitzinekoak bezala izan zen. Goizean lan egin zuen kanzelariarekin; etzuen jende hautatu guti baizik ikusi nahi ukan eta minixtro atzerritarak auharian, orduan asteartea baitzuten jarria, eta oraino ere, Versailles-ra joateko. Gero dirutzetako konseilua atxiki zuen, eta lan egin Desmarets-ekin bakarrik. Etzen joan ahal izan Maintenon-go Anderearen egoitzara, eta bila igorri zuen. Dangeau-ko eta Caylus-ko Andereak onhartuak izan ziren apur bat geroxago solasaren laguntzeko. Gambarako arropan auhaldu zen bere jargian. Etzen gehiago bere egoitzatik jalgi, eta ez ere jantzi. Arratsaldea laburra aitzinekoak bezala. Fagon-ek azkenean eskaini zaukon Parisko eta gorteko mediku handienen bilkura bat.

Egun hortan berean, San-Simungo Anderea, itzul zadin lehiatua bainuen, Forges-ko uretarik ethorri zen. Errege auhal-eta bere gabinetetara sartzera zoala ohartu zizakon. Bere itzulkaria geldi-arazi zuen, egin zuen bidaiaz eta itzultzeaz onezia ainitz erakutsi zaukon, eta gero bere burua Bloin-i bultza-araziz aitzina jarraiki zuen bertze gabinetera. Mintzatu zizakon gorteko azken emaztea izan zen, ezpaititut Lévi, Dangeau, Caylus eta O-ko Andereak konduan hartzen, Maintenon-go Anderearen egoitzan jokoko eta musiketako etxekotuak baitziren, eta Erregeren egoitzara jin baitziren etzelarik gehiago athera ahal izan. San-

Simungo Andereak erran zautan arratsean Errege etzuela ezagutuko, bere etxetik bertze nunbait aurkitu balu. Marly-tik etzen Forges-ra joana uztailearen 6-an baizik.

Agorrilaren 21-eko astezkenean, laur medikuek Errege ikusi zuten, eta Fagon-en laudorioez bertzerik egitetik begiratu ziren, eta hunek purgagarria harr-arazi zaukon. Jandarmeriaren ikustea bere leihoetarik ondoko ortziralera gibelatu zuen, bazkal-ondoan Estatuko konseilua atxiki, gero kanzelariarekin lan egin. Gero Maintenon-go Anderea ethorri zen, ondotik andere etxekotuak, eta musika handia. Gambarako arropan auhaldu zen bere jargian. Zenbait egun hetan ohartzen hasiak ziren haragi jatea neke zizakola, eta ogia ere, bere bizi guzian biziki ogi guti jana baitzuen, eta aspaldidanik mamia bakarrik, hortzik etzuelakotz. Saldak nasaikiago, xehakinek biziki mehe, eta arraultzek ordaintzen zuten, baina biziki arteko moldez jaten zuen.

Agorrilaren 22-ko ortzegunean, Errege orazino gaizkiago izan zen. Bertze laur medikuak ikusi zituen, ezpaitzuten, lehenbiziko laurek bezala, Fagon-en egin-ara miragarriaren eta jakitate handien gorestez bertzerik egin, eta hunek kinkina uretik harr-arazi zaukon arratsaldera, eta gauko astaña esnetik atxik-arazi. Bezperatik ezpaitzuen uste galerian jarriko ahal zela gortean jandarmeriaren ikusteko, bere azken ahultasunerano baliatu zen Maine-ko dukearen fagoretan. Manatu zaukon beraz soldado alde hautuko horren ikustaldiaren egitera joan zadin bere orde, bere larderia guziarekin, armader horren aitzin-urrats guzien erakusteko haren baitan, bere bizizan bera balitz bezala ikustera jar ziten, eta hari fagorezko eta lausenguzko garazien emaitako haier buruz. Guise-tar eta Cromwell-en artetik sortu (gizon) ahul horrek bere buruari abantail horren eman-arazten jakin zuen, baina, kuraiak osoki huts egiten baitzaukon, beldurrak hartu zuen, Errege zen hein ezagun hortan, Orléans-ko duke Jaunak bere baitan zituen indarrak ikus litzan, eta hetaz baliatzea gogoan har lezan. Atherbean ezar ahal zezakeen erredola bat bilatu zuen beraz, eta etzizakon aurkitzea neke izan Maintenon-go Anderearen bitartez.

Ventadour-ko Andereak, bere maitale ohi eta adixkide Villeroy-ko marexalak sustaturik, zer ari zen ontsa baitzakien, eman zaukon Enejaun Delfinari ikustaldi hortara joaitako gutizia. Potroko ttipi batera igaiten hasia zen, eta joan zen Erregeri baimenaren galdegitera. Komedia hortako jokoa ageri izen zen jandarmeriako kapitainaren jantzia Jaun Delfinarendako egina bezala gertatu zelakotz, galtzak duela biziki guti

hartuak baitzituen. Erregek haur baten gutizia hori azkarki bere gostukoa aurkitu zuen, eta joaiteko baimena eman zaukon.

(...)

Egun hortan berean, agorrilaren 22-ko ortzegunean, Maine-ko dukeak Erregeren orde jandarmeriaren ikustaldia egin zuenean, Erregek manatu zaukon La Rochefoucauld-ko dukeari biharamunean jantzi batzu egin-araz zezazkon, Lorrenako dukesaren haur “François printzea” zeritzoten eta hogeita-sei urte eta Stavelo eta Malmédy-ko abadiak zituen baten doluaren uztean egoki izanen zizakonaren hautatzeko. Hemen ikusten da zenbat egun bazuen etzabilala gehiago, etzela janzten ere bere burua Maintenon-go Anderearen egoitzara ereman-arazi zuen azken egunetan, ohetik etzela jalgitzen gambarako arropan auhaltzeko baizik, medikuak gambaran eta ondoko barnetan etzaten zizazkola, eta azkenean etzezakeela gogor zenik ezer irets; eta oraino sendatzea uste zuen, hemen ikusten denaz, oraino jantzi gogo zuenaz geroz eta soineko bat hautatu nahi ukan ezartzen ahal zueneko. Ikusten da ere konseilu, lan, josteta beren jarraikitzea; gizonek ezpaitute hil nahi, eta ahal duten bezenbat eta ahal bezain luzaz hori bere buruari gordetzen baitute.

Agorrilaren 23-ko ortziralea aitzinekoak bezala iragan zen. Erregek lan egin zuen goizean A. Tellier-ekin, eta gero, jandarmeriaren ikusteko usterik ez ukanez, bere kasernetara igorri zuen. Egun hortako berezitasuna izan zen Errege etzela bere ohean bazkaldu, baina zutik, gambarako arropan. Gero jokoan ari izan zen Maintenon-go Anderearekin, ondotik andere etxekotuekin. Ordu horietan guzietan orhoitu behar da gortelari doi bat hautukoek sartzea ukan zutela haren aphairuetan, sartze handiak edo lehenak zituztenek haren mezan, eta azkenean haren jeikitzean, eta hastapenean etzatean, Orléans-ko duke Jaunak bertzek bezala, eta konseiluek eta minixtroek hutsik uzten zaukoten egunen gaineratekoa, betetzen zutela, zutik zenean bezala, baxtartek, Maine-ko Jaunak Tolosako dukeak baino biziki gehiago, eta usu Maine-ko Jauna han zagon Maintenon-go Anderearekin bakarrik, eta batzuetan andere etxekotuekin, beti sartuz eta atheraz, ohi zuen bezala, gabinetan gibleko mailalde ttipitik, hala nola nun ehoiz ezpaitzen ikusten sartzen ez atheratzen, ez eta Tolosako kondea ere; Maintenon-go Anderea eta andere etxekotuak beti aitzin-gambaretarik: barneko mutilak, ohi bezala, Erregerekin ziren, han bakarrik baxtartak zirenean edo nehor ez, baina guti, Maine-ko dukea harekin bakarrik zelarik.

Erregeren eritasunak ereman ukan behar du haren azken mugako bezperarano, orduan gertatu denarekin, jarraipena begietarik gal-arazi gabe horrekin zer ikus elukeen ixtorio luzegi batez, gauzen ordenuaren atxikitzeko. Arrazoin berak nahi du oroz gainetik haren heriotzeranoko azken orduer datxikon guzia oraino gutiago moztua izan dadin: horrek nau erakartzen bere leku berezian jarraipen hori eta hortan nahi ukan dutan zuzentasuna hautsi gabe egina izana etzatekeenaren berehala hemen ezartzera, ordenu horren atxikitzeko andeatu gabe.

(...)

Noailles-ko dukearen xede bitxi eta lanjerosak

Gorago errana dut Noailles-ko dukeak egina zautala onhartua enuen zentzu gabeko eskaintza bat, eta argitzeko orduan etzena: orai da egin behar. Hori zen Erregeren heriotzean gortean dukez aurki zaitekeen guzia joan zadin Errege berriaren agurtzera Orléans-ko duke Jaunaren eta odoleko printzen ondotik. Ordukotz noblezian moldatzen ari zen higitzearen berri bazakienez eztakit; nik enakien oraino, eta orduan segeretua oso zen. Usu berrhetu zautan ni kordokatu ahal ukan gabe eta emaiten nauzkon arrazoiner hark ihardetsi ahal ukan gabe, hobeki izanen baitira beherago bere lekuan. Bertze duke batzuer aipatu zeen ene kordokatzeko, eta hortako baliatu zen duke batzuen etxean, Errege ttipitzen ari zen arau, bonetaz parlamentuan egin behar zenaz egiten ziren bilzarre ttipi batzuez, eta batzuek bertzer horien berri emaiten baitzuten bilzarre horietako norbaiten bidez. Egiten ziren ere etxean, horietarik bertzela egoitza adixkide berezietz aski bete baintuen, aro hain bizi et hain ohargarrietan ordu batetik bertzera gertatzen zen guziaz jakin nahian, eta laster jakin-arazia izan nintzan ene bizitegiaren inguruneak gau eta egun setiatuak zaudela gorteko jende mota ororen mutil eta gambarazainez, nor sartzen zen eta jalgitzen ikusteko, han gertatzen zenaren zilatzeke, ingurune horiek egitera utz zezaketen bezenbat.

Noailles-ko dukearen egoitzara igan nintzan eta bakarrik aurkitu nuen arrats batez aski goizik, arrazoinkatzen hasi zizatan estatu jeneralen biltzeko xedearen utz-arazteko, eta hoin xede ederraz mila laudorioen artetik, beretako horren trabak sendi baitzituen, eta dirutzen adminiztratzeko zuen tirrian xedatua zuen helburutik zenbat zuen urrunduko, bilzarre horren traba et neken erakustera entsegatu zen. Gero indar egin zuen jende elementia horren lanjerraren eni sendi-

arazteko Orléans-ko duke Jauna zen bezalako printze batekin, eta harekin bakar izaiterearen abantailaren. Luzaz elheztatu zen gauza handirik erran gabe: apurka apurka bere harnesean alegia berotuz bezala, baina gogo guzia bazatzikala, hitzak eta behakoetarano: “Eztituzu nahi ukan, erran zautan, dirutzeak (Orléans-ko duke Jaunak errana zaukon), ezer eztuzu zuzenean zure gain hartu nahi; arrazoin duzu: zure burua badatzikazu orotan izaiteko, eta Orléans-ko duke Jaunari bakarrik eratxikitze: harekin ziren heinean etzinezake hobeki egin; zu eta ni biak elgar entzunez, hartaz nahi duguna eginen dugu; baina hortako, gaineratu zuen, ezta dirutzeekin aski, bertze alderdiak behar ditut; eztugu nehorekin kondurik ukan behar.”

Entzuten nuen, handizki estonaturik, ideki bat hoin bere baitakoa, hoin agertua, hoin guti neurtua Orléans-ko duke Jaunaz eta Estatuaren onaz, eta beharriak eta adimena xut nindagon hoin erranaldi bitxietarik nora joan nahi zuen zilatze, bilatze arthatik athera ninduelarik: “Estatu jeneralak, jarraiki zuen, hartarik atherako etziren nahasmendu bat dira; lana maite dut, zintzoki baderrautzuket; jin zatan gogoeta bat da, hobe delat uste dut; berriz ere, ar gaiten elgarrekin, ontsa adi dezagun, egin-araz nezazu lehen minixtro, eta nagusiak izanen gira. - Lehen minixtro!” hautsi nuen haren erranaldiak eman zautan sumintzearekin, atxikia nuena, eta bururapen horrek mukurreratu zuena: “Lehen minixtro! jauna, nahi dut bada jakin dezazun lehen minixtro bat egiteko balitz, eta horren gutizia baldin banuke, ni ninzatekeela, eta uste dut ere eztukezula eni ereman zinezakeela sinesten; baina diotzut Orléans-ko duke Jaunak bere konfienxiako zerbaitez ohoratuko naueno, ez ni, ez zu, ez bizi den gizonik eztela nehoiz lehen minixtro izanen, horren kargua eta botherea Estatuaren helgaitza, izurria eta hondamena bezala ikusten baititut, bere buruari nagusi bat emaiten duen eta hau jasaiten duen Errege edo Erreient baten laidagarri eta presozaia, ezpaita gehiago, bothere orotako, horren tresna eta erredola baizik.” Hitz zenbait gaineratu naukon oraino marrazki zuzenegi eta lañoegi horri, begiak beti ene gizonari lotuak, begitartean agerian zuela eragozpenaren, hisiaren, ustegabetzearen soberakina, eta bizkitartean aski bere buruaren jabe gogo berdin baten itxuratzeko, gauza uzten zuela ihardesterano, ara arinduenarekin, ezaxolatuenarekin; gogoeta hori jina zizakola eta ona iduritua aithortuz.

Goga daiteke horren ondotik solasa ahitu zela eta etzuela iraun elgarretarik ohorezki berexi eta bier phizu bilakatua zizaukun buruz-

buruko hortarik athera ahal ginen bezenbat baizik. Asma daiteke ere ene gogoetak barna joan zirela. Ontsa urrun ziren alta oraino ikusiko denetik eta erraiteko ordu eztenetik. Noailles-ko Jaunak ikusi ninduen biharamunean berean, eta beti lehen minixtroa gure artean aipatu izana ezpaltz bezala. Horrela bizi izan ginen zenbait egunez, Erregeren azken egunetarano heldu zirenak, ezen erranen dutanaren ondotik oraino hirurez bizi izan baitzen.

Jadanik errana dut Erregeren izanara etsituak eta herstuak ekharriak zituela dukeak elgarrekin ikustera, bilzarre ttipi berezi eta ixiletan, parlamentura joanen zirenean Erreienziako zer eginen zuten orduan baitezpada gertatuko zen “bonetaren” egitekoaz, eta batzuek bertzer jakin-arazten zeetela bilzarre ttipi horietan zer egiten zen. Arratseko sei-zazpi orenak hirian, Noailles-ko dukea ethorri zizatan gambarara, han gauza hortaz ari baiginen Mailly Reims-ko arxapezpikua, Sully, La Force eta Charost-ko dukeak, nik dakita nor oraino, eta Humières-ko dukea, nahiz hau etzen pare, zuela guti ethorriak zirenekin. Noailles-ko dukearekin jarraiki zen, ezpaitzuen gauza handirik erran, eta abantzu berehala gaia hautsi baitzuen, eta Errege (berriaren) agurtzea aitzineratu argitua zautan bezala. Hanbat gehiago ustegabetua izan nintzan nun, gelditu gabe hortaz nardatu ondoan, hamabortz egunez goiti baitzen gehiago etzautala aipatzen, eta uste bainuen ene arrazoinetara jina zela, errepikatzetik eta aipatzetik gelditua zenaz geroz. Ene ustegabetzea erakutsi naukon eta zein urrun nintzan mota hortako berrikeria baten hautestetik.

Ohartu behar da orduan zenbait dembora bazuela aipatu ditutan nobleziaren higitzek harrabots azkarra egiten zutela, eta solasaldi guzietako berria eta gai nagusia bazegitela. Noailles-ko Jauna hisitu zen, moztu ninduen, mintzariaren doinua hartu zuen, larderiazko itxura, Harcourt-ko marexalaren etxean elgar ikusia zuten duken aburuaz lagundua zela erran, eta, eneak baino biziki azkarragoko birien indarraren bortxaz, hitza ereman, enea beti ithotzen zuela. Haserrez eta ezin-egonez igan nintzan ene leihoetako mailera eta harmairuan jarri, hobeki entzuna izaiteko zela erranez, eta nahi nuela nik ere ene aldian mintzatu. Hanbat surekin mintzatu nintzan, nun jaun horiek Noailles ixil-arazi baitzuten beti jarraiki nahi zuelarik, aldi bat edo biez mozten ninduela lehenik, eta lardريان ezarri bainuen azkenean, entzuna izan nahi nuela erranez, eta ezkinela hor haren aitzinean izaiteko “on bazinu

nagusia” erranez. Jaun horiek entzun nahi ukan ninduten eta mintzatzera utz nindezan bortxatu zuten.

Erregeren eritasun eta heriotzeko egunkaria (II)

1. Agorrilaren hogeita-hirurtik hogeita-zazpira eta testamenduaren eranskina

Agorrilaren 23-ko ortziralean, gaua ohi bezala izan zen, eta goiza ere. Erregek lan egin zuen A. Tellier-ekin hunek debaldetan indar egin baitzuen hutsak ziren benefizio handi eta ainitzetara izenda-arazteko, erran nahi da berak horien erabiltzeko, eta ez uzteko Orléans-ko duke Jaunak eman zitzaiz. Berehala erran behar da Errege gehiago gaizkitu zela, are gehiago A. Tellier-ek hortaz hertsatu zuela, hoin harrapakin aberatsaren ihes egitera ez uzteko, ez eta bere eskuko segurrez jabetzeko aldiaren, horiekin bere tratuak eginak baitzituen, ez diruz, baina alderdiz. Ehoiz etzen heldu ahal izan. Erregek erran zaukon bazuela kondu aski Jainkoari emateko izendatze horienak oraino bere gain hartu gabe, haren aitzinean agertzeko hain hurbil, eta gehiago aipa zitzaion debekatu zaukon. Gambaran zutik bazkaldu zen gambarako arropan, han gortelariak ikusi zituen, eta auharian berdin, arratsaldea bere egoitzan iragan bi baxtartekin, Maine-ko Jauna gehienik, Maintenon-go Andere eta andere etxekotuekin. Egun hortan berean zuen jakin Maisons-en heriotzea, eta kargua haren semeari eman, Maine-ko dukearen othoitzez.

Ezta urrunago joan behar Erregeren bizitegiko mekanika argitu gabe, handik jalgitzen etzen geroztik. Gorte guzia egun osoan galerian zagon. Nehor etzen haren gambarari hurbilena zen aitzin-gambaran gelditzen, mutil etxekotuak ezpaziren, eta farmazia, behar zena han bero-arazten baitzuten; handik iragaiten zen bakarrik, eta laster, athe batetik bertzera. Sartzeak beti hetsirik zagon eta galeriatik hara bazeman athe berinadunetik iragaiten ziren gabinetetara, ezpaitzen kharrakatzen zenean baizik idekitzen, eta berehala hesten. Minixtroak eta Estatuko segetariak hara sartzen ziren ere, eta guziak galeriari zatxikakon gabinetean zauden. Odoleko printzeak, ez eta Erregeren alaba printzesak etziren aitzinago joaiten, Erregek galdegiten ezpazituen, abantzu batere gertatzen etzena. Maréchal, Fagon eta gambarako lehen mutilak etzirenean gambaran, Villeroy-ko marexala, kanzelaria, bi baxtartak, Orléans-ko duke Jauna, A. Tellier, parropiako erretora konseiluko gabinetean zauden, Erregeren gambararen eta hartan odoleko printze ‘ta

printzesak, sartzeak eta minixtroak zauden bertze gabinet baten artean dena.

Tresmes-ko dukea, urteko zen gambarako lehen aitoren-semea, athean zagon, bi gabinetean artean, idekirik egoiten baitzen, eta etzen Erregeren gambaran sartzen bere zerbitzu baitezpadako ephe batzuetan baizik. Egun osoan ehor etzen Erregeren gambaran sartzen konseiluko gabinetetik baizik, lehenbiziko aitzin-gambaran zauden barneko mutil horiek eta farmazia ezpazen, Maintenon-go Anderea eta andere etxekotuak, eta, bazkari eta auhariko, zerbitzua eta sartzera uzten ziren gortelariak. Orléans-ko duke Jaunak egunean aldi bat edo biez baizik gambaran ez sartzeari azkarki behatzen zuen, ephe labur bateko, Tresmes-ko dukea sartzen zelarik, eta egunean aldi bat bertze ephe batez gambaran konseiluko gabinetaren athera aitzinatzen zen, Erregek han bere ohetik ikus baitzezakeen. Batzuetan galdegiten zituen kanzelaria, Villeroy-ko marexala, A. Tellier, bekan minixtro zenbait, Maine-ko Jauna usu, guti Tolosako kondea, bertzerik ez, ez eta Rohan eta Bissy-ko kardinalak ere, usu sartzeak zauden gabinetean baitziren. Batzuetan Maintenon-go Anderearekin bakarrik zelarik, jin-arazten zuen Villeroy-ko marexala, edo kanzelaria, edo biak, eta biziki usu Maine-ko dukea. Madame eta Berry-ko dukesa Anderea etziren batere gabinet horietara joaiten, eta etzuten Errege abantzu behin ere ikusten eritasun hortan, eta baldin bazoazin, aitzin-gambaretarik zen, eta berehala atheratzen.

24-ko ebiakoitzean, gaua etzen ohian baino biziki gaitzago izan, guziak hala baitziren. Baina zangoak ainitzez gaizkiago iduritu zuen, eta oinaze gehiago egin zaukon. Meza ohi bezala, bazkaria ohean, han sartze gabeko gortelariak ikusi baitzuten: gero dirutzetako konseilua, eta kanzelariarekin bakarrik lan egin zuen. Ondotik jin ziren Maintenon-go Anderea eta andere etxekotuak. Auhaldu zen zutik gambarako arropan, gortelarien aitzinean, azken aldikotz. Ohartu nintzan etzuela urturik baizik jan, eta ikusia izaitea neke zizakola. Etzuen bururatu ahal, eta gortelarier erran zeen iragan ziten othoizten zituela, erran nahi da athera ziten. Bere burua berriz ohean ezarr-arazi zuen; zangoa ikertu zizakon, orbain beltz batzu agertu baitziren. A. Tellier-en bila igorri zuen, eta kofesatu zen. Nahasmena jarri zen medikuen artean. Esnea eta kinkina entsegatuak izanak ziren; bat eta betzea ekhendu ziren zer egin jakin gabe. Aithortu zuten uste zutela sukar nagi bat bazuela Mendekostez geroztik, eta ezer ez eginik desenkusatzen ziren erremediorik nahi etzuelakotz, eta etzutelakotz berek hoin gaizki zela uste. Aro hori baino

lehen Maréchal-en eta Maintenon-go Anderearen artean gertatua zenaz ekharria dutanetik, zer sinetsi behar den ikusi behar da.

Agorrilaren 25-eko igandean, San Luis-en besta, gaua aitzinekoak baino ontsa gaixtoagoa izan zen. Lanjerra etzen gehiago mixterioan utzi, eta berehala handia eta hurbil-hurbila. Bizkitartean, nahi ukan zuen garbiki egun hortako arau ohituan jeus aldatua izan etzadin, erran-nahi da atabalek eta zaramiolek, leihoen beherera jinak baitzizazkon, eman zezoten, atzarria izan orduko, bere ohiko musika, eta berdin hogeitaur arrabitek jo zezaten aitzin-gambaran bazkaltzen ari zelarik. Gero bakarrik egon zen Maintenon-go Anderearekin, kanzelariarekin, eta apur bat Maine-ko dukearekin. Bezperan paperra eta tinta izanak ziren kanzelariarekin buruz-buru egina zuen lanean; izan ziren ere egun huntan, Maintenon-go Anderea han izanez, eta kanzelariak haren manupean (testamenduko) eranskina izkiriatu zuen bietarik bat da. Maintenon-go Andereari eta Maine-ko Jaunari, hunek beti berea gogoan baitzuen, etzizeen Erregek hunendako testamenduarekin aski egina zuela iduritu; hori eranskin batez hobetu nahi ukan zuten, erakusten zuela aldi berean azken hein hortan Erregeren ahuleziaz egin zuten zuzengabeko baliatze izigarria, eta handi-nahiaren soberantzak gizon bat norano baderamakeen. Eranskin hortaz, Erregek ezartzen zituen erret-etxe zibil eta militar osoa artekorik eta salbuespenik gabe Maine-ko dukearen azpian, eta hunen manupean Villeroy-ko marexalarenean, hauk, antolamendu hortaz, Erregeren personaren eta egoitzako lekuaren nagusi bakarrak bilakatzen baitziren; Pariserenak, zaintzaletako bi erreximenduen eta musketarien bi kompainien bidez; barneko eta kampoko zaintzaleria guziarenak; zerbitzu osoarenak, gambara, jantzitegi, kapera, ahoko, zalditegi; hanbatetan nun Erreientak ezpaitzuen gehiago larderia arinenaren itzala ere, eta haien menean gertatzen baitzen, eta preso hartua izaiteko izanara jarraikian, eta gaizkiago, Maine-ko dukeari laket izanen zizakon aldi oroz.

Kanzelaria Erregeren egoitzatik athera eta guti ondotik, Maintenon-go Andereak, han gelditua baitzen, ekharr-arazi zituen andere etxekotuak, eta musika arratseko zazpietan ethorri zen. Bitartean Errege anderen solasaldian lokartua zen. Burua nahasirik atzarri zen, horrek izitu baitzituen eta medikuak dei-arazi. Pulsua hain gaixtoa aurkitu zuten nun ezpaitziren zalantzan egon Erregeri eskaintzeko, bere nahastetik itzultzen ari zen artean, sakramenduan hartzea gibela etzezan. A. Tellier-en bila igorri zen eta Rohan-go kardinalari mezu, bere

egoitzan baitzen kompainiarekin, eta jeus holakorik ezpaitzuen gogoan; bitartean musika igorri zen bere liburuak eta soinuak ja prestatuak zituelarik, eta andereak jalgi ziren.

(...)

Oren laurden batez, musika eta andereak igorri ondoan, guzia egina izan zen. A. Tellier-ek Errege kofesatu zuen, Rohan-go kardinala azken sakramenduen hartzera joan zelarik kaperara, eta erretoraren eta olio sainduen bila igorri zuelarik. Erregeren bi elemosinari, kardinalak deiturik, laster ethorri ziren, eta zazpi-zortzi zuzi jauregiko mutil urdin batzuek ekharririk, Fagon-en bi morroin, eta Maintenon-go Anderearen bat. Multzo biziki ttipi hori Erregeren egoitzara igan zen gabinetetako mailalde ttipitik, hautarik jin baitzen ere gambarara kardinala. A. Tellier-ek, Maintenon-go Andereak, eta hamabi bat sartzek, jaun eta mutil, han hartu zuten sakramendu saindua eta hari jarriki ziren. Kardinalak bi hitz erran zauzkon Erregeri egintza azken eta handi hortaz, hortan Errege agertu baitzen biziki bermu, baina egiten zuenaz biziki hartua. Gure Jainkoa eta olio sainduak hartuak ukan zitueneko, gambaran zen guzia athera zen sakramendu sainduaren aitzinean edo ondotik; etziren han Maintenon-go Anderea eta kanzelaria baizik gelditu. Berehela, eta berehala hori bitxi izan zen, ohearen gainera ekharri zen halako liburu edo mahi ttipi bat; kanzelariak eskaini zaukon (testamenduaren) eranskina, hunen azpian lauzpabortz lerro bere eskuz izkiriatu baitzituen, eta gero kanzelariari itzuli zaukon.

Erregek edatera galdegin zuen, gero Villeroy-ko marexala deitu, gambaratik konseiluko gabineterako athean baitzagon hautatuenetarik biziki gutiekin, eta oren laurden batez mintzatu zizakon bakarrik. Orléans-ko duke Jaunaren bila igorri zuen, mintzatu baitzizakon bakarrik ere Villeroy-ko marexalari egina zaukon baino gehiago. Ainitz estimu, adixkidantza, konfiexia erakutsi zaukon; baina izigarri dena, oraino ukan berria zuen Jesu-Kristo ezpainetan, segurtatu zuen hartaz askietsia izan behar etzaitekeen deus etzuela aurkituko testamenduan, eta gero gomendatu zauzkon Estatua eta gero Erregearen persona. Komunionearen eta oliaduraren eta solasaldi horren artean, etzen oren erdi bat izan; etzituen ahatzi ahal ukanak hanbat nekerekin ekhenduak zauzkoten antolamendu bitxiak, eta bitartean berriz hunkia zuen eranskina eta hain berriki, ganibeta Orléans-ko duke Jaunaren zintzurrean ezartzen zuena, eta giderra Maine-ko dukearen eskura emaiten. Arraro dena da solas berezi horren harrabotsak, Erregek

Orléans-ko duke Jaunarekin ordurano ukana zuen bakarra, Erreient aithortua izana zelako berria ibil-arazi zuela.

Joana izan zeneko, Maine-ko dukea, gabinetean zena, deitua izan zen. Errege mintzatu zizakon oren laurden bat baino gehiago, gero Tolosako kondea deitu zuen gabinetean zena ere, hau egon baitzen Errege 'ta Maine-ko dukearekin hirugarren bertze oren laurden bat. Etzen mutil guti baizik beharrenetarik Maintenon-go Anderearekin gambaran. Hau etzen hurbildu Errege Orléans-ko duke Jaunari mintzatu zeno. Ordu hortan guzian, Erregeren hirur andere baxtartek, Dukesa Anderearen bi semek eta Conti-ko printzeak ukana zuten gabinetera jiteko astia. Erregek bururatua ukan zuenean Maine-do dukearekin eta Tolosako kondearekin, odoleko printzeak deitu zituen, ikusiak baitzituen gambaran gabineteko athean, eta etzeen elgarrekin gauza guti baizik erran, eta berezian ez eta aphaletik deus. Medikiak abantzu aldi berean aitzinatu zizazkon zangoaren lotzeko. Printzeak athera ziren, eta behar-behar zena baizik etzen gelditu eta Maintenon-go Anderea. Hori guzia iragaiten ari zen bitartean, kanzelariak hartu zuen Orléans-ko duke Jauna konseiluko gabinetean berex, eta eranskina erakutsi zaukon. Erregek lotu-eta jakin zuen printzesak gabinetean zirela; dei-arazi zituen, bi hitz erran gora-gora, eta haien nigarren estakuruz, jaon ziten othoiztu zituen, atsedan hartu nahi baitzuen. Sartua zen gutiarekin athera ziren, oheko erridaua apur bat hetsia izan zen; eta Maintenon-go Anderea gibleko gabinetetara iragan zen.

Agorrilaren 26-ko astelehenean gaua etzen hobeia izan. Lotua izan zen, gero meza entzun zuen. Gambaran behar zen bakar hura zen, mezaren ondotik athera zena. Erregek egon-arazi zituen Rohan-go eta Bissy-ko kardinalak. Maintenon-go Anderea ere egon zen beti bazegien bezala, eta harekin Villeroy-ko marexala, A. Tellier eta kanzelaria. Bi kardinalak deitu zituen, Elizaren sinestean eta menpean hilzen zela aithortu, eta gero haier behatuz gaineratu gaitzitua zela Elizako egitekoen uzteaz ziren izanaran, hortan osoki ezjakina zela; bazakitela, eta hortaz lekuko egiten zituela, ezer etzuela egin hek nahi ukana zutena baizik; nahi ukana zuten guzia egina zuela; haier zizeela beraz harendako Jainkoaren aitzinean hortan egina zenaz guziaz ihardestea, eta gehiegiaz ala eskasegiaz; goraki ziola berriz ere hori Jainkoaren aitzinean haien gain emaiten zuela, eta bere konzienzia hortaz garbi zuela, egiteko hortan jarraiki zen guzian haien eskuetara osoan emana zen ezjakin batek bezala. Zer ortzanz ukaldi izigarria! baina bi kardinalak etziren hortaz

izitzekotan, haien gogo berdina atheka guzietara egina zen. Etzuten ihardetsi segurtasunez eta laudorioz baizik; eta Errege errepikatzen, bere ezjakinean, uste ukana zuela bere konzienziarendako ezin zezakeela konfienxia osoan hek bidatua izaita baino hobeki egin, horrek haien gainera arintzen baitzuen Jainkoaren aitzinean. Gaineratu zuen, Noailles-ko kardinalaren aldera, Jainkoa lekuko, etzuela hastiatzen, eta beti nardatua izana zela haren kontra egin behar zuela uste ukana zuen guziaz. Azken hitz horietan, Bloin, Fagon, zen bezain aphaldua eta gortelaria izanik ere, eta Maréchal-ek, han baitziren eta Erregeri aski hurbil, elgarri behatu zuten et galdegin erdi gora erdi ahapetik Errege hiltzera utziko zenez bere arxapezpikua ikusi gabe, eta horrela baketze eta barkamendurik erakutsi gabe, ekhendu behar zen eskandala zela. Erregek, entzun baitzituen, berriz hitza hartu zuen, eta erran ez bakarrik etzuela hortako higuntasunik senditzen, baina nahi zuela.

Hitz horrek bi kardinalak balditu zituen bere arintzeko Erregek egin berria zeen Jainkoaren aitzinera deitzeak baino gehiago. Mantenon-go Anderea izitua izan zen; A. Tellier ikaratu zen. Erregeren baitan konfienxiaren itzultze batek, bihotz onezia eta egiaren bertze batek artzainaren baitan herabetu zituzten. Errespetuak eta beldurrak bertze gogamen hertsagarriagoen aitzinean ihes egiten duten ordu baten lotsa izan ziren. Eragozpen handi hortan ixila zen nagusi. Erregek hautsi zuen kanzelariari manatuz Noailles-ko kardinalaren bila berehala igor zezan, jaun horiek, Rohan-go eta Bissy-ko kardinaleri so eginez, eragozkairik ikusten ezpazuten. Biek elgarri behatu zuten, gero leiho aldera urrundu, A. Tellier, kanzelaria eta Mantenon-go Anderearekin. Tellier-ek oihiu egin zuen ahapetik et Bissy-k lagundu zuen. Mantenon-go Andereari gauza lanjerosa iduritu zizakon; Rohan-ek, eztiago eta geroaz politikariago, jeus etzuen erran; kanzelariak ere ez. Deliberatu zen azkenean ikustaldi horren bururatzea hasia eta hortara eremana zuten bezala, Errege enganatzuz eta hartaz jostatuz. Hurbildu zizazkon eta entzun-arazi, laudorio ainitzekin, etzuela alderdi ona bere etsaien irabaziaren irriskuan ezarri behar, eta Erregeren gogo onetik eta konzienziako beratasun soberakinetik baizik etzoan urrats batetik athera zezaketenarenean; horrela baiezten zutela ba Noailles-ko kardinalak haren ikusteko ohorea ukan zezan, baina konztituzioea onhartuko baldin bazuen, eta hori hitzemanen. Hortan ere Errege haien aburura jarri zen, baina arrazoinkatu gabe, eta ordu berean kanzelariak horrela izkiriatu zuen, eta Noailles-ko kardinalaren gana igorr-arazi.

Erregek onhartua ukan zueneko, bi kardinalak lausengatu zuten eginen zuen egintza handiaz (hain zuten beldurra handia ukan baldintzarik gabe ikusi nahi ukaitera itzul zadin, artea hanbat ezteusekoa eta ikus errexa baitzen), edo Noailles-ko kardinala erakarriz, edo haren ezaz bai Elizaren nahasteko hisi ezin garhaitua, bai guzia zor zaukon, eta besoak zabaltzen zauzkon Errege bati eskergabe osatua agerian emanez. Azken hori zen gertatu. Noailles-ko kardinala doluak hartu zuen jukutriaren azken mukurru hortaz (...) Gauza xeheki jakin zenean, eta Erregek bi kardinaler erran zeena, konztituzionearen aldera egina zuen guziaz harendako eman beharko zuten konduaz, eta hor berean Noailles-ko kardinalari zioakonaz gertatua zenaz, orotako sumindurak harresiak hautsi zituen, eta jendeak etzuen bere burua gehiago hertsatu; nehor ez aldiz Noailles-ko kardinalaz gaitzerran zuenik, kanzelariari egin zaukon ihardespena hitz gutiz erlisione, dolu eta zuhurtziazko nagusi lan bat izan baitzen.

2. Luis XIV-garrenaren azken erranak eta agorrileko 26, 27 eta 28-ak

Astelehen hortan berean, agorrilaren 26-a, bi kardinalak atheraiak izan zirenean, Errege ohean bazkaldu zen sartzeak zituztenen aitzinean. Mahikoak ekhentzen ari zirenean hurbil-arazi zituen, eta hitz hauk erran, ordu berean hartuak izan zirenak: *“Jaunak, barkamendu eskatzen dautzuet eman dautzuetan behazun gaitzaz. Behar zituztet zerbitzatu nauzuen araz ontsa eskertu, eta beti erakutsi dauzkitazuen atxikimendua eta leialtasuna. Ontsa kehexu niz zuendako egin nabiko nuen guzia ez eginik. Aro gaitzek egin dute. Galdegiten dautzuet ene semabitxiarendako enetako ukan duzuen artha eta leialtasun bera. Atheka gaixto ainitz ukan dezazkeen haur bat da. Zuen behazuna hala izan bedi bertze menpeko guzientzat. Jarraik zaitezte ene ilobak emanen dauzkitzuen manu guzieri, erresuma gobernatuko du. Ontsa eginen duelako esperanza dut; batasunari emanen zirezelakoa ere badut, eta norbait hortarik urruntzen balitz, itzultzera lagun zinezaketela. Berazten ari nizala senditzen dut, berazten zituztet ere, barkamendu eskatzen dautzuet. Goraintzi, jaunak, nitaz zenbait aldiz orboituko zirezelakoan nago.”*

Jende guzia atheraia izan eta apur bat berantago, Erregek galdegin zuen Villeroy-ko marexala, eta hari erran ontsa gogoan atxiki zituen hitz hauk berak, eta jakin-arazi dituenak: *“Jaun marexala, hiltzean ene adixkidantzaren eta konfienxiaren lekukotasun berri bat emaiten dautzut. Delfinaren gobernari egiten zitut, eman dezazuketan kargu handiena baita. Ene*

testamenduan denetik jakinen duzu zer egin beharko duzun Maine-ko dukearen aldera. Ez tut dudatzun ni hil ondoan zerbitzatuko nauzula bizian egin nauzun leialtasun berarekin. Ene iloba zurekin beti maitatu dutan gizon batendako ukan behar duen estimuan eta konfianzian biziko delako esperanzan nago. Goraintzi, jaun marexala, nita orhoituko zirelako ustean nago.”

Erregek, ephe zenbaiten buruan, dei-arazi zituen Duke Jauna eta Conti-ko printze Jauna, gabinetetan baitzauden; eta sobera hurbil-arazi gabe, printzen arteko batasuna gomendatu zeen, eta etzaitezen etxekoen behazunari jarraik nahasmenetan eta gerletan. Etzeen gehiagokorik erran; gero emazte batzu entzunez gabinetetan, nor ziren ontsa asmatu zuen, eta berehala sar ziten galdegin. Berry-ko dukesa Anderea, Madame, Orléans-ko dukesa Anderea ziren, eta odoleko printzesak garrasiaka, Erregek erran baitzeen etzela oihuka horrela ari izan behar. Adixkidantza labur batzu egin zezteen, Madame-i bereziki, eta bururatu Orléans-ko dukesa Andereari eta Dukesa Andereari elgarrekin bake ziten gomendatuz. Hori guzia labur izan zen, eta igorri zituen. Gabinetetara joan ziren azkarki nigarretan eta oihuz, horrek sinets-arazi baitzuen kampoan, leihoak idekiak izanez, Errege hila zela, harrabots hori Parisera eta probinzietarano joan baitzen.

Zenbait ephe berantago manatu zaukon Ventadour-ko dukesari Delfina ekhar zezon. Hurbil-arazu zuen eta hitz hauk erran Maintenon-go Anderearen eta bildu zituzten minkienik hautatu guti-gutiaren edo behar ziren mutilen aitzinean: *“Haurra, errege handi bat izanen zira; nik bezala etzazula egin eraikuntzetako ukan dutan gostuan, ez eta gerlako ukan dutanean; indar egizu, aldi, zure auzoekin bakean izateko. Emo zu Jainkoari zor dauko zu; aithor xkizu haren gana dituzun eginbeharrak, zure menpekoer ohorara ezeezu. Jarraik xai xkie beti aholku oner; zure jendalden arintzera indar egizu, aski xorigaitzekoa bainiz hori ez egin abal ukanik. Etzazula abatx Ventadour-ko Andereari zor dauko zuen esker ona. Anderea, hari mintzatuz, besarka dezadan, eta besarkatzean erran zaukon: Haur maitea, benedizionea bihotz guziaz emaiten dautzut.”* Printze ttipia ohearen gainetik ekhendua izan zenean, berriz galdegin zuen, berriz besarkatu, eta, eskuak eta begiak zerura goitituz, berriz benedikatu. Ikusgarri hori ezin gehiago hunkigarria izan zen; Ventadour-ko dukesa lehiatu zen Delfinaren ekhentzera eta bere bizitegira eremaitera.

Arte labur baten ondotik, Erregek dei-arazi zituen Maine-ko dukea eta Tolosako kondea, gambaran zen guti hura jalgi-arazi eta atheak hets-arazi. Solasaldi berezi horrek aski luzaz iraun zuen. Gauzak

bere ohiko lerroan ezarririk, haiekin bururatua ukan zuenean, bere egoitzan zen Orléans-ko duke Jaunaren bila igorri zuen. Mintzatu zizakon biziki ephe laburrez eta berriz deitu zuen atheratzera zoala labur izan zen bertze zerbaiten erraiteko oraino. Hor zaukon manatu ereman-araz zezan, hila izanen zen orduko, Errege berria Vincennes-ra, han airea ona baitzen, Versailles-en zeremoniak bururatuak izan eta gero jauregia ontsa garbitu arteo, nahi baitzuen han egon zadin. Badiduri aitzinean hori Maine-ko dukeari eta Villeroy-ko marexalari aipatua zeela, ezen Orléans-ko duke Jauna athera eta, manuak eman baitzituen Vincennes-en mubleztatzera joaiteko, eta berehala leku horren ezartzeko bere ondokoaren ukaiteko heinean. Maine-ko Anderea, ordu arteo Sceaux-tik higitzeko nekea hartua etzuen, bere kompainiekin eta jostaketekin, Versailles-ra ethorria zen, eta Erregeri eskatu zaukon bere manuak eman ondoan ephe batez ikusteko baimena. Jadanik aitzin-gambaran zen: sartu zen eta doi bat berantago jalgi.

Agorrilaren 27-ko asteartean nehor etzen Erregeren gambaran sartu, salbu A. Tellier, Maintenon-go Anderea, eta mezako bakarrik Rohan-go kardinala eta aldiko bi elemosinariak. Bi orenak hirian, kanzelariaren bila igorri zuen, eta, harekin eta Maintenon-go Anderearekin bakarrik, idek-arazi zauzkon bi untzitto paperrez beteak, hetarik ainitz erre-arazi baitzuen, eta manuak eman baitzauzkon bertzez zer egin zezan nahi zueneko. Arratsaldeko seiak hirian, kanzelaria deitu zuen oraino. Maintenon-go Anderea etzen gambaratik egun osoan athera, eta mutilak salbu nehor etzen sartu, eta arteka, zerbitzu beharrezkoena agertu zen. Arratsera A. Tellier dei-arazi zuen, eta hari mintzatu eta abantzu berehala, Pontchartrain-en bila igorri zuen, eta hari hila izanen zen orduko Parisen jesuisten botu-etxera bere bihotzaren ereman-arazteko manua eman, eta han bere aita erregerenaren parrean ezarr-araztekoa, molde berean.

Apur bar berantago, orhoitu zen Cavoye-ek, bere etxeko egoitzetako marexal handiak, etzituela behin ere gorteko egoitzak Vincennes-en eginak, baitziren berrogei-ta-hamar urte gortea etzela hara joana; erakutsi zuen jauregi horren planak hartan ziren untzitto bat, eta har zezaten eta Cavoye-ri ereman manatu. Manu horiek eman eta apur bat berantago, Maintenon-go Andereari erran zaukon beti entzuna zuela hiltzera deliberatzea neke zela erraiten; hari zoakonaz, gizonendako hain laztagarri den ordu hortako heinean zela, etzuela delibero hori hartzeko hain gaixtoa aurkitzen. Hark ihardetsi zaukon ainitz hala zela jendendako

atxikimendua bazenean, bihotzean herra, itzultzeak egiteko. “*Ha! egin zuen Erregek, itzultzerik, jende berezi bezala nebori ez tut egin behar dutanik; baina erresumari zor ditutanez, Jainkoaren urrikiari nago.*” Jarraiki zen gaua biziki nahasia izan zen. Noiz nahi ikusten zizazkon eskuak biltzen, eta entzuten zen osagarrian ohituak zituen othoitzen erraiten, eta *Confiteor*-ean bulharraren joiten.

Agorrilaren 28-ko astezkenean, egin zaukon goizean Maintenon-go Andereari huni guti gustatu zizakon adixkidantza bat, ezpaitzaukon hitz bat ihardetsi. Erran zaukon haren uzteaz konsolatzen zuena, zen adinean, laster elgarretaratuko zirela zela. Arratseko zazpiak hirian, A. Tellier dei-arazi zuen, eta hau Jainkoaz mintzo zizakolarik, ikusi zituen gambarako mirailan bi gambarako mutil ohe-zangoan jarriak eta nigarrez ari. Erran zeen: “*Zergatik nigarrez ari zirezte? hil ezina ninzala uste ukan duzuea? Ez tut hala uste ukan, nik, eta behar ukan duzue, dutan adinean, ene galtzearen beha egon.*”

Halako bilaun probenzatar batek, biziki arruntak, jakin zuen Erregeren azken heina Marzellatik Pariserako bidean, eta goiz huntan Versailles-ra ethorri zen gangrena, zion, sendatzen zuen erremedio batekin. Errege hain gaizki zen, eta medikuak hain ezinduak, nun nekerik gabe onhartu baitzuten Maintenon-go Anderearen eta Maine-ko dukearen aitzinean. Fagon-ek zerbait erran nahi ukan zuen; bilaun horrek, Le Brun izendatzen zena, biziki abreki erabili zuen, hortaz Fagon, bera bertzen gaizki erabiltzen ohitua eta hetaz ikaratzerano errespetatua izaiten, dena balditua gelditu baitzen. Edari hortarik hamar xorta eman ziren Erregeri Alicante-ko arnoan, goizeko hamekak hirian. Ephe bat berantago bere burua azkarrago senditu zuen, baina pulsua berriz eroria zen eta bizki gaizkitua; bertze harraldi bat eskaini zizakon laurak hirian, bizira itzul-arazteko zela erranez. Ihardetsi zuen basoa hartuz: “*Bi zira, hiltzera! Jainkoak nahiko duen gu zira.*”

Maintenon-go Anderea Erregeren egoitzatik athera berria zen, burukoak beheiturik, Villeroy-ko marexalak zeramala bere egoitzaren aitzinetik hara sartu gabe, mailalde handiaren behererano, han burukoak goititu baitzituen. Marexala besarkatu zuen begia idorr-idorrik, erranez: “Goraintzi, jaun marexala!”, beti erabiltzen zuen Erregeren karrosa batera igan, han Caylus-ko Anderea aiduru baitzagokon, eta Saint-Cyrra joan zen, emazteak hartan zituen bere karrosa gibeletik. Arratsean Maine-ko dukeak erran zuen atheraldi bat biziki gozagarria Fagon-i Le Brun-ekin gertatuaz. Bertze nunbait itzuliko da (dukeak) egin zuenera,

eta Maintenon-go Andereak eta A. Tellier-ek Erregeren biziko azken egun horietan. Le Brun-en erremedioa jarraikia izan zen hark nahi bezala, eta beti ikusi zuen Errege haren hartzen. Hartzera eskaini zaukoten salda batez, ihardetsi zuen etzizakola bertze gizon bati bezala mintzatu behar; behar zuena etzela salda bat, baina kofesaria; dei-arazi zuen. Aldixartze batetik itzultzen ari zen egun batez, A. Tellier-i bekatu guzien barkamendua galdegin zaukon, eta hunek hari oinaze ainitz sendi zuenez: “*Ez bada! ihardetsi zuen Erregek, nahi nuke oinaze gehiago ene bekatuen ordaintzeko*”.

3. Azken hirur egunak

Agorrilaren 29-ko ortzegunean, aitzineko eguna eta gaua hain gaixtoak izanak zirelarik, egina zutenaz haratagoko egitekorik etzuten jendeak ez han izanez, gambarako sartzeara libroago utzia izan zen handik baztertuak izanak ziren aitzindari handiendako. Bezperan mezarik etzen izana, eta uste zen etzela gehiago izanen. Charost-ko dukeak, zainlarien kapitainak, hura ere gambarara lerratua baitzen, arrazoinekin gaizki aurkitu zuen, eta Erregeri galdegin-arazi zaukon etxeko mutiletarik batez, etzizakonez ontsa gozo izanen baten entzutea. Erregek nahi zuela erran zuen; hortan behar ziren jende ‘ta gauzen bila igorri zen, eta horrela jarraiki zen ondoko egunetan. Ortzegun goizean, indar gehiago agertu zen, eta hobetze iduripen bat berehela gotortua izan zena, eta horren harrabotsa alde orotan ibili. Erregek jan zituen ere bi bixkotxa ttipi Alicante-ko arnoan bustirik halako gose batekin. Orléans-ko duke Jaunaren etxera joan nintzan egun hortan eguerdi ondoko bi orenak hirian, haren bizitegietan hanbat jende elementia zagolarik zortzi egun hetan, eta ordu oroz, nun, zuzen erraiteko, ezpaitzen han orratz bat lurrerat eroriko. Edonor enuen aurkitu. Ikusi nindueneko, irriz hasi zen eta eni erraiten egun hartan etxean oraino ikusia zuen lehenbiziko gizona ninzala, arratserano osoki hutsa gelditu baitzen. Horra mundua.

(...)

Arratsak biziki berant etzuen egunari eman nahi ukana zizakon zorionari ihardetsi, hartan Erregek errana baitzaukon Versailles-ko erretorari, sartzeko libertateaz baliatua zena, egitekoa etzela haren biziaz, ziolarik oro othoitzean zela horren eskatzeko, baina hartako ontsa othoitz egin behar zen salbamenduaz. Egun hortan berean gertatu zizakon, manuen emaitan, Delfinarendako Errege gaztearen erraitea. Inguruan zuenean higitze bat ikusi zuen. “*Zergatik bada? erran zeen,*

horrek eztauta den gutieneko penarik emaiten.” Arratseko zortziak hirian Probenzakoko gizon haren edaritik hartu zuen. Burua nahasia iduritu zizakon; berak erran zuen biziki gaizki sendi zela. Arratseko hamekak hirian zangoa ikertu zizakon. Gangrena aurkitu zen oin osoan, belhaunean, eta ixterra azkarki hantua. Ikerraldi hortan aldixartu zen. Bihotzminekin ohartua zizakon Maintenon-go Anderearen ez han izaiteari, hunek ezpaitzuen berriz itzuli gogo. Galdegin zuen egunean aldi bat baino gehiagotan; etzaukoten haren joaitea gorde ahal ukan. Saint-Cyr-era bila igorri zuen; arratsean itzuli zen.

Agorrilaren 30-eko ortziralean, eguna gaua izana zen bezain gaixtoa izan zen, erdi-lo handi bat, eta arteka burua nahasia. Jelada apur bat eta hur hutsetik hartu zuen, arnoa gehiago ezin jasanenez. Gambaran etzituen ukan zerbitzuko behar-beharrenak ziren mutilak baizik, eta medikuak, Maintenon-go Anderea eta A. Tellier-en agerraldi bakar batzu, Bloin eta Maréchal-ek hunen bila igortzen zutenean. Jende guti zagon gabinetetan ere, Maine-ko dukeaz bertze. Errege berriz debozionera itzultzen zen Maintenon-go Andreak eta A. Tellier-ek burua gutiago hartua zuen arteak aurkitzen zauzkotelarik; baina bekan ziren eta labur. Arratsaldeko bortzak hirian, Maintenon-go Anderea bere egoitzara iragan zen, bizitegian zuen mublea bere sehieriaren artean banakatu zuen, eta Saint-Cyr-era joan zen, handik behin ere ez atheratzeko.

Agorrilaren 31-ko ebiakoitzean gaua eta eguna ezin gaitzagoak izan ziren. Etzen ezagutza ephe bekan eta labur batzu baizik izan. Gangrena belhaunera eta ixter osora hedatua zen. Aignan aphez zenaren erremediotik eman zukoten, Maine-ko dukesak eskain-araztera igorria baitzuen, pikotarendako erremedio hauta zena. Medikuek oro onhartzen zuten, esperanzarik gehiago ezpaitzen. Arratseko hamekak hirian hain gaizki aurkitu zen nun azken hatsetan zirenen othoitzak erran baitzizazkon. Zeremoniako ospeak bere baitaratu zuen. Othoitzak mintzo hain azkar batekin erran zituen nun entzutera emaiten baitzen aphezeria handiaren eta sartua zen guziarenaren gainetik. Othoitzen bururatzean, Rohan-go kardinala ezagutu zuen, eta erran zaukon: *“Horiek dira Elizaren azken garañiak.”* Mintzatu zizakon azken gizona izan zen. Aldi bat baino gehiagotan errepikatu zuen: *“Nunc et in hora mortis”*, eta gero erran: *“Oi ene Jainkoa, ene laguntzera lehia zaitte!”* Azken hitzak izan ziren. Gau osoa ezagutzarik gabe izan zen, eta agonia luze bat, 1715-eko buruilaren lehenean bururatu zena, goizeko zortziak eta laurdenetan,

hiruretan hogeita-hamazazpi urte beteak ukan baino hirur egun lehenago, bere erreinuko hiruretan hogeita-hamabigarren urtean.

Hogei-ta-bi urtetan ezkondu zen, 1660-an Pirenetako bake aipatua izenpetuz. Hogeita-hirur bazituen, heriotzeak Frantzia Mazarin kardinalaz liberatu zuenean; hogeita-zazpi, 1666-an Erregina ama galdu zuenean. Berrogeita-lauretan alhargundu zen 1683-an, Monsieur hiururetan-hogei-ta hirurtan galdu zuen 1701-ean, eta seme eta semabitxi guzien ondotik bizi izan zen, salbu bere ondokoa, Espainiako errege, eta printze horren haurrak. Behin ere etzuen Europak erreinu luzeago bat ikusi, ez Frantziak adin hortako errege bat.

Maréchal, bere lehenbiziko barberak egin zaukon gorputzaren idekitzetik, ohiko laguntza eta zeremoniekin, aurkitu zizazkon alderdi guziak hain oso, hain sano eta guzia hain beteginki egina, nun uste izan baitzen mende bat baino gehiago biziko zela, odolean grangrena ekharri zaukoten eta aipatu diren hutsak izan ezpalire. Aurkitu zaukoten ere urdailaren izaria eta hertzerena bere heineko gizonen bikuna bederen; gauza azkarki ohi ez bezalakoa dena, eta hortako baitzen hain jale handia eta berdina.

Printze bat izan zen ainitz on, handi ere ezin ukatua zaukona, eta gehiago ttipi eta gaitz bazuela ezagun gabe ezin utzia, hortan ezin baita berex zer zuen berea eta zer hartua; eta batean ala bertzean, hortaz ongi jakinduru izan diren idazleak baino deus bekanagorik, berez eta phorogatzuz ezagutu dutenak eta hortaz izkiriatzeko gai diren idazleak baino deus aurkitzeko nekeagorik, eta aldi berean bere buruaren aski jabeak ez ez herraz ez lausenguz aipatzeko, hartaz deusen ez erraiteko onean eta gaitzean egia huts-hutsak erran-arazirik baizik. Lehenbiziko zatian, hemen horri badagoke; bertzean indar eginen da gogo onez sendimendu bortitz ororen ixiltzeko.

Luis XIV-garrenaz eta haren erreinuaz

1. Hastapenak

Ezta hemen Luis XIV-garrenaren lehenbiziko urtez mintzatu behar. Abantzu sortzean Errege, gobernatu nahi zuen ama baten politikaren azpian ithoa, oraino gehiago minixtro kaltegarri baten abantail-nahi bizi, hunek erresuma mila aldiz irriskutan ezarri baitzuen bere handitasun bakarreko, eta uztarri horren menean atxikia lehen minixtroa bizi izan zen, hoinbertze bada monarka horren erreinuan ebakirik. Bizkitartean uztarri horren azpian agertzen hasia zen.

Maitasuna senditu zuen, asti-arte ospearen etsaitzat zadukan; esku-aldi arin batzu entseatuak zituen batera eta bertzera; sendimendu aski ukan zuen Mazarin-en heriotzean liberatua zela uste ukaiteko, ezpazuen ere indar aski ukan goizago liberatzeko. Haren biziko alderdi ederrenetarik da ere, eta ondorioa xede hunen hartzea ukana duena bederen, ezerek hautsi ahal etzuen geroztik: lehen minixtro edozeinen hastioa, eta ez gutiago eliza-gizon edozeinen konseiluan. Ordutik bertze xede bat hartu zuen, baina bermetasun berarekin atxiki ahal etzuen, ezpaitzen abantzu ohartu egintzan beti ihes egiten zaukola: berak gobernatuko zuela izan zen, gehienik nahi ukan zuen gauza, hortako gehienik laudatu eta lausengatu zutena, eta gutienik egin zuena.

Artekoa baino beheragoko izpiritu batekin jaioa, baina bera bere moldatzeko, leuntzeko, xorroxteko, bertze bati hark bezala egin gabe 'ta trabarik gabe hartzeko gai zena, ezin gehiago baliatu zen bere bizi guzian hartarik gehiena zuten munduko jendekin bizi izanaz, eta mota guzietakoekin, adin orotako, lerro orotako eta jende-ara orotako, gizon eta emazte.

Horrela mintzatu behar bada hogei-ta-hirur urteko errege batez, lehenbiziko munduan sartzea zorionezkoa ukan zuen mota orotako izpiritu hautatuez. Haren minixtroak barnean eta atzerrian Europako azkarrenak ziren orduan, jeneralak handienak, haien azpikoak hoberenak, eta haien ikastaldiez gerlako buruzagi bilakatu direnak, eta haien izenak batzuen eta bertzenak aipamen hortan iragan dira ondokoetara ororen baiesteaz. Barnean eta kampoan hain bortizki inharrosia izan zen Estatuaren harat-hunatek, Luis XIII-garrena hilez geroz, ainitz gizon moldatua zuten, jende antzedun eta aipatuzko eta gortelari hautuzko gorte bat baitzegiten.

Soissons-ko kondesaren etxea, hau, Erreginaren intendant-goien bezala Parisen Teilerietan bizi baitzen, eta han erreinatzen baitzuen Mazarin kardinal bere osabaren distiraren ondar baten bidez, eta oraino gehiago bere izpirituaz eta antzeaz, gortearen erdi-gunea bilakatua zen, baina azkarki hautukoa. Hara zen joaiten egun oroz gizon eta emaztetan zen hautatuena, horrek baitzegien etxe hortaz gorteko galanteriaren barnea, eta azpikerien eta handi-nahien zimarkuena, hautan jendakiak ainitz eragin baitzuen, orduan orai ahatzia den bezain kondutan hartua, estimatua eta errespetatua izanez. Erregek bere burua hara egotzi zuen zirimola gotor eta distiratu hartan zuen hartu bizi osoan atxikitzen jakin duen itxura jendetasunezko eta galantasunezko hura, ikustateari eta

maiestateari batzen hain ongi jakin duena. Erran daiteke hortarako egina zela, eta bertze gizon guzien artean, haren soin-arak, ibilarak, garaziek, ederrak, eta ederrari jarraiki zizakon itxura handiak, mintzoaren doinurano eta berak orotan zuen garazia jitezko eta maiestatedunerano, berex-arazten zutela heriotzerano erletan erregea (*sic*) bezala, eta, jende berezi baizik sortu ezpalitz, berdin ukanen zuela besta, atsegin, galantasun, eta maitasunezko nahasmen handienen egiteko antzea. Zoritsu, ezpalu La Vallière-ko Anderea bezalako ohaiderik baizik ukan, bere baitarik bere begi hutsez ekhendua, hala izaiteaz ahalgean, are gehiago bere maitasunaren ekoizpen berak nahi gabea aithortuez eta haziez, lañoa, abantail nahi gabea, ezia, azken heinerano ona, beti bere buruarekin guduka, azkenik bere nahasmenaren garhaile maitasunaren eta jelosiaren indar bortitzenen bidez, aldi berean oinaze eta atherabide izan zizazkonak, jakin baitzuen horren hartzen bere bihotzminen erdian hortik azkenean atheratzeko, eta penitenzia gogor eta sainduenari emateko! Aithortu behar da beraz Errege maitasunari emateaz urrikaltzeko izan zela gaizkitzeko baino gehiago, eta laudorioak merezi dituela hortik arteka atheratzeaz ospearen fagoretan.

Soissons-ko kondesaren zirimola hortan, Errege izana gatik, jasan zituen azpikeriek eta gertaldiek hatz batzu utzi zauzkoten gaitzera itzuli zirenak, bera baino azkarragoak izanik. Izpiritua, sendimenduen handitasuna, nork bera zer den senditzea, bere buruaren errespetatzea, bihotza gora ukaitea, jakitate ukaitea, hori oro aierukor bilakatu zizakon eta laster hastiagarri. Gehiago zen adinean aitzinatu, are gehiago higuntza hortan azkartu. Jeneraletarano eta minixtroetarano ereman zuen, hetan ezpaitzen beharraz baizik ordaindua izan, ondotik ikusiko den bezala. Bere baitarik erreinatu nahi zuen. Hortako jelosia ethengabea ahuleziarano joan zizakon. Erreinatu zuen alabainan xipian; handian etzen hartara heldu ahal izan; eta xipirano usu gobernatua izan zen. Imperioko uhalen lehenbiziko hartzea gogor ezin gehiagokoan egin zuen, eta baira ezin gehiagokoan. Fouquet izan zen lehenbizikoa zorigaitza gainean lehertu zizakona; Colbert bertzearen egilea berak bakarrik hartuz dirutzetako larderia osoa, eta (Erregeri) sinets-araziz guzia haren eskuetarik zoala, intendant-goienak egiten zituen izenpetze guzien azpian lehertuz, Colbert-ek horren kargua ekhendu baitzuen bera ukaiteko gai ezin izanez.

(...)

Oro jori zen Estatuan, oro aberats. Colbert-ek ezarriak zituen dirutzeak, itsasgintza, sal-erospena, lantegiak, letrak berak, hein goien-goienean; eta mende horrek, Augutzuz-enaren idurikoa, bazematzan nahitara mota orotan gizon omenekoak, atseginetako baizik on eztirenetarano.

(...)

2. Leiho makur batetik 1688-ko gerlara ...

Ikusiko dugu bigarren aroa lehenbizikoari guti ihardetsiko duena, baina orotan azkena baino oraino ez bezalakoagoa izan zena.

1688-ko gerlak ethorki bitxia ukan zuen, hortako gertakaria, hein berdinean segurra eta ohargarria, hain baita Erregeren eta Louvois haren minixtroaren ezagun-arazteko ona nun lekua hemen hartu behar baitu. Louvois-ek, Colbert-en heriotzean, ukana zuen hunen eraikuntzetako intendant-goiengoa. Porzellanazko Trianon xipiak, lehenago Montespan-go Anderearendako eginak, Errege aspertzen zuen, nahi baitzituen orotan palazioak. Azkarki jostatzen zen bere eraikuntzetan. Bipunttakoa begian zuen ere zuzentasunaren, arauen, berdintasunarendako, baina gostua etzen hein berekoa, bertze nunbait ikusiko den bezala. Jauregi hori etzen abantzu lurretik atheratzen ari baizik, Errege ohartu zizakolarik bururatzen ari zen leiho-gurutze baten huts bati, behereko luzetasunean. Louvois-ek, abrea baitzen, eta gainera bere nagusiak erasiatua izaitaren nekez jasaiterano gaiztatua, atxiki zaukon azkar eta bermu, eta leihoa ontsa zelakoan egon zen. Erregek bizkarra itzuli zuen, eta eraikuntzan bertze nunbait ibiltzera joan zen.

Biharamunean Le Nôtre aurkitzen du, eraikitze ona, baina omenekoa Frantzian sartzen hasi den baratzetako gostuaz, eta hauen betegintzea hein goienerano ereman duena. Erregek galdegin zaukon Trianon-en izana zenez. Ezetz ihardetsi zuen. Erregek argitu zaukon zerk zuen gaitzitua, eta hara joan zadin erran. Biharamunean galde bera, ihardespen bera; ondoko egunean berdin. Erregek ontsa ikusi zuen hutsean zela aurkitzera ezin zaitekeela mentura, edo Louvois-ez gaitzerraitera. Khexatu zen, eta manatu zaukon biharamunean Trianon-en izan zadin bera hara joanen zelarik, Louvois ere han aurki-araziko baitzuen. Etzen gehiago gibelerat egiteko biderik izan.

Biharamunean Erregek biak Trianon-en aurkitu zituen. Berehala solasa leihoaz izan zen. Louvois-ek eztabadatu zuen, Le Nôtre-ek etzion hitzik. Azkenean Erregek manatu zaukon marra zezan, neurriak har, eta gero erran zer aurkitua zuen. Hortan ari zen bitartean, Louvois, ikertze

hortaz erotua, gora-gora erasian ari zen, baziola saminki leiho hori orotan bertzeak bezala zela. Errege ixilik eta aiduru, baina oinazetan. Oro miatua izan zenean, Le Nôtre-ri galdegin zaukon zertan zen; eta Le Nôtre ahopiaka. Errege haserretu zen, eta garbiki mintza zadin manatu zaukon. Etzuen bururatua baizik Erregek, Louvois-ren aldera itzuliz, erran zaukolarik haren hisia ezin jasana zela, berak ezpalu berea ukan, makur eraikiko zela, eta eraikuntza bururatua izan orduko berehala aurdiki beharko. Hitz batez, azkarki erasiatu zuen.

Louvois, atheraldiaz sumindua, eta gortelari, langile ‘ta mutilak lekuko izanak zirelaketz, etxera heltzen da erotua. Han aurkitu zituen Saint-Pouange, Villacerf, Nogent-ko zalduna, Tilladet biak, bertze jende leial min batzu, ontsa khexatuak izan baitziren hura hala ikusiz. “Egina da, erran zeen, Erregerekin galdua niz, leiho batendako erabili nuen araz. Atherabiderik eztut gerla batean baizik bere eraikuntzetarik bazter dezana eta ene beharra eman, eta ala J... ukanen du.” Alabainan, ilabete guti ondotik, hitza atxiki zuen, eta Errege eta bertze botheredunak izan arren orotara hedatu zuen. Frantzia barnean hondatu zuen, etzuen hondamena atzerrietara hedatu, bere armadak azkar ukanik ere, eta aldiz gertakari ahalgegarriak eman zituen.

(...)

Gerla horri jarraiki zizakon bakea, eta haren ondotik Errege ‘ta Estatua aspaldidanik hasperenez zaudena, ahalgegarria izan zen. Saboiako Jaunak nahi zuenetik iragan behar izan zen, eta Orange-ko Printzea Angeleterrako errege bezala azkenean aithortu, indar, herra eta hari egin gaitzezmen lerro luze baten ondotik, eta oraino ongi-ethorri egin Portland haren embaxadoreari, halako jainko iduri bati bezala. Gure lehiak Luxembourg gusta zaukun; eta gure esku osoko mezularien gerlako ezjakinak, ezpaitzen gabinetaz argitua izan, abantail handiak eman zezteen etsaier mugaren moldatzeko. Horrelakoa izan zen Ryswick-ko bakea, 1697-ko buruilean egin zena.

Harmen gelditzea etzen hirur urtetakoa baizik izan; eta orduan senditu zen irabaziak ginituen herrien eta gazteluen itzultzeko bihotzmin guzia, gerlak gostatua zaukun phizu guziarekin. Hemen burutazen da erreinu horren bigarren aroa.

3. Ospe nahitik “erakustaldietako” erregera

Heren aroa ideki zen ospe eta nasaitasun oraino ez entzun baten mukurruan. Etzen iraupenekoa izan. Lilluratu zuen eta zorigaitz bitxiak erakarri, hauen bururapena halako mirakulu bat izan baita. Bertze

zorigaitz mota batzuek lagundu zuten Errege hil-hobirano, zoritsu ezpalitz ilabete guti baizik bizi izan semabitxia Espainiako monarkia osora heldu ondoan, lehenik ukaldi bat eman gabe ukan baitzuen. Azken aro hori oraikotik hain hurbil da nun ezpaita hortan hedatzeko beharrik. Baina Errege zenaren erreinutik marrazkitu den guti hori beharrezkoa zen haren nortasunaz erranen denaren hobeki entzuteko; orhoituz alta *Orhoitzapen* hautan han edo hemen barreatua denaz, eta errepikatze batzu baldin badira nardatu gabe, hobeki biltzeko eta gauza oso baten moldatzeko beharrezkoak baitira.

Berriz ere erran behar da. Erregeren izpiritua artekoaren beherekoa zen, baina bera moldatzeko biziki gai. Ospea maitatu zuen, ordenua eta erregela nahi ukan zituen; zuhurra, neurrikoa, segetetukoa sortua zen, bere egintzen eta mihiaren jabe; sinetsiko dea? ona eta zuzena sortua zen, eta Jainkoak aski emana zaukon errege on izaiteko, eta behar bada errege aski handi bat. Gaitz guzia bertze nunbaitik jin zizakon. Lehenbiziko ikaskuntza hain ahula ukan zuen, nun ezpaitzen nehor haren bizitegira hurbiltzera menturatzen. Aro horiez saminki mintzatzen usu entzuna da, hanbaterano nun erraiten baitzuen arrats batez Erret-Palazioko ur-askara eroria aurkitu zutela Parisen, orduan gortea han baitzagon.

Geroan, ezin gehiago utzia izan zen. Doidoia zaukoten irakurtzen eta izkiriatzen ikasi, eta hanbat ez-jakina gelditu zen, nun ixtorioko, gertaldietako, fortunetako, egin-moldetako, sortzetako, legetako gauza ezagunenez, nehoiz ezpaitzuen lehen hitza jakin. Huts horren ondorioz erori zen, eta batzuetan jendearen aitzinean, zentzugabekeria arruntenetara.

(...)

Minixtroak, jeneralak, ohaideak, gortelariak ohartu ziren, nagusi izan zenetik berehala, ospearendako zuen gustu baino gehiago ahulari. Nahitara laudatu zuten eta andeatu. Laudorioak, hobeki derragun, lausenguak hanbaterano laket zituen, nun arruntenak onhartuak baitziren, aphalenak oraino gehiago ahogozoz hartuak. Etzizakon hortik baizik hurbiltzen, eta maitatu zituenek etzuten hortaz gozatu zorionekin erranez baizik, eta mota hortan ehoiz akitu gabe. Horrek zeen eman haren minixtroer hainbertze larderia, isensu emaiteko zituzten aldi jarraikien bidez, oroz gainetik gauza guzien hari uzteko, eta haren ganik ikasiak ukaiteko. Malgutasuna, aphaltasuna, itxura miratzalea, menpekotua, herrestatua, oro baino gehiago ezteusaren itxura haren

ganik ukanean ezpada, ziren hari gustatzeko bide bakarrak. Hortik urruntzen zen ber, etzen itzultzerik, eta horrek zuen Louvois galdu.

Pozoin hori etzen hedatu baizik. Hein ezin sinetsi batetarano heldu zen izpiriturik gabe etzen eta aski ikusirik bazuen printze baten baitan. Berak, etzuelarik ez kanturik ez musikarik, kantatzen zituen bere barnetan operetan aitzin-hitzetako gehienik haren laudorioko ziren zatiak. Hortan igerika ikujsten zen, eta mahiko handian auhari publikoeterano, han arrabitak baitziren batzuetan, hortzen artean ari zen erdi kantuz laudorio beretan hetaz eginak ziren aireak joiten zirenean.

Hortik arteka maitasunetik ekhentzen zuen ospearen gutizia hura; hortik Louvois-ren errextasuna gerla handi batzuetan sarr-arazteko, noiz Colbert itzulipurdikatu nahiz, noiz bere buruaren heinean atxikitze edo goititzeko, eta aldi berean (Erregeri) bere edozein jeneral baino kapitain handiagoa zela sinets-arazteko, ala xedetan ala egintzetan, hortan jeneralek berek laguntzen baitzuten Erregeri gustatzeko. Diot Condé bezalako, Turenne bezalakoe, eta are gehiago horier jarraiki direnek. Oro beretzen zuen bere baitarako errextasun eta gozotasun miragarri batekin, eta bertzek mintzatzean erakusten zaukoten hura bera zela uste zuen. Hortik erakustaldietako gostu hura, hain urrun ereman zuena, nun etsaiek “erakustaldietako errege” baitzeritzoten, setiatzetako gostu hura bihoztuna zela erakusteko merkerik, bere buruaren hetan bortxaz atxik-arazteko, han bere ahalen, atzinerat ikustearen, begirantzaren, akiduren mirets-arazteko, hautako zuen soin azkarra miragarriki egina baitzen, ez gosez, ez hotzaz, ez beroaz, ez euriaz, ez edozein aro gaitzez pairatu gabe. Sendikor zen ere, kampaldietan zehar, zuen aire et itxura handiaren, zaldiz trebetasunaren eta egiten zituen guzien miresten entzuteari. Bere gerlaldiez eta tropez zituen gehienik bere ohaideak solastatzen, batzuetan gortelariak. Ongi mintzo zen, hitz onekin, zuzen; ipuin bat bazerran munduko nornahik baino hobeki, eta berdin ontsa ixtorio bat. Haren hitzaldi ohikoenak etziren ehoiz maiestate jitezko eta sendigarri bat ukan gabe.

Zuen izpiritua, bere baitarik xipira ekharria, mota orotako xehekerietan gustatu zen. Ethengabe azkenetan sartu zen tropetan: jantzi, harma, mogimendu, ariketa, larderia, hitz batez xehetasun aphil mota orotan. Etzen gutiago sartzen eraikuntzetan, etxe zibilean, ahoko gauza berezietan; beti uste zuen zerbait erakasten zeela gai horietan jakintsunenak zirener, hauk bere akdetik ikasle bezala hartzen zituztela aspaldidanik gogoz bazazkiten erakaspenak. Ordu galtze horiek, Erregeri

oharpen jarraiki baten merezimendu guziarekin iduritzen zizazkola, minixtroen irabazte handienak ziren, hauek, haren enganatzeko antze eta jakitate apur batekin, haren ganik bezala ekharr-arazten baitzituzten berek nahi zituztenak eta bere xeden, eta usuegi abantailaren arauko egintza handienak bideratzen, bere buruari laudoriotan hura xehekeria horietan ithotzen ikusiz.

(...)

4. Louvois gerlako minixtroaren erortea 1692-an Mons-en setiatzetik landa

Erregek, bere burua gerlako gauza den ttipienetaranokoez nehork baino jakindunago baitzadukan, aurkitu zuen zaldieriako zaingoa ohiko bat gaizki ezarria, eta berak bertzela ezarri zuen. Egun bereko bazkal-ondoan bazabilala oraino, halabeharrak egin zuen zaingoa horren beraren aitzinetik iragan zela, bertze nunbait ezarria aurkitu baitzuen. Kapitainari galdegin zaukon nork zuen ikusten zuen lekuan ezarria, ihardetsi baitzuen Louvois zela hortik iragana. “Bain, egin zuen Erregek, eztaukozua erran nik zinitutala hor ezarria? - Ba, Jauna”, ihardetsi zuen kapitainak. Errege, sistatua, jarraikitzen gana itzultzen da, eta dio: “Eztea hori Louvois-ren lana? Uste du gerlako gizon handi bat dela eta guzia badakiela;” eta berehala ezarri zuen kapitaina goizean egina zuen lekuan. Egiaz Louvois-ren zozokeria eta ozarrerria zen alabainan, eta Erregek hartaz arrazoin zuen. Baina hain gaitzitua izan zen nun ezapitzaukon barkatu ahal ukan, eta hura hil eta, Pomponne konseilura berriz deiturik, gertaldi hori erran baitzaukon, oraino Louvois-ren ausartziaz sistatua, eta hori Pomponne-ko aphezaren ganik dadukat.

Mons-tik itzulirik, Erregeren haren ganik urruntzea etzen handituz baizik joan, hanbaterano non minixtro hain ozar hori, eta gerla handienaren erdian bere burua hain baitezpada beharra zadukana, guziaz beldurtzen hasi baitzen. Rochefort-eko marexalsa, haren adixkide mina gelditua zena, joanik Blansac-ko Andere bere alabarekin Meudon-en harekin bazkaltzera, biek errana baitautate, ibilaldi batera ereman zituen. Etziren hek hirurak baizik bazeraman kalexa arin batean. Bere buruari mintzo entzun zuten, ametsetan murgildua, eta ziola bat baino gehiagotan: “Balegikea? Egin-araziko daukotea? ez; alta bizkitartean ... ez, elaitake mentura.” Bakarriketa hortan bazoan beti, eta ama-alabak ixilik, eta elgarri ukondoaz bapatean marexalsak ikusi zituenean zaldiak ur aska baten hegi-hegian, ezpaitzuen ukan Louvois-ren eskuetara jauzteko dembora baizik uhalen gelditzeko, ithotzera zeramatzala oihuz.

Oihu eta jestu hortan Louvois atzarri zen lo barna batetik bezala, zenbait urratsez gibelatu, eta itzuli, egiazki ametsetan zela erranez eta etzela karrosa gogoan.

Zalantza hortan, goizetan uren hartzen hasi zen Trianon-en. Uztailaren 16-an Versailles-en nintzan gauza aski bortitz batendako, Erregek nahi ukan baitzaukon hortako abantail osoa aitari eman, Blaye-en zelarik amarekin, Sourdis-en kontra, Guienan buruzagi nagusi baitzen, eta Louvois-ek debaldetan lagundua baitzuen. Hori horrela izanik ere, eskertzeroa joan nindakion aholku eman zizatan, eta ukan nuen haren ganik aita ontsa zerbitatzua ukan balu bezenbat komplimentu eta ikustate. Hola doa gortea. Behin ere enindakon mintzatua. Egun berean Erregeren bazkaritik atheratzean, aurkitu nuen zaintzalen sala handiaren eta printzen gorte ttipira deman saloin handiaren artean den barne ttipi-ttipi baten zolan; Marsan-go Jauna mintzo zizakon, eta bazoan Maintenon-go Anderearen egoitzara Erregerekin lan egitera, hunek joan behar baitzuen gero Versailles-ko baratzetan oinez ibiltzera, gorteko jendek han hari jarraitzea haizu baitzuten. Egun berean bazkal-ondoko laur orenak hirian, Châteauneuf-ko Anderearen egoitzara joan nintzan, han ikasi bainuen apur bat gaizki izana zela Maintenon-go Anderearen egoitzan, Erregek joaitera bortxatua zuela, eta etxera oinez joana zela, han gaitza bapatez handitu baitzen; lehiatu zirela aiuta baten emaitera berehala itzuli zuena, eta hortan hila zela, eta Barbezieux bere semea galdeginez, ezpaitzuen ikusteko astirik ukan, nahiz haren gambara laster egin zuen.

Goga daiteke gorte guziaren ustegabea. Nahiz enuen hamabortz urte baino gehiago, ikusi nahi ukan nuen Erregeren ibilera hein hortako gertakari batean. Ohiko maiestatean iduritu zizatan, baina nik dakita zer zaloin eta arinekin, aski ustegabetu ninduen ondotik aipatzeko, hanbat gehiago nun orduan ezpanazkien, eta geroztik luzaz ere, idatziak ditutan gauzak. Ohartu nintzan ere bere ithurrietara joaiteko eta ibilaldiaren aldizkatzeko orde, beti bazegien bezala, bere baratzetan, etzuela egin harat-hunatik baizik iranjeriako galeria luzatuz, handik ikusten baitzuen, jauregira itzultzean, Louvois han hil berria zen intendant goiengoaren egoitza, jauregiko hegal zaharra iranjeriako sahetsean bururatzen zuena, eta hara behatu zuela gelditu gabe jauregira itzultzen ari zen aldi oroz.

Louvois-ren izena etzen behin ere errana izan, ez eta hitz bat hoin heriotze ustegabeko eta bapatekoaz, eta Saint-Germain-dik Angeleterrako erregek igorri zuen aitzindari bati, Erregeren gana jin

baitzen zabalza hortan, eta komplimendu egin baitzaukon haren ordeztu egin berria zuen galtzeaz, “Jauna, ihardetsi zaukon Erregek, arindua baino gehiagoko itxura eta doinu batez, egieztezu ene komplimenduak eta esker onak Angeleterrako errege ‘ta erreginari, eta ene izenean erregezu ezirela hortako ene egitekoak eta haienak gutiago ongi joanen.” Aitzindariak gurra egin zuen, eta joan zen, ustegabetzea begitartean eta ibilera guzian ageri zuela. Horri guziari beha arthoski egon nindakon, eta ibilaldian ziren gotorrenak begiez elgarri galdeka zaudela hitzik athera gabe.

Barbezieux-ek Estatuko segetarigoaren iraupena ukana zuen 1685-eko, hamabortz urte etzituelarik, aita (Louvois-ek) Courtenvaux seme zaharrenari ekhen-arazi zaukonean, hortako etzela gai uste ukan baitzuen. Horrela Barbezieux-ek, Louvois-ren heriotzean, kargu hortako lan egin zuen ikasle bezala sei urtez hurbil, eta hogei-ta-laur bazituen haren heriotzean, eta heriotze hori ontsa zuzen gertatu zen zaparta handi baten baztertzeko. Louvois, hil zenean, hain zen galdua, nun biharamunean preso hartua izan behar baitzuen eta Bastillara eremana. Ondorioak zer izanen ziren? Hori haren heriotzeak ilunbean hetsi duen gauza da, baina Erregek erabakia hartua zuela et gelditua segur da, geroztik bazakiten jenden ganik ikasia dut; baina ihardesterik gabe dena da Erregek berak errana daukola Chamillart-i, hunek kondatu baitauta. Horra bada zerk duen argitzen, ene ustez, Erregeren alai hura minixtro horren heriotzeko egunean, arindua baitzen biharamuneko erabakia zuenaz, eta horren ondorio aspergarri guziez.

(...)

Louvois-ren gaitz eta heriotze bapatekoak ainitz elhe eman-arazi zituen, biziki gehiago oraino gorputzaren idekitzean pozoindatua izana zela jakin zenean. Ur edale handi zen, eta bazuen beti untzi bat bere gabineteko khebide gainean, hartan berean edaten baitzuen. Jakin zen Erregerekin lan egitera joaiten edana zuela, eta jende andana batekin bazkaldu eta atheratzearen, eta Erregerekin lan egiteko ereman nahi zituen paperren hartzeko bere gainetera sartu zen artean, etxeko thorratzale bat sartua zela gabinetean, eta han ephe zenbait gelditua. Hartua izan zen eta preso ezarria. Baina doi-doia egun zenbait han egona izan eta, auzia ere berriz hasirik, Erregeren manuz liberatua izan zela, eta ikerketa edozeinen egitea debekatua. Hortaz mintzatzea bera lanjeros bilakatu zen, eta Louvois-ren familiak harrabots horiek guziek itho

zituen, hortako manu berezi-berezi bat emana izana zelako dudarik batere ez uzteko moldez.

(...)

5. Luis XIV-garrenaren ikustatea eta antzea

Nehork ehoiz etzuen garazia hobearekin eman, eta hortik ongi eginen balioa hainbertze handitu. Nehork ehoiz etzituen bere elheak hobeki saldu, irriñoa bera, eta behakoetarano. Oro balios bilakatu zuen hautuaz eta maiestateaz, horri elhen bekanak eta laburrak ainitz gehitzen baitzaukon. Norbaiti erraiten bazauzkon, edo galdez, edo zein-nahi gauzez, han zen guzia hari beha zagon; gero aipatzen zen berexkuntza bat zen eta beti halako errespetu bat eman zuena. Berdin zen horien arautzean emaiten zituen oharpen eta berexkuntza guziez, eta hautesmenez. Ehoiz itzizakon norbaitez ezer damugarriren erraitea gertatu; eta behar bazuen erasiatu, gaizkitu edo zuzendu, biziki bekan zena, beti guti edo aski oneziazko itxura batekin zen, abantzu nehoiz idorki, behin ere ez haserrez, baztertzen bada Courtenvaux-ren gertakari bakarra, bere lekuan erran izan dena, nahiz etzen haserrerik ukan gabe, batzuetan larderiazko itxura batekin.

Ehoiz ez jendetasun gehiagoko gizonik, eta jendetasun hain neurrikorik, hain azkarki mailkaturik, eta adina, mereximendua, lerroa hobeki berex zezakeenik, bai ihardespenetan “ikusiko dut” baino urrunago zoazinean, bai egiteko moldetan. Mail horiek oro zuzen ageri ziren agurtzeko eta gurren hartzeko zuen aran, nehor joaiten zenean edo ethortzen. Miresgarria zen armadetako lerroen aitzinean eta erakustaldietan agurren ezberdinki hartzen. Baina oroz gainetik emazten aldera deuz etzen berdinek. Ehoiz ezta den buruko-oihal ttipienaren aitzinetik iragan xapela goititu gabe, diot gelariendako ere, eta hala zirela ezagutzen zituenak, Marly-n usu gertatzen zen bezala. Anderendako, xapela oso-osoan ekhertzen zuen, baina gutiago ala gehiago urrundik; jende tituludunendako, erdika, eta airean edo beharri gainean bazatxikan ephe guti edo aski luzatuez. Jauner, egiazki hala zirener, eskua xapelera emanez gelditzen zen. Anderendako bezala ekhertzen zuen odoleko printzen. Andere batzuetara bazetorren, etzuen burukoa hek utzi-eta baizik ezartzen. Hori guzia kampoan zen bakarrik, ezen etxean ehoiz ezpaitzuen burukorik. Haren gurrek, guti edo gehiago agertuak, baina beti arinak, bazuten garazia bat eta maiestate bat ezin berdinduak, auhaltzean bazetorren andere jartzedun bakoitzarendako erdi goititzeko zuen ararano, ez bertze batendako, ez eta odoleko printzen; baina

azkenera horrek akitzen zuen, nahiz ehoiz ezten egitetik gelditu, eta andere jartzedunak etziren auharira sartzen hasia zenean. Berexkuntza berarekin zuen oraino hartzen Monsieur-ren zerbitzua, Orléans-ko duke Jaunarena, odoleko printzena; azken hauer etzeen erakustea baizik egiten, Monseigneur-i berdin, eta hunen seme Enejauner berdin etxekotasunez; eta ere aitzindari handiener oneziazko itxura batekin.

Zerbaiten igurika egon-arazten baldin bazen janzten ari zenean, beti pairamenekin zen. Egun osoko emaiten zituen orenetan zuzena; xorroxtasun garbi eta labur bat manuetan. Neguko aro gaitzetan ezin athera zaitekeelarik, eta Maintenon-go Anderearen egoitzara manua emana zuen baino oren laurden bat lehenago iragaiten zenean, biziki guti gertatzen zizakona, eta zaintzalen aldiko kapitaina ezpazen han, etzuen uzten gero bere hutsa zuela ordua aitzinaturik erran gabe, eta ez hori eginik zaintzalen kapitainarena. Erregela horrekin, ehoiz huts egiten etzuen, azken zuzenean zerbitzatua zen ere, eta mugagabeko errextasunekoa zen gortelariendako.

Mutilak ongi zerabiltzan, bereziki barnekoak. Haien artean zen gozagarrikienik aurkitzen, eta hauer zeen golkoan zuena lañokienik idekitzen, gehienik nagusiener. Haien adixkidantzak edo hastioak usu eragin handiak ukan ditu. Ofizio on eta gaitzen egiteko heinean ziren beti; hortako zuten ere emperadore erromatarren liberatu botheredun hetaz orhoit-arazten, haier senatuak eta imperioko handiek gorte egiten baitzeeten, eta haien azpian aphalki gurtzen baitziren. Hauk, erreinu hortan guzian etziren ez gutiago ez gehiago lausengatuak izan. Minixtroek, botheredunenek berek, agerian gupidesten zituzten; eta odoleko printzek, baxtartetarano, beheragoko den oro aipatu ere gabe, berdin bazegiten. Gambarako aitoren-seme lehenen karguak ilunduak baino gehiago izan ziren gambarazain lehenez, eta kargudun handiek etzuten iraun haien meneko mutilek eta menean zituzten aitzindari xipienek baitezpada Erregeri guti edo aski hurbiltzen zizazkon neurrian baizik. Ozartasuna handia zen hetarik gehienen baitan, eta halakoa nun behar baitzen hartarik baztertzen jakin, eta pairamenekin jasan.

Erregek guziak laguntzen zituen, eta batzuetan gozo zizakon erraitea nola bere gaztaroan eskutitz bat, nik dakita zergatik, Montbazon-go duke Parisko gobernariari, bere baserriko etxe batean baitzen hiri horren ondoan, zangoko mutil batekin igorririk, hara heldu zen Montbazon-go Jauna mahian jartzera zoalarik; hunek zangoko mutil

hori harekin jartzera botxatua zuela, eta bideratua, igorri zuenean, etxeko gorterano, Erregeren izenean jina zelakotz.

Guti huts egiten zuen ere bere ohiko aitoren-semer galdegitea, haren izenean zorionezko edo doluminezko komplimenduak eginik jende tituluduner, gizon ala emazte, itzultzen zirenean, nola hartuak izanak ziren; eta ontsa gaitz aurkituko zuen ezpalire jarr-araziak izan, eta bideratuak biziki urrun, gizonak karrosarano.

Deus etzen hura bezalakorik erakustaldietan, bestetan, eta andereak han izaiteaz galantasunezko aire bat izan zaitekeen orotan. Ja errana da, Erregina amaren gortean bildua zuela eta Soissons-ko kondesaren etxean; bere ohaiden kompainiak hortara jarria zuen gero eta gehiago; baina beti miestaterekin, nahiz batzuetan alaitasunekin, eta nehoiz ez beharbezalako etzen ez menturakoa zen deusik; baina jestu xipienerano, urratsara, ibilara, itxura guzia, oro neurtua, oro egokitua, noble, handi, maiestatedun, eta bizkitartean osoki natural, hortako ohidurak eta bere itxura guziaren abantail mugagabe 'ta bakarrak errextasun handi bat baitzemon. Gauza serioetan, embaxadoren entzunaldietan, zeremonietan, gizon batek eztu ere nehoiz errespetuan hainbertze ezarri. Gertaldi horietan haren ihardespenak beti labur ziren, zuzen, bete eta biziki bekan zerbait esker onezkorik gabe, batzuetan ere balakari, hitzaldiak merezi zuenean. Edozein lekutan haren han izaiteak emaiten zuen errespetuak ixila ekhartzen zuen ere eta halako lotsa bat.

Airea eta soin-ariketak biziki maite zituen, egin ahal zituen bezenbat. Ezin hobeia izana zen jantzan, mailu-jokoan, esku-pilotan. Zaldiz miresgarria zen oraino bere adinean. Gauza horien guzien garaziarekin eta trebeki egiten ikustea maite zuen. Horien ongi edo gaizki egitea haren aitzinean mereximendu zen edo gaitzespide. Bazion beharrezkoak etziren gauza horietan, etzela behar sartu, ontsa egiten ezpaziren. Tirokatzea azkarki maite zuen, eta etzen hura bezain tirokari onik, ez hainbertze garaziarekin. Ihiztor etzale hautak nahi zituen; bazituen beti zazpi edo zortzi bere gabinetetan, eta berak haier jatera emaita laket zuen bere buruaren haier ezagun-arazteko. Azkarki maite zuen ere orein ihizia, baina kalean, Fontainebleau-n besoa hautsirik ukana zuenez geroz, Erregina hil eta berehala. Bera zen halako jargia ixurkatu batean, laur zaldi ttipiz eremana, borzpasei aldizka-gunerekin, eta berak zeraman laster osoan, karrosari hoberenek etzituzten trebe 'ta zuzentasun batzuekin, eta beti garazia bera bazegien guzian.

Postalagunak haur batzu zituen bederatzi-hamar urtetik hamabortzeranokoak, eta berak bidatzen zituen.

Orotan maite zuan ospea, handi-egina, nasaitasuna. Gostu hori lege bilakatu zuen politikaz, eta gorte guziari harr-arazi. Hari gustatzea zen hortara emaita, mahiz, karrosaldez, eraikuntzaz, jokoaz. Jendeari mintza zakidion gertaldi batzu ziren. Arrazoina zen jende guzia horrela ezindu nahi zuela eta egin zuela aberaskeria ohorean ezarriz, eta gauza zenbaitetako eginbeharrean, eta horrela bizitzeko mundu guzia apurka apurka osoki haren ongi-eginen menean izaitera ekharri.

(...)

6. Versailles, Trianon, Marly

Utzi zuen (Saint-Germain) Versailles-ra joateko, leku orotan trixte eta eskergabekoena, ikus-gunerik gabe, urik gabe, lurrik gabe, oro han ondar higikor eta aintzi, ondorioz airerik gabe, ona ezpaitaiteke izan.

Naturaren bortxatzen gustatu zen, eta hezten antze 'ta diru bortxaz. Eraiki zuen han gauza bat bertzearen ondotik, guzia betan xedatu gabe; ederra eta itsusia elgarrekin josiak izan ziren, zabala eta ithoa. Haren bizitegiak eta Erreginarenak badituzte azken erakaizkeriak, giblean dituzten gabinetan eta leku guzien ikus-gune ilunenekin, hetsienekin, urrinduenekin. Baratzeak handi-eginaz balditzen dutenak, baina hetan ibiltze arinenak aspertzen, berdin gostu gaixtokoak dira. Han etzira itzalera eremana eremu zabal erretzen duen batean gaindi baizik, haren buruan ezpaita, nahi den lekuan, igaite 'ta jausterik baizik; eta mendixkarekin, biziki laburra dena, gelditzen dira baratzeak. Harri xehatuak oinak erretzen ditu, baina hori gabe hemen ondarretan sar zindaie, hor iztil beltzenean. Naturari orotan egin den bortizkeriak nahitez aspertzen du eta higuntzen. Alde orotan bilduak eta bortxatuak diren uren nasaiak musker bilatzen ditu, lodi, lohitsu; heze kaltegarri eta sendikor bat emaiten dute, oraino gehiago hala den urrin bat. Emaiten duten ikusgarria, ainitzez arautu behar dena alta, berdinik gabea da; baina guzi horren ondorioa, miresten dela da, eta ihes egiten. Gorteko aldetik, hertsia itxo-arazten du, eta hegal zabal horiek badoaz jeusi lotuak izan gabe. Baratzetako aldetik, guziak betan bademan ederraz gozatzen da, baina badiduri errerik izana den palazio bat ikusten dela, azken estaiak eta hegaztegiak oraino huts egiten dutela. Lehertzen duen kaperak, Mansart-ek nahi baitzuen Errege guziaren estaia batez goititzera erakarri, badu orotarik neurrigabeko hil-tronu baten itxura trixtea. Eskulana hautukoa du mota orotan, egitura ezteusa; oro galeriarendako egin da,

Errege guti baitzoan beheiti, eta bazterretakoak abantzu ezin hurbilduak, bakoitzara doan arteka bakarretik. Burutzerik elaitke palazio hoin neurrigabearen huts izigarriez, eta hain neurrigabeki gusta duena, oraino gehiago egin duten osagailuekin.

Iranjeria, baratzeak, zakurtegiak, zalditegi handi eta ttipia, abeldegia lilluratzekoak; azkenik hiri bat osoa ostatu ezin txarrago bat, haize-eihera bat baizik etziren lekuan, eta Luis XIII-garrenak egina zuen karta-jauregi ttipi hura han lastoan etzateko, izari hertsu eta aphalekoa harbizizko gortearen inguruan, korralea egiten baitzaukon, eta haren zolako eraikuntzak ezpaitzitzen bi hegal ttipi eta labur baizik. Aitak ikusia du eta han ainitz aldiz etzana da. Oraino Luis XIV-garrenaren Versailles hori, nagusi-lan hoin hondatzale eta hoin gustu gaixtoko hori, eta ur-asken eta xaren aldatze osoek ezin ager daitekeen hainbertze urre han ehortzi dutena, ezin da bururatua izana.

Hoinbertze saloin batzu bertzen gainean metatuen erdian, ezta komediako sala bat, ez aphairuetako ez jantzaldietako sala bat. Parkeak eta ibilbideak, oro landatuak, ezin jin daitezke. Basa-ihizia, gelditu gabe bota behar da; ur-errekaz, laurzpabortz lekoaz luzeak, bada nahi bezenbat; harresiek azkenean, bere itzuli neurrigabeaz, hersten dute munduko herri trixte 'ta itsusieneko probinzia ttipi bat bezala.

Trianon, parke hortan berean, eta Versailles-ko ondo-ondoan, lehenik atsaldaskari egitera joaiteko porzelanazko etxea, etzatera joan ahal izaiteko handitua, azkenik harbiziz, harnabarrez eta hargorrailezko palazioa, baratze atsegingarri batzuekin; parrean Ihizitegia, Versailles-ko ur-aska handiko gurutzearen bertze aldean, guzia ezteus hautatuenez egina, eta bi ala laur zangoko ihizi arraroenen mota guziez betea; azkenik Clagny, bereziki Montespan-go Anderearendako eraikia, Maine-ko dukeari eroria, Versailles-en buruan, jauregi ezin ederragoa bere ur, baratze, parkearekin; alde orotan Erromatarren heineko ur-bideak, Asiak ez arozaharrak eztute hoin zabalik, hoin landurik, hoin ederrik, mende orotako eraikuntza arraroenez beteagorik, mota orotako harbizi hautukoenez, burdin horizkoez, margoz, zizelduraz, eta hautan hoin beteginik.

Baina zer egin ere, urak huts egiten zuen, eta ithurrietan antzeko mira horiek agortzen ziren, oraino noiz nahi badagiten bezala, ezartzen eta ondar higikorrean eta iztilean eremaiten hainbertze miliun gostaiak ziren ur-untzi itsaso horiendako aitzinetik behatua izanik ere. Nork sinets zezakeen? huts hori oinezkoeriaren hondamena bilakatu zen.

Maintenon-go Andereak erreinatzen zuen, hartaz bere aldian mintzatuko da. Louvois-ko Jauna ontsa zen orduan harekin, jendea bakeaz gozatzen zen. Eure ibaiaren itzul-araztea asmatu zuen, Chartres eta Mainenon-go artean, eta guziaren Versailles-ra ekharr-araztea. Nork erranen ahal du hortako entsegu hisituak urte andana batez gusta zuena urrez eta gizonez, hanbaterano nun debekatua izan baitzen, gaztigu handienen azpian, han ezarria zen eta biziki luzaz atxiki zen kampaldean, eritasunen aipatzea, oroz gainetik hilen, lan gogorak eta gehiago oraino hainbertze lur itzulien urrindurek hiltzen zituztenen? zenbat bertzek urteak eman zituzten khotsu hortarik sendatzen! zenbat eztira berriz osagarrian jarri ahal izanak gainerateko bizian! Eta bizkitartean ez bakarrik aitzindari bereziek, baina koronelek, brigadierek, eta han erabili ziren aitzindari jeneralek, etzuten, nor izan ziten ere, oren laurden batez han ez izaiteko libertaterik, ez eta lanetan berek oren laurden baten huts egitekorik. Gerlak azkenean bururatu zituen 1688-an, geroztik berriz hasiak izan gabe; eztira gelditu moldegabeko eraikuntza batzu baizik erokeria abre horri beti iraun-araziko daukotenak.

Azkenean, Erregek, ederraz eta jende elementiaz akitua, uste ukan zuen batzuetan xipitik nahi zuela eta bakartasunetik. Gostu berri horren asetzekoa Versailles-en inguruan bilatu zuen. Leku batzu ikusi zituen, Saint-Germain erakusten duten aldapetan ibili zen eta beherean den ibar zabalean, hor Zekuana baitabila itzul-inguruka eta Paris utziz hainbertze leku jori eta aberastasun bustitzen baititu. Lucienne-en gelditzera hertsatu zen, hor Cavoye-ek ukan baitzuen geroztik ikusgunea loriagarria duen etxe bat; baina ihardetsi zuen gune zoritsu horrek hondatuko zuela, eta, jeus bat nahi zuenaz geroz, jeusen egiteaz gogatzera utz elezakeen gune bat nahi zuela ere.

Lucienne-en giblean aurkitu zuen haran ttipi hertsia, barna, bazter malkardun bat, bere aintzien gatik ezin heldua, orotarik munoz hetsia, ezin hertsia goa, muno horietarik baten maldan izena Marly zuen herrixka txar batekin. Hetsia izaite ikusgunerik gabe eta ukaiteko ahalik gabe horrek, abantail guzia egin zaukon. Handik ezin heda zaitekeen haranaren hertsia ainitz gaineratu zuen. Hauta-arazi zituen minixtro bat, adixkide min bat, armadako jeneral bat. Lan handia izan zen ingurune guziek bere ondarkinak hara botatzen zituzten izitilune haren idortzea eta hara lurren ekhartzea. Ermita egina izan zen. Etzen hirur gauez etzateko baizik, astezkenetik ebiakoitzera, urtean bat edo bietan, kargu baitezpadakoenetan ziren hamabiko bat gehienik gortelariekin.

Apurka apurka ermita handitua izan zen; emendatzez emendatzera munoak moztuak leku egiteko eta eraikitzeko, eta buruan zena gehienez ekhendua bederen xixtazko ikusgune baten emaitako. Azkenik, eraikuntzaz, baratzez, urez, ur-bidez, “Marly-ko mekanika” izenez hain ezaguna eta ikustekoa denaz, parkez, oihan aphaindu eta hetsiez, gizairudiez, muble baliodunez, Marly oraino ikusten dena bilakatu da, den murriztua izanik ere Errege hil denez geroz. Compiègne-tik eta urrunagotik oraino ekharri diren zuhatz handizko oihan osoan ethorriez, eta tinkiez, hirur-laurdenak eihartzen baitziren, eta berehala ordaintzen; baso tinki eta bidexka ilunezko eremu zabalez, bapatez ur-aska neurri gabekoetara aldatuak hetan gondoletan ibiltzen baitzen, eta gero berriz oihan ezarriak argirik ez ikusterano landatzen ziren orduan berean, sei astez egiten ikusi dutanaz mintzo niz; ur-aska ehun aldiz aldatuez; ur-turrustez berdin itxura jarraiki eta oro ezberdinekin; arraindegiez, urreki eta margo hautukoenez aphainduak, bururatu orduko, berriz aldatuak eta bertzela maisu berez ezarriak, eta hori aldi ezin mugatuez; aipatu berri den mekanika miragarri hura, bere ur-bide neurrigabekoekin, izarigabeko hodi eta untziekin, bakar-bakarrik Marlyrendako urik Versailles-ra gehiago ereman gabe; guti erraitea da Versailles-ek ikusi den bezala Marly eztuela gusta.

Gainera daiteke gelditu gabeko bidaien gastuak, Versailles-ko egonaldien berdinak bederen bilakatu zirenak azkenean, usu abantzu heke bezenbat, eta Erregeren bizi ondarrean egonaldi ohituenak, ezta Marly bakarraz sobera erranen miliarrez kondatuz.

Horrelakoa izan zen suge eta ustelki, apho eta igel hobi haren zoria, hautatua bakarrik han ez gastatzeko. Horrelakoa izan zen gauza orotan Erregeren gustu gaitza, eta naturaren bortxatzeko atsegin burgoi hura, ez gerla hertsakorrenak, ez debozioneak lanpustu ahal etzutenak.

7. Françoise d'Aubigné, Scarron eta gero Maintenon-go Anderea

(...) Montespan-go Andereak Erregeren ganik lehenbiziko haurrak ukan zituenen, gorde nahi izan ziren Maine-ko Jauna eta Dukesa Anderea, eskaini zaukon Scarron Anderearen gomendiotan ezartzea, etxe bat eman baitzaukon Marais-an haiekin han egoiteko, eta han azken segetuan arhatzekoa eta haztekoa. Ondotik, haur horiek Montespan-go Andereari ekharriak izan zizazkon, gero Erregeri erakutsiak, eta hortik apurka apurka segetutik atheraiak, eta aithortuak. Haien gobernarisa, haiekin gortean jarria, gero eta gehiago gustatu

zizakon Montespan-go Andereari, aldi bat baino gehiagotan zerbait Erregeren ganik eman-arazi zaukon. Hunek, aldiz, etzezakeen jasan; batzuetan emaiten zaukona, eta beti guti, etzen hari gozagarri izaiteko baizik, eta gordetzen etzuen dolu batekin.

Maintenon-go lurra salgei eroria zen, Versailles-en hurbilak Montespan-go Anderea hain gutiziatu zuen, Scarron Anderearendako, nun ezpaitzaukon Erregeri bakerik eman emazte horri haren erostekoa ukan arteo, Maintenon izena hartu baitzuen orduan edo biziki guti ondotik. Ukan zuen ere jauregiaren antolatzekoa, eta Erregeri lotu zen oraino baratzearen akomeatzekoa, ezen Angennes-ko Jaunek guzia hondatzera utzia baitzuten.

(...)

Maine-ko Jauna biziki maingua zen. Amaño baten eskuetarik eroria izanik zela zioten. Egin zaukoten guziak ondoriorik ez ukanik, Flandretako sendatzale batzuen baitara igortzea deliberatu zen eta erresumako bertze leku batzuetara, gero uretara, bertzen artean Barèges-ra. (Maintenon-go) Andere gobernariak Montespan-go Andereari izkiriartzen zauzkon eskutitzak, bere bidaiez kondu emaiteko, Erregeri erakutsiak ziren. Ongi idatziak aurkitu zituen, gustatu zizazkon, eta azkenek haren urruna ttipitzen hasi zuten.

Montespan-go Anderearen omorek lana bururatu zuten. Bazuen ainitz, eta ez hertsatzera jarria zen. Errege zuten aiher nornahi baino usuago; oraino maite zuen, baina oinazkatua zen. Maintenon-go Andereak Montespan-go hortaz erasiatzen zuen, eta hunek hortaz Erregeren ondoan zerbitzu emaiten. Ohaidearen eztitzeko artha horiek jakin zituen ere bertze nunbaitik, eta batzuetan Maintenon-go Andereari mintzatzera jarri zuten, Montespan-go Anderearen ondoan egin zezan nahi zuenaz idekitzera, azkenik hunekin zituen bihotzminen erraitera, eta hortaz aholku galdegitera.

Segetu minenetan horrela apurka apurka onharturik, eta artekorik gabe, maitalearen eta ohaidearen artean, eta Erregez beraz, andere-lagun trebeak jakin zuen horren ontzen, eta hain ontsa egin zuen bere antzeaz, nun emeki emeki Montespan-go Anderearen lekua hartu baitzuen, Erregeri beharrezkoa bilakatua zizakola berantegi ohartu baitzen hau. Hein hortara heldu eta, Maintenon-go Andereak erran zauzkon bere aldian griñak Erregeri, hau bera hain guti gupidesten zuen ohaideaz, eta bat bertzeari Montespan-go Andereaz deitoratuaren bortxaz, hunen lekua osoki hartu zuen, eta ontsa atxikitzen jakin.

(...)

Erregek ukana duen zorigaitz handiena, eta ondorioek gainera-arazi behar dute Estatuak ere, Erreginaren galtze bapatekoa izan zen, Daquin haren medikuaren ezjakin handiaren eta hisiaren gatik, atxikimendu berri horren azkarrenean eta ohaideaz nardatua izaitean xertatuan, hunen omoreak ezin jasanak bilakatuak baitziren, eta deusek ezpaitzituen geldi-araziak. Ederza burgoi horrek, manatzen eta adoratua izaiten ohitua, etzuen ihardokitzen ahal bere botherearen erorteak bazemon eta beti begien aitzinean zuen etsipenari; eta neurri orotarik atheratzen zuena zen etzezakeela gorde ogia emana zaukon partida higungarri bat, eta oraino bizitzekoa haren ganik baizik etzuen, eta gainera, hilgarri bilakatzen zizakon maitasun hori zor zaukona, haren haizatzera ez deliberaturik Erregek egitera hertsatua zuen hainbertzetan, partida bat ere hain bere azpikoa edertasunaz, eta urte andana batez bera baino zaharragoa; andere-lagun harendako, ez erraiteko sehi harendako, zizakola gehienik Errege etxera jiten senditzea, gozagaitza ezin zezakeela gorde hura han etzenean; eta usuenik haren gana joaiteko zuela uzten, harekin buruz-buru solastatzeko; eta ordu oroz haren behar ukaitea etxera Erregeren ekharr-arazteko, elgarren arteko aharrez hunekin akomeatzeko, galdegiten zauzkon garazien ukaiteko. Lilluratzale horrek hain alde zituen aro horietan zen beraz Errege libro bilakatu.

Lehenbiziko egunak Saint-Cloud-en iragan zituen, Monsieur-ren etxean, handik joan baitzen Fontainebleau-ra, eta larrazkena hor iragan. Hor zaukon bere gustuak, (bertzearen) han ez izaitiaz xixtaturik, ezin jasana aurki-arazi. Itzuli zenean diote, ezen behar da segurra hala eztenetik berexi, diote, diot, Errege librokiago mintzatu zizakola Maintenon-go Andereari, eta hunek, bere indarren entseatzera menturatuz, debozionera jo zuela trebeki, eta azken aroan hartua zuen debozione ahalgetira; Errege etzela etsitu; pheredikatu zuela, debruaz beldur eman, eta maitasuna eta konzienzia bata bertzeaz zaindu zituela hain antze handiarekin, nun heldu baitzen gure begiez ikusi dugunera, eta ondokoek egia dela onhartuko eztutenera.

Baina segur-segurra dena, eta egia hutsa, hau da: Errege Fontainebleau-tik itzuli-eta zenbait demboraren buruan, eta Erreginaren heriotzeari jarraiki zen neguaren erdian, ondokoek nekez sinetsi duten gauza, nahiz osoki egia eta egiaztatua, La Chaise-ko Aitak, Erregeren kofesariak, meza erran zuela gauaz Erregeren gabinetetan Versailles-en. Bontemps, Versailles-ko gobernari, aldiko lehenbiziko gambara zainak,

eta lauretan segetuko enak, zerbitzatu zuela meza hori, hortan monarka eta Maintenon-sa ezkonduak izan baitziren, Harlay Parisko arxapezpikuaren, diozesari bezala, Louvois-ren, biek errana den bezala Erregeri hitzeman-arazia baitzaukoten ezkontza hori nehoiz etzuela aithortuko, eta Montchevreuil-en aitzinean, hau bakarrik hirugarren, ahaide, adixkide eta Villarceaux-ren izen Mornay berekoa; lehen bere Montchevreuil-go etxea (Maintenon-go Andereari) huni uzten zaukon uda guzietan, han Villarceaux-ek erregina hori hazten baitzuen, eta gastu guzia ordaintzen, gusia biziki beharduna zuelakotz, eta ohaidekeria hortaz Villarceaux-en bere etxean ahalge baitzen, bere emaztearen aitzinean, hunen pairamenaren eta bertutearen errespetuz.

(...)

Izpiritu ainitzeko emaztea zen, kompainia hoberenek, hetan lehenik doi-doia jasana izanik, laster haien atsegina izan baitzen, azkarki leundua eta munduko jakitateaz aphaindua zutena, eta galantasunak gozagarrienera osoki itzulia. Ukanak zituen izanarek bilakatua zuten lausengari, sartzale, gozagarri, beti gustatzearen bilatzale. Azpikeriako gurak, ezagutuak zituen guziek, mota bat baino gehiagotan, eta ainitzetan sartua izanik, beretako bertze batzuen zerbitzuko bezenbat, hortara moldatua zuten, eta emanak zauzkoten hortako gostua, ohidura eta antze guziak. Orotan garazia berdingabe batek, eta bizkitartean neurtuak eta errespetukoak, aphaltasun luzeaz jitezkoa bilakatua zizakonak, miragarriki laguntzen zauzkon talenduak, hizkuntza ezti, zuzen, hitz onezko, eta jitez errankor eta labur batekin. Haren aro ederra, ezen bazituen Erregek baino hiruzpala urte gehiago, solasaldi ederren aroa izana zen, galankeria ederrarena, hitz batez ohabidexkak zeritzeenena: eta izpiritu hori hain zuen hartua, nun beti atxiki baitzituen horren gostua eta margo azkarrena. Preziosa eta ttinkitasuna aro hartako airearen gainera emanik, baitzuen horietarik zerbait, handituak ziren gotortasunaren dirdiraz, eta geroztik debozioneaz gizendu ziren, ezaugarri nagusia bilakatu zena, eta bertze guzia iresten zuela iduritu baitzuen. Baitezpadakoa zizakon eremana zuen lekuan irauteko, eta etzen gutiago hala izan gobernatzeko. Azken gauza hau zen haren izaite guzia: bertze oro horrendako osoki utzia izan zen. Zuzenaren eta zintzoaren batzea horrelako gogamen batekin gehiegi nekea zen, eta gero horrelako fortunarekin, horien itxura baino gehiago eduk zezakeela asmatzeko. Etzen ere aski gezurrekoa egiazko gostua hori ukan zezalako,

baina beharrak aspaldidanik hortara ohitua zuen, eta jitez zuen arintasunak ager-arazten zuen zuena baino falsutasun bikunean.

Deusetan etzuen jarraitzerik beharraz eta bortxaz ezpazen. Haren gostua jakintzetan eta adixkidetan jostetetan bezala helgadaka ibiltzea zen, aipatu diren lehenagoko adixkide batzuekin ezpazen, hautan ezpaitzen aldatu, eta azken aroetako berri batzuekin beharrezkoak bilakatuak baitzizazkon. Jostagailuak, guti zituen aldatu ahal ukan erregina bilakatua zenaz geroztik. Zuen aldakortasuna betean botherezkora erori zen, eta hortik gaitz handiak egin zituen. Errex zerbaiti emana, hala zen soberakinean; berdin errex urrundua, berdin higuntzen zen, eta bat ala bertzea biziki usu arrazoinaren itzalik ere gabe.

Hain luzaz hetan bizi izana zen aphaltasun arruntak eta zorigabeak izpiritua hertsitua zaukoten, bihotza eta sendimenduak itsustuak. Hain ttipiki zuen gogatzten eta senditzen, gauza orotan, egiaz Scarron Anderea baino gutiago baitzen beti, eta orotaz eta orotan berriz hortaratua baitzen. Ezer etzen aphaltasun hoin izaera distiratuari lotua bezain okaztagarri, ezer ez ere onezia ororendako hoin traba ezin hautsia, ezer oraino adixkidantzaz eta konfienxiaz aldatzeko errextasun hori bezain lanjeros.

Bazuen oraino bertze amuzki enganatzale bat. Haren entzunaldian bat onetsia izana ahal zen ber, eta hortan bere gustuko zenbait aurkitzen bazuen, abiatzen zen ustegabetzen zuen idekitze batekin; bigarreneko, bere buruaz aspertzen zen, idorra eta elhe gutikoa bilakatzen. Nork bere burua akitzen zuen garazia ala desgazia zen jakiteko, biak hain bapatekoak; debaldetan. Arrazoin bakarra arinkeria zen, eta arinkeria hori halakoa nun ezin asma baitzaitekeen. Ezta izan batzuek eztutela aldakortasun hain ohiko horri ihes egin, baina jende horiek eztira bekanak baizik izanak, erregela hanbat gehiago baieztatu dutenak nun berek itzal ainitz jasan baitute bere fagorean, eta, zer ere izan baita, haren azken ezkontzaz geroztik, bat ezpaitzako begirunez baizik hurbildu, eta ezpaian.

Asma daitezke haren gorteko elhorriak, abantzu ezin heldua zena bertzalde bai haren borondateaz bai Erregeren gustuaz, eta oraino aroen eta orduen mekanikaz, gorte bat bizkitartean gauza ororen zati handi eta min bat egiten zuena, eta abantzu beti gainerateko guzian eragin bazuena.

Ukan zuen konfienxiaren menean jartzeko ahulezia, eta gehiago oraino halako aithorraldi batzuenean, eta hortaz enganatua izaitekoa

bere burua hartan hetsia zadukan barnean. Ukan zuen ere konzienzien bidatzeko eritasuna, ekhendu baitzaukon goza zezakeen libertate gutia. Gai hortan Saint-Cyr-ek gal-arazi zaukon dembora ezin sinetsia da, eta bertze mila komentuek hortan gusta zaukotena ez gutiago. Uste zuen mundu guziko abadesa zela, oroz gainetik izpiritukoan, eta hortik diozesetako xehetasunetan abiatu zen. Horiek zituen lan hautetsiak. Elizaren ama bat zela uste zuen. Lehen lerroko artzainak haztatzen zituen, semenario eta komentuetako buruzagiak, serorategiak eta hauen buru ziren andereak, edo hautan handienak. Hortik egiteko ezteusez, lillurazkoez, akigarriez, beti enganatzalez itsaso bat, eskutitzak eta ihardespenak muga gabea, arima hautatu batzuen bidatzeak, eta ohian jeusetara etzeramaten mota orotako haurkeriak, batzuetan ere gauza gotor batzuetara, eta erabakietan, egitekoetako gertaldietan, hautuetan, ustegabetze deitoragarri batzuetara.

Koronatua zuen debozioneak, haren bidez baitzuen irauten jakin, egotzi zuen, manatzeko antzez eta gostuz, gobernatzekoa horri loturik, egintza mota horietara; bere ganako amodia, etzuelarik hor ehoiz lausengaririk baizik aurkitzen, horietan hazten zuen. Aurkitu zuen Erregek bere burua apostolutzat zadukala, bere bizi guzian jansenismoari, edo halako bezala aitzineratua zizakonari gerla eginik. Alhor hori printze horren asetzeko gai iduritu zizakon Maintenon-go Anderearen, eta orotan bere buruaren sartzeko.

(...)

8. Protestantak erresumatik haizatuak

Errege debota bilakatua zen, eta debota azken ezjakinean. Debozionearekin lotu zen politika. Gustatu nahi izan zizakon sendigarrienik hunkitzen zuten alderdietarik, debozione 'ta lardieratik. Higonautak molde beltzenean marrazkitu zauzkoten: Estatu bat Estatuan, eskubideko hein hortara heldua nahasmen, jazarraldi, gerla zibil, atzerriekilako lotura, haren aitzineko erregeri indar ageriaz ihardokiaren bortxaz, eta bera ere haiekin antolamenduz bizitzerano hertsatua. Baina ontsa zaindu ziren hainbertze gaitzen ithurburua zer zen hari ikastetik, haien urrats eta aitzinatzeko mail guzien ethorkiak, zergatik eta nori esker higonautak harmatuak izan ziren lehenik, et ondotik lagunduak, eta oroz gainetik hitz bakar baten hari erraitetik aspaldidanik gogatuak ziren egin-nahiez, haren koronaren, etxearen, aitaren, arbasoaren eta etxeko guzien kontra Ligak eginak zituen itsuskeriez eta bortizkeriez.

Artha berarekin itzali zaukoten Ebanjelioak, eta jainko lege horri jarraikiz, apostoluek eta Elizako Aitek haien ondotik erakasten dutena Jesu-Kristoz pheredikatzeko, sineskaitzen eta heretikoen gonbertitzeko, eta erlisioneari datxikon guzian egin behar den araz. Debot bat hunki zen penitenzia errex baten egiteaz bertze norbaiten bizkarrean, bertze mundurako segurra zela sinets-arazi zaukotena. Errege baten urgulua hatzeman zen haren aitzineko guzien botherea gainditzzen zuen egintza bat erakutsiz, haren aita gizandiak, gogatuak eta berak bururatuak zituen hainbertze gauza handi eta gerlako egintza goretarik begiak itzul-araziz, hark berak armaden buruan eginak zituenak, hauer, bere buruan ikusten zutelakotz berak bezain lanjerrean, emaiten zeen eta iduripen guzien kontra lanjer handienetan usu irabaz-arazi zeen kuraiarekin, (itzul-araziz ere) errege handi horrek egin zuen guzitik, higenauten alderdi handi hura atherabiderik utzi gabe aurdiki baitzuen, bere gudua François Lehenaz geroztik hanbat abantailekin atxikia zuelarik, eta, Luis Zuzenaren burua eta besoak gabe, ezpaitzen Luis XIV-garrenaren borondaten menera eroriko. Printze hau ontsa urrun zen bere soaren hoin mailegu azkarrean gelditzetik.

Delibera-arazi zuten, bere baitarik gobernatzeaz hain handizki hoilatzen zen hura, aldi berean erlisioneazko eta politikazko nagusi-lan batera, egiazko (erlisioneaz) irabazi osora bazeramana bertze ororen hondatzeaz, eta Errege bothere osokoa bilakatzen higenautekin zituen gatina guziak hautsiz, eta jazarle horiek ekhenduz behin betikotz, bere alderdiaren zutitzeko eta erreger bere legearen emaiteko beti gai zirenak.

Minixtro handirik etzen ordukotz. Le Tellier hil-ohean, gelditzen zen bakarra haren seme gaizkorra zen; ezen Seignelay etzen oraino agertzen ari baizik. Louvois-ek, gerlaz amikatua, hogeit urteko bake-arte batek izitua, ezpaitzen orduan abantzu izenpetu berria baizik, uste ukan zuen higenauter eman ukaldi hoin handiak Europako protestanteria guzia inharrosiko zuela, eta anartean hoilatu zen, Erregek etzezazkeelakotz higenautak jo bere armadekin baizik, egile nagusia izanen zelakoan, eta hortik gero eta gehiago estimuan. Maintenon-go Anderearen gogoak eta antzeak, zuzenki erakutsi berriak diren bezala, etzuten azpikeriatik harat egiteko edozeinetako gaitasun eta ahal gutienik. Etzen hautan aitzineratua zizakonetik haratago ikusteko sortua ez hazia, gutiago oraino gustatzeko, mirestekoa, debozionean gero eta gehiago azkartzeko hoin aldi errexaren suharki ez hartzeko. Nork zuen, bertzalde, hitz bat jakinen kofesariaren, minixtro orduan bakarraren, eta

ezkontide berri eta maitetsiaren artean baizik deliberatzen etzenaz? Horrela dira orotara eremanak, bide batetik edo bertzetik, handitasunez, mesfindanzaz, haier datxikotenez utziak izaiteaz, auherkeriaz edo urguluz, hiruzpalaur jendekin eta biziki usu gutiagoezin baizik harremanetan ez tiren erregeak, eta bere eta bertze meneko guzien artean harresi ezin iragan bat ezartzen dutenak.

Nantes-ko erabakiaren haustea den gutieneko estakururik ez beharrik gabe, eta jarraiki zizazkon aithormenak baino gehiago herritik haizatze guziak, izan ziren zimarku laztagarri horren ondoria, erresumako laurdena jendez hustu baitzuen, sal-erospena hondatu, alderdi orotan ahuldu, hain luzaz dragonen ohoinkeria ageri eta aithortuan ezarri, hanbat gizon ala emazte ogen gabe hetan hil-arazi ziren oinaze 'ta sarraskiak haizu utzi, hoin jendalde ainitza hondatu, gurasoak gurasoen kontra harmatu haien ontasunen ukaiteko eta gosez hiltzera uzteko; gure lantegiak atzerrira iragan-arazi baitzituen, haien Estatuak joritu eta aberastasunez gainditu gurearen damutan eta han hiri berriak eraik-arazi, haier ikustera eman hoin jendalde handia haizatua, buluzia, ihesi, bidetan ibilki gaitzik egin gabe, atherbe bila bere aberritik urrun; ezarri baitzituen nobleak, aberatsak, zahartuak, jende bere debozioneaz usu biziki estimatuak, jakitateaz, bertuteaz, jende ontsa zirenak, ahulak, berak, arramuan eta untzi-zainaren azote egiazkoaren azpian, erlisionearen arrazoin bakarreko; eta azkenik, itsuskeria ororen mukurru, erresumako probinzia guziak bete baitzituen arnegatzalez eta sakrileioz, orotan gaizkiaren bitima zorigaiztun horien orroen oiharzunek joiten zutela, bertze hainbertzek bere konzienziari uko egiten zutelarik bere ontasunen eta atsedena rendako, eta bat bertzeaz erosten alegiako ukatze batzuen bidez, hortik arterik gabe herrestatzen zirela sinesten etzutenaren adoratzera, eta sainduen Sainduaren gorputzaren egiazki hartzera, gainera hastiatu behar zuten ogirik baizik etzutela jaten segurrik zauden bitartean. Horrelakoa izan zen lausenguak eta abrekeriak erdia zuten orotako itsuskeria izigarria. Torturatik arnegatzera, huntarik komunionera, etzen usu hogeita-laur orenen arterik baizik, eta burreuak zituzten bidatzale 'ta lekuko. Ondotik asti gehiagorekin aldatuak zirelako itxura hartu zutenek, etzuten luzatu, ihes egiteaz edo eginaraz, itzulaldi lasterrezko horren gezurtatzen.

Abantzu apezpiku guziek eskua eman zuten egintza bapateko eta erlisionearen etsai horri. Ainitzek hortara bortxatu zuten; gehienek burreuak sustatu zituzten, gonbertitzeak, eta gonbertitu bitxi horiek

mixterio jainkotarretara bortxatu, bere irabaztetako multzoaren handitzeko, horien zerrendak gortera igortzen zituztela hanbat gehiago estimatuak eta sarietara hurbilduak izaiteko.

Probinzietako intendantek bere buruari oharr-arazi zuten nahitara apezpikuak lagunduz, hek eta dragonak, eta bere zerrendez gortean aitzinatuz ere. Probinzietan ziren gobernari eta ordezkari jeneral biziki gutiek, eta bere etxetan zauden jaunen andana xipiak, apezpikuen eta intendanten bitartez bere buruaren erakustera heldu zirenak, etzuten horrela egitea huts egin.

Erregek ukaiten zituen alde orotarik bortizkeria horien eta gonbertitze horien guzien berriak. Milaka ziren zenbatzen uko egina eta komuniatua zutenak: bi mila han, sei mila hemen, oro batean, eta laster. Errege hoilatzen zen bere bothereaz eta debozioneaz. Apostoluen pheredikatzeko aroan zela uste zuen, eta bere buruari zemon horren ohore guzia. Apezpikuek izkiriitzen zauzkoten goresmenak; jesuistek pheredikategiak eta misioneak jo-arazten. Frantzia osoa laztaz eta nahasmenez betea zen, eta nehoiz ez hainbertze irabaz-besta eta bozkario, nehoiz hainbertze laudorio nasai. Monarkak etzuen gonbertitze horien guzien zintzoaz dudatzen; gonbertitzalek horren sinets-arazteko eta aitzinetik haren dohatsutzeko artha guzia hartzen zuten. Pozoin hori xurgatuz edaten zuen. Ehoiz etzuen bere burua gizonen aitzinean hain handi uste ukana, ez eta Jainkoaren aitzinean bere bekatuen eta biziko eskandalaren ordaintzen hain aitzinatua. Etzuen laudoriorik baizik entzuten, katoliko on eta egiazkoak eta apezpiku sailduak bere bihotz guziaz auhenetan zaudelarik ikusiz sineste zuzenekoak zirenak, hutsen eta heretikoek kontra, tirano heretiko eta paganoek egiaren kontra, konfesorren eta martiren kontra egina zuten bezala egiten. Etzaitezkeen konsola, oroz gainerik, arnegatze eta sakrileio neurri gabeko hetaz. Saminki nigar egiten zuten eskubide higungarri batzuek egiazko erlisionearen gainera ixurtzen zuten hastio iraunkor eta erremedio gabeaz, gure auzoak loriatzen ari zirelarik gu ikusiz horrela ahultzen eta guhauren hondatzen, eta erresuma protestant guzien ganik ekharr-arazten ginuen herraren gainean bere xeden moldatzen.

Baina Errege etzen egia errankor horien senditzekotan. Erromaren beraren eginarak etzauzkon begiak ideki ahal ukan; lehenago Saint-Barthélemi-ko sarraskiaren goraipatzeko ahalgetua izan etzen gorte haren, Jainkoaren eskertzeko prozesionen egin-arazterano, eta maisu

handienak erabil-araziak ukaiterano Vaticanoan egintza hastiagarri horren margolatzen.

Odescalchi-k zuen aitasaindugoa, Innocent XI-garrenaren izenpean. Apezpiku on bat zen, baina printze biziki ahal gabe bat, osoki austriarra, eta haren minixtroak gogo berekoak. “Erregalaren” egiteko handiak Erregerekin gaizkitua zuen aitasaindugoa sartu orduko. 1682-ko aphezeriaren bilzarreko laur erranaldiek oraino gehiago khexatu zuten. Higenauter egin ebaste horrek etzaukon den gutieneko baiesterik athera ahal ukan.

9. Luis XIV-garrena bidaiari

Gizon bat zen oro bere buruari emana, eta bertze guziak, nor ere izan ziten, bereari behatuz baizik ikusten etzituena. Haren gogorra ezin handiagoa zen hortan. Bere ohaidendako ukan zituen biziko ordu bizienetan, zituzten ez-ontsa bidaiari eta gorteko jantzi handiari etsaienek, ezen andere hautetsienak etziren behin ere bertze moldez Erregeren karrosetan ez gorteko edozein lekutan, Marly-k etiketa hori eztitua ukan zuen baino lehen, ez eta deusek, diot, etzezazketen utz hortarik libro. Haur beharretan, eri, haur ukan eta sei aste baino gutiagotan, bertze ordu neke batzuetan, jantzi handitan izan behar zen, bere soinekoetan aphaindua eta tinki, joan Flandre-ra eta urrunago oraino, jantzatu, beilatu, bestetan egon, jan, izan alai eta kompainia gozo, lekuz aldatu, ez beroaren, ez hotzaren, ez airearen, ez errautsaren beldur zela iduritu, eta hori zuzen erranak ziren egun eta orduetan, minuta batez aldatu gabe.

Bere alabak, oro berdin erabili ditu. Bere aldiak ikusi da etzuela gehiagoko gupidarik ukan Berry-ko dukesa Anderearendako, ez eta Burgoñako dukesa Anderearendako ere, zer ere Fagon-ek, Maintenongo Andereak, eta bertzek erran eta egin zezaketen (nahiz Burgoñako Anderea ahal zuen bezain samurki maite zuen), biak ilhortu baitziren, eta hortaz arinki zer erran zuen, nahiz etzuten oraino haurrik ukanik.

Beti karrosa emaztez beterik bidaiatzen zen: ohaideak, gero baxtartak, errenak, batzuetan Madame, eta lekua bazenean andere batzu. Etzen ihiziko aldi hitz-hartuetan, Fontainebleau-ko, Chantilly-ko, Compiègne-ko bidaietan baizik horrela gertatzen, eta egiazko bidaietan. Tiro egitera joateko, ibiltzeko, edo Marly-n edo Meudon-en etzateko, bera zoan kalea batean. Aitzindari handiek karrosan haren aitzinean egin ukan zezaketen solasaldiez mesfida zen; eta bazioten Charost

zaharrak, ordu horietaz gogotik baliatzen baitzen gauza andana baten erraiteko, zaukola ohidura hori harr-arazia, zuela berrogei urte baino gehiago. Egoki zizeen ere minixtroer, ukanen baitzuten, bertzela, egun oroz khexu izaitekoa, eta berak berari haier buruz emana zaukon hesteari, eta hanbat zuzenki jarraiki zizakonari. Emaztendako, ala ohaide lehenik, ala alaba gero, eta han lekua ukan zezaketen andere gutiendako, hori ezin huts egina zenaz bertzalde, aldi horiek biziki bekanera hertsituak ziren, eta etzen elhasturiaren beldurtze handirik.

Karrosa hortan, bidaietan, bazen beti mota orotarik jateko: haragi, bixkotxeria, fruitu. Etzen lekua laurden bat doi-doia egina Erregek jan nahi zenez galdegiten zuenean. Berak jeus etzuen hunkitzen otorduen artean, ez eta edozein fruitu ere, baina jaten ikusten jostatzen zen, eta lehertzerano jaten. Gose izan behar zen, alai, eta guraz eta garazia onez jan, bertzela etzizakon ontsa, eta saminki erakusten zuen. Pollitarena egiten zen, minberarena egin nahi zen, mundu ederrekoa izan, eta horrek etzuen erran nahi egun berean haren mahian bertze batzuekin auhaltzen ziren andere 'ta printzesa horiek berek, etzutela behar, gaztigu beren azpian, egun guzian jana ukan ezpalute bezain ontsa egin. Horrekin, beharrordu edozeinez etzen mintzatu ere behar, emaztendako gainera azkarki trabagarriak izanen baitziren Erregeren etxeko soladadoaldekin, eta gorputzeko zaintzaleak karrosaren aitzinean eta gibelean, eta atzindariak eta ezkutariak athetan, bazegitela karrosan zen guzia iresten zuen errauts bat. Erregek, airea maite baitzuen, berina guziak behehituak nahi zituen, et biziki gaizki idurituko zizakon andere zenbaitek erridaua behehitu ukan balu eguzkitik, haizetik edo hotzetik gerizatze. Etzen horietaz ohartu ere behar, ez eta bertze edozein nahigabe motaz, eta Errege beti laster handienez zoan, gehienetan zaldien aldaleku batzuekin. Aldixartzea gehiago ez itzultzeko hutsa zen.

Chevreuse-ko dukesari erraiten entzun daukot, Erregek beti azkarki maitatu eta hautetsi duenari, eta, ahal ukan duen bezenbat bere bidaietan eta etxeko egonaldietan beti ukan, nola harekin karrosan zoan batez Versailles-tik Fontainebleau-ra, bi lekoaren buruan ezin ihardoki zeela uste den beharrordu lehiatu hetarik batek hartu zuela. Bidaia guzia aldi batekoa zen, eta Erregek bidean geldi-arazi zuen, athera gabe karrosan bazkaltzeko. Behar horiek, ordu oroz berrhetzen zirenak, etziren ontsa heldu, hala nola bazkari hortan, ondoko etxe batera ephe batez jautsi ahal izaiteko molde. Baina aphairuak, zenbat oharpenekin egin bazuen ere, azken heinerako ezin-egona bikundu zaukon.

Noiztenka aithortzera bortxatua izaiteko eta oinaren lurreratze-kotan, usu ere aldixartze-kotan izanik, kuraiak Fontainebleau-rano atxiki zuen han ezindua gertatu baitzen. Oinaren lurreratzean, Beauvillier-ko dukea ikusi zuen, bezperan Frantziako haurrekin ethorria, Erregeren athealdean. Haran ondotik igaiteko orde, dukea besotik hartu zuen, eta arintzen ezpazen hiltzera zoala erran. Korrale arraultzarakoaren izkina bat zeharkatu zuten, eta korrale hortako kaperan sartu ziren, idekia aurkitu zena zorionez, goiz guziez mezak erraiten baitziren. Beharrak legerik eztu; Chevreuse-ko Anderea kapera hortan osoki arindu zen, athea bazatxikan Beauvillier-ko dukearen gibelean. Ezteuskeria hori erraiten dut Errege fagore ‘ta etxekotasun handienez hurbiltzen zuenak egun oroz senditzen zuen atsekabearen erakusteko, orduan baitzen Chevreuse-ko dukesak ukan zuenaren (fagorena) goien-goiena. Deus eztirela iduri duten gauza horiek, eta deus eztirenak alabainan, sobera ikus-arazten dute erran gabe uzteko. Erregek bazituen batzuetan bere beharrorduak, eta etzuen bere burua oinaren lurreratze-ko bortxatzen. Andereak orduan etziren karrosatik higitzen.

Maintenon-go Andereak, aireak eta bertze nahikabe ainitzek lotsatzen baitzuten, etzuen hortan abantailik batere irabazi ahal. Ukan zuen guzia, lañotasun eta bertze arrazoin batzuen estakuru, berex bidaiatzea izan zen, errana dutan moldean; baina, zer heinetan bazen ere, joan behar zen, eta erran orduan jarraiki, eta heldua eta aphaindua izan Errege haren ezgoitzan sartu baino lehen. Bidaia ainitz egin zuen Marly-ra sehi baten ezin abia-arazteko heinean. Bat egin zuen Fontainebleau-ra ezpaitzakiten egiazki etzenez bidean hilen. Zer heinetan bazen ere, Errege etxera joaiten zizakon bere ohiko orenean, eta han egiteko ekharria zuena egiten zuen; gehien-gehienez (anderea) bere ohean zen, aldi bat baino gehiagotan sukarrez izerdi lapetan. Erregek, errana den bezala, airea maite baitzuen, eta gambaretan beroaren beldur baitzen, ethortzean guzia hetsirik aurkitzeaz estonatzen zen, leihoak idek-arazten zituen, eta deusek etzuen hortarik aldaratzen, nahiz hein hortan zela ikusten zuen, eta auhaltzera bazoan hamarrak arteo, gauko hotxari behatu gabe. Musika izan behar bazen, sukarrak, buruko minak ezer etzuen debekatzen; eta ehun ezko-argi begietan. Horrela Errege bazoan beti berean, ontsa ala gaizki zen hari behin ere galdegin gabe.

10. Luis XIV-garrenaren egiazko handitasuna

Horrelakoak izan ziren Luis XIV-garrenaren erreinu luze hortako azken urteak, hain guti berea ukan zuena, eta hain jarraikian eta bat bertzearen ondotik bertze batzuena. Azken dembora horietan, gerla zorigaitzeko baten azpian lehertua, nehozez ez arindua bere ministroen eta jeneralen ahalgabearen gatik, osoan etxeko mutileria ilun eta trebe baten eskuetan, doluminez hartua, ez bere hutsenaz, ezpaitzazkien eta ez jakin nahi, baina kontra batua zizakon Europa osoari buruz ahalik ez ukaiteaz, dirutze 'ta mugetako azken egitekoetara hertsatua, etzuen atherabiderik ukan bere baitara biltzean baizik, eta larderia gogor horren familia, gorte, konzienzia, erresuma zorigaitzeko guziaren gainera zapatzean baizik, hala nola nun, gehiegi hedatu nahi ukanik, eta bide gutiegi onhartu batzuez, bere ahulezia agerian ezarria baitzuen, etsaiak hortaz gaitzespenekin ezin gehiago baliatzen zirela.

(...)

1709-ko urteaz geroztik, etxeko zauriak urte oroz berrhetu zizazkon, eta etziren gehiago erret-familiatik urrundu. (...) Horrelakoak izan ziren Erregeren gogo-berdintasuna jo zuten zorigaitz mingarrien gertaldi luze 'ta bortitzak, eta bizkitartean haren aipamenari irabazien distira guziak eta zorionen jarraipen luzeak eman ahala zaukoten baino zerbitzu azkarragoa eman zaukotenak; horrelakoa izan zen, holako nahigabe eta hoin luzetan, etxeko inharrosaldi hoin sendigarrietan, Errege horrek, hain jarria etxeko imperio handien eta askiesgarrienari, irabazi handiener kampoan, iraupenekin erakutsi zuen arimako handitasuna, bere burua ikusiz azkenean zoriaz alde orortarik utzia. Atherabiderik gabe bazakusaten haren ahalgabeaz jostatzen ziren etsai haserretuez lehertua kampoan, ukana zuen ospeaz trufatzen zirela, gainera laguntzarik gabe gertatzen zen, minixtrorik gabe, jeneralik gabe, ixurpenez eta buru-ukaldiz eginak eta lagunduak zituelakotz, eta berak moldatu ukanak nahi eta uste zituelako urgulu hilgarriaz. Bere baitan atsekabe min eta bihotz-erdigarrienez urratua, nehoren konsolamendurik gabe, bere ahuleziaz hartua; bakarrik gudukatzera hertsatua zorigaitz sendigarrienak baino mila aldiz itsusiagoko izigarrikeriekin, ethengabe gelditzen zizazkon maitenez eta minenez aitzinera ekharriak zizazkonak, eta bere burua hartara erortzera utzia zuen menpetasunaz eta hartarik, phizu guzia sendi bazuen ere, zutitu ahal ez eta nahi ere etzuenaz, agerian eta neurririk batere gabe baliatzen zirenak; ahalik gabe bertzalde, eta gustu nagusi ezin garhaituaz, eta jite bilakatua zizakon ohiduraz, edozein gogoetarik egiteko preso zadukatenen abantail-nahiaz eta

eginaraz; etxeko gatina horien erdian, gogo-azkartasun hura, arimako bermetasun hura, itxurazko berdintasun hura, ahal zuen bezenbat lardaiaren atxikitze artha betiko hura, esperanza ororen kontrako esperanza hura, kuraiaz, zuhurtziaz, ez itsutasunez, gauza orotan Errege beraren kampoko itxura horiek, gizon gutik egiteko ahala ukan zezaketen gauzak dira, *handi* izena, hain goizegi ukana, merezituko zaukotena. Hori zen ere Europa osoaren miresmen egiazkoa ekharri zaukotena, lekuko izan ziren menpekoena, eta erreinu hoin luze 'ta gogorrak ekhendua zauzkon hainbertze bihotz erakarri.

(...)

Monarka hain burgoi hori gatinetan auhenez zagon, Europa guzia atxikia zuelarik, eta bereak hain phizuki ezarriak zituelarik lerro guzietako menpekoen gainean, adin orotako bere etxekoen gainean, libertate oro haizatua zuelarik konzienzia bai sainduener bai zuzenener ebasterano.

Bera baino azkarragoko auhen hori kampa jaldi zizakon bortizki. Etzen ez ezaguna ahal izan Angeleterrako erreginari eta parlamentuko jender erran zeenetik: *bere atsedena eresia zuela*; eta testamenduaren emaitan, hura hain bere buruaren jabea eta nahi zuena baizik ez erraitearen eta nahi zuen bezala erraitearen eta ezagun-araztearen, etzela egon ahal izan bere lekuan ikusi den bezala erran gabe: *ekhendua izana zizakola, nahi etzuen egin-arazia zaukotela, eta egin behar etzuela uste zuena*. Bortizkeria bitxia, miseria bitxia, aithormen bitxia sendimenduaren eta bihotz-minaren indarraz ekhendua! Izanara hori bete-betean ikusten eta hortara bete-betean erortzen, zer ikusgarria! Zer ezberdintasuna hondamen orori ihardokitzeko indarrean eta handitasunean, eta xipitasunean eta ahulezian etxeko ahalgetu, ilun, tiraniko batzuen azpian! eta Gogo Sainduak, Testamendu Zaharreko liburu zuhurtasunezkoetan errana duenaren zer egiaztatze bothereduna, maitasunari eta emazten azpiko izaiteari emanak izan direnen zoriaz! Zer erreinu hain luzaz miretsiaren bururapena, eta azkeneko nahigabetarano handitasunez, eskuzabaltasunez, kuraiaz eta indarrez hain distiratuarena! eta zer ahuleziazko, miseriazko, ahalgezko, ezteustezko lezea, senditua, jastatua, gozatua, hastiatua, eta bizkitartean oso-osoan jasana, haren estekak ez zabaldu ez arindu ahal ukan gabe! Oi Nabukodonozor! nork zundatu ahalko ditu Jainkoaren erebakiak, eta nor ezta haien aitzinean bere buruaren ezteustera menturatuko?

(...)

Noiztenka, libro zeneko, eta egiteko oro eta bertze artha oro utzia zuen azken orduetan, bakarrik Jainkoa zuen gogoan, bere salbamendua, bere ezteusa, batzuetan erraitera uzterano: *Errege nintzanean*. Hartara sartzetik hain hurbil zen gero handian aitzinetik murgildua, urriki gabeko estekagabetasunean, aphaltasun gabeko lañotasunean, gehiago harendako etzen guziaren gaitzestean, nigarrez ikusten zituen barneko mutilak konsolatzen zituen arimako onezia eta jabetasunean, ikusgarri hunkigarriena eman zuen; eta miresgarri bilakatu zuena, beti bere hartan eta beti berdina egon zela da: bere bekatuen sendimendua baina izitu gabe, Jainkoan konfienxia, erranen dea? oso-oso, dudarik gabekoa, Jesu-Kristoren urrikalmenduan eta odolean oinarritua, jasaipen bera zen izaeraz, iraunen zuenaz eta oinazerik ez ukaitez dolutan. Nork eztu miretsiko bizi azken hoin goiena, eta aldi berean hoin girixtinoa? baina nor ezta hortaz ikaratuko?

Ezer ez familiari egin zaukon goraintzia baino xoilagorik, ezer lañoagorik, bere maiestatetik deus ere galdu gabe, gortelarier egin zeena baino, bertzea ere baino samurragoa. Geroko erregeari erran zaukonak bildua ukaitea merezitu du, baina lausengu ondar gehiegirekin geroztik iragarria, horren lekukotasuna eman baitzuen Villeroy-ko marexalak bere ohearen bidexkan ezarriz, armadan Erregeren irudi bat pabellun baten azpian zabaldua beti gambaran bazadukan bezala, eta beti nigarrez ari zen bezala Erregeren aitzinean huni pheredikariek pheredikategietarik egiten zauzkoten laudorioetan. Erregek, bere ondokoari eraikuntzez eta gerlez mintzatzean, baztertu zituen aberaskeria eta hunen nasaitasunak. Ontsa begiratu zen deusen erraitetik bere zorigaitzeko maitasunez, orduan bertze guziak baino hobeki bere lekuan izanen zen artikulua; baina hori nola aipa bere baxtarten aitzinean, eta hauen handitasun laztagarria betegintzen zuen batean? Hortarano, gordetze bitxi hori eta horren arrazoin oraino izigarriagoa bazterrera uzten bada, ezer ez mirestekeo baizik gai eztenik, eta goratasun egiazki girixtino eta erregetar batekorik.

(...)

11. Luis XIV-garrenak jesuisten botua egina zuena?

Nor ezta balditua izanen ahal, ezin egon da hori errepikatu gabe, Errege horrek hiltzean ukan zuen gogo sosegatu eta berdina, den khexu arinenik gabeko bake ezin uhertu hartaz, hanbat debozioneren eta ordu oroz hortaz baliatzeko ukan zuen artha hain gartsuaren erdian?

Medikuek erran zuten soineko oinazeak eztitzen eta ekhentzen dituen arrazoin harek berak, hori gangrenak osoki hartua duen odola baita, eztitzen dituela ere eta ezeztatzen bihotzeko guziak eta gogoko nahasmenak; eta egia da Errege eritasun hortarik hil zela.

Bertze batzuek bertze arrazoin bat eman dute, eta horiek gambara barnean eta barnekoekin egon ziren azken eritasun hortan, eta han bakarrik azken egunetan. Jesuistek badituzte beti bere lagundian lerro orotako laikoak, ezkonduak ere. Gauza hori segurra da; ezta dudatzekoa Des Noyers, Luis XIII-garrenaren aroan Estatuko segetaria, horietarik izana dela, eta bertze ainitz. Barneratu horiek jesuisten botu berdina egiten dituzte horien izanarak haizu utz dezakeen guzian, erran nahi da berexkuntzarik gabeko obediencia lagundiako aita jeneralari eta buruzagier. Pobretasunezko eta garbitasunezko botuak behar dituzte ordaindu lagundiari itsuki zor dauzkoten zerbitzu guziez eta gerizapen guziaz, oroz gainetik buruzagien eta kofesariaren meneko izaite muga gabeaz. Zuzen egin behar dituzte kofesariak haien astiari eta gogoari arautzen dituen debozionezko urrats ttipi batzu, eta nahi bezenbat laburtzen dituenak. Politikak berea badaduka bertzea merke uzten zeen beso gorde horien laguntza segurretik. Baina etzee ariman deus gertatu behar, ez eta haien ezagutzara ethor daitekeen nahi denik, bere kofesariari ager eztezaketarik, eta, konzienziaren segetetukoa denaz, buruzagier, kofesariari hala iduritzen baldin bazako. Behar dute ere orotan buruzagien eta kofesariaren manuer jarraiki ihardespenik gabeko menpetasunean.

Errana izan da A. Tellier-ek Erregeri onhar-arazia zaukola heriotzea baino biziki lehenago horrela lagundiaren barnean hartua izaitea; salbamenduko horren abantail segurrak goraipatuak zauzkola, eta lotuak zazkon indulientzia osoak; sinets-arazia zaukola zer ere gaizkin egina bazuen batek, eta nolako neketan ere aurkitzen bazen horien ordaintzeko, botu segetetuzko horrek oro ikuzten zituela, eta salbamendua huts egin gabe segurtatzen, botu horier leial egoiten zizeen ber; lagundiako jenerala Erregeren baimenaz segetetuan onhartua izan zela; Erregek botu horiek A. Tellier-en eskuetan egin zituela; biziko azken egunetan biak entzun zirela, bat indar emaiten, bertzea agiantza horietan bermatzen; azkenik Erregek haren ganik ukan zuela jesuista batek bezala lagundiaren azken benediziona; erran-arazi zauzkola hortaz dudatzera uzten etzuten othoitzetako hitzak, eta zatiz entzun

zirenak, eta emana zaukola hortako jantzi edo ezaugarri bat abantzu ezin ikusia, halako abitu bat, gainean hatzeman zizakona. Azkenean, urranenik hurbildu zizakon jende gehiena segur gelditu zela bertzen bizkarrean, higenautenean, jansenistenean, jesuisten etsaienean, edo haien eskuetara osoki eman etzirenenean, errege 'ta erresumen zuzenbidea, eliza-legeak eta hierarkia mendiez haraindiko tiraniaren eta nahikarien kontra zaintzen zituztenen bizkarrean egina zen penitentzia harek, legearen itxurari eta erlisioneraren azalari atxikimendu farisiatar harek, moldatua zutela segurtasun hain ustegabeko hura, ogengabea eta penitentzia leialean oinarritua dena eta segurkienik lagundu behar duela iduri duena hain ohiki ezeztatzen den ordu izigarri horietan: enganatzeko eskubide lazkarriak, lerro guziak jesuista ez ezagunez betetzen dituztenak, hauen jakingabeaz baliatzen direlarik bere behar handi guzietako salbamendu segur bat sinets-araziz urrikitzerik gabe, ordaintzerik gabe, zer bizi ere eremana baita penitenziarik gabe, eta dotrina hastigarri batenak, lurreko abantail batzuen gatik bekatoreak hil-hobirano enganatzen dituenak, eta hara bake osoan eremaiten bide lorez ihaurtu batetik.

Horrela hil zen lurreko errege handienetarik bat ezkontide ahalgegarri eta ilun baten besoetan, eta bere baxtart bikunenetan, haren jabe zirentzat suntsitua izan zenerano, Elizaren sakramenduak ukanik bertze maite-minaren semearen eskutik (*), hau mukurru betea baino gehiago amak bere familiari ukan-araziak zauzkon fagorez, eta bakarrik A. Tellier ikusi den bezalakoa zen kofesari batek lagundurik. Horrelakoa izan badaiteke sainduen hiltzea, ezta bederen hori orduan duten laguntza.

(*) *Roban-go kardinala (Itzultzailearen oharra).*

(...)

Baina, A. Tellier-i doakonaz, egiak nahi du gainera dezatan geroztik Maréchal-en ganik arthoski argitu nahi izan nizala Erregek jesuisten botua zuelako aburuaz eta hortaz kondatua dutanaz. Maréchal-ek, biziki egia baitzen, eta A. Tellier batere ezpaitzuen estimatzen, segurtatu nau horrekin zerbait ikusteko bazuenaz etzela behin ere ohartu, ez othoitz molde ez benedizione bereziri, ez eta Erregek bazuela abitu moldeko edo itxurako zerbait, eta segur-segurra zela egia izpirik etzela hortaz errana izana zen guzian. Maréchal, nahiz biziki jarriakia, etzen beti ez gambaran, ez ohe ondoan. A. Tellier hartaz mesfida izaiten ahal zen ere eta hartarik gordetzen; eztezaket alta sinets, hori guzia

izanik ere, egia zerbait izan balitz, Marechal-ek jeus etzuela jakina ukanen, eta aierurik bederen ukanen etzuela.

*

Luis XIV-garrenaren testamendua parlamenduan hautsia

1. Buruilaren 2-ko bilzarrea parlamentuan: “boneta”

Goizeko zazpi orenak baino gehiago zen, eta (han ginen duke) guziak joan ginen zuzen-zuzena parlamentura gure karrosa guziekin eta gure laguntzaleak ondotik.

Oso-osoa bilzarrean aurkitu ginuen La Rochefoucauld-ko Jauna, Haurcourt-ko Jauna, eta bakarrik bertze bizpahirurekin (...) Gu bilzarrera ethorri-eta oren laurden bat baino guttiagotan, jin ziren baxtartak. Maine-ko Jauna bozkarioz lehertua zen. Hitza bitxi da, baina zuen egonara eztaiteke bertzela erran. Itxura irrikor eta askietsia igeri zen gudukatzen zituztela iduri zuten ausartziazkoaren, konfienxiazkoaren gainean, hauk ere ageri bizkitartean, eta jendetasunarenean. Agurtzen ari zen eskun eta ezker, behako bakoitza sartzen zuela. Urrats zenbaitez barnean sartu eta, buruzagier eman zeen agurrak bozkariozkoa iduritu zuen, eta buruzagi lehenaren ihardespina molde sendigarri batekin berdina zen. Parendako seriosa, ezta sobera erraitea ere errespetuduna, hirur aldetara egin zeen gurra, emeki egin, handia, errankorra izan zen. Burua beheiti gelditu zizakon zutitzean ere, hain da azkarra, irabazte osoaz dudatzen ezten egunetan beretan, gaizki eginen phizua. Neure soez jarraiki nindakon zuzen-zuzena orotan, eta ohartu nintzan hirur aldetan itzulua izan zizakon gurteko beheititza berdin idor eta labur izan zela. Anaiaren (Tolosako kondearen) baitan aldiz, etzen ohiko hotz hura baizik agertu.

Doi-doia jarriak izan gineneko Duke Jauna ethorri zen, eta berehala gero Orléans-ko duke Jauna. Hunen ethortzeak eman zuen harrabotsa erortzera utzi nuen, eta ikusi bainuen buruzagi lehena mintzatu nahi ukaitera zoala, burua hastuz, eskuaz keinu bat egin nuen, burua hastu eta berehala berriz estali, eta erran pare Jaunek kargatua nindutela bildua zen kompainiari erraiteaz etzela orai bururatu behar ziren egiteko publiko larri eta lehiatuen gatik baizik, parek oraino “bonetaren” ausarkeria ahalgegarria onhartu nahi baldin bazuten eta deitoratzeko zituzten bertzeak, eta lekukotasun publiko horren bidez erakutsi Estatuko eginbeharrer, ezpaitzitzuten ephe batez ere gibelatu

nahi, emaiten zeeten lehentasuna bere egiteko berezi, atxikiene eta zuzenene aitzinean; baina aldi berean ausartzia horien kontra paren izenean oihu egiten nuela, eta horien iraupenaz, molde argienean, garbienean, zintzoenean, bilzarre goragarrienaren erdian eta aitzinean, han ziren pare guzien baimenarekin; eta oihu egiten nuela ere etzela hemen dugun Orléans-ko duke Jaunak bezperan bere egoitzan, Versailles-en, eman zaukun hitz garbi eta egiazkoaren errespetuz baizik, gobernuko egiteko publiko hauk bururatuak izanen diren bezain laster ausarkeria horiez deliberatuko eta jujatuko zuela; eta onhetsi duela badagitan bezala argiki mintza nadin, eta (buru hastuz eta berehala estaliz) ukan nezan hemen berean hari hel egiteko ohorea berak erran dezan hori dela emana daukun hitza, eta hari bakarrik gaudena, eta ondorioz orai nik erran eta aithortu dutanean gelditzen girela, haren baimen argi eta garbiaz, barda etxera deitu zituen hamabortz edo hamasei paren aitzinean.

Entzuna izan nintzan ixil osoak erakutsi zuen han zenaren ustegabea. Orléans-ko duke Jauna buru hastu zen, erran berria nuena baieztatuz, aski aphas eta itxuraz eragozpenean, eta berriz estali.

Gero berehala Maine-ko duke Jaunari so egin naukon, iduritu baitzizatan hoin merke atheratzeaz askietsia zela, eta ene auzoek erraiten zautatela azkarki penatua iduritua zuela ene hastapenean.

Ixil bat biziki laburra jarraiki zizakon ene oihukatzeari, eta gero ikusi nuen buruzagi lehena Orléans-ko duke Jaunari aski aphas hitz batzuen erraiten, eta gero gora-gora parlamentuko deputatuen izendatzen Erregeren testamenduaren eta eranskinaren bila joateko, hau ere leku berean ezarria baitzen. Ixila jarraiki zen igurikatze handi eta labor hortan; bata bertzeari beha zagon higitu gabe. Guziak behereko alkietan ginen, atheak alegia hetsiak ziren baina gambara handia betea zen lerroko eta mota orotako ikuslez, eta bilzarrean zirenen laguntzale ainitzez. Orléans-ko duke Jaunak ukana zuen bere buruaren enganatzeko errextasuna, beharra gertatzen bazen, Angeleterraren laguntzaz, eta hortako Milord Stairs-en ezarr-arazteko galeria izkina gorde batean. Noailles-ko duekaren, Canillac-en eta Dubois aphezaren lana zen.

Bertze bat bazen indar gehiagokoa. Zaintzalen erreximenduak bazaduzkan ixilka ethorbide guziak, eta haren buruzagi guziek, soldado hautatu batzuekin han hemenka, palazioaren barnea. Gixungo dukea, kargua semeari utzirik, khebideko galeriaren behereko izkinan zen. Orléans-ko Jaunari amor emana zaukon, eta sei ehun mila libera

ekhenduak zauzkon balia-arazten jakina zuen zerbitzu horrendako. Erregeren bizian bere burua baxtarter atxikia zen gizon batendako emana zuen. Hari egonak ziren, eta ikusten den bezala, etzuten luzaz eman huts egina zutela ohartzen. Begirantza etzizakon Gixungo dukeari baizik baliagarri izan; guzia iragan zen, egia da, eztitasunik biziki gabe, baina jabaldura osoaren hausteko den itxura arinenik eman gabe.

2. Testamendua irakurria eta hautsia

Deputatu aldeak etzuen itzultzen luzatu. Testamendua et eranskina eman zituen buruzagi lehenaren eskuetara, hunek ezkaini baitzauzkon, baina utzi gabe, Orléans-ko duke Jaunari, gero eskutik eskura iragan-arazi buruzagi xapeldunetarik Dreux-ren gana, parlamentuko konseilaria, zeremonietako nagusi handiaren aita, erranez ongi irakurtzen zuela, eta ororen ganik ontsa entzuna izanzen zen mintzo azkar batez, zen lekutik, buruzagien gibleko alki goretan edandegiko galeria izkinaren ondoan. Goga daiteke nolako ixilean entzuna izan zen, eta begi-beharriak irakurle horren gana zenbat ideki ziren. Bere bozkario guziaren artetik, Maine-ko dukeak arima penatu bat erakutsi zuen; jasan behar zen egiteko azkar batera heldua zen. Orléans-ko duke Jaunak etzuen begirantza jarraiki bat baizik erakutsi.

Eniz bi idazki horietan geldituko, ezpaitutuzte aipatzen baxtarten handitasuna eta botherea, Maintenon-go Anderea eta Saint-Cyr, Erregeren erakaslen hautua baizik, eta Erreienziako konseilua gaizkienik Orléans-ko duke Jaunarendako, eta hunen emaita bothere oroz osoki buluzirik Maine-ko dukearen bothere mugagabearen menera.

Ohartu nintzan begitarte guzietan agertu zen ilun bati eta halako sumindura bati, irakurtzea aitzinatzen ari zen arau, eta irakitze mutu batera itzuli zena Menguy aphezak eranskina irakurri zuenean, gambara handiko bertze konseilari bat, baina elizakoa, eta Dreux zen leku berean hobeki entzuna izaiteko. Maine-ko dukeak senditu zuen, eta zuritu zen, ezpaitzen begitarte guzietara begiak emanez baizik ari, eta eneak entzutean hurbildik jarritzen baitzizazkon, noiztenka ere Orléans-ko duke Jaunaren egonarari behatuz.

Irakurtzea bururatu eta, Printze horrek hitza hartu zuen, eta begiak bilzarre guziaren gainean erabiliz, buru-hastu zen, berriz estali, eta hitz bat erran zuen errege zenaren laudorioz eta doluz. Gero mintzoa gehiago azkartuz, erran zuen etzuela baiesterik baizik egiteko Erregeren erakaskuntzari behatzen zaukon guziaz, jendez zen bezenbatean, eta Saint-Cyr bezain ikastetxe eder eta baliagarriaz errana zenaz, entzun

ziren antolamenduetan; gobernamentuari eta Estatuari zaudener buruz, berex mintzatuko zela testamenduan ezarria zenaz eta eranskinetako; neke zizakola horien batzea Erregek biziko azken egunetan errana zaukonarekin, eta publikoki emanak zauzkon segurtasunekin deus etzuela haren antolamenduetan aurkituko hartaz askietsia izan behar etzuenik, horren ondorioz berak beti haren gana igorria baitzuen eman behar ziren manuetako, eta minixtroak ere egitekoetako hartuak izaiteko; izan behar zela egin-arazia zaukotenaren indarra etzuela senditu, Maine-ko dukearen aldera behatuz, Erreienziako konseilua hautatua aurkitzen zenaz geroz, eta (dukearen) larderia hanbat jarria testamenduaren bidez nun ezpaitzizakon berari batere gelditzen; sortzeko zuzenbideari, Erregeren personarendako ukana zuen atxikimenduari, Estatuarendako zuen amodioari eta leialtasunari egin zizeen kalte hori halakoa zela nun haren ohorearen begiratzeko ezin jasana baitzen; eta bazuela konfientzia aski hor zen guziaren estimuan Erreientzia izan behar zuen bezala aithortua izanen zela uste ukaiteko, erran nahi baita osoa, nehoen menekotasunik gabea, eta Erreienziako konseiluaren hautua bere nahitara, egitekoetan etzaukolarik deliberatzeko zuzenbidea ekhendu nahi, horiek ezpaitzezazkeen eztabada, publikoak onhartuak zituen ber, haren konfientzia ukan zezaketen jende batzuekin baizik. Hitzaldi labur horrek ondorio handia ukan zuela iduritu zuen.

Maine-ko dukeak mintzatu nahi ukan zuen. Buru-hasten ari zelarik, Orléans-ko duke Jaunak burua Duke Jaunaren aitzinera eman zuen, eta Maine-ko duke Jaunari erran doinu idor batekin: “Jauna, mintzatuko zira zure alaian.” Ephe labur batez gauza Orléans-ko duke Jaunaren nahitara itzuli zen. Konseiluaren botherea eta egin zen moldea erori ziren. Erreienziako konseiluaren hautua Orléans-ko duke Jaunari, erresumako Erreientari emana izan zizakon, Erreienziako larderia guziarekin, eta gobernuko egitekoen erabakia Erreienziako konseiluko bozen gehienara, Erreientarena bi bozendako, bi alderdiak berdind baziren. Horrela garazia eta gatzigu guziak Orléans-ko duke Jaunaren esku bakarrean gelditu ziren. Oihukatzea halakoa izan zen nun Maine-ko duke ezpaitzen hitz baten erraitera menturatu. Begiratu zen eranskinaren zaintzeko, horren atxikitzeak, alabainan, berez ezeztatuko baitzuen Orléans-ko duke Jaunak ukan berria zuen guzia.

3. Eranskinaz eztabada

Zenbait ixil orduen ondotik, Orléans-ko duke Jaunak hitza berriz hartu zuen. Ustegabetze berri bat erakutsi zuen testamenduaren

antolamenduak ez aski izanik esondatuak zituenari, eta hetan Estatuaren jabe jartzeaz ez askietsirik, hartako artikulak hain bitxiak iduritu zizezteelakotz nun, bere buruaren segurtatzeko, behar ukan baitzuten oraino Erregeren personaren , haren beraren, gortearen eta Pariseren nagusi bilakatu. Gaineratu zuen bere ohorea laidotua bazuen kompainiak senditua zuela iduritzen zizakon heinean testamenduaren antolamenduez, eta ere lege 'ta arau guziak, gauza berak bortxatuak zirela ere eranskinarenaz, ezpaitzauskon ez libertatea ez bizia bera segurrean uzten, eta Erregeren persona ezartzen baitzuen hiltzera zoan errege zenaren ahuleziaz baliatzeko eta hari ezin entzun zezakeenaren ekhentzeko ausartzia ukana zuenaren menpetasun osoan. Bururatu zuen erranez horrela Erreienzia ezin egina zela, eta etzuela dudatzen kompaniaren zuhurtziak ezin jasan zaitekeen eta horren erregelek Frantzia zorigaitz handienetara eta baitezpadakoenetara aurdikiko zuten eranskina ezeztatuko zuela. Printze hori mintzo zen bitartean, ixil oso eta ilun batek baiesten zuen, argitzera eman gabe.

Maine-ko dukeak, kolore guzietakoa bilakaturik, hitza hartu zuen, eta aldi hortan utzia izan zizakon. Erran zuen Erregeren erakaskuntza, eta beraz haren persona, haren eskuetara emana izanez, ondorio zuzen-zuzena zela ukan zezan, bertze nehork baino lehen, haren etxe zibil eta militarrean larderia osoa, hori gabe haren zerbitzatzea eta haren personaren berme izaitea bere gain har ezpaitzezakeen; eta hortik errege zenarendako zuen atximenduaz, hain ezagunaz nun konfienxia osoa emana baitzauskon, espantu egiten.

Orduan Orléans-ko duke Jaunak moztu zuen, eta hitz horri oharr-arazi. Maine-ko Jaunak eztitu nahi ukan zuen lagun emana zizakon Villeroy-ko marexalaren laudorioekin, baina haren azpian kargu eta konfienxia berean. Orléans-ko duke Jaunak egin zuen berriz bitxi lizatekeela konfienxia lehena eta osoena ezpalitz haren baitan, eta gehiago oraino ezpaladi Erregeren ondoan bizi bere burua barnearen eta kampoaren nagusi oso, eta Paris berarena zaintzalen erreximenduez, bilakatua zutenen larderia eta geriza-pean baizik.

Eztabada berotzen ari zen, baten eta bertzearen erranaldi laburretan moztan, eta ahalgegarri bilakatzera zoan aharraz khexu, La Force-ko dukeak gu bien artean jarria zen La Rochefoucauld-ko dukearen aitzinetik orduan egin zautan deiari amor emanez, Orléans-ko duke Jaunari eskuaz kheinu egin naukonean, athera ziten eta eztabada horren bururatzera inkesten laugarren gambara joan, gambara handira

bademan athe bat baitu, eta han nehor ezpaitzen. Egintza hortara deliberatu ninduen zen Maine-ko dukea azkartzen ari zela ohartu nintzala, alderdikatzeko zurrumurru nahasi bat bazela, eta Orléans-ko duke Jaunak etzuela hoberena egiten, bere auziaz Maine-ko dukearen kontra eztabadatzera jausten zenaz geroz.

Ikuspena laburra zuen. Oso-osoa jaukitzeari eta ihardesteari zen, hala nola nun ezpaitzuen egiten naukon kheinua ikusi. Ephe zenbaiten buruan berriz hasi nindakon, eta ondorio hoberik ez ukanez, jeiki nintzan eta urrats zenbaitez aitzinatu, eta erran naukon, nahiz urrundik: “Jauna, inkesten laurgarreneira iragaiten bazine, Maine-ko Jaunarekin, errexxiago mintza zininzazkete;” eta aldi berean gehiago aitzinatuz, ikusi ahal zuen eskuko eta begietako kheinu batez lehia-arazi nuen. Buruaz ihardetsi zautan, eta ni berriz jarri orduko ikusi nuen Duke Jaunaren aitzinetik Maine-ko dukearen gana joaiten; eta gero berehala biak jeiki ziren eta inkesten laurgarreneira joan. Enuen ikusi ahal ukan, han edo hemen jarriak etzirenetarik hara nor jarraiki zizeen, ezen bilzarre guzia jeiki zen haien atheratzean, eta ordu berean jarri lekuz aldatu gabe, eta guzia ixil handi batean. Ephe zenbait berantago Tolosako konde Jauna bere lekutik jalgi zen, eta gambara hartara joan. Duke Jauna jarraiki zizakon guti ondotik. Ephe zenbaiten buruan La Force-ko dukeak berdin egin zuen.

Aski guti egon zen. Bilzarrera itzuliz, La Rochefoucauld-ko dukea eta ni baino urrunago jin zen, burua Sully-ko duekarenaren eta enearen artean ezarri, La Rochefoucauld-ek entzun zezan ezpaitzuen nahi, eta erran zautan: “Jainkoaren izenean, zoaz barne hortara, gauza biziki gaizki doa. Orléans-ko duke Jauna guritzen ari da, motzazu eztabada, Orléans-ko duke Jauna sarr-araz; eta lekuratua izanen den bezain laster, baderrala bururatzeko berantegi dela, kompainia bazkaltzera utzi behar dela, eta mahitik landa berriz itzuli bururatzeko; eta bitarte hortan, gaineratu zuen La Force-ek, Erregeren jendeak Erret-Palaziora ekharr-araz, eta dudatzeko lizatezkeen dukekin mintza, eta parlamentarien arteko alderdien buruzagiekin.”

Aburua ona eta beharrezkoa iduritu zizatan. Bilzarretik athera nintzan eta inkesten laurgarreneira joan. Itzuli handi bat aurkitu nuen ikuslez aski betea, Tolosako konde Jauna sartze aldera aitzinatua, baina itzuli horri lotua, Duke Jauna erditsutara egonara berean, oro khebidetik aski urrun, hunen aitzinean Orléans-ko duke Jauna eta Maine-ko dukea bakarrik, ahapetik eztabadan ari, biak itxura biziki sutsuan. Ephe batez

ikusgarri horri beha egon nindakon, gero khebideari hurbildu nintzan, mintzatu nahi zuen gizonaren aran. “Zer da Jauna, egin zautan Orléans-ko Jaunak ezin egonezko itxura bizi batekin. - Lehiatzeko hitz bat, Jauna, erran naukon, erran behar dautzutana.” Maine-ko dukeari mintzatzen jarraikitzen zizakon, ni abantzu heren; berrhetu nuen, beharria eskaini zautan. “Ez hori, erran naukon, eta eskua hartuz: hunarat zaugi.” Khebidearen izkinara ekharri nuen. Hor hurbil zen Tolosako kondea ainitzez gibelatu zen, eta alde hortako inguru guzia. Maine-ko dukeak ere zen lekutik gibelerat egin zuen.

Orléans-ko duke Jaunari erran naukon beharrira ezer irabaziko zuela Maine-ko Jaunaren gainean etzuela uste ukan behar, ezpaitzuen eranskina haren arrazoinetara utziko, eztabada horren luzetasuna ahalgegarri bilakatzen ari zela, abantailik gabea, lanjerosa; hor bilzarrera bezala sartua zen guziaren aitzinean ikusgarri zela, eta oraino hobeki behatua eta ikertua; etzuela bilzarrera sartzeaz bertzerik egiteko, eta hara orduko, bilzarrea hautsi eta bertze. “Arrazoin duzu, erran zautan, eginen dut. - Egizu beraz berehala, eta etzaitela utz jostatzera. Aholku hau La Force-ko Jaunari duzu zor, eta hark nigorra zuri erraitera.” Utzi ninduen bertzerik deus erran gabe, Maine-ko Jaunaren gana joan, hari bi hitzez berantegi zela erran, eta bazkal-ondoan bururatuko zela.

(...)

Bilzarrera itzultzea beti laguntzen duen harrabotsa eztitu eta, Orléans-ko duke Jaunak erran zuen berantegi zela kompainiaren luzazago asperr-arazteko, bazkaltzera joan behar zela, eta burutzeko mahitik landa berriz bilzarreratu. Berehala gaineratu zuen egoki iduritzen zizakola Duke Jauna ordu beretik Erreienziako konseiluan sar zadin eta konseilu horren buruzagi bezala; eta, kompainiak haren sortzeari eta Erreientgoako karguari zor zizakon zuzenbidea itzulia zaukonaz geroz, argituko zaukola gobernamentuari eman behar zizakon moldeaz zer zuen uste, eta bitartean zuen Erreienziako botherea hartzen zuela kompainiaren argiez eta zuhurtziaz baliatzeko, eta orai beretik itzultzen zaukola erasien emaitako libertate zaharra. Hitz horiek ororen esku zartatze handi batez jarraikiak izan ziren, eta bilzarrea berehala gelditua izan zen.

Egun hartan bazkaltzera galdegina nintzan Noailles-ko kardinalaren etxera, baina sendi nuen baitezpadakoa zela bazkal-ondoko bilzarrean sartzeranoko arte hoin labur eta baliosaren erabiltzea, eta Orléans-ko duke Jaunaren ez uztea, La Force-ko dukeak hortara hertsatu

baininduen bilzarrean sartua izan nintzan orduko. Orléans-ko duke Jaunari hurbildu nindakon bilzarrea bururatu orduko, eta beharrira erran: “Orduak kario dira, banarraikazu Erret-Palaziora;” eta gero behar nuen lekuan jarri nintzan parekin atheratzeko. Karrosara igaitean, Noailles-ko kardinalari igorri naukon aitoren-seme bat desenkusatzera eta horren arrazoina emanen naukola erraitera. Erret-Palaziora joan nintzan jakin-nahiak hara bildua zuelarik palazioan etzen guzia, eta han ikusle izana zenetik andana bat jin baitzen ere. Ene ezagutzetarik han aurkitu nuen guziak berriak galdegin zauztan lehiarekin. Oro ontsa zoala ihardetsiz gelditu nintzan , eta zuzen zen bezala, baina etzela oraino guzia bururatua.

Orléans-ko duke Jauna gabinet batera iragana zen han aurkitu bainuen bakarrik beha egona zizakon Canillac-ekin. Hor behar ziren neurriak hartu ginituen, eta Orléans-ko duke Jaunak igorri zuen D’Aguesseau imperkadore jeneralaren bila, geroztik kanzelari izan dena, eta Joly de Fleury lehen abokat jeneralaren, geroztik imperkadore jenerala. Bi orenak hurbil ziren. Laur mahikoekilako mahi ttipi bat ezarri zen, hor Canillac, Conflans Orléans-ko duke Jaunaren gambarako lehen aitoren-semea, eta ni jarri baiginen printze horrekin, eta hemen erraiteko, geroztik eztut aldi bat baizik jan harekin, Orléans-ko dukesa Anderearen etxean Bagnolet-en.

Villeroy-ko marexala Versailles-en gelditua zen. Goesbriant, Desmarets-en suhiari manatua zaukon palaziora jiteko, eta berriak usu eman zitzen. Hirur mezu ukan zituen bat bertzearen ondotik biziki hurbil bozkarioz eta esperanzaz hanbat bete zituztenak, hura eta Ventadour-ko dukesa haren adixkide on zaharra, nun ezpaitzuten dudatu eranskinaz ari zena haren alde zela, eta testamendua berriz jarriko zela, hala nola nun ezpaitziren egon ahal izan, eta Maine-ko dukeak Orléans-ko duke Jaunari osoki irabazia zaukola Versailles-en hedatu baitzuten. Paris huts berean izan zen ere, Maine-ko dukearen mezulariek orotara hedatua, baina irabazteak etzuen luzaz iraun.

4. Eranskina hautsia, bothere osoa Orléans-ko duke Erreientari emana

Parlamentura itzuli ginen laurak baino apur bat lehenago. Neure karrosan bakarrik joan nintzan Orléans-ko duke Jauna baino ephe bat lehenago, eta guzia bildua aurkitu nuen. Jakin-nahi handi batekin behatua izan nintzan, iduritu zizatanaz: nundik banetorren jakina zenez eztakit. Ene ibilerak jeus erakuts etzezan artha hartu nuen. Iragaiten

erran naukon bakarrik La Force-ko dukeari haren aholkua salbagarri izana zela, eta ondorio on guzia ukanen zuelako uste osoa nuela, eta Orléans-ko duke Jaunari errana naukola hark zuela asmatua eta eni errana. Orléans-ko duke Jauna ethoririk, eta jarrikitzalen andana handi batekin doan harrabotsa ezituz, erran zuen gauzak hartu behar zirela goizean egonak ziren hartan berean; erran behar zaukola gorteari deusetan etzela Maine-ko dukearekin bat gelditua, eta aldi berean begien aitzinean ezarri hiltzera zoan printze bati ekhendua zizakon eranskin baten artikulua izigarriak, gorteak atxiki behar etzirela erabakia zuen testamenduarenak baino ere bitxiagoak, eta gorteak etzezakeela utz Maine-ko dukeari Erregeren personaren, gortearen, Pariseren, ondorioz Estatuaren, Erreientaren personaren, libertatearen, biziaren jabe izaitea, ordu oroz hunen preso hartzeko zuzenbidean izanen baitzen, Erregeren etxe zibil eta militarren nagusia izanen zen orduko; gorteak bazakusala zer ondorio ukanen zuen baitezpada guzia Maine-ko dukearen eskuetan emaiten zuen berrikeria oraino ez entzun batek, eta uzten zuela kompainiaren argieri, zuhurtziari, haren pherestutasunari, zuzentasunari, Estatuko amodioari, zer uste zuen erraitea.

Maine-ko dukeak agertu zen orduan gudugunean gabineteko ilunbean beldurgarria zen bezain gutiesgarria. Kondenatu baten itxura zuen, eta hura beti hain kolore jorikoa, hil baten hitsa begitartean. Mintzo biziki apha eta guti entzungarri batez ihardetsi zuen, eta goizean ozarra izana zen bezain itxura errespetudun eta laño batekin.

Bitartean hari behatu gabe aburu emaiten ari ziren, eta guzia batean joan zen oihuz bezala eranskinaren hauste osora. Hori goizegi egin zen testamendua goizean egin izana zen bezala, bata eta bertzea bapateko sumindura batean. Erregeren jendeak mintzatu behar zuten, eta hor ziren, nehork berea erran baino lehen; bozak etzituen ere buruzagi lehenak galdeginak: manua aitzinatua zuten. D'Aguesseau, nahiz imperkadore jenerala izan, eta Fleury, lehen abokat jenerala mintzatu ziren: lehen hitz gutiz; bertzea hedamen gehiagorekin, eta biziki hitzaldi ederra egin zuen. Liburutegietan aurkitzen baita, eztitut bien bururapen berdinak baizik aipatuko, osoan eta orotan Orléans-ko duke Jaunaren fagoretan.

Mintzatuak izan zirenean, Maine-ko dukeak, osoki murriztua zela baitzakusan, azken atherabide bat entseatu zuen. Bigarren bilzarre hortan erakutsia zuena baino haren ganik beha zauden indar gehiagorekin, baina hale ere neurrian, eranskinak emana zaukon larderia

ekhendua baldin bazizakon, Erregeren zaintzeaz, haren personaz berme izaiteaz arindua izaitea geldegiten zuela, eta haren erakaskuntzako intendantgoa goienaren atxikitzea bakarrik. Orléans-ko duke Jaunak ihardetsi zuen: “Biziki gogotik, jauna, ezta ere gehiago behar.” Hortan, buruzagi lehenak, Maine-ko dukea bezain aurdikia, bozak hartu zituen.

Bakoitza mintzatu zen bururatua izana zen moldera, eta erabakia emana izan halako moldez nun Maine-ko dukeari ezpaitzizakon edozein motako bothererik gelditzen, osoan Erreientaren eskuetan ezarria izan baitzen, Erreienzian nahiko zuenaren ezartzeko zuzenbidearekin, iduritzen zizakonaren ekhentzekoarekin, eta gobernamentuaren moldatzeaz zuzen zela gogatuko zuen guziaren egitekoarekin, bizkitartean gobernuko gauzen larderia Erreienziako konseiluari geldituz, bozen gehiengan, Erreientarena bi bozendako erdizkatzea gertatuko zenean bakarrik, eta Duke Jauna haren azpian Erreienziako konseiluaren buruzagi aithortua, orai danik hartan sartzeko eta han aburu emaiteko baimenarekin.

Aburuen emaitean, bururapenean eta bilzarreko gaineratekoan, Maine-ko dukeak beti begiak beheiti atxiki zituen, itxura bizi baino gehiago hila, eta higitu gabe. Haren semeak eta anaiak etzuten deusetan barne zirela erakusterat eman.

Erabakia bilzarrean barretua zen jendaldearen oihukatze azkarrez jarraikia izan zen; eta palazioaren gaineratekoa betetzen zuenak erantzun zaukon erabakia izan zenaz jakindun izan zen arau.

Harrabots apur bat luze hori eztitu eta, Erreientak eman zaukon kompainiari esker labur, jandetasunezko, maiestatedun bat, ukana zuen larderia Estatuko onera erabiliko zuela goraki erran, eta gero erran zaukon ordu zela kompainiak jakin-araz zezon zer egin behar zela uste zuen Estatuaren adminiztratzen haren laguntzeko. Gaineratu zuen hanbat konfienxiarekin bazegiela, nun gogoan zuena ezpaitzen Burgoñako duke Jaunak, horrela izendatu baitzuen, deliberatua zuena baizik, eta haren paper-untzian aurkitua zena. Printze horren argien eta xeden laudorio labur eta eder bat egin zuen, gero jakin-arazi goiena izanen zen eta gobernuko egiteko guziak hartara erakarriak izanen ziren Erreienziako konseiluaz bertzalde, xede zuela bertze baten ezartzea atzerriko gauzetako, bat gerlakoendako, bat itsas-untzieriarenendako, bat dirutzetako, bat elizakoendako, eta bat erresuma barnekoendako, eta kompainiako lge-gizon zenbaiten hautatzekoa azken bi konseilu horietan

sartzeko, eta bere argiez horien laguntzeko erresumako polizian, legejakintzan, eta eliza galiarraren libertateari behatzen zaukonean.

Lege-gizonen esku-zartatzea jauzi zen, eta jendalde guziak ihardetsi zaukon. Buruzagi lehenak bilzarrea bururatu zuen Erreientari komplimendu labur batekin, hau zutitu baitzen, eta aldi berean bilzarre guzia, eta guziak joan.

(...)

5. Erreientak presondegiak idekitzen ditu

(Buruilaren 9-ko astelehenean) arratsaldeko bi orenak hirian Errege Versailles-tik abiatu zen, Erreientaren eta Ventadour-ko dukesaren artean karrosa zolan, Maine-ko dukea eta Villeroy-ko marexala aitzinean, eta Tolosako kondea athe batean, hor aitzinean baino nahiago ukan baitzuen. Parisko harresietarik iragan zen hirian sartu gabe, eta bortz orenak inguruan Vincennes-ra heldu, bide nabar ainitz jende 'ta karrosa aurkiturik iragaiten ikustera jinak.

(...)

Errege Vincennes-ra heldu eta biharamunean, Erreientak lan egin zuen goiz guzian berexki Estatuko segetariekin, manatua baitzeen ekhar zezoten bere bulegoetarik zigiluzko eskutitz guzien zerrenda, eta hauen arrazoinak, azken horietan usu arinak gertatu zirenak. Zigiluzko eskutitz gehienak, erresumatik kaporatzeko eta presondegiko jansenismo arrazoinenez edo (*Unigenitus*) konstituzioneko igorriak izanak ziren, hetan ainitzen arrazoinak errege zenaz bakarrik eta eman-araziak zauzkotenez baizik ezpaitziren ezagunak, bertze batzu lehenagoko minixtroen arokoak, hautan ainitz ez ezagunak eta aspaldidanik ahatziak. Erreientak guzier libertate osoa itzuli zeen, herriz kaporatu ala preso, egiazko gaizkin edo Estatuko egitekoetako hartuak izanak zirela ezagutu zituener salbu, eta bere buruari benedizione mugagabeak eman-arazi zauzkon zuzenbidezko eta oneziazko egintza horren gatik.

Ixtorio biziki bereziak, eta bertze batzu biziki bitxiak erran ziren hortaz, presonerren zorigaitza deitora-arazi zutenak, eta azken erreinuaren eta haren minixtroen tiraniarena. Bastillako-etan bat aurkitu zen zuela hogeita-hamabortz urte hartua, han bizi zen Italiatik Parisera ethorri zen egunean berean, eta bidaiatzera heldu zena. Ehoiz ezta jakin zergatik, eta behin ere galdekatua izana gabe, bertze gehienak bezala. Huts bat zela uste ukan nahi izan zen. Libertatea iragarri zauzkotenean, trixteki galdegin zuen bere buruaz zer egin zezakeen nahi zuten. Sos bat etzuela erran zuen, Parisen nehor ez ezagutzen, ez eta karrika bat ere,

Frantzian nehor ere, Italiako jendakiak iduriz hilak zirela hura handik joanez geroz, ontasunak ere banakatuak izanak ziratezkeela haren berririk ukanik etzuten hainbertze urtez geroz; zer bilaka etzakiela. Gainerateko bizian Bastillan egoitea galdegin zuen jatekoarekin eta bizitegiarekin. Utzia izan zizakon han hartu nahi zuen libertatearekin.

Hara minixtroen herrak eta jesuisten eta konztituzionearen buruzagienak bota-araziak zituzten preso-ziloetarik atheraiak izan zirenetan, agertu ziren izanararen izigarriak lastu zuen eta sineskarri egin libertate osoan izan zireneko erran zituzten bortizkeria guziak. Egun berean Erreientak konseilua bildu zuen errege zenaren minixtro guziekin, eta hartan sarr-arazi zituen Maine-ko dukea eta Tolosako kondea.

Erreienziako konseilua

Orléans-ko duke Jaunak ukana zuen beti Erreienziako konseiluan apezpiku baten ezartzeko xedea. Gabe egon zaitekeela uste nuen. Hortan errege zenak bezala gogatzten nuen, eta gizon zuhur orok bezala uste dut, oroz gainetik konztituzioneko egitekoen suan. Cambray-ko apezpiku zenaren abantailak, Beauvillier-ko duke zenak ene baitan zuen phizu neurrigabearen gatik, eninduen utzia sendimendu horri gerla egitera, hala nola nun bi jende horien heriotzeaz geroz ezpaitzen gehiago ondorio onekin horren kontra joaiteko ordu. Gogoa eman naukon beraz hauta zaitekeen gutienik gaitza eta onhartuena zenari, eta Orléans-ko duke Jaunari aitzineratu naukon Troyes-ko apezpiku izana (...) Orléans-ko duke Jaunak onhartu zuen eta hautatu.

Deus etzen hautu hori baino gehiago laudatua izan. Mezua igorri zaukon; ethorri zen, onhartu zuen sinorik gabe. Munduak, beti helbururako baino azkarki haratagoko jendeak behar baititu, nahiko zuen ihardokitze bat, edo ere eza. Hastapenak miragarriak izan ziren. Etzen egiteko baitezpadakoetako baizik ikusten. Neure buruari baiesmenez nindagon hoin ontsa aurkiturik. Mira horiek iraupen aski laburrekoak izan ziren; hartan huts egin nuen Torcy-ri buruz egina nuen bezala, baina osoki kontrako moldez; ezta oraino aipatzeko ordu. Erreientak egin zaukon Erreienziako konseiluan Torcy-ren ez sarr-arazteko ikustatea prelat hori aldi batez han izan ondoan baino lehen, errege zenaren azpian Estatuko minixtro izana zen Torcy-ren gainean lehentasuna ukan zezan eztabadarik gabe.

La Vrillière-ek izan zen guzia zor ukan zautan, eta, bertze nunbait erran dutan bezala, etzen nekerik gabe izan, baina urte bat baino gehiagoko lanari esker. Zuen Estatuko segetariagoko kargua atxiki zuen, Erreienziako konseiluko segetari ezarria izan zen errexixtroaren atxikitzeke, bertze Estatuko segetarien departamenduetako garazien izenpetzeke, eta Estatuko segetari batek izenpetua behar zuen guziarendako; gero ukan zuen mezuen eta segetuko manuen egitekoa, Parisko poliziaren gainean larderia, eta dembora biziki guti barne, kargutan Estatuko segetari bakarra izan zen. Hura eta Pontchartrain Erreienziako konseiluan sartu ziren, biak bozik gabe; Pontchartrain ofiziorik batere gabe. Orléans-ko duke Jaunari hunen atxikitzeaz zinkurinak egin nauzkon. Ahopiatu zuen; eragozpenean jarri zen; igurikatu behar zela uste ukan nuen; orduan enakien Pontchartrain-go kanzelariak egina zuen ikustaldia. Igurikatu nuen beraz; baina ez luzaz.

La Vrillière gizon ttipi bizi bat zen, egilea, bere aitaren bulegoetan hazia izanik hetako ohidurak bazazkiena, eginbidekoa, biziki zerbitzu egina, jendetasunduna, barnez loriosa, atherabide eta joko hatzemaiteko gaia, malgua eta munduan trebea, ohoreko gizona. Emaztean etzen zoridun, horrek andeatu baitzuen azkenean, ezin ezagutua izaiteko heinerano. Hori bere orduan aurkituko da.

Errege zenaren gortea egiten zuenaren nolatasuna eta loturak aski ezagun-arazi ditut, ene ustez, konseilu horietan sartu ziren jendeak ere, gai horri berriz lotzerik ez ukaiteko. Baina behar da oraino ikus-arazi osoan zein izan zen bozen gehienean orotaz erabaki behar zuen Erreienziako konseilu gehien hura, eta alabainan hirur urte hurbilez egiazko konseilu bat izan zena. Gaineratuko ditut bertze konseiluetako buruzagi edo Erreienziakora bere egitekoen erakartzera jiten zirenak, eta batzuetan hara deituak izan zirenak, konseilu horiek bere lehenbiziko modean gelditu zirelarik.

Erreienziako konseilua, berehala errepikatzeko, hunela egina zen beraz: Orléans-ko duke Jauna, Duke Jauna, Maine-ko dukea, Tolosako dukea, Voysin kanzelaria, ni, izendatu behar nizanaz geroz, Villeroy-ko, Harcourt-ko, eta Besons-ko marexalak, Troyes-ko apezpiku ohia, eta Torcy aburu emaileak, eta La Vrillière errexixtroarekin, eta Pontchartrain, biak bozik gabe.

Egitekoen erakartzera jiten zirenak Bordeleko arxapezpikua, Villars-ko, Estrées-ko eta Huxelles-ko marexalak, Noailles-ko eta Antin-go dukeak ziren.

Ikusten da ere Erreientak zein eta zenbat zituen adixkidetzat eduk zezazkeenak, etsaitzat edo aski orobatean. Abantzu beti gertatu zen bizkitartean konseilua bakean izan zela eta Erreienta orotako nagusi. Horietarik bakoitzak egin zuen itxura bere aroan ikusiko da.

Horrela Desmarets errege zenaren minixtroetan igorri zen bakarra izan zen Orléans-ko duke Jaunak izkiriatu zaukon eskutitz labur batez, eta sei konseiluak Parlamentuan errexixtratuak izan ziren, erran nahi da haien jartzea, ez hetan zenbat ziren ez hauen izenak. Erreienziako konseilua etzen hor aipatua izan, Erregeren konseilua baitzen, eta gobernamendua bera.

Tallard izan zen erregek bere testamenduan izendatuak zituen guzietarik erabilia izan etzen bakarra. Erotzekotan izan zela ezta batere sobera erraitea, eta sorjeskeria andana egin zuela. Orotan ibili zen erregeren testamendua bizkarrean izkiria-araziko zuela erranez: oihu egin zuen, zer nahi erran, Villeroy-ko marexala eta Rohan-darrak igorri Orléans-ko dukearen gana; zinkurina, garrasia, hisi, aphalkeria, galdukeria, guzia debaldetan egina izan zen. Erreientak, ohian hain errexa, etzuen bere burua biltzera utzi. Orotako ez bere aldekoa bezala zadukan, baina behar zen bertze arrazoin zenbait ehoiz argitu ahal eztutana, hainbertze indar eginik ere beti berdin atxiki zuena. Tallard-ek, ikusiz azkenean debaldetan ari zela, erran zuen etzuela ehortzeaz bertzerik egiteko. La Planchette erosi zuen, etxe ttipi itsusi bat Parisko ondoan, eta han hetsi zen alabainan abantzu behin ere athera gabe eta nehor hara onhartu gabe. Haren berpiztea bere aldian ikusiko dugu.

Erreienta adixkidetasunean bizi izan zen Duke Jaunarekin, neurri hotz eta jendetasunekoan Maine-ko dukearekin, goxo gehiagorekin, baina bere hartan Tolosako kondearekin. Villeroy-ko marexala irabaziko zuela uste ukan zuen estimu, ikustate, berexkuntza erakustearen bortxaz, eta konfienxia biziki irriskaturano; berriz bere gana ekharriko zuela, bederen haren xixtak eta jauziak eztituko zituela D'Effiat-en bitartez, aro guzietan haren adixkidea, eta ere hala zen Troyes-ko Jaunarenez. Lehena Maine-ko dukeari saldua zen, bertzea, arraultzetan zabilan, eta etzen gustagarri izaitera baizik menturatzen. Marexalak fagore guziak onhartu zituen eta kordokatzen ez utzia izaiten egon nahi ukan zuen. Hori guzia ezarri behar zen lehenik. Aldi bat baino gehiagotan agertuko den gauza da. Harcourt-i doakonaz, zuen osagarri zorigabeak etzuen norbait izaitera utzi, ez eta Voysin hetara eroria zen nardatasunak eta gaitzesmenak. Villars-ek nor bat egin zuen beti biziki ttipia; Huxelles-ek

ere nahiz gotortasun ainitzekin; Estrées-ek batere bezala; D'Antin-ek hain guti. Noailles-ko kardinala etzen ez goititu ez aphaldu; egiteko aski ukan zuen konztituzioneko buruzagi jukutriatsuetarik bere buruaren zaintzen. Duke Jauna oraino gaztegia, Maine-ko dukea ixilean, ilunean, bakartasunean, errespeturano jendetasunekoa, eta azken heinerano jende orori beha, ikustera bortxatua zenean; Tolosako kondea hotz, berdin, eta ohiko bizia bazeramala bere kargu berriekin akomeatu ahal ukan zuen bezenbat.

Desmarets ezin sinetsizko ustegabetze batera erori zen. Zuen ezin gehiagoko urguluak sinets-arazia zaukon dirutzen burua etzaitekeela hura gabe egon. Betidanik Villeroy-ko marexalaren adixkide mina zen; D'Effiat-ena berdin gelditua zen, hau Erret-Palazioan Béchameil, haren aitaginarrebarena izana baitzen beti. Osoki bi laguntza horier zagon beraz; baina ustegabetzea eta sumindura gainditu zauzkona haren lekuan Noailles-ko dukearen ikustea izan zen, berak hartua zuena Espainiatik itzultzean, bere orduan ikusi den bezala, norat jo etzakielarik; bere jarrailea eta ikaslea egina zuena dirutzetan, eta harendako bere omore abre guzia hertsatua zuena. Noailles-ri etzizakon harekin edozein neurriren atxikitzea burura jin ere, eta laster ikusiko da haren aldera eskergaitza norano ereman zuen. Orléans-ko duke Jaunak, bizkitartean, Effiat-ek eta Villeroy-ko marexalak bultzaturik, hirur ehun eta berrogeita-hamar mila libera eman-arazi zauzkon zerga-alokatzen berritzean, begiztatzale jeneralen zuzenbide bat zela erran zaukotenean, Desmarets-ek azken berritzean hartu nahi ukanak etzituenak, orduan Estatuko dirutzeak ziren azken heinean.

Hoin garazia azkarrak, eta hoin azkarki aldigaizka eginak, aipatu ditutan Erreientaren bertze errexkeria batzuen ondotik, eta erran gabe utzi ditutan bertze xipiago batzuen, haren baitan agindu zuten Estatuaren eta jende zuzenendako azkarki kaltegarria izanen zen ahultasun bat, eta ozarren eta atrebituendako azkarki baliagarria. Zorigaitzez, agintza ezta sobera egiazkoa baizik gertatu.

Urte azkena Parisen

Parisko ikusgarriak, errege zena azken heinera helduz geroz geldituak, berriz hasi ziren urriaren lehenean.

(...)

Orléans-ko duke Jaunak aithortu zuen D'Antin eraikuntzetako intendant-goien jeneral, Torcy postetako bezala. Horien onhartzea neke gertatu zen Parlamentuan eta konduen gambaran.

Printze hori, Monsieur-ek egiten zuen bezala, Eguberriko debozionetan izan zen Saint-Eustache-en eta Saint-Honoré-ko Aiten othoitegian. Egutegiko debozione gutiagok, eta josteta gutiagok arratsetan, bizia berdinago eta beharbezalakotasun gehiagokoa egingen zuten. Ezta oraino horien aipatzeko ordu, ez eta egunetako zuen egitarau xeheaz. Apur bat aitzinatu behar da horietan zuzenkiago hedatzeko.

Eta azkenik negilaren 30-ko astelehenean Errege Vincennes-tik abiatu zen bazkal-ondoan Parisera jiteko, karrosa batean jarria Versailles-tik Vincennes-ra jitean izana zen bezain guti behar bezala. Zolan zen Orléans-ko duke Jaunarekin eta Ventadour-ko dukesarekin; aitzinean Villeroy-ko marexala, Maine-ko Jaunaren eta Charles printze ezkutari handiaren artean; Harcourt-ko marexala, zaintzalen aldiko kapitaina, Erregeren athealdean, erran nahi da eskun. Jaun Lehenak bertze aldea lehiaz hartu zaukon Labrit-ko duke gambarari handiari, Orléans-ko duke Jaunak deitua zuena.

Jadanik argitua dut Erregeren karrosako lekuek nola behar duten, Versailles-tik Vincennes-rako bidaian. Gaineratuko dut bakarrik ez Maine-ko dukeak, ez Villeroy-ko marexalak etzutela han jartzeko arrazoinik batere Errege emazten eskuetan zen bitartean, eta haien lekuak zuzenki hartuak izanen zirela Tresmes-ko duke urteko lehen aitoren-semeaz, eta Labrit-ko dukeaz. Erakaskuntzako gizonen aitzinatzea Vincennes-en hasia zen, han bizitegiak ukan baitzituzten. Teilerietan Villeroy-ko marexalak ukan zuen bizitegi eder bat, eta gero Erreginarena hartu zuen, Erregerenari lotua, eta Maine-ko duke Jaunak ukan zuen beherean Delfinen bizitegi ederra. Fréjus-ko Jaunak bat ukan zuen gainean. Gobernari azpiko eta bertzek ukan zituzten ere.

Hiriak mintzaldia egin zaukon Erregeri ethorri zenean, jendalde handia aurkitu baitzuen bere bizitegiko barnerano. Horrela bururatu zen 1715 urtea.

Liburu bigarrenaren bururapena

AURKIBIDEA

I. Erretetxea doluminetan 1712-----	orr. 3
1713 -----	orr. 27
1714 -----	orr. 37
II. 1715 edo “mende” baten bururapena -----	orr. 67
III. Erreinu batetik bertzera (1715) -----	orr. 122

